



Ama Birjiñaren bizitza

Sor Justina Aldalur





Sor Justina Aldalur

Sor Justina Aldalur Aiako Zialtzeta baserrian jaio zan. Gazte-denboran, etxera ekartzen ziran kanta-paperekin bertsoaletu egin zan.

Amazazpi urterekin moja sartu eta Zarauzko Santa Klara Komentuan bizia da leenengo. Orain, berriz, Orduñakoan.

Bertsogintzan asi eta sail asko moldatu ditu, danak ere erlijio-gaiarekin -santu-bizitzak eta abar-, oietako batzuk *Aranzazu Ilerokoan* argitaratuak.

Azkenik, *Ama Birjiñaren* bizitza izeneko idazlan mardul au eskeintzen digu, dana bertsotan eta esatekoak Agredako Sor María de Jesús zanaren *Mística Ciudad de Dios* liburutik artuta.

36698
G45-129/15



Ama Birjiñaren bizitza

**(Sor María de Jesús de Agredaren
Mística Ciudad de Dios liburutik
bertsotan moldatua)**



AUSPOA



SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Sor Justina Aldalur

Ama Birjiñaren bizitza

**(Sor María de Jesús de Agredaren
Mística Ciudad de Dios liburutik
bertsotan moldatua)**

Auspoa Liburutegia
(1999)

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-95378-04-3

Depósito Legal: NA.: 2.491-1999

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Estella (Navarra)

Itzaurrea

SORIAKO erri bat da Agreda, Gaztelako ertz batean dagoana, Aragoitik gertu, Naparroatik ere ez oso urruti, Moncayo mendiaren oiñetan eta babesean.

Oso moja ospetsua izan zan bertan XVII mendean, Maria izenekoa, bertan 1602-an jaioa, eta bertan 1665-ean illa, bein ere bere jaioterriaren mugetatik atera etzana.

Beraren gurasoak Francisco Coronel eta Catalina Arana izan ziran. Bizkaitik zetorren onen jatorria. Amaika seme-alaba izan zituzten, oietako zazpi umetan illak. Besteak: Francisco, Jose, Maria eta Jeronima.

Mariak amasei urte zituala, 1618-an alegia, erabaki berezia artu zuan familiak: gizonezkoak fraile frantziskotar egin zitezela, eta emakumezkoak moja, etxea konbentua bihurturik, *Orden de la Inmaculada Concepción* izenekoaren azpian. *Concepcionistas* alegia, frantziskotarrak, beraz, eta oiñutsetakoak.

Sor Mariak 1620-an egin zituan bere ziñak, emezortzi urterekin. Andik laster, *éxtasis* eta orrelako grazi bereziak azaltzen asi zan, batez ere Jauna artu ondorenean. Ala, jende asko etortzen zan ura era ortan ikustera. Baiña berak etzuan iñoren ikuskizun biurtzerik nai; eta ori moztea eskatu zion zeruari. Bai lortu ere.

Ogei ta bost urte bete gabe, 1627-an, *abadesa* egin zuten; eta, iru urtean izan ezik, eta ori berak eskatu zualako, kargu edo karga ori berarentzat izan zan il arte, bere mendeko mojak aukeratuta.

Kargu ortan jarri bezin laster, komentu berria egiten asi zan, baita eliza ere, poltsan ongille batek emandako eun erreal besterik etzituala; eta etxe zaarretik berrira andik zazpi urtera aldatu ziran mojak, 1633-an.

Sor Mariaren eskutitzak –gorde izan diranak, galduak ere asko izango dira eta– mordo aundia osatzen dute. Edozeiñentzat zuan arek zer esana. Ala, Felipe IV erregea, Zaragozara zi-joala, Agredan gelditu zan 1643-ko uztailean, eta Sor Mariarekin itzegin. Andik aurrera alkarri egindako eskutitzak seireun eta amalau omen dira; eta arrigarria da mojatxo arek bere idazki oietan agertzen duan jakinduria.

Sor Maria, etzan bein ere osasun onekoa izan, eta 1665-eko maiatzaren 24-an il zan, irurogei ta iru urterekin.

* * *

Liburu bat ere idatzi zuan moja onek, *Mística Ciudad de Dios* izenburuarekin ezagutzen dana. Esku-idazkia Agredako komentuan gordetzen da gaur egunean ere.

Liburu aundia da, eta bi bider idatzia. Leenengo aldiz, 1637 urtean-edo asi eta 1643 urterako bukatua. Baiña Sor Mariak surtara bota eta erre egin zuan. Ala ere, kopia bat bazuan erregeari bialdua, eta uraxe orduan salbatu. Aitorleak, ordea, liburua berritzea agindu zion. Sor Mariak txintxo asko bete zuan aren esana; eta bigarrenko idazkera onekin bestea alperrikakoa zalakoan, erregeari leen bialdutako kopia ura ere erre egin zuten.

Sor Maria ildakoan, bere liburu orren esku-idazkia eztabaida askoren gai biurtu zan, ez Espaiñian bakarrik, baita Erroman ere. Batzuk alde eta besteak kontra, benetako sokatira egin zuten bi alderdiak urte mordoan. Txeetasun guzien berri ematerik ez dago, noski. Baiña auxe esan dezagun: auzi orrek itxi diola moja oni aldareetako bidea, orain artean beintzat.

Esan degunez, *Mística ciudad de Dios* izenburuarekin ezagutzen da gaur egunean liburu ori. Baiña Sor Mariak erantsi ziona, garai artako moda alaxe baitzan, askoz ere luzeagoa da berez. Gaia zer dan ederki adierazten duanez, alda dezagun onera oso-osorik:

“Mística Ciudad de Dios, Milagro de su omnipotencia y Abismo de la gracia. Historia divina y Vida de la Virgen Madre de Dios, Reina y Señora nuestra, María santísima, Restauradora de la culpa de Eva y Medianera de la gracia. Dictada y manifestada en estos últimos siglos por la misma Señora a su escl-

va Sor María de Jesús, Abadesa indigna de este convento de la Inmaculada Concepción de la villa de Ágreda. Para nueva luz del mundo, alegría de la Iglesia católica y confianza de los mortales”.

Zeruko Amaren bizitza azaltzen duan liburua da, beraz. Kontaera bat, alegia. Baiña bidenabar teolojia-erakuspen asko ematen dituana. Oietako bat auxe: Ama Birjiña, etxea ez-ezik, Jaungoikoa bizi dan iria dala: *Mística ciudad de Dios*.

Kontaera ori, Jaungoikoak Nazareteko dontzella aukeratu zuan unetik asten da; ura apaindu zuten doaiak zein diran adierazten da; aren bizitzaren gertaerak agertzen dira...

Baiña gertakizun oiek ez dira Ebanjelioak kontatzen dituanak bakarrik. Oiekin batera, beste asko ere bai. Nundik ikasiak? Iturri ori Sor Mariak berak aitortzen du bere izenburu luze ortan: *“Dictada y manifestada en estos últimos siglos por la misma Señora a su esclava Sor María de Jesús”*.

Dana dala, *dictada* eta *manifestada* itz oiek nola ulertu bear diran, Sor Mariak berak beste lerro auekin argitzen digu:

“Enseño y conozco el modo de enseñarme y hablarme e ilustrarme, que es semejante y a la manera que los mismos ángeles se dan luz y comunican y hablan unos con otros y alumbran los superiores a los inferiores. El Señor da esta luz como primera causa, pero de aquella participada, que esta Reina goza con tanta plenitud, la comunica a la parte superior del alma, conociendo yo a Su Alteza y sus prerrogativas y sacramentos de modo que el ángel inferior conoce lo que le comunica el superior... Lo mismo me sucede con los santos príncipes; y así me lo ha mostrado muchas veces el Señor, que la comunicación e ilustración con mi interior es como la tienen ellos entre sí mismos”.

Gu ez gera auzi ortan sartuko. Bakoitzak derizkiona pentsa dezala. Baiña beste alderdi au aitortu bearra degu: Ama Birjiñarengako jaieraz eta maitasunez betetako liburua dala; eta orri auek idatzi dituan anima zero-bidean oso goi zijoala.

Bestetik, berriz, izkuntza eta literaturaren aldetik liburu ona da. Egillea Espaiñiako idazle klasikoan taldean jartzen duana. Ala, *Real Academia Española de la Lengua* deritzanak *Catálogo de Autoridades* zerrendan sartu zuan Sor Mariaren izena 1726 urtean.

Mística Ciudad de Dios liburu au 1670-ean argitaratu zan leenengoz; eta geroztik, eun ta irurogei ta bi aldiz gutxienez, guk ezagutzen degun zerrendan ikus ditekenez; eta izkuntza askotara itzulia: portugesa, frantsesa, holandesa, italianoa, flamenkoa, latíña, alemana, polakoa, griegoa, arabea, inglesa, kroata...

Guk esku artean erabili degun argitalpenak onela ematen ditu liburuaren ezaugarriak:

“Sor María de Jesús de Ágreda: *Mística ciudad de Dios / Vida de María / Texto conforme al autógrafo original / Introducción, notas y edición por Celestino Solaguren, ofm / Con la colaboración de Ángel Martínez Moñux, ofm, y Luis Villasante, ofm / Madrid, 1970 / Reimpresión, 1982*”.

Euskaltzaindiaren buru izendatu zuten baiño leenagoko lana izango zuan ori Aita Luis Villasantek. Baiña beste izen eza-gun batzuk ere arkitu ditut, argitaraldi orrekin era batera edo bestera zer ikusirik izan zuten frantziskotarretan: Kandido Zubizarreta, Martzelino Asurabarrena, Inazio Ormaetxebarria...

Mardula ere bada Sor Mariaren liburu au. Guk erabili degun argitalpenean, luze-zabalean aundi samarra izanik ere, mila lareun larogei ta amabot orrialde ditu, beintzat. Eserialdi batean eta bitan irakurriko ez dana, beraz.

* * *

Sor Maria jaio eta irureun ta ogei urtera, 1922-ko azaroaren 27-an alegia, Gipuzkoako Aian nexka bat munduratu zan, amalau senideren famili baten barruan. Justina ezarri zioten izena. Berak onela idatziko zuan denborarekin:

Gipuzkoako Aiakoa naiz,
etxe Zialzetakua,
Esteban santuaren eleizan
niñuen bataiatua.
Eleiza ontan asko alditan
sakramentuak artua,
oso maitea genduan danok
Ama Doloretakua.



Zialtza baserria, Aia.



Zialtzetako familia. Sor Justina, amaren besoetan.

Urte aietan bertso-paperak indarrean ziran oraindik ere. Zialtzeta baserrira ere norbaitek ekartzen zituan, eta Justinak kantatu egiten zizkien bere gurasoei jai-arratsaldeetan. Auen gozamina alaba gaztearen aotik bertsoak entzutea izango zan; baiña bai bera ere bere denbora guzirako zaletu ere.

Amazazpi urterekin moja sartu zan Zarauzko Santa Klara komentuan; orain, berriz, Orduñakoan bizi da. Baserri-lanak jaiotetxean ondo ikasiak baitzitan, baratza bere kontu izan du beti bi komentu oietan.

Baiña bertsoak aaztu gabe, ordea. Eta bera ere bertso jarzen asi zan. Ala, bertsoak baditu Arantzazuko eliza berriarentzat moldatuak, San Joseren bizitza, San Inaziorena, Santa Klararena eta abar eta abar. Erlijio-gaiak beti ere. Oietako batzuk, ez nuke orain zenbat esango, *Aranzazu* illerokoan agertu ziran.

* * *

Gauzak orrela dirala, 1998-ko martxoaren bukaera zala uste det, telefono-dei bat izan genduan. Norena eta leendik ere ezagun eta adiskide genduan jaun batena: Aiako alkatearena, Juan Karlos Zuloaga beraren izen-abizenak: ara joateko faborez, guretzako zerbait bazuala eta.

Urrengo goizean joan giñan. Eguraldi eguzkitsu ederra zegoan. Udaletxera sartzetakoan, atean an ikusi genduan gizaseme sendo bat, arretaz eta erdi-irriparez begiratzen ziguna. Alkar agurtu genduanean, alkateak berealaxe sartu arazi zuan ateondoko ura. Nor izango eta Sor Justinaren illoba: Jose Mari Orbegozo jauna.

Alkateak eta illoba onek zera esan ziguten: Sor Justinak Ama Birjiñaren bizitza bertsoan idatzi eta illoba orri bialdua zuala, eta ea argitaratuko genduan.

Orretarako aren esku-idazkiak bear genituala erantzun genien. Fotokopiak, beintzat. Eta gero gerokoak.

Andik laster, fotokopia-mordo aundia etorri zitzaigun. Izeba mojak Orduñatik Aiara bialdutako orrienak ziran, aren illobak, leen aitaturako Jose Mari Orbegozok eta bere emazte Jemma Aurizeneak, txukun eta arretaz gordeak. Baiña ez danak batera etorriak, egin-alean baizik. Aldi bakoitzean bertso-mordoska

bat, aurretik kartatxo bat zala. Merezi du eskutitz oietan esaten dana onera aldatzea, familiaren kontuak kenduta noski, liburu au nola egiña dan ikus dezagun:

Orduñako Santa Klaran, 1997-ko otsailak 8:

“Emen biraltzen dizkitzuet bertso berrietan Ama Birjiñaren bizitzako pausoak. Jaungoikoaren laguntzarekin, jarri ditut bertsoetan, *Mística Ciudad de Dios* izena duan liburutik artuta. Sorian dago Agreda. Erria izango da. Sor Maria Jesus de Agreda deitzen dien moja kontzensionista batek eskribitua da erderaz. Eta Eleizak aprobaturia aspaldi. Biraltzen dizkitzuet, Ama Birjiñan bizitza zuek egiten jarraitzeko. Geiago egiten ditudanean, biralduko dizkitzuet, Jaungoikoak nai badu. Goraintziak danori. Baita erreto-reari ere. Beste bat arte agur”.

Ondorengo orrietan, eun ta berrogei ta amar bertso bialtzen zituan, letra egoki eta garbiz idatzita. Baita ere, aurretik, lantegi ortan noiz asi zan adierazten duan argibide au: “Orduñako Santa Klaran, 1996-ko abenduak 8”. Sortzez Garbiaren festa-egunean, beraz.

Urrengo mordoska, 151-230 bertsoak, 1997-ko martxoaren 8-an bialdu zuan, aurretik onela esanez:

“Emen biraltzen dizkitzuet bertsoak, Ama Birjiñaren bizitza egiten segi dezazuen. Jaungoikoak nai badu, segiko det illero biraltzen, bizitza oso luzia da ta, Ama Birjiña il da zerura juan arte, gorputz ta anima”.

1997-ko apirillak 6-an, 231-310 bertsoak, lerro jakingarri auekin:

“Emen biraltzen dizkitzuet nere bertsoak, Ama Birjiñaren bizitza jakin dezagun euskaldunak. Uste det lana ugaritzen dizuetala zueri. Baiña Jaungoikoak poza emango dizue barruan. Nik, nere lanak utzi gabe, tar-tean egin ditut orain arte, eta aurrera ere alaxe segi nai det, Jaunaren laguntzarekin”.

1997-ko maiatzaren 4-an, 311-390 bertsoak, eta:

“Illero bezela, emen biraltzen dizkitzuet bertsoak. Jaungoikoaren laguntzarekin, nere eguneroko lanak utzi gabe, eta iñori ezer esan gabe, egiten ditut bertso auek. Abadesari ematen diot karta itxita, eta jartzen dio sei-

Ilua ta biraltzen dizue. Ondo daki zuk eskatu zeniola biraltzeko baimena. Eta berak eman zidala. Igandeetan eta siestako denboran egiten ditut geienak. Baiña beiñere baiño bixkorrago nabil, egitan. Ama Birjiñak laguntzen dit...”.

1997-ko ekainaren 1-ean, 391-470 bertsoak; eta:

“Ondo, fuerte eta pozik bizi naiz Jaungoikoaren etxean, berari eskerak. Emen biraltzen dizkitzuet nere bertsoak, illero bezela. Ama Birjiñak lagun deizuela liburua egiten. Etzaizue damutuko ondo egiña, zuen bizitza osuan.”

Illero bazion ere, urrengo mordoska, 471-558 bertsoak, ille berean bialdu zuan Sor Justinak, 1997-ko ekainak 28 zituala, albiste auek emanez:

“Emen biraltzen dizkitzuet nere bertsoak. Jaunaren laguntzarekin egin ditudanak. Il ontan beiñere baiño lan geiago sortu zaigu, baratzen eta gai-xoakin. Baiño beiñere ez det uste orren fuerte izan naizenik, Jaunari eskerrak. Atzo sega xar bat pikatu nuan, eta belar txar eta asuna ebakitzen pasa nuan arratsaldea, baiña oso ondo. 74 urte dauzkat, baiña etzait iruditzen. Il ontan Gasteiz eta Vitoria deitzen diogun Seminarion izan gera abadesa Begoña Angulo, Pilar eta ni. Lege zibilletan Bizkaiakoak gera, baiña Elizaz Bitoriakoak. Gotzai Jaunak deitu zigun, nai genduan danak juateko. Orrengatik juan nitzan ni ere. Oso ondo pasa gendun eguna, il onen 23. Artzai ona bezela, gure kontua dauka, eta esan zigun bere alegiña lagunduko zigula. Alaban gauden zazpi klasetako klausurako mojak juan giñan: karmelitak, klarisak, agustinak, brijidak, salesianak, dominikak eta Zister edo San Bernardorenak. Ogei ta beatzi moja izan giñan, eta danok gustora.

Baiña beiñe baiño erreztasun geiago izan det bertsoak jartzeko Ama Birjiñaren bizitza. Ikusten dezue: askotan letrak oker egiten ditut. Ori nere auldadean kulpada”.

1997-ko uztaillaren 26-an, 559-646 bertsoak, eta:

“Emen biraltzen dizkitzuet, illero bezela, Jauna lagun atera ditudan bertsoak, *Ama Birjiñaren bizitza* esaten dan liburutik artuak. Gaur ezin det esan oso zuzen nabillela. Abadesak eman ziran pakete aundi bat papel berri eta onakin, eta len neuzkan txikiaguak neuzkan gaiñean, eta oraiñ ikusi det diferenteak jarri ditudala. Zarraren kontua da au. Saiatuko naiz urrenguan igualak biraltzen, Jaungoikoak nai badu”.

1997-ko agoztuaren 23-an, 647-734 bertsoak, eta:

“Emen biraltzen dizkitzuet nere bertsoak, illero bezela. Oso ondo nabil osasunez. Bi moja xar dauzkat nere kontura zaitzeko. Berak gustora dau-de nerekin. Eta ni ere bai berak zaitzen. Ez didate lan asko ematen, eta bastante denbora daukat kanpo-lanetarako. Aurten ez degu fruta on asko, baiña marrubiak oso asko. Landare asko aldatu nituan, eta ura asko daukagu regatzeko. Bi egunetik bein biltzen ditut iru fuente aundi, eta Jaunari eskerrak pozez jaten ditugu. Baita fruta ederra ere erosita. Fruterua etxe-ra etortzen zaigu bere furgoneta aundirekin. Oso ondo jan eta edan egiten degu, Jaunari eskerrak”.

1997-ko irailaren 29-an 735-822 bertsoak, eta:

“Emen biraltzen dizkitzuet Jainkoan laguntzarekin egin ditudan bertsoak, Ama Birjiñan bizitza jartzeko, illero bezela. Baguaz aurrera, baiño oraindik asko palta degu. Ni oso ondo nabil, eta gustora ari naiz lan au egiten. Uste det euskaldunak obeagoak izango gerala gauza auek jakite-an. Zuek ere ez aspertu, faborez! Jaungoikoak dana ordainduko dizue egunen batean. Liburu au eskribitu zuan moja kontzezionista batek, Sorian, erderaz. Ama Birjiñak agindu omen zion: Ebanjelistak esan etzituen gauzak ere egiak zirala eta eskribitzeko”.

1997-ko urriaren 25-an, 823-910 bertsoak, eta:

Emen biraltzen dizkitzuet Jaungoikoan laguntzarekin egin dituan bertsoak, illero bezela. Zuek alegiña egin egia zabaldu dedin. Urteak uste gabe dijuaz, baiña geroko pozan esperantzak alaitu eta indartzen gaitu. Geiago gabe, goraintziak danori. Zuen izeba Mariari ere bai. Oso ondo bizi naiz ni, esatea aztutzeraiño. Ondo bizi danok”.

1997-ko azaroaren 23-an, 911-998 bertsoak, eta:

“Jesus eta Ama Birjiñak lagun deizuela danori. Baita Aian bizi diran danari ere. Auxe eskatzen egunero nago. Ni oso ondo eta barruko pake aundi batekin bizi naiz. Auxe desiatzen dizuet zueri ere. Emen biraltzen dizkitzuet Jaungoikoaren laguntzarekin egin ditudan bertsoak, Ama Birjiñan bizitza jartzen jarraituaz. Urrengo illean, al dedanean, biralduko dizkitzuet berriz, Jaungoikoak nai badu”.

1997-ko abenduaren 19-an, 999-1.086 bertsoak, eta:

“Urte Berri on danori 1998-koa. Emen biraltzen dizkitzuet Ama Birjiñan bizitza jartzeko, Jaungoikoa lagun egin ditudan bertsoak. Baita ere biraltzen dizuet ojatxo bat moja onena, Maria Jesus, Agredakoa, Sorian da-

gon errikoa. Onixe agindu zion Ama Birjiñak ebanjelistak esan etzituen gauzak eskribitzeko; eta onek eskribitu zuan Ama Birjiñan bizitza erderaz. Eta ni liburu ontatik ari naiz jartzen euskeraz bertsoan gauza aundiñak”.

1998-ko ilbeltzaren 13-an, 1.087-1.174 bertsoak, eta:

“Emen biraltzen dizkitzuet Jaungoikoan laguntzarekin jarri ditudan bertso berriak. Denborale ontan jai asko izan ditugulako, azkarxeago egin ditut, Jaunari eskerrak”.

1998-ko otsaillaren 2-an, 1.183-1.262 bertsoak. Baita bertsoak kantatzeko bi doiñu ere. Eta aurretik:

“Emen biraltzen dizkitzuet illero bezela nere bertsoak, liburua egiteko. Ez det nik ezer berririk atera. Eleizak aprobatutako libruak jartzen dituan gauzak, euskeraz bertsoan jartzea besterik ez det egiten. Barkatu: oraindik ez det bukatu.

Lengo egun batean izan degu emen bixita bat; deitzen dioe *Ministra del Gobierno Vasco*. Maria Karmen Garmendia Lasa du izena, bere sekretaria eta lagunakin. Onek eskatu ziran, eskribitzen ari naizen Ama Birjiñan bizitza, berak ere nai duala. Oso euskera polita eta ia nun ari zeraten egiten. Esan nion ez dakitala. Eskatu ziran: “Alkarren berri jakin bear degu”. Beste geiagok ere eskatu dirate liburu ori, egiten danean. Ama Abadesak ere esan ziran: “*Vamos a ser famosas, vendiendo ese libro de la Sma. Virgen*”. Estimatu nuke zuen erantzuna. Emen biraltzen dizkitzuet bi doiñu klase, bertso oiek kantatzeko”.

“Ia nun ari zeraten egiten. Esan nion ez dakitala”. Liburua inprentan zala usteko zuan, itxura danez, Sor Justinak. Baiña danok dakigu inprentatzeko lanak zenbat naaspil ekartzen duan eta zenbat diru kostatzen dan. Eskerrak illobak arazo ori zuzen bideratu zuten, udalarekin itzegiñez eta abar.

1998-ko otsaillaren 21-ean, 1.263-1.350 bertsoak, eta:

“Uste det orain zerbait esplikatzea komeni dedala. Emen biraltzen dizkitzuet, illero bezela, nere bertsoak, zuek liburua egiteko, bukatzen dedanian. Oraindik beste karta paren bat badauzkatala egin bearrak iduritzen zait.

Ikusiko niñuzuen telebisioan, juañ dan ostegun eta ostiralean. Duda gabe esango zenduen: “Zer dabil gure izeba?”. Esango dizuet egia. Nik zueri biraltzen dizkitzuet bertsoak, zuek liburua egingo dezuen esperantzan. Eta zueri biraltzen dizuetan kopiak egiten ditut, neuk akordatzeko nola ziran. Gure mojak zabaldu didate ni bertsolaria naizela. Eta onera gu bixita-



Sor Justina, neska koskorretan.

tzera etorri ziranak, eskatu ziraten zerbait kantatzeko edo asmatzeko. Ez det balorerik nik asmatu ta arpegira esateko. Eta erakutsi nien, zueri biraldutako danen kopiak koaderno zar batean. Auxe izan da dana. Nai izan zuen zabaltzea telebisioan”.

1998-ko martxoaren 12-an, sarrera-moduko bat, bertsoak liburutan nola banatu bear ziran adieraziz; ondoren, 1.351-1.438 bertsoak, eta gaiñera:

“Emen biraltzen dizkitzuet, Jainkoa lagun egin ditudan bertso berriak; uste det beste karta batekin bukatuko ditugula, Jaungoikoak nai badu. Liburu onek zortzi liburu txiki ditu. Jarri dizuet *sarrera*, liburu oietan zer esaten diran eta numerotan dauden. Badakizue nik eskola gutxi izan dedala. Atxurra eta sega manejatzen ibili naiz urte askuan. Eta Jaunak nere esku kaloz beteak aukeratu ditu, Ama Birjiñaren bizitza eskribitzeko. Eta zuek, Euskal Erri osuan liburua egiteko. Eskerrak eman deizkagun Jaunari guztiagatik.

Errezatzen dizuet nere eguneroko otoitzetan. Ezer geiago falta bada, esan faborez, ni ezjakiña naizelako. Saiatuko naiz urrengo kartaren azkeanean bertson bat jartzen, esanaz zueri biraltzen dizkitzuetala liburua egiteko”.

Azken bialketa 1998-ko martxoaren 25-ean egin zuan, falta ziran bertsoak idatzi eta liburua osatuz. Eskutitzean onela zion:

“Illoba Joxe Mari, emen biraltzen dizut Ama Birjiñaren bizitzaren azkeneko karta. Orain zure kontu gelditzen da. Estimatuko genduke onera ere biraltzea saltzeko, al baldin bada. Eske dauzkatanak pagatuko due balio duena. Zuk dakizu zer gastu egingo diran paperakin, inprentarekin eta denborarekin. Guk eskatuko degu balio duana. Orduñan eta Amurrion zabaldu due nola ni ari naizen Ama Birjiñan bizitza euskeraz bertsoan jartzen. Jaunari eskerrak, ni oso ondo nabil osasunez. Loari kendu diot pixka bat, baiña orain pozez nago, zuk librua egingo dezun esperantzan. Zerbait gertatzen bada, izan konfiantza esateko”.

Beste eskutitz batean onela zion Sor Justinak, 1996-ko azaroaren 26-an:

“Ni oso ondo eta pozik bizi naiz Jaunari eskerrak. 74 urte bete ditut, eta iduritzen zait 34 urte dauzkatala. Zer zoriona dan neria! Eskerrak Jaunari zor dizkiot ugari. Emen biraltzen dizuet nere erretrato txiki bat, Orainxe aterria da karneta egiteko, Joxe Marik nai badu, liburuan jartzeko. Olakoxe xarra nago, baiña bixkorra”.

* * *

Azken sortatxoa bialtzearekin, "orain zure kontu gelditzen da" illobari idatzi eta ederki lasaituko zan gure Sor Justina. Onek uste osoa zuan bere illoba orrengan. Ona nola dion bertso batean:

Orbegozotar Joxe Mari da
aizparen seme maitea;
Aian bizi da, Aurizenea
Jemma dauka emaztea.
Gozategi Enparantzan daude,
zortzigarrengoa atea,
onek egingo digu liburua
maitetasunez betea.

Esku-idazki oiek ordenagailluz pasatzeaz eta moldiztegiaren lanaz aaztuta, liburuaren salmentaz asia zan pentsatzen: "Estimatuko genduke onera ere biraltzea saltzeko, al baldin bada". Olakoxea izaten da beti edozein liburu-egillek bere lana irakurleen eskuetan jartzeko izaten duan presa.

Leen esan degunez, andik egun gutxira izan genduan guk Aiako alkate jaunaren deia. Itxura danez, ordurako alkarrekin itzeginda zeuden bera eta Sor Justinaren illoba, liburua nola argitara zitekean eta abar. Bikote onek bazekian, bai, arazo ori nola eta nundik bideratu bear zan.

Fotokopiak ere andik laster etorri zitzaizkidan neri. Begiratu bat eman nien, eta izututa gelditu nintzan. Milla ta bosteun bertso baiño geiago ikusi nituan, bakoitzak bere zenbakia zuala. Oiek danak noizko kopiatu? Zenbat ordu artuko zizkidan zeregin orrek?

Aurtengo (1999) abuztuaren zati aundi bat ortan bota det, nigan bi berotasun sentituz: eguraldiarena eta Sor Justinaren Ama Birjiñarenganako debozioarena. Esan bearrik ez dago bigarrengo onek ez didala batere kalterik egin; bestea urteroko kontua da, eta garaian garaikoak.

* * *

Sor Justinak badu gauza bat zenbait aldiz errepikatzen duana eta Agredako mojaren liburuan izango ez dana: Ama Birjiña bertsolaria izan zala. Ala, bertso berriak sortzen zekiana

zala adierazten digu; bere gurasoekin kantatu oi zuana, eta aingeruak berak ere austen zituana:

Jakin dezagun: Ama Birjiña
bertsolaria genduan,
aingeruakin bertsok kantatzen
autsi egiten zituana.

Ori esateko nun artzen ote du oiñarri? Ebanjelioak dionez, Ama Birjiñak, *Magnificat* kantatuz agurtu omen zuan bere leengusu Santa Isabel, bisitaz joan zitzaionean. Kantu berri bat sortu, alegia. Ortik, beraz, dudarik gabe.

Dana dala, zera ikusten da argi eta garbi: Aiako alaba onek gauza miresgarritzat daukala bertsolari-sena; eta, orregatik, Zeruko Erregiña ere doai orrekin apaindua ikusi nai dala.

* * *

Oztopo bat izan nuan asi aurretik. *Auspoa*-ren liburuetan, luze-zabaleko neurriak ala eskatzen dutelako, lau zortziko nagusi sartzen ditugu orrialdeko. Baiña 1.532 bertso launaka banatuta, 383 orrialde ematen zituana. Ortaz gaiñera, sarrerak, itzaurrea, atal-etenak, argazkiren bat edo beste, arkibidea... La-reun orrialde baiño geiago, beraz. Geiegi, dudarik gabe, liburu baterako. Bi liburu orduan? Etzan erdibitze ori batera komeni. Zer egin?

Bertsoak bi zutabetan jarri ote zitezkean probatzen asi nintzan orduan. *Auspoa*-k luze-zabalean neurri berriak asi berriak ditu, eta ori gure asmoen alde zetorren. Letra-tamaiña txikixea-goa jarri nion; eta beste letra-mota bat ere bai: leen *bookman-light* izenekoa, eta orain *helvetica*, au estuxeagoa da eta. Orre-la, zortzi bertso sartu aal izan ditugu orrialdeko, liburuaren loditasuna erdiraiño jexiz. Irakurtzeko erosotasuna agian pixkaren bat galdu bada ere, liburu guzia ale batean eskeintzea askoz ere mesede aundiagoa dala uste degu.

* * *

Sor Justinaren izkuntza, amazapi urterekin konbentura joan zan ezkerro, beraren jaioterri Aian eta jaiotetxe Zialtzetan ikasi zuana da noski. Euskera garbi eta jatorra, dudarik gabe, Eus-

kal Erriko txoko eder ortan egin oi dana. Eta beste iñungo euskeraren kutsurik ez duana.

Orregatik, berezitasun batzuk baditu, asieran irakurlea pixkatxo bat naastu dezaketenak. Aditzarenak batez ere. Ala, ez du *dute*, *zuten*, *zituzten*, *niñuten*, *bazekiten*, *zeukaten* eta abar esaten, *due*, *zuen*, *zituén*, *niñuen*, *bazekien*, *zeuken* eta abar baizik. Aldi danetan ere gauza bera da: "t" letra izkutatu edo galdu egiten dala. Baiña orren berri ez dakian irakurleak oker artu dezake, bakarrarentzat (singularrean) artuz, berez askorengatik (pluralean) esaten dana.

* * *


Esan bearrak esan ditudala uste det. Bi mojen artean egindako liburua eskeintzen diogu gaurkoan irakurleari: bata Soriakoa eta XVII mendekoa; bestea gipuzkoarra eta XX-koa. Orra nola lotzen diran mundu ontan eta uste gabeen urrutieneko ari-muturrak. Idazlan ori ar dezagun, beraz, tarteka eskue-tan, eta Ama Birjiñaren bizitza pixkanaka irakurri. Mundu ontako naaspil eta korapilloetatik oso urrun bizitutako bi biotzek moldatua da. Ez digu kalterik egingo zeru-pakea nagusi dan goi-alde oietara noizbeinka alde egiteak.

A. Z.

Doiñuak



Ber - tso be - rri - ak jar - tze - ra



nu - a i - ñork nai ba - du a - di -



tu, A - ma Bir - ji - ñak Eus - kal E -



rri - an a - lai i - ku - si nai gai -



tu. A - ma da - la - ko ne - re bu -



ru - a be - rak de - ze - la ar - gi -



tu, e - ta Jau - na - ren es - pi - ri -



tu - a gu - gan de - ze - la be - rri - tu.

Lenengo liburua

**Santa Maria izan zan
Jaunak aukeratua.
Izan zan Sortzez Garbia.
Bere jaiotza.
Bere egitekoak eta
nola izan zan Eleizan eskeiñia.**

1
Bertso berriak jartzera nua
iñork nai badu aditu,
Ama Birjiñak Euskal Errian
alai ikusi nai gaitu.
Ama dalako nere burua
berak dezala argitu,
eta Jaunaren espiritua
gugan dezala berritu.

2
Birjiña, zera Jaunaren Ama
ta gure Ama benetan,
Erregiña zu aingeruena
bizi zera zeruetan.
Lagun eiguzu orain da beti
gure lurreko lanetan,
zure bizitza kanta dezagun
bakoitzaren doiñuetan.

3
Jaungoiko Aitak goguan zeukan
betikotasun osuan
bere Semea gizon eginda
biziko zala munduan.
Emakume bat beretzat Ama
aukeratuta zeguan;
gu bizitzeko zeru ta lurra
itz batez sortu zituan.

4
Sortu zituan aingeru asko
zeruan an bizitzeko,
baiñan lenengo agindu zien
Jaungoikoa serbitzeko;
Semea gizon egingo zana
danak adoratzeko,
ta bere Ama izango zana
Erregin ezagutzeko.

5
Aingeru auek grazi-doaiez
zeuden oso edertuak,
ona ta txarra ezagutzeko
Jaunak danak argituak.
Izan zituen denboraleak
ateratzeko kontuak,
baiñan Luzifer eta lagunak
izan ziran arrotuak.

6
Luzifer onek, inbiriakin
eta oso arrotuta,
aingeru asko bildu zituan
gezurrez engaiñatuta.
Izugarrizko maldizioak
esan zituan puztuta:
“Emakume oi nik botako det
nere eskuz apurtuta!”.

7
Jaunak erantzun: “Emakumeak
jarriko zaitu aulduta,
zuri burua jarriko dizu
zapaldu eta lertuta.
Zuk eriotza sortzen badezu
arro munduan sortuta,
Itzaren Amak apaltasunez
jarriko ditu piztuta”.

8
Jaunak errukiz aingeruari
eman nai zien zerua,
legea bete nai ez bazuen
zeukatela inperua.
Agertu zien nolakoa zan
pena samiñez sutua,
ta berentzako zan koroï bana
gizonentzako kendua.

9

Joan santuak dion bezela
Apokalipsis libruan,
lenengo gerra aingeruena
zeruan izan genduan.
Migel santuak Jaungoikoaren
baimena eskatu zuan,
baimen onekin ain indartua
Jaunak Migel jarri zuan.

10

Sortu zan gerra oso aundia
zeruetan lenengoa,
entendimentuz ta borondatez
alkar menderatzekoa.
Migel santua bere danakin
zan Jaunaren aldekoa,
eta Luzifer bere danakin
Jaungoikoan kontrakoa.

11

Luziferrek au blasfemiz zion:
“Lege au ez da zuzena:
gizonak gora ain jasotzea.
Ni naiz emen ederrena.
Izarrak dauden baiñan gorago
ni naiz jarriko naizena.
Jauna bezela ni jarriko naiz,
au da neri zor zaitena”.

12

Migel santuak erantzun zion:
“Nor Jaungoikoa bezela?
Mututu adi, blasfemi aundik
ezin entzun ditezela!
Juan ai gugandik, errukarria,
illunpetan abillela,
eta segi zak inpernuetara
etsai biurtu aizela!”.

13

Migelek bere aingeruari
esana zien orduan:
“Guk Jainkoaren espiritua
artu dezagun goguan.
Emakume au errespetatu
ta adoratu munduan,
Itzaren Ama izango da ta
gure Erregin munduan”.

14

Ez da errexu guk esateko
zeruetan gertatua:
Ama Birjiña zuen zeruan
seiñalea agertua.
Migel santuak Luzifer zuan
indarrez menderatua,
ta inpernura amildu zuan
diabrua biurtua.

15

Aingeru danak lenengotikan
izarrak ziran zeruan,
ta diabruak irugarrengo
partea eramane zuan.
Ondorenean auxu entzun zan,
Jaun Semeak esane zuan:
“Orain egin da osasuna ta
dana Kriston erreinuan.

16

Ai lurreko ta itxasokoak,
errukitzen naiz zuekin,
zuek galtzera juan da etsaia
amorrue aundiarekin.
Baiña nik dana barkatuko'iet
nere maitasunarekin.
Nai det gizonak bizi izatea
beti zeruan gurekin”.

17

Etsaiak lana egin nai zuan emakumea galtzeko, zekielako izango zala berai burua lertzeko. Jaunak etzion baimenik eman Ama-Semek tentatzeko, zien arrabiz umillatu zan Jaunari au eskatzeko:

18

“Zure eskua latza izan da ni gogor kastigatzeko, eta sortuko diran gizonak zaude gora jasotzeko. Zure baimena badet gizonak tentatutzen ibiltzeko, nai det baimena Kristo ta Ama oiek ere tentatzeko”.

19

“Ez da justua zuk diozuna, Kristo dezu Jaungoikoa, ta bere Ama zure mendean iñoiz jarri gabekoa. Baimena dezu bestien eran auek tentatutzekoa, baiñan ez dezu emakume au gorputzen ikutzekoa”.

20

Jaunak baimena emana zion etsaiak gu tentatzeko, Jainkoa lagun gure indarrez etsaiak menderatzeko. Gure lurreko neke-lanakin Jaungoikoa serbitzeko, eta etsaiak galdu zituen koroak guri jazteko.

21

Jakinduria Jaunarekin zan mundua sortu zanean, Kristo ta bere Ama zebiltzan Aitaren oroimenean. Kriston antzeko egiña zuan eguzkia lur gaiñean, ta illargia Ama bezela argitzeko illunpean.

22

Jaunak egiña izan zan Adan seigarren egunean, etorriko zan Kriston antzeko grazizko osasunean. Ta egin zuan emakumea, Eba, edertasunean, etorriko zan Ama Birjiñan antza zuana danean.

23

Adan da Eba grazi-bizitzan zeuden oso edertuak, ta egunero Jaunak berekin esaten zitun kontuak. Etsai arroak ikusi zitun ain Jaunaren gogokuak, baiñan etzion Jaunak agertu nola ziraden sortuak.

24

Ikusi zuan etsaiak Adan ederra gizasemea, dudatu zuan bera ote zan Kristo Jainkoan Semea. Ikusi zuan berekin Eba, ederra emakumea. “Au izango da bere Ama” ta zegon amorruez betea.

25

Etsaiak zion: "Ezingo det nik autsi Kristo Jaungoikoa. Au izango da beraren Ama", oni zion gorrotoa. Ikusi zuan emakumea indar gutxiagokoa, ta bazekian zer lege zeuken Jaunak agindutakoa.

26

Etsaiak ezin eraman zuan Ebaren bizitza ura, ta esan ezin diran txarkerik ixuri zizkan burura. Pentsatze txarrez eta gezurrez auldu zuan Eba ura, sinistu zuan gezurra eta bota zuan pekatuta.

27

Eba juana zan Adanengana gertatua esatera, Adanek ere sinistu zuan, erori zan gezurrera. Jaunak etsaiari: "Etorri zera emakumea galtzera. Etorriko da emakume bat zuri burua lertzera".

28

Adan da Eba damutu ziran pekatu egin onduan, agindu zien lana egiñaz ugaritzeko munduan. Geroagoan igarleakin Jaunak itz egiten zuan, jaioko zala Salbatzaillea agindu zien orduan.

29

Bere poza zan itz egitea gizonan semearekin; Abraham eta Isaac eta Jakob eta Moisesekin. Jainkoa gizon egingo zala esanaz igerleakin, danok zerura jasotzearren erruki aundiarekin.

30

Igarle aundi Isaiasek agindu zigun lendikan Kristo Mesias jaioko zala Birjiña batengandikan. gertuko zala aur txiki bat Jaungoikoa izanikan, "agintaritza eramango du bizkarrean arturikan".

31

Ugarituak ziran munduan Adanen ondorengoak, justuak zeuden Jaunari eske: "Bete zuk esandakoak. Biraldu zazu Kristo Mesias salbatzeko lurrekoak". Baita oso ugarituak ziran gaizto-gaiztoenekoak.

32

Etsai gaiztoa arro jarri zan gaizto guztien buruan, Jaungoikoari asarretzeko amorrazio osuan. Ezerezera biurtutzea danok merezi genduan, Jaunak orduan gizon danakin errukia izan zuan.

33

Au zan denbora aukeratua
Jaunak guri argitzeko,
Kristo Mesias bazetorrela
munduari agertzeko,
Nazaretoko Joakin santu
justuari entzuteko;
otoitz au sarri egiten zuan:
arren, Kristo bialtzeko!

34

Ana santa zan gazte garbia,
santa aurra zanetikan,
umilla eta ederra oso
zeukan Jaunak eskutikan.
Eskatzen zuan “Kristo biraldu”
sarri ta biotzetikan;
deseo zuan maitasun ori
nago esan eziñikan.

35

Santu Gabriel biraldu zuan
Jaunak Ana onengana,
ta esan zion: “Zure otoitzak
igo dira Jaunagana.
Zure senarra izango dezu
Joakin izena duana,
lege santua betetzen lagun
zurekin izango dana”.

36

Gabriel au zan Joakin oneri
gau batean agertua,
zion: “Zuk Ana artu emazte,
da Jaunak bedeinkatua”.
Ondorenean Joakinek Ana
beretzat zan eskatua,
Ana garbia Joakin onekin
izan zan esposatua.

37

Auen bizitza Nazareten zan,
bizitza santu zuzena,
alkar maiteaz alkarren mende
pake-bizitza onena.
Otoitz egiñaz limosnak egin,
au zan egiten zuena;
ogei urtean famelirik ez
zuen pena aundiena.

38

Denbora artan desgrazia zan
semerik ez izatea,
esaten zuen orixe zala
Jaunak eskutik uztea.
Berentzako zan gauza normala
burla aundik entzutea,
baita augatik otoitz egiñaz
negar samiñ egitea.

3

Joakin santuak ta Ana santak
samiñez ez urtutzeko,
Jaungoikoari eskatu zien
berekkin errukitzeko.
Ondorengo bat eman zeuela
pena txar ori kentzeko,
eskeiñiko ziela Eleizan
Jauna bertan serbitzeko.

40

Joakin santua fameli eske
otoitz egiten zeguan,
Jaunak berari Santu Gabriel
biraldu zion orduan.
Agindu zion: “Alaba on bat
mirariz dezu munduan,
Maria jarri izena eta
gazterik sartu Tenpluan”.

41

Gabriel onek Ana santari
onela zion esana:
“Alaitu zaite, zu zera Jaunak
aukeratu zaituana.
Izango dezu alaba santa,
zuk ixilik gorde dana;
au izango da Kristo Jainkoak
Ama izango duana”.

42

Joakin santua ta Ana santa,
senar-emazte maiteak,
Jerusalengo Eleiz aundira
juan ziran pozez beteak.
Jaunari poza ematen zion
ain umillak ikusteak,
eskerrak eman zien Jaunari
goratuaz egiteak.

43

Lenengo kontzebitze ondoren
Ana santan sabelean,
anima sortu baiño lenago
jarri zan osasunean,
Jaun Espiritu Santuan lanez,
Jesukristoren antzean,
gu gizonari zeru ederra
lenbailen eman naiean.

44

Jaunak Anari esana zion:
“Zu nere serbitzaria;
nik sortu nuan gizona eta
nai diot eman saria.
Zeruak daude itxiak eta
nai det izan errukia”.
Neurri gabeko argitasuna
Jaunak zion ixuria.

45

Mariarentzat milla aingeru
aukeratu laguntzeko,
etsaia arro zebillelako
emakumea galtzeko.
Migel santua guztien buru
jarri zuan agintzeko,
Kristoren Ama izango zala
berari ez esateko.

46

Mariak zuan bere gorputza
grazi mirariz sortua,
bere aita zan Joakin santua
urtetan aurreratua;
ta bere ama Ana santa zan
gazterikan agortua,
aragiaren kutsurik gabe
Jaunak zuan garbitua.

47

Esaten dute: amak semea
osatzen du sabelean,
sortzen danetik berrogei egun
gora-bera diranean.
Alaba bada larogei egun,
denborale au danean;
eta Maria osatu zala
zazpigarren egunean.

48

Gorputz auxe zan Alguztidunan
oso gogo aundikoa,
bere bizitzan griña txarrikan
ezin sentitutakoa.
Sentitzen zitun bero ta otzak,
gu baiño minberagoa,
Jaunak au sortzen ipiñi zuan
enpeiño aundiñekoa.

49

Jaunak sorturik anima santa
gorputzakin batu zuan,
bere irudi ta antzekoa,
grazi-bizitza osuan.
Maria bezin aur santarikan
etzuan sortu zeruan,
eta ezta're iñoiz sortuko
betikotasun osuan.

50

Berekin uso arrazoizkoa
zuan sortu zanetikan,
ain zan garbia, graziaz betea,
Jauna begira pozikan.
Etzuan une txiki bat galdu
grazi-doaien lanikan,
ta Ana santa Jaun Espirituz
gelditu zan beterikan.

51

Jaunak Marian anima sortu
zuan lenengo unean,
grazi-doaiez gaiñera zeuzkan
birtuteak goienean.
Fedea zuan ezagutzeko
zan Jaungoikotasunean,
ta ezagutu zuan nola zan
Jauna Irutasunean.

52

Jaunak emanik berekin zuan
esperantza birtutea,
ezagaturik zorientasuna
beregana nai juatea.
Iruigarrengoa birtutea zan:
Jauna zuan ain maitea,
serafin danak baiño geiago
zan maitasunez betea.

53

Anima ontan jarri zituan
Jaun Espiritu Santuak,
auen antzera mirariz goian,
bere doai ta frutuak.
Grazian bidez birtute danak
zituan ezagutuak,
Jaun Egillea maitatu zuan
emanaz esker gozuak.

54

Jaunak berari agertu zizkan
aingeruk bere zaindari,
ezagutu ta Jaunaren aintzan
jarri ziran abeslari.
Eta asi zan gizonen alde
erregututzen Jaunari,
errukiakin eman zeuela
osasuna gizonari.

55

Luzifer bera arro zebillen
Ana santa galdutzeko,
eta eldu zan denbora ura
aurra argitaratzeko.
Jaunak aurrari esana zion
argitara agertzeko.
Aurrak Jaunari erantzun zion
berak bedeinkatuzeko.

56

Bedeinkatu zuan Jaunak aurra
ta jaio zan argitara,
oiñaze gabe, oso garbia,
mirariz mundu ontara.
Amak etzuan eman nai izan
aurra iñon eskutara,
amak oiazez bildu ondoren
etzanik jarri lotara.

57

Gure antzera beatzi illak
pasarikan sabelean,
aurra jaio zan iraillean,
zortzigarren egunean.
Ama-alabak eskeiñi ziran
eskerrez urtu naiean,
esanaz: "Izan bedeinkatua
betikotasun danean".

58

Anak Jaunari eskatu zion
bere naia agertzeko,
Jaunaren Ama izango zana
azitzen erakusteko.
Jaunak erantzun amak bezela
bere aurra zaituzeko,
errebentzirik agertu gabe
barruz errespetatzeko.

59

Esan dezagun: zeru ta lurrak
Jainkoak egin zituan;
lurra da globo bat bezelaxe
ta dauzka bere barruan
izugarritzko leize-zuloak
edo kabernak sutuan;
sakonak eta zabalak dira
inpernua lenenguan.

60

Inpernua da pena samiñez
eta surtan bizitzeko;
globo barruan beste leku bat
dago linboa deitzeko.
Beste leku bat purgatorioa
da animak garbitzeko,
eta mundu au bukatutzean
dana inpernu jartzeko.

61

Jaunak biraldu Santu Gabriel,
Maria jaio zanean,
linboan zeuden gurasoari
esatera zuzenean:
"Betiko poza, dator Mesias,
Ama jaio da lurrean".
Danak gustora gelditu ziran
oni entzun zienean.

62

Aurra Jaunari eskatu zion
Mesias biraldutzeko,
igarlen bidez agindu zana
gizonak zeruratzeko.
Jaunak pozikan agindu zion,
zeukan Ama izateko,
Jainkoa gizon egingo zala
gizaldiak salbatzeko.

63

Betiko Aitan dei bat entzun zan:
"Maria jarri izena.
Grazi ugarik indartuko du
izen au deitzen duena.
Au izango da erremedioa
samiñak pozten diena,
au izango da etsai guztiak
zapalduko dituen".

64

Sortzez Garbia jaio zanetik
zortzigarren egunean,
izena jarri zien Maria
Jainkoaren esanean.
Jai aundi egin zuen egun au
alabaren izenean,
aingeruk ere abestu zien
alaitasun aundiñean.

65

Lege Zarreko agindua zan:
amak alaba bazuan,
larogei egun garbitu zedin,
Eleiza juan ezin zuan.
Pekatu-kutsu danak kentzeko
limosna egin onduan,
alabarekin ama Eleizan
sartu zedilla orduan.

66

Pekatari bat bazan bezela,
egun auek pasatuta,
ama Eleizan sartzera juan zan
aurra besuan artuta.
Apaizak bedeinkatu zituan
amak apal eskatuta,
eskeiñi zitun arkumea ta
gauza geiago batuta.

67

Amak promesa berritu zuan
alaba an eskeintzeko,
galdetu zion zenbat urtekin
juango zan an bizitzeko.
Andikan iru urte zirala
alaba eramateko.
Mariak otoitz egin zuan an
eskeintza ontzat artzeko.

68

Etsaia beren billa zebillen
egarri aundiarekin,
Jaunak etzion utzi ikusten
justizi goikoarekin.
Beregan zion: "Ez dira iñor,
datozte limosnarekin;
pekatarien legea da au",
ta lasaitu zan onekin.

69

Maria aurra pozgarria zan,
ezagutzen zuan dana;
gutxi jan eta gutxi lo egin,
au zan egiten zuana.
Aurrak bezela sarri negarrez
au zan egin etzuana,
bera zalako graziz betea,
Jainkoakin bizi zana.

70

Sortu zanetik aurrak zekian
ondo garbi itzegiten,
bere aingeruk agertutzean
kontuak zitun esaten.
Umiltasunez besten antzera
ixilikan zan egoten,
urte ta erdi zituanean
agertu zan itzegiten.

71

Maria aurra ain zan umilla
serbitu nairik danari,
uste baitzuan lan egiteko
zorra ziola Jaunari.
Amak etzion uzten lanean
alaba erregiñari,
bere gorputza txikia zan da
deseo aundik ugari.

72

Etxe au etzan aberatsena
baiñan zuan bear zana,
soiñeko on bat alabarentzat
zan erosi nai zuana.
Eskatu zion auts-koloreko
tela latza edo lana.
"Kolorea bai, baiñan latza ez;
egin amaren esana".

73

Konformatu zan amak nai zuan
soiñekoa ibiltzeko,
jakintza zeukan aita ta ama
beti errespetatzeko.

Nai zuanean bere gogotik
gauza zerbait egiteko,
amari apal eskatzen zion
baimenez bedeinkatzeko.

74

Bi urte bete zituanean,
erruki aundiarekin
beartsuari laguntzen zien
amaren baimenarekin.
Amak esaten zion: "Orrela
izan beartsuarekin".
Laguntzen zien emanakin da
bere jatekoarekin.

75

Etzan gutxigo arritzekoa
Marian mendetasuna,
letzen da gauzak erakutsitzen
agertzen zan maitasuna.
Dana ixilik entzuten zuan,
bera zan apaltasuna;
dana zekian ondo ta garbi
ta zeukan ixiltasuna.

76

Aingeruk ere arritzen ziran
aurra ala ikustean,
baita ama Ana santa ere
aingeruakin batean.
Jaunak bedeinkatzen zuan Ana
maitetasunez betean.
"Ama, ni eraman Eleizara
iru urte izatean".

77

Maria aurra eldu zanean
iru urte izatera,
eraman zuen Eleiz aundira
gurasuakin batera,
neurri gabeko pena samiñez
alaba an lagatzera;
baiñan conforme agindu zuen
promes ura betetzera.

78

Maria sartu zan Eleizara
amak eskutik artuta,
ta bere aitak ama-alabai
maitasunez lagunduta.
Irurak otoitz egin zuen an
Eleiz aundian sartuta,
Maria eskeiñi zan Jaunari
alaitasunez poztuta.

79

Ango apaizak atera ziran
Maria aurra artzeko,
eta Mariak gurasuari
eskatu bedeinkatzeko.
Bedeinkatu zien gurasuak
alaba an gelditzeko,
Simeon apaizak Ana xarrari
eraman zion zaitzeko.

80

Ana xar ura profetisa zan,
Eleizan bizitzen zana,
otoitz egiñaz gau eta egun
Jaunari emana dana.
Maria aurra onen mendera
izandu zan eramana,
eta an zeuden neskari eman
zien besarkada bana.

Bigarren liburua

**Zeruko Printzesa eskeiñi zan
Eleizan Jaunari.**

Artu zituan faboreak.

Ain zuzen egin zituan bere lanak.

Bere birtute aundiak.

Nola esposatu zan Joserekin Eleizan.

81

Eleizan zeuden birjiñak zeuken
bakoitzak bere lekua,
Ana profetisa zan maistra
apaizak aukeratua.
Onek esan zion Mariari:
“Au da zure koartua”;
eta bakarrik an bizitzen zan
abestuez Jaungoikua.

82

Bere aingeru zaindariari
eskatu zien orduan
lagun zeila ona izaten
bere bizitzan Tenpluan.
“Nere gurasok baldin badaude
pena samiñez munduan,
nere partetik zuek alaitu
beren biotzan barruan”.

83

Mariak otoitz egiten zuan
eskatuaz Jainkoari:
“Biraldu, Aita, zure Semea
salbateraz gizonari.
Beti birjiña izango naiz ni”
agindu zion Jaunari.
“Ontzat artzen det zure eskeintza”
esan zion Mariari.

84

Marian amak eman zizkion
Mariaren maistrari
erropak eta erregaliak,
emateko Mariari.
Mariak umill eskatu zion:
“Eman danak pobreaki”.
Maistrak egin zuan ziona
ta zaitzen zion berari.

85

Egun batean Jaunaren itza
aditua zan munduan:
Jaunaren Ama izango zana
zer egin zuan Tenpluan.
“Bere lan eta egite danak
birtute goienekuan,
gure itz eta aingeruenak
ezin esan dan moduan”.

86

Maria aurra kotsagratuta
Tenpluan bizi zanean,
azitzen juan zan jakinduriz ta
graziz betetasunean,
Jauna geiago ezagutuaz
dan Jaungoikotasunean,
baita gizonak ere geiago
bizibide zuzenean.

87

Mariak egin zuan eskeintza
Eleizan bizi zanean:
“Jauna, zugatik nik bizi nai det
emen guztien mendean.
Nere gauzarik ezer e gabe,
mailla beartsuenean,
ta Eleizatik atera gabe
nere bizitza danean”.

88

Jaunak erantzun: “Nere maitea,
ez dakizu oraindikan
nola bizitu bearko dezun
urte geiago juanikan.
Birjiña izan eta beartsu,
esan dana egiñikan”.
“Ondo da, baiña Eleizan beti
urrengiak gugatikan”.

89

Apaizak esan zion: "Maria,
nere alaba maitea,
Eleizan otoitzak diranean
nai det zu ere juatea,
Aitak Mesias biraldu dezan
zuk ere errezatzea;
zortziretan jun lotara eta
argitzean jeikitzea.

90

Eleizan otoitz egingo dezu
beatzik arte goizean,
gero Anari entzun esana
ta jan neurritasunean".
Belauniko Mariak: "Bai, jauna;
nago zure esanean".
Bere eskuan mun eman zion
umilltasun aundiñean.

91

Maria aurrak eskatu zion
Ana bere maistrari,
etxea eta ontzik garbitzen
laga zeiola berari.
Eleizan zeuden danen mendeko
gelditu zan serbitzari,
liburu santu eskribituak
letzen zituan ugari.

92

Eleizan bizi zala Maria
Jaunari eskeiñirikan,
ta bertan sartu zala ziran sei
illebete bakarrikan,
Santu Joakin, Marian aita,
gelditu zan gaixorikan,
Jaunak agertu nola ilko zan
zortzi egun aurretikan.

93

Maria etzan estutu larri,
baiñan zuan sentitua,
eskatu zion Jaunak aitari
uxatzeko diabrua.
"Errukiakin lagundu, Jauna,
azkena duan ordua".
Erantzun zion: "Justuak dauden
Linbuan dauka lekua".

94

Aingeru asko biraltzen ditu
Mariak aitarengana,
ta esan zien: "Zure alabak
biraldu gaitu zugana.
Alaitu zaitte bera degu ta
gure Erregiña dana,
baita Mesias Jainko-Semeak
Ama izango duana".

95

Santu Joakin zaitzen zeguan
Ana bere emaztea,
poz aundia zan milla aingeru
beren etxera juatea.
Entzuteakin itzikan gabe
jarri zan gaixo maitea,
eta biotzez Jauna maitez
il zan birtutez betea.

96

Beste anima justuak zeuden
linbora zan aldatua,
Marian aita zala esanda
leku au zan alaitua.
Aingeru-talde millako ura
izan zan bueltatua,
Mariai esan zien aitaren
eriotzan gertatua.

97

Otoitzak egin zitun Mariak
eskatuaz Jainkoari
lagun zeiola, Aita izanaz,
bakarrik zeukan amari.
Baita're amak biraldu zion
abisu au Mariari;
maistrai eman zien lenengo
alaitu zeion aurrari.

98

Juan zan maistra Mariangana
"Aita il da" esatera,
al zuan eran kontseju onak
emanaz alaitutzeraz.
Mariak dana aditu zion
ontzat arturik batera,
dana zekian da ixil juan zan
eleiza errezatzeraz.

99

Nai izan zuan Jaunak Maria
probatua izatea,
bere sasoiko lanak emanaz
aintza ugaritutzea.
Maria zeguan graziaz eta
jakinduriaz betea,
baiñan penatze ta lana zer zan
komeni zan jakitea.

100

Mariak espirituzko begiz
Jainkoa ikusten zuan,
berekin eta aingeruakin
itzak esaten zituan.
Orain Jainkoa gorde zitzaion
eta billatzen etzuan,
milla aingeru ere an zeuden
baiñan ixil ezkutuan.

101

Maria jarri zan arrituta
zer egin etzekiala,
uste baizuan bere deskuidoaz
Jainkoa galdu zuala.
Maitetasunez eta samiñez
billa ibili zan ala,
bere samiña nolakoa zan
ezin esan leikeala.

102

Esaten zuan: "Nere Jainkoa,
Egillea ta Jabea,
Zu errukitsu betiko zera
ta eldu zait illunpea.
Auspezturikan lurrean nago
ta nai det Zuk jeikitzea,
o, aingeruak, kulparik badet
nai det Jaunak barkatzea".

103

Etsaia arro billa zebillen
emakume au galtzeko,
Jaunak etzion argirik eman
anima au ikusteko.
Beste etsaiak eskatu zien
au galdutzen laguntzeko,
"ezin badegu bizitza kendu,
bere onra zikintzeko".

104

Beste etsaiak esan zioten:
"Da egitez dakiguna:
besten bitartez botatzen dira
guk gerez ezin deguna".
Maria aurra samin bizi zan
galdu zualakon Jauna,
Luzifer juan zan gaiztoenakin
galdutzeraz osasuna.

105

Jainkotasunak itzal egiñik
Mariaren bizitzari,
ezin urreratu izan ziran
etsai danak Mariari.
Pentsamentu txar gorrotozkoak
bota zizkien berari,
ezin zutela esan nai ezik
gorroto zien aurrari.

106

Neurririk gabe supritu zuan
Marian biotz garbiak,
bizitza kentzen egin zituan
alegin danak etsaiak.
Baiñan txindurrin ortzak bezela
autsi zituan arriak,
falta txiki bat bakarrik ere
etzuan egin Mariak.

107

Mariak otoitz egiten zuan
maitasun aundiarekin,
esanaz: "Orain egongo zera,
nere Jainkoa, nerekin.
Supritzen nago ta zuri deika,
artuko nazu Zurekin".
Etsaiak bota zituan eta
Jauna poztu zan berekin.

108

Tentaldi auek autsi ondoren
onela zan tentatua:
eleizan zeuden neska aieri
inbiria zan sartua.
"Beren artean Maria zala
geiena estimatua",
olako askoz etsaian itz au
neskatxak zan sinistua.

109

Neskatxa auek artu zioten
gorrotoa Mariari:
etzekiela zer espiritu
sartu zitzaien berari.
Danen artean nai izan zuen
supritu azi oneri,
Eleizatikan biraldu arte
esanaz burla ugari.

110

Mariak umil erantzun zien
arrazoia zeukatela,
aizpa lagunak ziran bezela
barkatu bear ziela.
Arrabi geio artu zioten
umil ikusten zutela,
ibili zuen bultzaka eta
il egin nai ziotela.

111

Apaizak eta beren maistrak
eldu ziran entzutera,
eta juan ziran alako buillan
zer ote zan ikustera.
Neskatxak esan Maria zala
juan zana danak galtzera;
auek Maria eramán zuen
errita bat ematera.

112

Uste baizuten egia zala
Marian kontra esana,
esana zien konbertitzeko
agertzeko bizi zana;
ez bazan ontzen izango zala
bertan biziko etzana".
Kastigu au zan kulpá aundiñak
ordaindutzen zituana.

113

Ezin esan da zer umiltasun zeukan bere biotzean, uste baizuan azkenekua zala lurraren gaiñean. Negarra zerbait erten zitzaion auei entzun zienean, eta malkuak zerizkiola erantzun zien onean:

114

“Ontzat artzen det korrejitze au ta ondo erakustea, baitare nai det Jaunaren orde zuek neri barkatzea. Aurrerakuan nai det Jainkoak danoi gusto ematea, nere aizpa lagunari, ta gaurtik obetzen astea”.

115

Oni apaizak eta maistrak entzun zien arrituta, ta neskaxari barkatutzeko esan zien auspeztuta. Auek zioten beren artean: “Orain dator damututa; orain malkuak ixurtzen ditu apaizak kastigatuta”.

116

Etsaiak ezin ikusi zuen Maria eleiz onetan, berriz gezurrak jarri zizkien neskaxari biotzetan. Len baiño gezur aundiagoak esan zizkien benetan, Jaunak etzien utzi esaten loikeriak gezurretan.

117

Gazte Mariak esate danak ondo eraman zituan, birtute eta doai aundiaz asko merezitu zuan. Otoitzez zion: “Nere Jaun ona, zuk laga nazu munduan; neri egiñak baiño geiago nik mereziak nituan”.

118

Jaunak ikusten zuan Maria ta maite zuan benetan, nai izan zuan azkena jarri inbiri itxu aietan. Jaunak apaiza ta maistrari esan zion ametsetan: “Maria au da errugabea, poza nere begietan”.

119

Apaizak eta bere maistrak deitu zien Mariari, ta esan zien: “Barka eiguzu sinistua neskaxari. Obea dezu aparte bizi errezatuaz Jaunari, zure kontrako pena samiñak izan dituzu ugari”.

120

Gazte Mariak ain umildurik entzun zituan esanak, zion: “Neretzat korrejitzeak ziran zor zitzaizkidanak. Neskatak dira nere lagunak, serbitu nai ditudanak, bestek badira zuen gogoak nik beteko ditut danak”.

121

Birjiñak umil eskatu zien
bieri bedeinkatzeko,
beren eskuetan mun eman zien
mende zala agertzeko.
Laga zioten, baiñan Maria
zegon gogoz supritzeko,
juzgatu zuan laguntza zala
lan ordaiñak ez artzeko.

122

Sortzez Garbia beti izan zan
grazi doaiez betean,
baiñan Jainkoa ikusten zuan
bere aita il artean.
Gure antzera gorde zitzaion
Eleizan amar urtean,
baiñan biotzez ain maite zuan
otoitz egiñaz batean.

123

Amabi urte zeuzkan Mariak,
an bizi zan serbitzari,
agertu gabe aingeruak au
esan zien Mariari:
“Azken egunak urreratutzen
zaizkio zure amari,
Jainkoak nai du azkena jarri
bere lureko lanari”.

124

Berri mingarri onek Marian
biotza samindu zuan,
auspezturikan amaren alde
otoitzak egin zituan:
“Nere Jainkoa, ezereza naiz
ta Zuk naukazu goguan,
nere amaren anima jarri,
Jauna, leku seguruan”.

125

Jaunak etzion erantzun baiñan
maite zuan esan ura,
aingeruari agindu zien:
“Artu Maria kontura,
eta eraman zazue zuek
ama dagoan lekura.
Zuetako bat gelditu emen
Mariaren antz-modura”.

126

Aingeruak au ipiñi zuen
bere amaren onduan,
eta Mariak bere amari
mun eman zion eskuan.
Amak bazekin alaban berri
ta Jauna goratu zuan,
Mariak azken bendizioa
eskatu zion orduan.

127

Amak Maria bedeinkatua
zuan maitasunarekin,
gero alabak alaitu zuan
ama poz aundiarekin:
“Ama, atea pasa bearra
degu eriotzarekin,
baiñan betiko bizitza ura
degun esperantzarekin.

128

Artu, ama, zure eriotza
degun zorra ordaintzeko,
alaitu zure espiritua
santuakin bizitzeko.
Oroitu, ama, Salbatzaillea
daukagula etortzeko,
berekin danok bizitzearren
zeruak irikitzeko”.

129

Amak erantzun zion: "Maria,
nere alaba maitea,
Jaun Egillean aurrean nai det
nerekin ez aztutzea.
Nik azitako alaba zera,
nai det nitzaz eskatzea,
bere laguntza zure bitartez
eriotzan izatea.

130

Jaungoikoari eska eiozu
Berak ni bedeinkatzeko,
Beregan beti sinistu det ta
nerekin errukitzeko.
Ez nazazula bakarrik utzi
mundu ontatik juateko,
gelditu zaite azken orduan
neri begiak ixteko.

131

Oso bakarrik gelditzen zera
iñor gabe bizitzeko,
baiñan Jainkoa errukia da
beti zuri laguntzeko;
eta eskatu zure maixuaz
Jauna beti izateko,
lege santua zuk nola bete
zuri erakutsitzeko.

132

Etzaitetz erten Eleizatikan
esposatu bitartean,
apaizen bidez Dabid-tarren bat
senarra artu artean.
Gure ondasunen jabe zera,
bizi pobrei ematean,
artu Jaunaren bendizioa
nerearekin batean".

133

Ama eldu zan eriotzara
izketa goxo auetan,
il zan Jaungoiko Egilleakin
Mariaren besoetan.
Alabak itxi zizkan begiak,
bere naia zan onetan;
gorputz santua konpondu zuan,
Jaunak zeukan eskuetan.

134

Aingeruakin bueltatu zan
beren Ereregiña ura,
garbi Maria bere Tenplora,
bizitza zuan lekura.
Amaren falta sentitu zuan
juanik biotzan barrura,
grazi-doaiaik zuzendu zuen
pake-bizitza santura.

135

Jauna ikusi ezin zuala
Mariak sentitzen zuan,
bere aurrean otoitzak sarri
bero egiten zituan.
Amak bazekin Maria nor zan,
baiñan zeukan sekretuan;
Mariak ezer etzekian da
umil konforme zeguan.

136

Supritu zuan neurri berean
poztu nai zuan Jainkoak,
aingeruak agertu zitzaizkan,
ziran pauso lenengoak.
Pixkabanaka preparatua
zuan Aita betikoak,
eta agertu zizkan argiak
Jaungoikotasunekoak.

137

Maria jarri zuan Jainkoak
jasota bere urrena,
ta berak umil auspezturikan,
au da esan zenduena:
“Nere animan Jaun da Jainkoa
zera jaso nazuena,
autsa izanik pobre artxo bat
besterikan ez naizena.

138

Ar zazu, Jauna, zegorren aintza
nik eskerrak emateko.
Jakinduria, garbi nazazu
zure poza izateko.
Nere lan txiki, gurasoak il
baziran ni okertzeko,
agindu zazu zure naiera,
Aita, Zuk ni zuzentzeko”.

139

Alguztidunak: “Nere emaztea
—esana zion orduan—,
gurasoak il eta lanakin
miña sentitu zenduan.
Ori gorputzak berea du ta
kulparikan etzenduan,
ondo eraman ziñualako
merezi aundik ziñuan.

140

Ezbearrak nik sortutzen ditut
bidean aurreratzeke,
grazi geiago zor dietala
neregana biurtzeko.
Augatik gorde nintzan zugandi,
naukazu zuk serbitzeko”.
Maria erten zan argitatiek
berrituta bizitzeko.

141

Garbi Mariak amairu urte
eta erdi zituala,
berriro Jaunak zeruko argiz
inguratua zeukala,
agindu zion gizaseme bat
senarra artu zezala.
Bere naia zan, beti birjiña
berak izan nai zuala.

142

Jaunak gau batez esana zion
Simeon apaiz jaunari:
“Senar bat eman esposatuta
maite dedan Mariari,
Nazareteko Joakin eta
ama aien alabari:
nere naia ta oituraz eman
umezurtz ta zarrenari”.

143

Simeon onek betea zuan
Jaungoikoak agindua,
beste apaizai esana zien
Maria orren kontua:
guraso gabe zegoalako
izan bear zan zaitua,
berak merezi zuan senarra
izan zedin billatua.

144

Apaizak eta letradun aiek
da erabaki zuena:
Dabiden jatorriko mutillak
bilduak Jerusalem,
etortzeko danak Eleizara
da eskatu ziotena,
egun onetan amalau urte
Maria zan zitubena.

145

Bearrekoa zuen berri au
Mariari esatea,
eta Simeon apaiza juan zan
bere naia jakitea,
Esana zion: "Nai deguna da
zuk senarra izatea,
Eleizatikan ateratzeko
esposatuta juatea".

146

Mariak esan zion bildurrez:
"Nik izan nai det birjiña,
esposatu lanetarako
ni naiz oso ezjakiña.
Baiñan Jaunaren naia au bada
nerea dago egiña".
"Zure antzeko bat izan dedin
otoitz egin alegiña".

147

Mariak otoitz egiten zuan
malko ugariarekin,
erregutuaz Jaunaren naia
bete zedilla berekin.
Jaunak erantzun: "Nere emaztea,
ez bizi tristurarekin,
emango dizut senar birjiña
biziko dana zurekin".

148

Mariak zion: "Nere Jainkoa,
gorde nazazu Zurekin;
bizitza ortan aulduzen banaiz
lagundu errukiarekin".
Aingeruak au erantzun zien:
"Zu bizi zera Berekin;
ezin entenditu arren, artu
au errebentziarekin".

149

Arotz-lanean Jerusalemen
bizi zan Jose santua,
Nazareteko semea zala
Eleizara zan deitua.
Amabi urtez egiña zeukan
"Ni birjin beti" botua;
orain ogei ta amairukin, zan
Dabiden jatorrikua.

150

Makilla legor bana Eleizan
eman zien mutillari,
askotatik bat agertutzeko
eskatu zien Jaunari.
Lore berriak erden zitzaizkan
Josek zeukan makillari,
esposatuta apaizak eman
zien senar Mariari.

151

Maria eta Jose ederrak
Eleizan esposatuta,
Jaun Espiritu Santuak beren
biotz garbiak poztuta,
Nazaretera juanak ziraden
ango *legok* lagunduta,
Mariak zeuzkan etxeak eta
ondasunak jabetuta.

152

Eldu ziraden Nazaretera
Mariana zan etxera,
beren ezagun eta lagunak
juan zitzaizken ikustera,
oitura zuen eran biotzez
zorion onak ematera;
auekin bete zuen ondo ta
sartu ziran barrunera.

153

Oitura zuen ebreetarrak
ezkon berri egunetan
itz egitea nola jokatu
berak zituen gauzetan.
Jose senarrak Mariari au
esana zion benetan:
“Beartsua naiz, nik zure naia
egingo det gauz danetan”.

154

Mariak apal erantzun zion
oni entzun zionean:
“Zu zera nere jauna ta nago
zu serbitu bearrean;
uzten baidazu, esango dizut
nola nai dedan danean”.
“Nere andrea, emen naukazu
zurea entzun naiean”.

155

Aingeruari eskatu zien
itz egiten laguntzeko,
lenengo aldiz gizon batekin
bakarrik itz egiteko.
Agertu ziran milla aingeru
lagunak ugaritzeko,
esaten dio: “Nago Jaunari
esker asko emateko.

156

Txikitatikan eskeiñi nintzan
beti birjin bizitzeko,
nai dedana da nere boto au
betetzen zuk laguntzeko.
Beste danean emen naukazu
mende zuri serbitzeko,
senar nerea, baldin bazaude
au neri aprobatzeko”.

157

“Nere andrea, zure esana
da neretzat atsegiña,
amabi urte nituanian
boto au daukat egiña.
Agintzen dizut: zuri laguntzen
egingo det alegiña,
eta zuk ere Jaunaren urren
ez iñor maite ni aiña”.

158

Jaunak ipiñi zion Joseri
maitasuna berrituta,
deseo txarrik izan etzezan
oso garbi goratuta.
Andre Mariak itz egitean
jartzen zan oso poztuta,
senar Joseri eskeiñi zion
bizitzea maitatuta.

159

Utzi zizkien ontasun asko
gurasuak Mariari,
jarri zituen iru partetan:
lenengoa Elizari;
ta bigarrena partitu zien
pobre beartsuenari,
irugarrena Mariak jarri
zion Jose senarrari.

160

Erregiña zan eta beretzat
zan aukeratu zuana
serbitutzea Joseri eta
etxe barruan zan lana.
Josek gazterik arotzen lana
zan egiten zekiana,
beartsuari lagundutzeko
zan egiten zijuana.

161

Andre Maria poztu egin zan
Joseren lan egitetan,
eta urrena dudatu zuen
nor zan mendeko bietan.
Josek nai zion serbitu baiña
Mariak auzi onetan
gizasemea zala burua
agindutzeko gauzetan.

162

Auxe bakarrik eskatu zion
Mariak senar Joseri:
bere baimena ematen zion
laguntzeko pobreari.
Jose santuak emana zion
baimena emazteari
nai zuan eran lagundutzeko
Jaunaren beartsuari.

163

Ezagaturik Jose santuak
goi argiz inguratuta
Mariak zeuzkan birtute asko,
ta zeguan arrituta.
Berrero eman zizkan eskerrak
Jaunari oso poztuta,
merezi gabe zegoalako
emazte on au artuta.

164

Jaunak biotzez esana zion:
"Maria, nere maitea,
begira, nola naizen zuzena,
nai det zuk erantzutea.
Garbi ta santa bizi zaitezen
Jose lagun izatea,
bizi mendean bera poztuaz,
au nai nizun esatea".

165

Erantzun zion: "Nere Jainkoa,
ain ona zera nerekin,
arritzekoa egiten dezu
ezer ez naizen onekin.
Lagun eidazu jarraitu zadan
zure poz geiagorekin,
eta serbitu dezadan Jose
zure naia danarekin".

166


Au zan bizitza izan zuana
Nazaretoko etxeak,
iraillaren zortzi zanetik,
senar-emazte maiteak.
Martxoak ogei ta bost artean
ziran sei illabeteak,
Jaunaren aintzan otoitz egiñaz
goi maitasunez beteak.

167

Alguztidunak nai izan zuan
Maria preparatzea,
beatzi egun falta zirala
argituago jartzea.
Mariak beti eskatzen zuan
ezkutuan bizitzea,
etzedin izan naigabetua
Jaunaren errukitzea.

168

Jauna pozikan gelditutzen zan
Mariari entzutean,
eta gaiztoak ondutzen ziran
arpegi au ikustean.
Jose senarra serbitzen zuan
alaitasunez betean,
Alguztiduna abesten zuan
aingeruakin batean.



Orduñako Santa Klara eliza. Aldare nagusia.

Irugarren liburua

**Nola enkarnatu zan eta egin zan gizon
Jaungoikoaren Itza.**

**Nola bixitatu zuan bere lengusu
Santa Isabel.**

**Nola grazian jarri zan jaio baiño len
Bautista.**

**Nola biurtu zan Nazaretera,
eta nola uxatzen zituan etsaiak.**

169

Jaunak beatzi egun auetan
Maria goratu zuan,
Jaungoikotasun bizitzan jarri
zuan bigarren lekuan.
Maria gauerdian jeikita
otoitz egiten zijuan,
Salbatzaillea gu salbatzeko
jaio zedilla munduan.

170

Eldu zanean martxo illaren
ogei eta bostgarrena,
Andre Maria gau eta egun
otoitz egiten zuena,
santu Gabriel millakarekin
Jaunak biraldu berena,
izan nai zuan Jaunaren Ama
eskatutzera baimena.

171

Birjiñak an aingeru ederra
bat zan ikusitakoa,
auspeztu nai zun, etzion utzi:
bera zala mendekoa.
Gabriel onek Mariari zan
onela esandakoa:
“Jainkoak salba, graziaz betea,
zurekin Jaun betikoa.

172

Bedeinkatua zera, Maria,
andre guztien artean”.
Au esatean, zer ote zion
jartzen du bildur betean.
Goi-aingeruak: “Ez bildur izan
—esan zion ikustean—,
orra, Maria, grazia arkitu
zenduan Jainkoz batean.

173

Sortuko dezu seme bat eta
ipiñi Jesus izena,
au izango da Alguztidunan
Seme deituko diena.
Jaun da Jainkoak emango dio
aulki Dabidek zuena,
bere erreinua izango da goi
ta azkenik ez duena”.

174

Mariak auxe aingeruari
esana zion orduan:
“Nola gertatu leike gauza au
birjin bizi az munduan?
Gizasemerik ez ikutzeko
nere itza eman nuan”.
Santu Gabriel Mariak zeukan
etxe barruan onduan.

175

Aingeruak au erantzun zion:
“Jaun Espiritu Santua
etorriko da zu izatera
Alguztidunak artua;
bere bitartez izango zera
ama birjin gelditua,
izango dezu santua seme,
Jainko-Semea deitua.

176

Ara Isabel, zuk lengusua,
bizi zan agor zartuta,
eta seigarren illean dago
Jaunak seme bat sortuta.
Jaunarentzako gauza eziñik
ezin leike agertuta”.
Andre Mariak sinistu zuan
gurekin errukituta.

177

Mariak esan zuan orduan
apaltasunez onela:
“Emen naukazu Jaunaren mende
serbitzaria naizela.
Egin bedi, ba, neregana ori
esan didazun bezela”.
Ta aingeruak laga egin zuan
Jauna gizondu zeila.

178

Andre Mariak bere baimena
eman zuan istantean,
Kriston gorputza osatua zan
Birjiñaren sabelean.
Anima egin ta jarri zuen
gorputzarekin batean,
gorputz-animak Jainko-Semear
Jaungoikozko izatean.

179

Jaun Espiritu Santuan lana
izan zan Aurra sortzeko,
Jainko-Semea gizon egin zan
gu danok zeruratzeko.
Guk ezagutu ezin deguna
sinistu ta aitortzeko,
eskatzen zaigu Bera maiteaz
bere naia betetzeko.

180

Ezin konta-ala aingeru Jaunak
eman zizkan Mariari,
ondo zaitzeko Maria eta
Jainko gizon egiñari.
Ama Birjiñak zaitutzen zion
aintza emanaz Jaunari,
baiñan ezin esan zion ezer
Jose bere senarrari.

181

Ama Birjiña alai bizi zan
lanean etxe barruan,
baiñan zekian Isabel nola
semearen zai zeguan.
Jaunari galde au egin zion:
berak zer egingo zuan.
“Juan eta jarri grazian aurra
jaino baiño len munduan”.

182

Aingeruari eskatu zien
gai onetan laguntzeko,
agerturikan erantzun zien:
“Gaude gogoz serbitzeko”.
Au erabaki zuan urrena
agindu au betetzeko:
senar Joseri bere baimena
ontarako eskatzeko.

183

Egun batean esana zion:
“Jauna ta senar nerea,
Jaunaren argiz ezagutu det:
Isabelek du semea.
Nere lengusu agorra zana,
Zakariasen andrea;
au izango da Jaunari poza
eta aintza ematea.

184

Uste det nik au zor diotela
lagundutzera juateko,
eta komeni diran gauzetan
espiritua pozteko.
Zure gustoko lana bada au
naukazu zure mendeko,
eskatzen dizut baimena eta
zer egin zuk agintzeko”.

185

Jaunak biotza argitu zion
Joseri erantzuteko,
erantzun zion: "Nere andrea
naukazu zu serbitzeko.
Ez det dudatzen zure gogo au
dala Jainkoa pozteko,
ez arritzeko zu ikustean
nago zuri laguntzeko".

186

Mariak jarri zuan eguna
Josek eskatu bezela,
berak billatu zuan asto bat,
biurtuko ziotela.
Ogia eta arrai batzuek
frutarekin zituela,
Maria jarri astoan eta
Josek artuko zuela.

187

Maria jarri zan belauniko
etxetik erten zanean,
bere senar Joseren oñetan
apaltasun aundiñean.
Eskatu zion bedeinkatzeko
Jainkoaren izenean,
arriturik ta bildurturikan
eman zion azkenean.

188

Jainko-gizonak luzatu gabe
juatea nai izan zuan,
bere aurreko izango zana
santu jartzera munduan.
Esana zion: "Ama, Ni nago
azkar juateko goguan".
Maria jeiki eta juana zan
au ezagutu onduan.

189

Maria juan zan asto gaiñean
Josek astoa artuta,
galdetzen zion: "Ondo al zuaz?"
batzuetan geldituta.
Joseri poza sortzen zitzaion
Mariari begiratuta;
ixilik zeukan sakramentua,
etzan izan aginduta.

190

Oraindik etzan denbora eldu
grazi au ezagutzeko,
eta Mariak ixilik zeukan
Jainkoak agertutzeko.
Ogei ta zazpi legua zeuzken
Judeara eldutzeko
Nazaretetik, Zakariasen
etxe orretan sartzeko.

191

Au zan lenengo prozesioa
Jauna gizondu zanean:
Nazaretetik Isabelgana
laugarrenge egunean.
Jaunak zekarren maitetasuna
sutan ipiñi naiean,
Maria izan zuan *gurdia*
Jainkoa zijuanean.

192

Ama Birjiñak ikusten zuan
Jose bere serbitzari,
umiltasunak etzion uzten
nor zan esaten berari.
Otoitz beroak egin zizkion
Mariak Jaungoikoari:
Berak agertu zeiola dana
Jose bere senarrari.

193

Lau egun pasa ziran bidean
Isabelgana juateko,
ostatuetan gelditzen ziran
gau illunak pasatzeko.
Ikusitako pobre danari
laguntzen zien pozteko,
Birjiñan itez andre gaixo bat
sendatu zan bizitzeko.

194

Eldu ziraden Juda erriko
Zakariasen etxera,
Jose santua aurreratu zan
angoak saludatzera.
Esana zien: "Jauna zuekin,
betor graziz betetzera".
Baita Birjiñak Isabeleri:
"Jauna zurekin batera".

195

Zakariasek eraman zuan
Jose beren sukaldera,
Isabel santak Ama Birjiña
beste leku apartera.
Birjiñak oni: "Jauna zurekin".
Berak: "Zurekin batera".
Biek besarkatu ziranean
au eldu zan gertatzera.

196

Jaunak Isabel Jaun Espiritu
Santuakin bete zuan,
Jainko-gizonak aurra grazian
jarri zuan momentuan.
Ikusi zuan Joanek Jesus
Marian nola zeguan,
adoratzeko belaunikatu
zan Isabelen barruan.

197

Auxe izan zan: aurra saltatu,
Isabelek sentitua,
uso arrazoiz ta grazi doaiz
au zan santu biurtua.
"Andre guztien artean zera,
Maria, bedeinkatua;
baita ere da bedeinkatua
Isabelen dezun frutua.

198

Nundikan neri Jaunaren Ama
etorri, nagon etxera?
Aurra saltatu zait eldutzean
zure itza entzutera.
Dana sinistu zendualako
zorionekoa zu zera,
beteko dira zugan itz danak
juanak zuri esatera".

199

Ama Birjiñak ondorenean
au da abestu ziguna:
"Abestutzen du nere animak
Jaunaren aunditasuna;
eta gogua poztutzen daukat
nere Salbatzaille Jauna,
berak begiratu zualako
nere ezereztasuna.

200

Oraindik danak deituko naue
zorionekoa naizela,
dezakeanak nerekin gauza
aundik egin ditubela.
Bere izena degu santua
ta errukia duela,
gizaldietan bizi badira
bildur santu diotela.

201

Bere besua agertu zuan
indartsua dezakenak,
uxatzen ditu beregandikan
biotzez arro direnak.
Altsuak bota zitun aulkitik,
jaso umillak zirenak,
ase zituan gose ziranak,
ustu aberats zeudenak.

202

Beregan artu zuan Israel
errukiaz oroituta,
zeukan bezela Abrahamerik
betirako aginduta”.
Isabel santak entzuna zan au
Mariak an kantatuta,
orain dakigu, berak ikasi
ta esanda arrituta.

203

Isabel santa aurreratu zan
Mariari serbitzera,
erantzun zion: “Ni etorri naiz
zuri emen laguntzera”.
Otoitz-leku bat eskeiñi zion
juateko lo egitera,
Maria emen bizi izan zan
Jainkoarekin batera.

204

Jose santuak, etxe onetan
iru egun zituala,
esana zien bere etxera
bakarrik bazijuala;
andre Mariak lagundu zeien
bertan lagatzen zuala,
zijuania abisatzeko,
billa etorriko zala.

205

Isabel santak Joseren ditxa
ezagaturik orduan,
berak etzekin ezertxo baiña
errespetoz artu zuan.
Gauza on asko eman zizkion
eramateko astuan,
baiñan Josek oso gauza gutxi
andik eraman zituan.

206

Mariai Josek eskatu zion
baimena etxeratzeko,
eta bera an geldi zedilla
Isabeli laguntzeko.
Etxian zuen lengusu on bat
enkarguak egiteko,
auzoko andre auxe zan orain
Joseri jana jartzeko.

207

Ama Birjiña bizi zanean
Isabel santan etxean.
Jaunari otoitz egiten zion
egunez eta gaubean.
Eskatu zion: “Jauna, Zuk esan
nola jokatu danean,
zure gogoan nai det nik bete
biziaz zure mendean”.

208

Jaunak erantzun: “Nere maitea,
nago zu gobernatzeko,
baita esango dizut eguna
noiz dan etxera juateko.
Eskatu zazu gizonen alde
justiziaz ez galtzeko,
nere errukian kontra daude
pekatuk ugaritzeko.

209

Eskeiñi zazu Jainko-Bildotsa daukazuna entraiñetan, munduko pekatuak kenduta bizitzeko animetan”.

Ama Birjiñak kontseju danak bete zituan benetan, baita Isabel lengusuari laguntzen zion lanetan.

210

Isabel santak eskatu zion Ama Birjiña onari: egingo zizkan oialak eskuz jantzitzeko semeari. Egin zizkion Mariak eskuz ume-erropa ugari, asko poztu zan eta eskerrak eman zizkion Jaunari.

211

Ikusi zuan Isabel santak Ama Birjiña batean argiz betea eta aidean aingeruzko zan antzean. Belauniko adoratu zuan Mariaren sabelean, baiñan au etzan etxetik erten, gorde zuan barrunean.

212

Egun batean Ama Birjiñak esana aingeruari: “Zuek zerutar, nere lagunak, kanta deiogun Jaunari. Lagundu Egillea goratzen ar txiki bat naizenari, ezin det maite nai dedan eran, zor diot maitasunari”.

213

Erantzun zien: “Gure Andrea, Jaunaren Ama zerana, zure maitasun sugar ori da ase bizi ezin dana; bizibideak bere azkena da oraindik ez duana, naitasun orrek merezimentu berria dakar zugana”.

214

Zakarias ta Isabelena zan etxe onetakua: lurralde aundik, ganaru asko, morroiakin lagundua. Serbitzen zeuken emakume bat zeukan etsaiak artua, esaten zitun maldizioak egiñaz juramentua.

215

Amalau urte baziradela etsaiak zeuken mendean, baiñan etsaiak bildurtzen ziran au Mariana juatean. Ama Birjiñak beraren alde otoitz egin zuanean, biraldu zizkan etsaiak eta umilla zan il artean.

216

Ama Birjiñak bi illebete an pasa zituanean, Isabel santak esaten zuan bere biotz barrunean: “Laister bakarrik geldituko naiz Maria juaten danean”. Negar-saioak egiten zitun bakarrik zegoanean.

217

Isabel santak Mariari au
esan zion lasaitzeko:
“Eman eidazu zure baimena
deseo bat agertzeko.
Posible bada eskatzen dizut
senar Jose ekartzeko;
ementxe bizi gure nagusi,
nago zuek serbitzeko”.

218

Ama Birjiñak, entzun ondoren,
erantzun zion benetan:
“Nere maitea, pozgarri zaude
Jainkoaren begietan.
Neretzat ere pozgarri zera
zure deseo auetan,
baiñan Jaunaren borondatea
bete dezagun danetan.

219

Ni nago danak baiño geiago
obligatua lurrean,
bere gogoia nai det nik bete
borondatez indarrean.
Jarri ditzagun zure deseok
Jaungoikoaren aurrean,
senar Joseren mende bizi naiz
bere naia bearrean”.

220

Isabelek au: “Andre nerea,
nago ni zure mendeko;
au ezin bada, eskatzen dizut
ez ni bakarrik uzteko;
nere semea jaio artean
zu etxera ez juateko,
zure besuak izan ditezen
aurra lenengo artzeko”.

221

Ama Birjiñak etzeukan nairik
eskari au ukatzeko,
erantzun zion: “Isabel, guazen
otoitzez au eskatzeko:
zure gogoia au guk nola bete
Jaunak guri agertzeko”.
Jaunak erantzun egun aietan
Maria an gelditzeko.

222

Eldu zanean denbora ura
aurra argitaratzeko,
igarle aundi izango zana
Bildotsari laguntzeko,
Mariari eman zien aurra
berak besotan artzeko,
ta Isabelek eskatu zion
Jainkoari eskeintzeko.

223

Aur au jaio ta eldu zanean
zortzigarren egunera,
auzoko eta berentar asko
juanak ziran ikustera,
zartuta seme bat zuelako
zorion asko ematera,
eta legea zeuken bezela
oni izena jartzera.

224

Asi ziraden batzuek deitzen
Zakarias aurtxoari,
Isabel amak: “Joan izena
jarri bear da aurrari”.
Erantzun zien: “Oitura degu
aitarena semeari”.
“Izena nola?” kiñuk egiñaz
galdetu zien aitari.

225

Zakariasek eskatu zuan
pluma bat eskribitzeko,
ol txiki baten ipiñi zuan
Joan izena jartzeko.
Mutu zegoan eta Birjiñak
eskatu ori kentzeko,
agindu zion bere mingaiñez
Jainkoa bedeinkatzeko.

226

Une onetan Jaun Espirituz
izan zan betetakoa,
esana zuan: “Bedeinkatua
Jaungoiko Israelkoa.
Bere erria bixitatu du
berak erositakoa,
ta jaso digu indar osasun
Dabid bere etxekoa.

227

Lendik esana zeukan bezela
igarlean aotikan,
osasun onek libratzen gaitu
gure etsaietatikan,
eta gorroto diguten aien
danen eskuetatikan,
agerturikan errukitsua
gure gurasoetatikan.

228

Oroitu zuan Abraaneri
agindua emateko,
etsaietatik atera eta
bildur gabe serbitzeko,
santu ta justu bere aurrean
il artean bizitzeko,
eta zu, aurra, izango zera
igarle erakusteko.

229

Bere aurrean juango zera zu
bideak preparatzera,
erakutsiaz nola datorren
pekatuak barkatzera.
Bere errukiz gure Jainkoa
dator gu bixitatzera,
argitutzeko illun daudenak
eta pakean jartzera”.

230

Zakarias au apaiza zan da
Jauna ezagutu zuan,
Jainko-Semea gizon egiña
Ama Birjiñan barruan.
Birjiñak emen kontseju onak
ta asko eman onduan,
Jose senarra eraman billa
egun batez an zeguan.

231

Jose santua etorria zan
abixatu zienean,
Maria belauniko jarri zan
senar Joserren aurrean.
Eskatu zion bendizioa
ta eman zion onean:
“Barka eidazu ez serbitua
emen negon bitartean”.

232

Jose santuak erantzun zion
Maria emazteari:
“Zu ikusteak alaitutzen nau
autsiaz lengo penari,
baita zurekin zure onduan
izango nitun pozari”.
Egunen bat an deskantsatuta
agurtu nai angoari.

233

Maria juañ zan despeditzera
apaiz Zakariasgana,
Jaun Espiritu Santuan argiz
ezagutu zuañ dana;
ta esan zion: "Abestu beti
Jauna, egin zaituana,
ta bedeinkatu, beretzat Ama
aukeratuta zerana.

234

Oroitu nitzaz eta eskatu
Jaungoiko gure Jaunari,
eraman nazan erbestetikan
emanaz pake ugari,
eta zugatik merezi zadan
ikustea Jainkoari;
baita eskatu seme Joan eta
errian alde Berari".

235

Mariak belauniko jarrita
eskatu bedeinkatzeko,
atzeratzen zan erregutuaz:
"Nago zurea artzeko".
Baiñan Maria eske zeukan da
eman zion lasaitzeko,
eta mun eman zion eskuan
eskatuaz barkatzeko.

236

Zakariasek sakramentu au
ixilik zeukan barruan,
baiñan batean apaizak bildu
ziran Eleiza santuan.
Zorionak eman zizken berari:
seme ta itza zituan.
Erantzun zien: "Sinisten det nik:
Mesias dago munduan".

237

Apaiz aietan bat an zegoan
Simeon izenekoa,
au izandu zan Jaun Espirituz
oso indartutakoa.
Onek esana: "Etzazula nai,
Jainko Jaun Israelkoa,
ni izatea ikusi gabe
mundu ontan ildakoa".

238

Jaunak agindu zion Mesias,
bai, ikusiko zuala,
andik aurrera pozez bizi zan
maitez goguan zeukala.
Mesias Kristo noiz ikusiko
deseatzen zegoala,
Eleizan onek eskeiñia zan
berrogei egun zeuzkala.

239

Maria juañ zan despeditzera
Isabel lengusuari,
negar samiñez ezin itzikan
egin zion Mariari.
Erantzun zion: "Nere maitea,
ez samindu biotzari,
denbora eta leku danetan
serbitzen gaude Jaunari.

240

Jaunagan zuri begira nago
eta etzaitut aztuko,
eta zuk ere Beragan neri
beti nazu billatuko.
Gure bizitza oso motxa da,
laister zaigu bukatuko,
grazian bidez laister zeruan
poza etzaigu aituko".

241
Ama Birjiña eldu zanean
Joan aurra ikustera,
besuan artu eta mirariz
eldu zan itz egitera:
“Bedeinkatu nazazue biok,
Jaunaren Ama zu zera;
eskeintzen naiz ni zuen morroia
graziarekin batera”.

242
Zakarias, Isabel ta Joanek
Jose zan ezagutua,
berak etzekin baiña nola zan
Jainkoak aukeratua:
bere andrea Jainkoan Ama,
bera aita ordekoa.
Etxe onetan izan zan Jose
oso errespetatua.

243
Ama Birjiñak Semearekin
etxe au zuan maitea,
fameli dana ipiñi zuen
grazi doaiez betea.
Ondorenean nai izan zuen
Nazaretera juatea,
eskatu eta bedeinkatua
zuan Josek emaztea.

244
Atera ziran Juda erritik
Nazaret-era juateko,
Ama Birjiñak presa zuala
beren etxean sartzeko.
Lau eguneko bidea zuen,
ala zuen etortzeko,
lau ostatutan gelditu ziran
gau-aldiak pasatzeko.

245
Ostatu baten billatu zuen
andre bat ain gaixotua,
ona zalako etsaiak zeukan
gorputz ta anima lotua.
Jose santua Birjiñarekin
etxe artan zan sartua,
Ama Birjiñak otoitz eginda
gelditu zan sendatua.

246
Bide auetan biurtu ziran
etorri ziran antzera,
eldu ziraden beste ostatu
batean lo egitera.
Nagusi ura gaiztoa zala
alari jua zan serbitzera,
Birjiñak ordeztu otoitz eginda
biurtu zan ondutzeroa.

247
Ama Birjiñak oroitzen zuan
Nazaretera bidean:
aurra iru illebetekoa
zeramakin sabelean,
Josek zer pena izango zuan
ezagutzen zionean;
serbitzen zion errukiakin
al zan era onenean.

248
Jaunaren naia jakin nai zuan
Joseri au agertzeko,
Jaunak etzion ezer erantzun,
zeukan berak esateko,
merezimentu geiago biek
ala irabazitzeko;
Birjiñak otoitz egiña zuan
Jaunak Jose alaitzeko.

249

Eldu ziraden Nazareteko
berena zuen etxera,
Ama Birjiña aingeruakin
juan zan etxe garbitzera,
Jaungoikoaren borondatea
gogo onez betetzera;
Jose santua arotz-lanakin
jana irabazitzera.

251

Jaunak indartu zuan Birjiña
etsaiak menderatzeko,
burruka aundik egin zituen
luze Birjiña galtzeko.
Seme Jainkoak grazia eman
etsai-buruak lertzeko,
orreatikan aingeruk zitun
Jainkoa bedeinkatzeko.

250

Etsai arroak gorroto zion
Ama Birjiña onari,
alegin danak egiten zitun
ernegazitzen berari:
“Emakume au animak kentzen
dabil gure indarrari”.
Baiñan Birjiñak umiltasunez
zapaldu zien danari.



Sor Justina eta Ama Abadesa.

Laugarren liburua

**Nola San Josek ezagutu zuan
aurdun zegoala bere emaztea.**

Izan zituan errezeloak.

Jesukristoren jaiotza.

Nola jarri zien Jesus izena.

Nola adoratu zuen Erregeak.

Nola izan zan Jesus Aurra

eskeñia Eleizan.

Nola igesi juan ziran Ejitora.

**Nola Erodesez il zituan aurrak
eta bueltatu ziran Nazaretera.**

252

Ondorenean Birjiña juañ zan
Joseri lagundutzera,
bostgarren illa aurdun zeguan,
eldu zan ezagutzera.
Miñ aundi onek Josen biotza
iritxi zan zulatzerà:
“Birjin-bizitza agindu ta au
nola dator jaiotzera?”.

253

Jose santua samintasunez
biurtu zan Jaunarena,
esana zuan: “Jaungoiko Jauna,
dana ikusten zaudena,
zure eskutik artuta daukat
emaztea daukatena.
Badakit: zure ofentsa ez da,
baiña aurdun dagoena.

254

Zuk gobernatu nere biotza
eta entendimentua,
argi eidazu ezagutzeko
zer dan zure nai santua.
Misterion bat ez bada emen
beretzat da ezkutua.
Ez dit esaten zer gertatu dan,
nago oso penatua”.

255

Jose santuak negar-saioak
samiñ egiten zituan,
ikusten zuan gauza orrekin
berak parterik etzuan.
Olako andrekin arriz iltzeko
legeak agintzen zuan,
maite zion da beraren kontra
itz bat esan nai etzuan.

256

Ama Birjiñak ikusten zuan
supritzen Jose santua,
baiñan etzeukan ordenarikan
esateko gertatua.
Kariñuakin ematen zion
jana ta edatekua,
baiña San Jose penaz auldu
zan bastante gaixotua.

257

Josek Maria maitea zuan,
bizi zan erdi gaixorik,
gauza asko bururatzen zitun
ta ezerk ezin beterik.
Asmatu zuan: “Onena det nik
bizi izatea bakarrik.
Ezin ikusi det nik etxean
nerea ez dan semerik”.

258

Ama Birjiñak ezaguturik
Joserin pentsamentua,
Jaunari gogoz eskatu zion
pozteko Jose santua:
“Zuk emandako senarra nai det
izatea serbitua,
ez nadiñ izan Semearekin
bakarrikan gelditua”.

259

Jaunak erantzun: “Nere uxoa
eta maitea zerana,
azkartuko naiz ta izango naiz
Jose poztuko dedana.
Aingeruakin esango diot
zurekin gertatu dana,
oraindik esan leiozuke zuk
Joseri ez dakiana”.

260

Gau artan Josek pentsatu zuan
bakardadera juatea,
diru-parte bat Jerusalengo
Eleizari ematea.

Bere andrea etzedin izan
fama txarrakin betea,
il arte bertan biziko zala
Jainkoarekin batea.

261

Malkoz otoitz egin ondorean
Jose loak artu zuan,
aldatutzeko erroparekin
pardela egin onduan.
Santu Gabriel Jaunak biraldu
zion Joseri orduan:
Dabid erregen semea zala
Josek oroitzen al zuan.

262

“Jose, etzazu bildurrik izan
emaztea lagatzeko,
Jaun Espiritu Santuan lana
izan du Aurra sortzeko.
Argitaratuko du Seme bat
bere erria salbatzeko,
eskatzen dizut Seme orreri
Jesus izena jartzeko”.

263

Onela dana gertatu zan au
zettorrena etortzeko,
igarle santu Isaiasek
idatzia betetzeko:
“Ara birjiña, seme bat sortu
eta argitaratzeko,
Jainkoa gugan esan nai duan
Emanuel izendatzeko”.

264

Ondorenean esnaratu zan
Jose ametsetatikan,
ta egin zuan Jaunaren naia
entzun bezela pozikan.
Etzuan laga bere emaztea
aurdun arkitugatikan,
barkazioa eskatu zion
malkoz auspez jarririkan.

265

Jose santuak esana zion
bere andre Mariari:
“Barkatu arte ez naiz jeikiko,
nazu zure serbitzari”.
Baiñan Mariak umil nai zuan
serbitzea senarrari,
Joseri esan zion Mariak:
“Zuk barkatu andreari”.

266

Mariak Jose jeiki azi ta
bera belaunikatuta,
esana zion: “Ni bear nazu
zuk ipiñi barkatuta.
Nai nizun esan gauza au baiña
neukan nigan ixilduta,
orretarako Jaunaren naia
oraindik etzan eldu ta”.

267

Ama Birjiñan itzakin Jose
gelditu zan alaitua,
beregana zeukan Jainkoarekin
espirituz indartua.
Ta esan zion: “Andren artean
zu zera bedeinkatua,
erri danetan gizaldietan
Jainkoak aukeratua”.

268

Ama Birjiñak entzun ondoren
Jainkoa abestu zuan,
Isabeleri esan zizkanak
berriz kantatu zituan.
Otoitz-*extasis* batek artuta
aidean argiz zeguan,
Josek ikusi, ezagutu ta
Jauna adoratu zuan.

269

Grazi aundi bat izan zan Jose
penakin ez urtutzea,
orain grazia aundiago da
pozarekin ez iltzea.
Isabel ta Joan bezela Jose
Jaunak nai zuan jartzea,
Ama Birjiñan bitartez grazi
aundiagoak artzea.

270

Jaun Espirituz Jose santua
gelditu zan argitua,
nai izan zuan Ama Birjiña
izatea serbitua.
Etxe ta ontzik garbitutzeko
berak arturik kontua,
bere aurrean errespetoz zan
belauna lurreratua.

271

Baiñan Mariak nai izan zuan
berak Jose serbitzea,
eskatu zion: "Jose, ez det nai
zu belauniko jartzea.
Ori Jaunari zor zaio baiña
bear da ezagutzea".
Gero ezkutun egiten zion
belauna lurreratzea.

272

Etxe ta ontzi garbitze ori
Josek egingo zuala,
aurreratzen zan egitera ta
Mariak berea zala.
Baiñan Mariak otoitz egiten
Jaunarekin zeguala,
Josek lan oiek egiten zizkan
borondatea zeukala.

273

Mariak otoitz egin Jaunari
Joseri obligatzeko:
lan umil oiek andrearentzat
len bezela lagatzeko.
Bere aingeru goardakoak
esan zion laguntzeko
lan aundietan, baiñan Marian
deseoak betetzeko.

274

Bere etxea zan lengo eran
bizitza bakarrekua,
barruan zitun iru lekuak,
bat Joserren lan-lekua.
Bigarrena zan Josek otoitzak
eta lo egitekua,
irugarrena Ama Birjiñan
otoitz ta lotarakua.

275

Bizi ziraden andre-gizonak
birjin-bizitza santuan,
beren izketan zerutar ziran
Jaungoikoaren onduan.
Jaun Espiritu Santuak beren
itzak esaten zituan,
itzak zer ziran esango duan
mingaiñik ez da munduan.

276

Biek lanean jarraitzen zuen
pobreak ziran moduan,
Ama Birjiñak arizko telak
eskuz egiten zituan.
Aita San Josek arotz-lan ura
ugari izaten zuan;
ordain limosna, “Au balioa”
iñork entzuten etzuan.

277

Birjiñagandik ikasi zuan
Josek lana ez kobratzen,
ematen zien limosnarekin
ixilik ziran pasatzen.
Ta batzuetan jateko ere
etzitzaien allegatzen,
Jaunari umil au eskatuta
jateko zuen izaten.

278

Ama Birjiñak ikusten zuan
aurreratzen jaiotzeko,
senar Joseri eskatu zion
baimena preparatzeko.
“Linozko telak eginda dauzkat
oial-fajak egiteko,
eta lanazko oial fiñak zuk
billatu Aurra jazteko”.

279

Jose santuak erantzun zion:
“Nere andre emaztea,
nai detana da il arteraiño
zuk esana egitea.
Zu serbitzeko nai nukena da
aberatsa izatea;
zuk esan nola; nai dedana da
bere naia jakitea”.

280

Jaunak otoitzez erantzun zien:
“Ni etorri naiz lurrera,
umillak jaso eta arroak
umillatuta jartzera;
pobretasuna onratu eta
ondasunak baztartzera,
luzitu naia ezereztu ta
egiz lana goratzera.

281

Orrengatikan nere naia da
zuek neri tratatzea,
kanpoz semea bezela eta
barruz errespetatzea.
Aitaren Seme Jainko ta gizon,
zor didazue maitatzea”.
Mariak eta Josek nai zuen
bere nai au betetzea.

282

Gero San Josek esku-lanaren
ordain zuana artuta,
billatu zitun oial-lan fiñak
emazteak eskatuta.
Bi tela ziran, zeuden aundiñak,
artu zitun pagatuta;
bat zan zuria eta bestea
kolore *pardo* deituta.

283

Ama Birjiñak tela auekin
oialak egin zituan,
eta bazeukan beste tela bat
berak egiña eskuan.
Kamixak eta maindiretxuak
emendik egin onduan,
sobratu zana Jerrusalengo
Eleizara eraman zuan.

284

Erropa auek josi zituan
amak belaunikatuta,
Josek ekarri usai onezko
belar lorek billatuta.
Usai onezko ura eginda
erropak perfumatuta,
doblatu eta jarri zituan
kaja batean sartuta.

285

Enperadore Zesar Augustok
orduan agintzen zuan.
Agindu zuan: "Izena eman
bakoitzak zuen lekuan".
Jose santua Belen errira
juan bearrean zeguan,
Andre Mariai esana zion
berri au jakin onduan.

286

Ain triste zegon Jose santua
Mariari entzuteko,
Ama Birjiñak erantzun zion:
"Au ez da gu estutzeko.
Agintariak daude lurrean
guri lanak agintzeko,
baiñan gorago dago Jainkoa
beti guri laguntzeko".

287

Ama Birjiñak oroitzen zuan
igarleak len esana:
Kristo Mesias izango zala
Belenen jaioko zana.
Baiñan Joseri etzion esan,
zan ixilik zedukana.
Josek galdetu: "Zer da nik orain
jokatu bear dedana?".

288

Josek nai zuan Jaunagandikan
bere naia jakitea,
erantzun zien: "Nere naia da
Joserekin zu juatea.
Ni izango naiz zurekin beti,
zu zera nere maitea;
zugana datoz naigabek, lanak,
nai det lagun izatea".

289

Jose santua konformatu zan
Marian esanarekin,
erropan kaja eramateko
amak artzen du berekin.
Danak juan ziran beren errira
bakoitzan astoarekin,
asko kostata nekez etorri
zan Jose astoarekin.

290

Artu zituan ogia, fruta,
arrai batzuek jateko,
bost eguneko bidea zeuken
Belen errira juateko.
Ama Birjiñak argiz au zion:
"Guaz nekez etortzeko",
ta enkargatu zuen etxea
etorri arte zaitzeko.

291

Josek alegin egiten zuan
emaztea alaitzeko,
Mariak belauniko jarrita
eskatu bedeinkatzeko.
Dardar ikaraz emana zion
eskatusa betetzeko,
Josek Mariai auspez jarrita
erregutu barkatzeko.

292

Ama Birjiña aingeruaren
Erregiña zan munduan,
milla aingeru goardakoak
beti berekin zituan.
Beatzi milla geiago Aitak
orain ipiñi onduan,
ta beste asko serbitzariak
jetxi ta igo zeruan.

293

Atera ziran Nazaretetik
Belen errira juateko,
Josek Maria astuan artu
zuala eramateko.
Esana zion: "Mantso jungo naiz
zu obeto izateko".
Aingeru danak ere juan ziran
bidean lagundutzeko.

294

Aingeru danak alai juan ziran
Erregiñakin batean,
Jainko-gizona adoratuaz
abesti goxoz betean.
Maria eta Jose pozturik
aingeruk an ikustean,
gau illunetan argitzen zuen
ostatura juan artean.

295

Eldu ziraden ostatu-etxe
batean lo egitera,
dana betean zegoan eta
ate-txoko bat artzera.
Jauna abesten zuan Mariak
aingeruakin batera,
au ikustera Jose pozikan
eldu zan loak artzera.

296

Beste ostatu batzuetara
juanda gaua pasatzera,
etzeukatela lekurik eta
biurtzen ziran atzera,
beste batzutan itz gogorrakin
atetikan biraltzera;
Ama Birjiña biurtutzen zan
berentzat errezatzera.

297

Belen errira zijuaztela
jende askoren artean,
Birjiñak ezagutzen zituan
jende aiek ikustean
beren animak grazian zeuden
edo pekatuz betean.
Askok biurtu ziran onera
Amak otoitz egitean.

298

Inpernurako ziran animak
jartzen ziran saminduta,
bere gorputza miñ aundiakin
indar gabe geldituta.
Askok alditan indartzen zuen
aingeruak lagunduta,
Ama Birjiña aingeru onak
beren besotan artuta.

299

Gaixo ta tristek an ikustean
Birjiñak pozten zituan,
Jaunari otoitz egiteakin
sendaturik segituan.
Neguan elur artean otzak,
lekurik ez ostatuan,
animaliak egiten zien
lekua beren onduan.

300

Jose santuak egiten zuan
abrigatzen alegiña,
ikusirikan bustita otzak
bere emazte Birjiña.
Migel santuak aingeruakin
kendutzen zion sumiña,
besotik eldu ta eramanaz
arintzen zien samiña.

301

Eldu ziraden Belen errira
bostgarrenge egunean,
arratsaldeko laurak ziraden,
illuntzen asi zanean.
Beren lengusu famelittarrak
artu ez zituenean,
kale askuak ostatu billa
pasa zituen gaubean.

302

Eldu ziraden beatzitara
gaubez ta otzak zeudela,
Jose santuak emazteari
esana zion onela:
“Misterion bat daukagu emen,
zaude iñor ez bezela,
akordatzen naiz beste aldean
kueba bat dagoela”.

303

Ama Birjiñak erantzun zion:
“Senar eta Jaun nerea,
ez dezazula gauza augatik
estutu biotz zurea.
Nere Semeak pobretasuna
du alaitasun berea,
guazen gustora leku ortara,
bere naia da gurea”.

304

Abitu ziran kueban billa
gau otz eta illunean,
aingeruaren argitasunak
argitzen zien bidean.
Artzaien ardilekua zan au
estalpean izenean,
Jaunari eman zizken eskerrak
utsikan zegoanean.

305

Leku auxe zan Aita Jainkoak
Semearentzat zeukana,
bakardadean eta pobrezan
Eleiza biurtu zana.
Sartu ziraden Ama Birjiña
santu Joserekin juana,
amar milla aingeru juan ziran
argitzen estalpe dana.

306

Andre-gizonak belaunikatu
ziran pozez beterikan,
Jaunari eman zizken eskerrak
estalpe onengatikan.
Ama Birjiñak eskatu zion
Jaunari biotzetikan
esku zabalez ordaindutzeko
biralduak atetikan.

307

An amar milla aingeru zeuden
gorputza zuen bezela,
San Josek ere ikusten zitun
tropan jarrita zeudela.
Ama Birjiñak gau artan bertan
aurra espero zuela,
asi zan txoko garbitzen eta
Josek egingo ziela.

308

Danen artean laister izan zan
estalpea garbitua,
Josek Maria berotutzeko
jartzen du sua piztua.
Ama Birjiña pozez zeguan
maitasun aundiz sutua,
gogorik gabe apaldu zuan,
Josek zion agindua.

309

Emen lurrean ardi-aska bat
zabal samarra zeguan,
Josek Maria aska onetan
tapatu zuan orduan.
Jose txokoan otoitz egiten
éxtasis-ek artu zuan,
lo goxotikan esnaratu zan
Mariak deitu onduan.

310

Birjiña Irutasunakin bat
belauniko zeguala,
oiñaze gabe jaio zan Jauna,
birjiña gelditzen zala.
San Migel eta San Gabrieli
artuta, amak zeukala,
Joseki deitu, adoratu ta
oialez bildu zuala.

311

Birjiña au zan gazte azia,
amabost urte zituan,
eta bost milla urte ta geio
mundu onek bazituan;
beatzireun da larogei eta
emeretzigarrenguan,
Jesus jaio zan igande batez,
ogei ta lau abenduan.

312

Jauna lenengo adoratua
zan Birjiñaren besuan,
Irutasuna laguntzen zeukan
espezialeko moduan.
Aurrak bere Jainko Egillea
emen adoratu zuan,
aingeru danak adoratu ta
abestu zuen orduan.

313

Amak ipiñi zuan Semea
faja oialez bilduta,
aska barruan, lasto gaiñean,
arri otza tapatuta.
Kanpon zebillen idi bat jun zan
ta estalpera sartuta.
ikusi zuan beren astua,
jarri zan urreratuta.

314

Ama Birjiñak agindu zien
Jauna adoratzeko,
asko izan zan au entzutea
biek belaunikatzeko.
Beren arnasa lagun izan zan
Aurra askan berotzeko,
gizonak eman nai etziena
eman zien bizitzeko.

315

Aingeru onak Jauna Belen-en
abestu ondorenean,
biraldu zitun alderdietara
esatera zuzenean,
berri on aiek zabaldutzero
bazeuden sinismenean;
Migel santua linbora jun zan
jartzera poz aundiñean.

316

Ama Birjiñak eskatu zion
San Migel aingeruari:
“Mesias jauna jaio zaigula
esan aita ta amari”.
Esana zien linboan zeuden
Joakin eta Anari,
erantzun zien: “Zorionak eman
gure partetik berari”.

317

Beste aingeru bat juana zuen
Isabel ta Joangana,
Salbatzaillea jaio zalako
pozez bete ziran dana.
Isabelek morroi bat biraldu
ta estalpera zan juana
dirua eta erroparekin;
au zan an poztua dana.

318

Beste aingeru batzuk biraldu
apaizari esatera,
Zakarias ta Simeon eta
Ana xarrari batera.
Beste batzuek esatera juan
ziran Erregen etxera,
ikusi zuen izarra eta
juan ziran adoratzera.

319

Jaunak biraldu santu Gabriel
artzaiari esatera,
Salbatzaillea jaio zalako
berri onak ematera.
Beste aingeru-tropa aundi bat
agertu zan abestera:
“Aintza Jaunari zeruan eta
pakea gizon artera”.

320

Au da artzaiak esan zuena:
“Jauna askan oialetan”.
Ikustean adoratu zuen
auspezturikan benetan.
Egun argitik eguardi pasan
an egon ziran izketan,
Birjiñak eman zien jateko
juaten ziran egunetan.

321

Artzaiak emen gelditu ziran
gizon santu biurtuta,
beren etxetik ekartzen zizken
al zuen dana artuta.
Estalpetikan juan ziranean
“Mesias zan” zabalduta,
Erodesek il zizken semeak
“Aur danak il!” aginduta.

322

Gu argitzeko ta bizitzeko
Jauna jaio zan lurrian,
etsaiak bere billa zebiltzan
arrotasun gogorrean.
Esaten zuen: “Ez da Mesias,
dago estalpe zarrean”.
Aitak etzien ezer agertu
zeudelako asarrean.

323

Ama Birjiñak dudatu zuan
Aurra zirkunzidatzeko,
Aita Jainkoak esana zion
lege ori betetzeko.
Senar Joseri eskatu zion
ontzi on bat billatzeko,
Aurak ixurtzen zuan odola
osorikan artutzeko.

324

Zortzigarrenge eguna zeuken
izena jartzen ziena,
Ama Birjiñak eta San Josek
lendik jakinda zeukena.
Aingeruk esan, agerturikan,
“Jesus da bere izena.
Bera zaitzeko zerura arte
degu Aitaren baimena”.

325

Josek apaiza ekarri zuan
estalperaiño deituta,
Ama Birjiñak bere Semea
zeukan besuan artuta.
Apaizak bere besuan Aurra
ebaki ta odolduta,
pekataritzat pasa zan Jauna,
Jesus izena artuta.

326

Aurak, besuan ebakitzean,
miñez negar egin zuan,
baita Birjiña Mariak ere
Aurra ikusi onduan.
Bere Aitari eskerrak eman
zizkan Jesusek orduan,
gorputza eman ziolako gu
erositzeko munduan.

327

Belengo apaiz ura asi zan
eskribitzen liburuan:
“Jesus da bere izena” eta
negar asko egin zuan.
Esana zien: “Igarle aundi
izango da au munduan.
Zuen lagun naiz”. Eta limosnaz
ordaindu zien orduan.

328

Ama Birjiñak ukenduakin
sendatzen zion Aurrari,
sendatu arte bere besotik
etzion laga berari.
Amak eskatu aingeruari
agertutzeko kantari,
kantatu zizken zerutar doiñuz
miñez zegon Semeari.

329

Aurak besotik ixuri zuan
odola zuen artua,
kristal-ontzian barruan tela
izan zana txupatua.
Sarrera zuan zillarrezkua,
zan itxita gelditua,
Isabel santak biraldutako
diruakin pagatua.

330

Ama Birjiñak reliki on au
berekin ibiltzen zuan,
neurrigabeko maitasunakin
bere bizitza osuan.
Geroagoan apostoluai
Birjiñak eman onduan,
reliki on au gelditua zan
gure Eleiza santuan.

331

Ama Birjiñak bazekin ara
Erregeak zijuaztela,
Jose santuak estalpetikan
juatea obe zuela;
zeuden lekuan gaizki ta otzak
Ama-Semeak zeudela
Eleizan sartzera juan artean.
“Jose, nai dezun bezela”.

332

Ama Birjiñak esana zion:
“Senar eta jaun nerea,
mende naukazu, segituko'izut,
egizu gogo zurea”.
San Migel eta San Gabrielek
agertu gogo berea:
“Erregek datoz adoratzera
emen Jaungoiko gurea”.

333

Au entzutean alaitu ziran
Jose ta Ama Birjiña,
estalpe ura berriz garbitzen
egin zuen alegiña.
Amak etzuan besotik kentzen
Jaungoiko gizon egiña,
adoratuaz ematen zion
bere bular atsegiña.

334

Baiñan Joseri ematen zion
batzuetan artutzeko
Birjiñak, bere erropak edo
jana preparatutzeko.
Josek barruan sentitzen zuan
gauz bat dana poztutzeko,
eta Aurraren begiratuak
asko ziran alaitzeko.

335

Iru Errege Jaungoiko Aurrari
billa etorri ziranak,
ziran Persia, Arabia eta
Sabba lurretikan juanak,
Palestinako orientetarrak,
profetak lendik esanak,
Kristo Errege jaioko zala
señalatzearan izarrak.

336

Iru Errege auek ziraden
oso gizon jakintsuak,
letzen zituen Jaungoikoaren
Eskritura sagraduak.
Zuzenak ziran aginduetan,
Berri Ona sinistuak,
irurak ziran “Kristo jaio da”
itz egiñak aingeruak.

337

Entzun ondoren atera ziran
aintza emanaz Jaunari,
adoratu zuen espirituz
musu emanaz lurrari.
Nora zijuazten etzien esan
beren mende zeudenari,
artu zituen iru doaiak
eramateko berari.

338

Urrea, intzentsua ta mirra
zeuzken doairik onenak,
artu zituen abereakin
morroiak eta jatenak.
Ikusi zuen izar argi bat
argitzen bide zuzenak,
irurak alkar billatu zuen
aurrari billa zijuaztenak.

339

Izarrak argi egiten zien
egunez eta gaubean,
eta izar au gorde egin zan
Jerusalena sartzean.
“Nun da Errege jaio berria?”
—galdetu zuen onean—.
Izarra ikusita gu gatoz
au adoratu naiean”.

340

Bertan bizi zan justizi gabe
Erodes errege zana,
bildur arrabiz jarri zan eta
jarri zuan erri dana.
Galdetu zien apaiz-eskribai:
“Nun dago Kristo esana?”.
Erantzun zien Belenen eta
juan zan Erregerengana.

341

Galdetu zien Erregeairi
gaiztoz aparte artuta:
“Noiz agertu zan izar argi oi?”.
Jarri zan enteratuta.
Tranpaz biraldu zitun Belena:
“Eta Aurra billatuta,
etorri neri au esatera,
gurtzeko ezagututa”.

342

Iru Errege Jerusalendik
atera ziradenean,
billatu zuen beren izarra,
argitu zien bidean.
Eldu ziraden Belena eta,
estalpea ikustean,
izarra sartu ta gelditu zan
Aurraren buru gaiñean.

343

Iru Erregek lendik zekiten
Aur ura Jainkoa zala,
Jaun Espiritu Santuan obraz
Ama birjiña zuala;
Jose santua bere senarra
an berekin zeguala;
billatu zuen Ama Birjiña
Aurra besuan zeukala.

344

Birjiñak zeukan edertasuna
arpegia argituta,
Jesus Jainkoak botatzen zitun
argizko txispak piztuta.
Estalpe dana gelditua zan
zerutarra biurtuta,
Erreg eak an gelditu ziran
ixilikan arrituta.

345

Adoratu zuen auspezturik
Jaungoiko gizon egiña,
ezagutu zituen aingeruk
an laguntzen alegiña.
Zorionak eman zizken Amari,
berentzat zan Erregiña.
Erantzun zien: “Nere espiritun
Jaunagan det atsegiña.

346

Nere animak bedeinkatzen du
ta abesten du Jainkoa,
mundu osotik aukeratuta
zuek ekarritakoa.
Lengo santuak etzuten izan
ditxa au ikustekoa.
Lurrari musu eman deiogun
berak santututakoa”.

347

Iru Erregek Ama Birjiñan
esan onak entzutean,
berriz adoratu zuen Jauna
umiltasunez betean.
Santu Joseri zorionak eman
zizken irurak batean,
Jaunaren Aman senarra zala
misterio aundin artean.

348

Gauza auetan pasa zituen
iru ordu Erregeak,
ikusen zuen an gelditzeko
lekurik ez estalpeak.
Birjiñak eman baimena eta
arturik laguntzailleak
erriko ostatura juan ziran
argiz ta graziz beteak.

349

Atera ziran estalpetikan
Birjiña despedituta,
berri bertara biurtzekotan
gaubez an deskantsatuta.
Ikusi zuen pobrezarekin
zeuden oso arrituta,
lasaitu ziran gauza on asko
morroiakin biraldua.

350

Ama Birjiñak ordaiñez poza
zan Erregeri emana,
gauza on auek izan zituan
pobrei emateko jana.
Erregek ostatuan zeudela
negarrez zuen esana:
“Zer egin bear degu guk orain
agintzeko bear dana?”.

351

Iru Erregek izan ziraden
pozikan lotaratuak,
ta ametsetan itz egin zien
Erregeai aingeruak:
ez biurtzeko Erodesgana,
zeuzkala asmo gaiztuak,
berak errege jarraitzearen
Aurra iltzeko goguak.

352

Errege auek egunsentian
biurturik estalpera,
adoratu zuen Aur Jainkoa
auspezturikan lurrera,
urrea, intzentsua ta mirra
doai auek eskeintzera,
ta Birjiñari zeuzkaten dudak
umildurik galdetzer.

353

Galdetu zizken fedeko gauzak
eta kontzientzikuak,
baita mendeko zeuzkaten aiek
ondo gobernatzekuak.
Ama Birjiñak oso gustora
ziran dudak adituak,
Jaunak biotzez erakutsita
ziran erantzundakuak.

354

Ama Birjiñak iru doaiak
eskeiñi zizkan Aurrari,
Aur Jaungoikoak bendizioa
eman zien irurari.
Ikusi zuen zerutar poza
juana zutela berari,
bateko egun baiño geiago
sortu beren biotzari

355

Eskeiñi zizken kollare eder
balio aundiñekoak,
Aur Jaungoikoak Erregeri
ziran biurtutakoak.
Birjiñak eman zazpi batzuek
Aurra an bildutakoak,
izan zituen milagro asko
ta aundik egindakoak.

356

Ama Birjiñan itzak entzuten
aspertu ezin zirala,
aingeru batek esana zien
Jainkoaren naia zala
beren lurrera biurtutzea.
Baiñan esan zien ala:
nai bazituen etxe ta gauzak
beren kontu zijuala.

357

Eskeintza auek ontzat arturik
ametitu etzitan,
ta Birjiñari: “Ez aztu gutzaz”
esan zien segituan.
San Josek ere Erregen itzak
berekin esan zituan,
Erregek negarrez erten ziran,
zeuden maitasun sutuan.

358

Beste bidetik abitu ziran
Erodes ez ikusteko,
eta izar bat agertzen zaie
bideak erakusteko.
Beren lurretan lan egin zuen
dotriña erakusteko,
Ama Birjiñak lagundu zien
beste mundura juateko.

359

Iru Erregek estalpetikan
etxeratu ziranean,
Ama Birjiñak eta San Josek
esana zuen onean:
“Artu ditugun iru doaiak
Aur Jainkoan izenean,
ez da egoki edukitzea
emen alpertasunean”.

360

Jarri zituen iru partetan:
lenengoa Eleizari,
Ama Birjiña bizi izan zan
Jerusalengo berari.
Beste partea Belengo apaiz
estalpen izan zanari,
irugarrena partitu zien
Jainkoaren pobreaki.

361

Juan oi zitzaien auzoko andre
pobre on bat estalpera,
ta Birjiñari: “Bai al dakizu?
Au eldu naiz entzutera:
‘Errege batzuk etorri ziran
Mesias billatuzera’.
Nola entendituko degu au?
Nator zuri galdetzera”.

362

Ama Birjiñak ezaguturik
biotz onekoa zala,
erakutsi zion sinismena,
baiñan ez berak zirala.
Birjiñak eman urrea zerbait
laguntza izan zezala,
bere etxera eraman zitun
obligatu zituala.

363

Aurra Elizan sartu artean
juan ziran an bizitzera,
beren aingeru guztiak ere
juanak berenkin batera.
Andretxo onek eraman zitun
zeukan leku onenera,
ta aingeru bat ezpatarekin
jetxi zan kueba zaitzera.

364

Ama Birjiña edertua zan
egiñaz obra ugari,
Seme Jainkoa eskeiñitzeko
Eleizan bere Aitari.
Juan zitzaizkien eskale batzuk
galdetzera Birjiñari
umekeriak, baiñan Birjiñak
argitu zien danari.

365

Jesus jaio ta berrogei egun
eldurik urreratzera,
Ama Birjiña Semearekin
juan zan purifikatzera,
bere Semea maiorazkua
an Eleizan eskeintzera;
Jose santua lagun juana zan
lege zarra betetzera.

366

Atera ziran etxekoandre
on ura bedeinkatuta,
Jesus jaio zan estalpe ura
errukiz despedituta.
An gelditu zan aingeruari
zaitzeko enkargatuta,
Ama Birjiña oiñez juana zan
Aurra besuan artuta.

367

Bi legua zeuden Belen erritik
Jerusalena juateko,
Josek erropak ta erregalik
astuan eramateko.
Amar milla aingeru ta geio
an zituen laguntzeko,
agerturikan berenkin juanak
egun da gau argitzeko.

368

Denbora artan egoaldi otzak,
izotza jeixten zijuan,
Ama Birjiñan besuan Aurra
otzak dardar jarri zuan
negar egiñaz, eta Birjiñak
agindu zion orduan
aize otz ari: “Ez oztu Jauna”;
epeldu zan segituan.

369

Aurrari otza kendu zitzaion
baiñan ez gurasuari,
Espirituak itz egin zien
Simeon eta Anari:
Mesias Aurra bazetorrela
an eskeintzera Aitari,
billatzeko ta ospedatzeko
esan maiordomoari.

370

Onek etxean artu zituan
Mesias ta gurasuak,
ta ostatua bazutelako
gelditu ziran poztuak.
Birjiñak esan: “Jose, eraman
Erregek emandakuak”.
Jose etzuen ezagutu ta
ziran ixil geldituak.

371

Erosi zitun bi uxokume
Eleizan an emateko,
aberatsak zeuken arkumea
legean eramateko.
Baiñan Jaunaren gogokoa zan
pobrezan agertutzeko,
urrengo egunean Eleizan
Aur Jainkoa eskeintzeko.

372

Lukas santuak dion bezela
Simeon au zan justua,
espero zuan Mesias eta
zeukan Jaun Espiritua.
Baita Ana profetisa ere
laroetalau urtekua;
gaubez bieri esan ziena
zan Espiritu Santua.

373

Aita Jainkoak erabakia
zan Eleizan eskeintzeko,
maiorazko ta Jainko bezela
lege santa betetzeko.
Aitaren naia ta Semeana
bakarra zan bizitzeko,
Birjiña pozez preparatu zan
Eleizara etortzeko.

374

Eldu zanean urrengo goiza
Amak Aurra apainduta,
bi uxokume ta bi kandela
Eleizarako artuta,
Jose senarra lagun zutela,
aingeruak agertuta,
ostatutikan atera eta
zeuden Eleizan sartuta.

375

Ango apaiza Simeon ura
Eleizan sartu zanean,
ikusitun Ama-Semeak
aintzaz argitasunean.
Ana profetisa ura ere
sartu zan ordu berean,
pozez beterik gelditu ziran
Erregiñaren aurrean.

376

Apaizak artu Jesus Aurra ta
eskeiñi zion Aitari,
begiak jaso zerura eta
kantatu zion Berari:
“Orain, Jauna, agindu bezela
zure serbitzariari,
pakean eta libre eraman
askaturik gorputzari.

377

Nere begiak ikusi dute
zure osasungarria,
danen aurrean zuk jarritako
erri danen pozgarria.
Nai duen danak artu dezaten
osasun-pakez argia,
Bera da aintza Israelkoa
agertutzeko egia”.

378

Mariak eta Josek aditu
zuen apaizan kantua,
ta Simeonek Aurrari Amari
auxe zan esandakua:
“Ara, Andrea: Aur auxe degu
bizitza Israelkua,
zure anima izango dezu
ezpatakin zulatua”.

379

Ama Birjiña, entzuteakin,
gelditu zan penatua,
bere biotza samintasunez
izandu zan zulatua,
Jesus zalako sinisgabeak
kausa arruinaiztekoa,
baiñan fedea duenentzako
bere miñakin piztua.

380

Apaizak bedeinatu zituan
Jesus Aurraren gurasuak;
Ana profetisak esan zitun
misterio Jaungoikozkuak.
Bi xar auek esan zuenakin
ziran gauzak agertuak;
Aurrak burua makurtu zuan,
ontzat artu tormentuak.

381

Jose santuak samíñez entzun
zituan esandakuak:
profetak esan zituenak ta
Jaunaren misteriuak:
Jesus goxoak artuko zitun
neke lan aundiñekuak,
bere odolez gu erosteko,
zeruratzeko gaiztuak.

382

Simeon eta Ana ziraden
Mariakin bizituak,
Eleizatikan ateratzeko
zituen bedeinatuak.
Ostatuko egunak zituen
Simeonek pagatuak;
Aurrak Amari: "Ez negar egin;
nai du Aita Zerukuak".

383

Amalau milla aingeru juaten
ziran zijuazten lekura,
Amak nai zuan beatzi egunez
Eleizatik ostatura.
Eta bostgarren eguna zala
Aitak itz egin barrura:
"Zure Semea zaitu il gabe,
jun Josekin Ejitura".

384

Gau artan bertan aingeru batek
Joseri esan deituta:
"Jeiki zaitez ta zuaz igesi
Ama-Semeak artuta;
jun Egitura eta an bizi
biurtutzeko deituta.
Etorriko da Erodes billa,
Aurra iltzea nai du ta".

385

Jose jeiki zan eta juana zan
andreari esatera:
"Animatu zaite igesteko,
Erodes dator iltzera
gure Aur goxo, zure Semea.
Nator zuri laguntzera".
Erantzun zion: "Onak bezela
guazen txarrak artutzera.

386

Guk eramango degu gurekin
zeru-lurren Egillea;
ez da esku indartsuagorik,
Bera da poz emaillea".
Jesus Aurra lo zeuken sieskan,
zan gauerdi otzkillea.
itz goxoakin esnatu zuen,
ta zan bedeinatzaillea.

387

Jose santuak artu zituan
Ama-Semeak astuan,
Jerusalendik atera ziran
gau ixil da illunduan.
Aingeruak, argi egiñikan,
esana zien orduan:
"Erodes dana jakinda dago,
il nai luke segituan".

388

Gure santuak eldu ziraden
Hebron lurraren urrera,
ta aingeru bat biraldu zuen
Isabeli esatera:
“Gorde ezazu zure seme Joan,
Erodes dator iltzera”,
gaubez presaka Jesus zijuala
beregandik igestera.

289

Isabel santak gizaseme bat
biraldu zun billatzeko,
jana, dirua eta erropak
emanik eramateko.
Billatu zitun Gaza errian
erregalik emateko;
Jose santuak eskatu zion
ez iñori esateko.

390

Jose ta astua nekatu ziran
ogei orduko bidean.
emen bi egun pasa zituen
berriz juateko idean.
Ekarri zien jana jan zuen
pobrearekin batean,
Birjiñak jarri iltzen zeudenak
emen osasun onean.

391

Ama Birjiñak goguan zeukan
Semea ondo zaitzea:
erropaz bildu, bularra eman
eta besuan artzea.
Joseri Aurra ematen zion
nai ziolako poztea,
Aurrak biotzak pozten zizkien
animatzeko juatea.

392

Gaza erritik atera ziran
irugarren egunean,
utzirik Palestina erriak,
Ejitora zuzenean.
Pasarikan irurogei legua
ondar-lur bakardadean,
egun batzuek gose ta otzik
pasa zituen bidean.

393

Sartu ziraden Ejito lurren;
orain *Kairo* du izena,
juan ziranean *Heliopolis* zan
oni deitutzen ziena;
emen jaungoiko faltsuak zeuzken,
zan adoratzen zuena;
eleizatxotan etsaiak zeuzken
sorgin-izketak zeuzkena.

394

Ama Birjiñan besuan Jesus,
eta San Jose onduan,
sartu ziraden leku auetan,
Aurrak otoitz egin zuan.
Errori ziran idolok eta
beren eleizak orduan,
bertan bizitzen zeuden etsaiak
inpernuratu zituan.

395

Ama Birjiñak eta San Josek
ezagutzen zuen dana:
Jesus au zala anima aiek
salbatu nai zituana.
Erri guztiak bildurtu ziran
ikusten gertatu zana,
jakintsu batek oroitu zien
Jeremiasek esana.

396

Profeta santu Jeremias au
Ejiton egon zanean,
esana zien: "Judutarra dan
Erregek, datorrenean,
Ejiton dauden eleiz faltsoak
jarriko ditu lurrean".
Etzekiten au noiz ta nola zan,
danak zeuden bildurrean.

397

Galdetu zien Birjiñari au
kanpotarrak ikusita:
"Jaungoiko gabe gelditu gera
apurtuta erorita".
Ama Birjiñak erri aueri
fedea erakutsita,
asko biurtu ziran onera
sorginkeriak utzita.

398

Eldu ziran erri Hermopolis
Merkuriokoa deitzeko,
emen zeukaten arbor eder bat
adoratzen ibiltzeko.
Etsai gaizto bat bertan jarri zan
adorazioak artzeko,
Jesusek bota etsaia eta
ojak ziran sendatzeko.

399

Kairon urrean iturri eder
ur garbiena bazuen,
Ama-Semeak bertatik ura
edan egin omen zuen.
Birjiñak an Semean oialak
garbitu omen zituen,
ikusten dira gaiztoak emen
mesedek artzen dituen.

400

Etsai Luzifer arro erten zan
Ejitora, ikustera
bertan jarrita zeuzkan etsaiak
nor eldu zan botatzera,
Billatu zuan Birjiña eta
juan zan tropakin galtzera,
Aurra etzuan ezagutzen da
bota zitun su-leizera.

401

Aingeru onak esan zioten
erri Kairon gelditzeko,
Ama Birjiña eta San Jose
Aurrakin an bizitzeko.
Artu zituen lau parete uts
prestatu ta garbitzeko,
Jose santua iru egunez
eskean juan zan jateko.

402

Jose santua arotz-lanakin
asi zan erosten jana,
andreatzat olezko oia
lenenbo egin zuana;
eta urrengo sieskatxo bat
Jesus jartzeko etzana,
eta Jose zan lurrean beti
loa egiten zuana.

403

Etzitzaioen itz bat atera
lengo gauzak oroitzeko,
Nazareteko edo Erregen
gauzak deseatutzeko.
Etxe uts ura artua zuen
errentakin pagatzeko,
eta Jaunaren pakean zeuden
bere naia betetzeko.

404

Etxe uts onek bere barruan
iru leku bazituan,
Ama-Semeak beren oiekin
jarri ziran lenenguan.
Josek otoitzak eta lo-leku
jarri zan bigarreguan,
arotz-lanean jarraitzen zuan
leku irugarreguan.

405

Ama Birjiña ere asi zan
egiten eskuzko lanak,
bi emakumek errukiturik
ziran erropak emanak.
Birjiñak zer lan egiten zitun
auk kalean esanak,
lana ugari ekartzen zien,
egiten zituen danak.

406

Jende-taldeak juaten ziraden
Ejiton Birjiñagana,
gaixo zeudenak sendatzen zitun
gorputz ta anima dana,
erakutsiaz barkatutzea
zala Jaunak nai zuana.
Neurri gabeko jende-taldea
biurtu zan Jaunagana.

407

Gure santuak Ejiton bizi
izanak zazpi urtean,
Jesus iltzea nai zun Erodes
bera il zan bitartean.
Izugarrizko legorte batek
urturik urte batean,
gripe txar batek jarri zituan
gaixo-etxeak betean.

408

Ama Birjiña eta San Jose,
Jesus Jainkoa artuta,
juaten ziran gaixo-etxetara,
asko zeuden gaixotuta.
Ama Birjiñak gaixo ugari
jarri zitun sendatuta,
San Josek ere asko sendatu
zitun Jaunak lagunduta.

409

Ama-Semeak Ejiton zeuden
San Joserekin batera,
Erodes samih iritxia zan
burlatua izatera.
Agindu zuan: "Zuazte azkar
iru oiek billatzera".
Juan ziran billa. Inork etzekin,
ta eldu au esatera.

410

Etsaiak jarri zion barruan
Erodesi poztutzeko:
"Agindu zazu bi urtez bera
dauden aur danak iltzeko".
Bere tropari agindu zien
agindu au betetzeko:
Belenen eta alderdietan
gogor, berak ez galtzeko.

411

Sei illabete bakarrik ziran
Jesus jaio zanetikan,
asi ziraden aur danak iltzen
erregek agindurikan.
Birjiñak argiz dana ikusten
zijuan Ejitotikan,
Aman erreguz aurrak jakinda
il ziran Jaunagatikan.

412

Jesusek ere eskatu zion
bere betiko Aitari:
lagun zeila aur inozente
aien aita ta amari;
ta uso arrazoizkoa eman
zeiola aurtxo danari
martiri illak izan zitezen,
ta ordaintzeko aurrari.

413

Betiko Aitak Jesusen naia
dana ondo bete zuan,
Ama Birjiña dana jakinda
negar samiñez zeguan.
Isabel santa nola ote zan
oroitzen zuan orduan;
Jesusek barruz agertu zion
alargun nola zeguan.

414

“Isabel juan zan basamortura
Espirituak deituta,
bere seme Joan eraman zuan
Erodese bildurtuta.
Bertan bizi da otso artean
kueba batean sartuta”.
Birjiñak noizbait alaitzen zuan
aingeruak biralduta.

415

Joan aurtxo urte batekin
zan basora eramana,
ta amarekin iru urtean
bertan bizi izan zana.
Isabel il zan pake santuan
eta linbora zan juana.
Lau urterekin Joan bakarrik
basuan gelditu zana.

416

Joanek asko supritzen zuan
ama il zitzaionean,
uso arrazoizkoa bai baiña
indar gutxi gorputzean.
Birjiñak aingeruak biraldu
negarrez zeguanean,
Joanek ama enterratzen du
aingeruak laguntzean.

417

Ama Birjiñak Joan zaitua
ama il ondorenean,
aingeruakin jana biraltzen
zion txikia zanean.
Azi zan arte jana billatzen
basuan otso artean,
bere jana zan: belarrak, zaiñak,
lixtor-eztia, zuanean.

418

Jesus Jainkoak, Ejiton zala,
urte bat betetzen zuan,
Birjiñak bere Semearekin
biotzez itzak zituan.
Jose santuak neurririk gabe
Jesus maitatzen zijuan,
lenengo itza zan “Nere aita”,
zeukala amak besuan.

419

Jose santua Jesusentzat zan
bere aita ordekoa,
baiñan aita danak baiño geio
graziz maitatutakua.
Jose santua bere aurrean
apal belaunikatua,
eta eskerrak eman zizkion
zalako aita deitua.

420

Jesus urte bat bete artean
egon zan oial-fajetan,
ondorenean jartzen zituen
aurtxuak beren gonetan.
Amari esan: “Jantzi bat nai det,
aziko zait urtietan;
au izango da suertatua
nere azken orduetan”.

421

Ama Birjiñak eskuz egiña
tunika Jesus jazteko,
gantzontzilloak ta sandaliak
amak jantzi ibiltzeko.
Amak eskutan egiñak danak
Jauna zan ez zikintzeko,
eta berekin azi ziraden
beartsu zan bizitzeko.

422

Baita kapa bat egiña zion
Nazaretera juatean,
kapa au ere azi egin zan
gorputzarekin batean.
Beste denboran arkumeakin
azkeneko apaltzean,
kapa onekin legortu zitun
danen anak garbitzean.

423

Jesusek urte bat iraun zuan
bildurikan oialetan,
eta ibiltzen ondo zekian
jarri zanean gonetan.
Bularra artzea utzi zuan,
jan gutxi otorduetan,
asi zan juaten otoitz-lekura
gutzaz eskatzen benetan.

424

Amak Semea billatzen zuan
otoitzean auspeztuta,
Aitari eske negarrez eta
odolez izardituta.
Amak legortzen zion musua
benetan errukituta;
bere kausa zan: “Animak ez nai
salbatzea barkatuta”.

425

Jesus Aurra azitzen zijuan,
zan ederra ta goxua,
asi zan juaten gaixok poztera
zanean sei urtekua.
Asko jun ziran zorion emanaz
zeuken seme olakua,
Kairo errian jende askuak
zan Jesus ezagutua.

426

Jesus Ejiton bizi zanean,
zala zazpi urtekua,
Aitak Jesusi esana zion
au zala bere gogua:
“Biurto zaite Nazaretera,
pasatu da peligrua”.
Erantzun zion: “Bai, Aita, nai det”.
Au zan Amak aditua.

427

Gau artan bertan aingeru batek
Joseri zion esana:
“Ama-Semeak artuta zuaz,
au da Aitak nai duana,
Israeleko Nazaretera;
illa da errege zana:
Erodes eta bere koadrilla,
Jesus galdu nai zuana”.

428

Josek esana zien berri au
Aitaren borondatea.
Erantzun zien: "Nai deguna da
bere naia egitea".
Etxean zeuzken alajak pixkak
nai zituen ematea,
Jesusek eman zizken pobreai,
zala errukiz betea.

429

Beren ezagun aundien batzuk
juan berak zeuden etxera,
oso maiteak ziradelako
etxe ortan bizitzera.
Ezagun danak negar samiñez
etorririk agurtzera,
gure Santuak atera ziran
Palestinako bidera.

430

Jose santuak artu zituan
Ama-Semeak astuan,
ta Jose bera oiñez zijuan
Ama-Semean onduan.
Bakardadera erten baiño len,
lengo erri pasatuan,
gaixo asko an sendatu zitun
Jaunak errukiz orduan.

431

Sartu ziraden bakardadeko
etorri ziran bidean,
aingeru-tropak berekin ziran
egunez eta gaubean.
Gose ta otzak pasa zituen
etorri ziran antzean,
mirariz jana izaten zuen
estutasun aundiñean.

432

Eldu ziraden Palestinara,
Josek jakin gertatua:
Erodesen semea zuela
errege izendatua.
Jesus galtzea nai ote zuan
Jose zuan bildurtua,
Jerusalena biurtu gabe
zan Nazareten sartua.

433

Aitak nai zuan Jesus oneri
Nazaretarra deitzea,
Beraren aintzaz lana egiñaz
Nazareten bizitzea.
Billatu zuen andretxo arek
ondo zaitua etxea,
eskerrak eman zizkan Jaunari,
an zeuken Jesus gaztea.



Baratzan.

Bostgarren liburua

**Nola ziran Santa Mariak imitatuak
Jesus Jaunaren erakutsiak
eta fedeko gauzak.**

Jose Santuaren eriotza.

Joan Bautistaren predikatzeak.

Jesusen barauak eta bataiatzea.

Lenengo ikasleak biltzea

eta nola izan zan bataiatua Ama Birjiña.

434

Ama Birjiñak Jesusekin bat
otoitz egiten zuana,
eta etxeko lanak egiñaz
jarri berentzako jana.
Jose santuak oso gustora
egiten arotzen lana,
Jainko-Semeak ta bere Amak
izateko bear zana.

435

Ezjakiña naiz misteriozko
bizitza au esateko:
Jaunak nai zuan Ama Birjiñak
merituk irabazteko,
ta jakin zezan lege berria
besteai erakusteko.
Jesus serio jarri zitzaion
ta illun ezagutzeko.

436

Ama Birjiñak umiltasunez
au da esaten zuana:
“Ez det erantzun egiteakin,
nere errua da dana.
Autsa naiz eta ez det merezi
lurra ematea jana,
eskerrak, Jauna, ta egin bedi
nerekin nai dezuana.

437

Aingeruari eskatu zien:
“Esan neri barkatzeko,
nere biotza urtu ez dedin
gauza nadiñ maitatzeko”.
Erantzun zien: “Andre Erregiña,
Jauna dezu laguntzeko,
biotz umillai begira dago.
poztu miñak ez galtzeko”.

438

Jaunak etzion kaso egiten
Birjiñari samiñetan,
baiñan beraren egiteakin
alaitutzen zan benetan.
Birjiña miñez eta negarrez
zan egun askoetan.
Jaunak ondoren grazi-bizitzan
jarri zuan goienetan.

439

Ondorenean Birjiñak esan
zion Jesusi benetan:
“Barka eidazu uts egin badet
nere eginbearretan”.
Erantzun zion: “Ama nerea,
ipintzen nazu pozetan;
Aitaren naian jarriko zaitut
Lege Berriko gauzetan”.

440

Ama Birjiñak bere ordutan
beti egin zuan lana:
jana ipiñi, Jose serbitu,
ondo jarri bear zana.
Birjiñak Jesus biraltzen zuan
aita ordekuangana,
laguntzen zion arotz-lanetan,
Jose poztutzen zan dana.

441

Ama Birjiña eta San Jose,
Jesus Aurtxoak artuta,
urtero juaten ziran Tenplora
legeak obligatuta.
Gizasemeak bakarrik zeuden
“Juan zaitez” aginduta;
Jose santua alai juaten zan
Ama-Semek lagunduta.

442

Nazaretetik Jerusalem
ogei ta amar legua dira,
andre-gizonak jua oi ziraden
Aur Jainkoari begira.
Beren amar milla aingeruak
artzen zituen erdira,
oso poliki jarraitzen zuen
eldu artean errira.

443

Jesusek oiñez juatea nai zun
Jainko Aita serbitzeko,
mutil koxkorra zan bezelaxe
nekaturik jarraitzeko.
Eskutik eldu ta artzen zuen
nekea zerbait kentzeko,
Birjiña belauriko jartzen zan
arpegia garbitzeko.

444

Bide onetan gaubak pasatzen
zituen ostatueta,
baita lurrean lo egiñaz e
gau osuak batzuetan.
Aurrak Eleizan otoitz egiten
zuan gugatik benetan,
Birjiñak zekin an ilko zala,
oroituaz negarretan.

445

Jesus Jainkoak amabi urte
beteak zituanean,
igo ziraden Jerusalem
oitura zuen antzean.
Pazkoa jaiak ospatzen ziran
Tenplon zazpi egunean,
egun auetan jartzen zituan
Jaunak ditxa aundiñean.

446

Ondorenean atera ziran
Nazaretera juateko,
Jerusalendik ateratzean
Jesus gorde gelditzeko.
Gizasemeak bide batetik
zijuazten etxeratzeko,
emakumeak beste bidetik,
aurrak libre ibiltzeko.

447

Jesus erten zan Jerusalem
bere amaren onduan,
Aurrak Amari pentsatze onak
jarri zizkion buruan;
eta agertu zan bakarrikan
andik geroxeaguan,
"Josereñana juango zan Jesus"
pentsatu zuan orduan.

448

Jose santuak pentsatzen zuan
Amarekin zijuala,
jarraitu zuen ostaturaiño,
an ikusiko zirala.
Eldu ziranen ikusi zuen
Jesus etorri etzala,
Ama Birjiñak aitortu zuan
ondo zaitu etzuala.

449

Galdetu zien berentarrari
Jesus ikusi al zuen.
Erantzun zien danak esanaz
nola ikusi etzuen.
Biurtu ziran Jerusalem
arnas artuko bazuen.
Irabazteko merezimentuk
mingarri auek zituen.

- 450
 Birjiña juan zan Jesusen billa
 negar samiñez orduan,
 iru egunez ez jan da ez lo,
 martiri aundiñekuan.
 Basamortura abitua zan,
 an Joanekin zeguan.
 Aingeruk esan: “Ez daukazu an”.
 Nun zan galdetu etzuan.
- 451
 Ama Birjiñak galdetzen zuan
 Jerusalengo kalean,
 ikusi zuen txuri-gorri bat,
 ederra millen artean.
 Andre batzuek esan zioten:
 “Emen izan da eskean;
 guri biotza alaitu digu
 jatekoa ematean”.
- 452
 Jose santua beste bidetik
 etorri zan penatuta,
 ez jan da ez lo, bere indarrak
 ezin geiago aulduata.
 Jerusalem aurreratu zan
 aingeruak aginduta,
 Birjiñarekin juan zan Tenplora
 aingeruak zuzenduta.
- 453
 Jerusalemen gelditua zan
 Jesus iru egunean,
 eskean biltzen zuana janez
 pobrearekin batean.
 Gaixo batzuek sendatu zitun
 Aitaren borondatean,
 ondorenean Eleiza juan zan
 aundien junta zanean.
- 454
 Bildu ziraden jakintsu eta
 maixuak dudak kentzeko,
 etorri ziran beren oituran
 Eskriturak berritzeko.
 Disputan zeuden Kristo jaio zan
 edo zuen etortzeko.
 Danen erdira Jesus sartu zan,
 gogoz zeuden entzuteko.
- 455
 “Entzun dizuet ta entenditu
 emen duda izan dana:
 Mesias nola etorriko dan,
 indartsu dezakeana.
 Isaiasek: Bere erria
 da salbatuko duana,
 Eskriturak promesaz beteak,
 etorrera da esana.
- 456
 Baiñan profetak esana dauke
 beste au're jakiteko,
 ta auek ere, gertatzekoak,
 egik dira esateko.
 Isaiasek: ‘Etorriko da
 gizonen beren arteko,
 ta eramango due iltzera,
 ez du aua idekiko’.
- 457
 Jeremiasek: ‘Bilduko dira
 Mesias pertsegitzeko,
 bere izena borratu nairik
 ta eziñik gelditzeko.
 Dabidek zion izango zala
 erri-gizonak galtzeko,
 eta lurreko ar bat bezela
 desprezios zapaltzeko’.

458

Zakariasek: 'Etorriko da umiltasunez betean, agertuko da errukigarri astotxo baten gainean'. Profeta danak esana dauke auek dioten antzean, indartsu danak austera dator munduaren azkenean.

459

Ezin ukatu degu: etorri bear du bi aldietan. Lenengoa da grazi-bizitza ipintzera animetan. Bigarrena da juzgatutzeko gaizto ta onak benetan. Bi etorrera auek dauzkagu profetaren esanetan.

460

Lenengo etorrera bear da etsaiak menderatzeko, pekatu egin zanetik daukan nagusitza kendutzeko. Orrengatikan gizonen zorra Jainkoari ordaintzeko, erakutsiaz etsaiak kentzen Jainkoa adoratzeko.

461

Bigarrengean eskatuko da kontua gizon danari, ordainduko die zeruakin ondo egin duenari, kastigatuaz asarreakin ondu nai etzuenari. Auxe esaten die profetak bigarren etorrerari.

462

Lenengo etorrerak onela au da esaten duana: 'Indartsu Errege izango da' degu Dabidek esana. Au ezin leike onela esan Errege gorputzez zana, baizik Errege espirituan Eleizan biziko dana.

463

Jainko-erria Erroman mende, indarrak kendutakoa, etorri ez dan señale ez da, baizik etorritakoa. Aita Jakobek señale auxe zeukan ezagutzekoa: 'Mesias etortzean Israel izango da mendekoa'.

464

Baita esana Danielena, denbora da kunplitua. Oroituko da memori dunak nik dedana aditua. Urte gutxi da: Belenen gau bat izandu zan argitua, artzai pobreai esana zien: Kristo da jaiotakoa.

465

Ondoren etorri Erregeak izar batek zuzenduta, judutarren Erregea nun zan Erodesi galdetuta. Arkelaoren aita zan arek, galdu zala bildurtuta, au iltzearren ainbeste ume il zituan aginduta".

466

Beste arrazoi geiago ere
Jesusek esan zituan,
eskriba eta letradun aiek
iñork itzikan etzuan.
Arriturik alkarri begira
galdetzen zuen orduan:
"Nundikan dator Aur au?" ta iñork
an ezagutu etzuan.

467

Aur Jaungoikoak bere esanak
ababatu etzitan,
Ama Birjiña eta San Jose
ikusi zitun onduan.
Jesusek esan zituen itzak
entzun zituen orduan,
jakintsu aiek arriturikan
danak jeikiak zituan.

468

Ama Birjiña pozez bete zan
Semea an ikustean,
jakintsuari esan zizkien
azken itzak entzutean.
Esana zion: "Seme, zergatik
utzi gaituzu batean?
Aita eta ni billa gebiltzan
samintasunez betean".

469

Erantzun zien: "Zergatik nere
billa zebiltzaten ala?
Etekizuen Aitaren gauzak
zaitzea komeni zala?"
Birjiñak ere misterio au
entenditu etzuala,
biurtu ziran Nazaretera,
Jesus bertan zijuala.

470

Jerusalendik erten ondoren,
bakarrik zeuden orduan,
Birjiñak belauniko jarrita
Jesus adoratu zuan.
Eskatu zion barkatutzeko
gaizki serbitu bazuan.
Jesusek Ama zeruko pozez
alaitu zuan munduan.

471

Birjiñak esan zion Jesusi
deskantsatuaz jateko,
kanpon eseri ta eman zion
Amak jana bizitzeko.
Anima asko jarri zituan
sendaturik salbatzeko,
Amari esan zizkan gauz asko
biotzean gordetzeko.

472

Biurtu ziran Nazareteko
berena zuen etxera,
Lukas santuak dion bezela,
Jesus mende bizitzera,
eta Birjiñak gertatu auek
biotzean ausnartzera.
Jesus zijuan grazian eta
edadean azitzera.

473

Jesus ta Ama Birjiña zeuden
Jose santuan mendean,
fameli aren buru zalako
Jaunaren gogo onean.
Irurak otoitz egiten zuen
eta jarraitu lanean,
Semeak Ama ipiñi zuan
jakinduri aundiñean.

474

Salbatzaillea ai zan azitzen
urtez eta egintzetan,
Betiko Aitak eskatu zizkan
gizonen aldekoetan.
Etzan agertzen sermoi egille,
ez milagrok egitetan,
baiñan gaixo ta triste zeudenak
pozten zitun animetan.

475

Jesusek esan: "Ama nerea,
nai det Eleiza jartzea,
nere egiten frutuarekin
dotriña bat ipintzea.
Sinistu eta obratzeakin
osasuna biurtzea,
gizonentzako jakindurian
izan dedin bititzea.

476

Jarriko diet lege santu bat
garbitu dezakeana,
Luziferrek bota zun beneno
ura kenduko duana.
Benenatu zituan biotzak,
galtzeko anima dana,
lenengo kulpa sortu zanetik.
Nai det eman zeru bana".

477

Bere Amari emana zion
grazia ezagutzeko,
obligatua gelditzen zala
lege auxa betetzeko.
Birjiñak itzak entzun zituan
biotzean gordetzeko,
Salbatzaillean erakutsiak
gogoz beti kunplitzeko.

478

Ezin da esan iñolaz ere
Amak ikasi zuana,
erakusteko egiteakin
biotzean zeramana.
Oroitu zagun Jesus Maixuak
ikasleari esana:
zorionekoa izango zala
bere lagun dijuana.

479

Jaun da Maixuak esana degu
zorionekoak dirala,
biotzez beartsuak diranak
zerua berena dala.
Zoriontasun au Ama Birjiñak
bai ondo bete zuala,
aberastasun Jaunak egiñak
deseo etzituala.

480

Bigarrena da: Zorionekoak
izango dira otxanak,
berak izango dira lurraren
jabe izango diranak.
Ama Birjiña ain goxua zan,
goxuak zitun esanak;
ezin erneratu zeiken eran
zitun gauzak eramanak.

481

Irugarrena: Zorionekoak
negar egiten dutenak,
zergatik berak izango diran
poz aundiak dituenak.
Ama Birjiñan begiak ziran
negar geiena zuenak,
ordaindu nairik Jaungoikoari
emen zizkien penak.

482

Laugarrena da: Zorionekoak
zuzenaren gosetuak,
berak izango diradelako
graziakin asetuak.
Ama Birjiñak supritu zitun
gose aundienekuak,
Jaunak ordaiñez ematen zizkan
grazi goxuenekuak.

483

Bostgarrena da: Zorionekoak
errukitsuak diranak,
iritxiko dute errukia
errukior diran danak.
Ama Birjiñak, errukiaren
Ama dala, ditu lanak:
beti artzen du bere laguntza
apal eskatzen duanak.

484

Seigarrena da: Zorionekoak
biotz garbia duenak,
berak ikusiko due Jauna,
baita zeruan daudenak.
Ama Birjiña garbi sortua,
eguzkirik argienak
bere biotzan sentimentuak
ziran beti Jaunarenak.

485

Zazpigarrena: Zorionekoak
pakearen emailleak,
berak izango diradelako
Jaungoikoaren semeak.
Ama Birjiñai jakinduria
eman zion Egilleak,
eta pakea etzuan galdu,
emana Salbatzailleak.

486

Zortzigarrena: Zorionekoak
zuzenak, txartzat artuak;
berena dute zeruetako
erreinua. Ta santuak,
Ama Birjiña, ezin geiago
ziran supritutakuak,
ilko zalako Salbatzaillea
josirik oin da eskuak.

487

Ama Birjiña bizi izan zan
Seme Jesusen antzera,
gaizkileari barkatzen zien
maite izanaz batera.
Mundu ontara etzan etorri
legea askatutzera,
baizik legea berak beteaz
betetzen erakustera.

488

Argiz ta garbi bizi ziraden
Nazareteko etxean,
gugatik otoitz egiten zuen
Ama-Semeak batean.
Jose santua bere indarrak
gutxitzen asi zanean,
Ama Birjiñak jana sortzeko
jarraitu zuan lanean.

489

Denbora juan zan aurrera eta
Jaunak kunplitu zituan
emezortzi urte, eta sarri
otoitz egiten zijuan.
Aitak barkatu zeigun danori
auspez erregutzen zuan,
eta izardi odolezkua
ixurtzen zuan orduan.

490

Ama Birjiñak ogei ta amairu
urte kunplitu zituan,
ta gelditu zan sasoi berean,
ez zartzeko munduan.
Jose merituk irabazteko
miñez jarri zan orduan,
Ama Maria ta Seme Jesus
laguntzen zeuzkan onduan.

491

Ematen zizkan jan goxuenak
Birjiñak Jose onari,
belauniko jartzen zan andrea
serbitzeko senarrari.
Azkeneko iru urteetan
miñ aundiak zeuzkanari,
besotik eltzen zion andreak
jeikitzeo gizonari.

492

Jesus Jainkoak arotz-lanean
nekatu zitun eskuak,
baiñan zerua irikitzeo
zeuzkan lan gogorraguak.
Arotz-laneko erremientakin
ebakitzeo bankuak,
beartsuari eman zizkien
izateko usatuak.

493

Jose santua miñen artean
izaten zan alaitua,
Jesusek eta Ama Birjiñak
zeukaten ondo zaitua.
Eldu zan zortzigarren urtea
bizi zala gaixotua,
bazetorrela azken ordua
izan zan ezagutua.

494

Ama Birjiñak eskatu zion
Jesus bere Semeari:
“Lagun eiozu eriotzean
Jose gure maiteari.
Zure betiko errukiakin
poztu eiozu berari,
bere lan izardizkoarekin
jana eman digunari”.

495

Erantzun zion Salbatzailleak:
“Ama, zure eskariak
gustoko ditut, ta badakizkit
Joseren lan ugariak.
Lagunduko diot ordu ortan.
Goiko du nere erriak.
Jarriko ditut arriturikan
aingeru abeslariak.

496

Jose santua il zan bezperan
maitetasunez sututa,
ogei ta lau orduan egon zan
mirariz Jainkoz batuta.
Ezagutu zitun misteriok
Jaungoikoak agertuta,
esan zeuela Linbokoairi:
“Laister gera salbatuta”.

497

Jose biurtu zan bizitzara
arpegi argiarekin,
eskatu zien bedeinkatzeko
bere itz samurrarekin.
Eman zizkaten bendizioak
Birjiñak Jainkoarekin,
grazik emanaz itz egin zuan
Josek emaztearekin.

498

Birjiñak belauniko jarrita
eskatu bedeinkatzeko,
Josek ain umil emana zion
andreari poztutzeko.
Birjiñak esan Joseri auxe
Linbokoai esateko:
bere partetik guraso santu
aieri saludatzeko.

499

Jose santuak eskatu zion
Birjiñari barkatzeko,
gizaseme aula izan zala
bera ondo serbitzeko.
Bazetorkion azken orduan
bere alde eskatzeko,
eta al zuan eran berari
eriotzan laguntzeko.

500

Jose santuak eskerrak eman
zizkan Seme santuari,
bizitzan beti ta gaixotzean
lagun egin zion Ari.
Belaunikatzen asi zan Jose
adoratzeko Jaunari,
ezin zuan da Jesusek artu
zion besotan berari.

501

Salbatzailleak Jose santua
zeukan besotan artuta,
esana zion: "Nere Jainkoa,
aula naiz ni, Zuk sortuta.
Jauna, nai nuke Zuk ni jartzea
betiko bedeinkatuta;
merezi gabe Amaren senar
naukazu aukeratuta".

502

Salbatzailleak bedeinkatuta
esana zion onela:
"Aita nerea, deskantsa zaitez
graziz pakean zaudela.
Nere profetak eta santuak
Linbon zure zai daudela,
zuk eman berri pozgarri auek:
Eroslea datorrela".

503

Jose, itz auek entzun ondoren,
il zan Jaunaren besuan;
Jesus Jainkoak aita Joseren
begiak itxi zituan.
Berenkin zeuden aingeru aiek
kantatu zuen orduan;
bere anima Linbora juan zan,
an danak poztu zituan.

504

Jose santuan gorputza illa
gelditu zan edertuta,
usai gozo bat urrutiraiño
juateraiño zabalduta.
Birjiñak jantzi zuan gorputza
Jesus Jaunak lagunduta;
ezagun asko gelditu ziran
ikustean arrituta.

505

Eraman zuen enterratzeko
erriak zeukan lurrera,
berentar eta ezagun asko
juan ziraden laguntzera.
Baita Birjiña ta Jesus Jauna
juanak ziraden batera;
Birjiñak bere penak gorde ta
jarraitu zuan aurrera.

506

Ondorenean eskerrak eman
zizkan Birjiñak Jaunari,
mesedeak egin zizkalako
Jose senar santuari.
Birjiñak auspez esana zion
bere Seme Jainkoari:
errukiakin begiratzeko
bakarrik zegoanari.

507

Salbatzailleak agindu zion
maitasun aundiarekin
etziola bakarrik utziko,
biziko zala berekin.
“Predikatzeraz jua bearra det
Aitaren gogoarekin;
denbora ori eldu artean
biziko naiz Amarekin”.

508

Jose santua il zanean zan
irurogei urtekua,
ogei ta amairu urte zeuzkala
zala ezkonduakua,
eta ogei ta zazpi urtean
andreakin bizitua.
Ama berrogei ta bat urtekin
zan alargun gelditua.

509

Jose izan zan mundu osoan
Jainkoak aukeratua,
izango zana Ama Birjiñan
senar garbienekua,
ta etortzeko zegon Mesias
aren aita ordekua;
jaio baiño len santu egiña,
zala zazpi illekua.

510

Joseren ama gelditua zan
Jaun Espirituz sututa,
esana zuan: “Aur santun bat det”,
etzuan ezagutu ta.
Ordu ontatik gelditua zan
pekatu gaitzak kenduta,
pentsatze txarrik ez izateko
doai aundiz indartuta.

511

Jose jaio zan ederra eta
Joan Bautistan antzean,
guraso eta jende-taldeak
poztu ziran ikustean.
Uso-arrazoi osua zuan
irugarrengo urtean,
grazian eta birtutietan
aurreratzen zan batean.

512

Ordutik asi zan ezagutzen
Jaungoikoa fedeakin,
baita ezagutu zuan Jauna
Egille gauza danakin.
Ordutik zuan otoitz jaso bat,
batutzen zan Jainkoakin;
Jose aurra zan iru urtetan
birtute aundienakin.

513

Zazpi urtekin gizaseme zan
jatorra eta santua,
errukitsua ta biguna zan
ainguruan antzekua.
Aurreratuaz birtutietan
eldua zan sasoikua,
zuzen bizitzan, Mariarekin
izan zan esposatua.

514

Gazte Mariai agindutzean
Jaunak senarra artzeko,
Mariak eskatu Jainkoari
Jose santifikatzeko.
Jaunak Joseri eman zizkion
doaik garbi bizitzeko,
aingeruari baiño geiago,
Birjiñari laguntzeko.

515

Jose santua zeruan dago
betiko an bizitzeko,
Jaunak *Printzipe* izendaturik
gizonari laguntzeko.
Esaten zaigu bear dan eran
Joseri guk eskatzeko,
Jaunak Joseri esana dauka
eskatuak betetzeko.

516

Pribilejio aundi batzuek
dauzka Jainkoak esanak,
santutasun aundiagatikan
Jaunak Joseri emanak.
Lenengoa da garbi-bizitza
irixteko nai duanak,
eta austeko aragiaren
kutsu ta eraso danak.

517

Bigarrena da irixitzeko
laguntza indartsuenak,
pekatutikan atera eta
artzeko poz Jaunarenak.
Irugarrena bere bitartez
artu grazi aundienak,
Ama Birjiña maitatuzeko
asko maite ez dienak.

518

Laugarrena da eriotz ona
bere bidez irixteko,
ta ordu artan etsai dan ari
indar guztiak kentzeko.
Bostgarrena da izena *Jose*
nai degunean deitzeko,
izen au esatea asko da
etsai danak bildurtzeko.

519

Seigarrena da Joseren bidez
osasuna izatea,
eta lurreko beste lanetan
berak erremeituztea.
Zazpigarrena bere bitartez
fameli asko poztea,
seme-alabaik ez duenari
famelia ematea.

520

Mesede auek eta geiago
egiten ditu Jainkoak,
Ama Birjiñan senarragatik
umil eskatutakoak.
Eskatzen diet Eleizan semei:
"Izan bere debotoak,
ta ezagutuko dituzue
artzen eskatutakoak".

521

Ama Birjiñak egun eta gau
jarraitu zuan lanean,
Jose santua bere senarra
gaixorik zegoanean.
Orain gutxitu zituen lanak
Jaunaren gogo onean,
egunean bein jaten zuela,
seiretan arratsaldean.

522

Joseri poza ematearren
geiagotan zuen jana,
eta bakarrik gelditutzean
bititzeko bear zana.
Ogia, fruta, belarrak edo
arraia zuen jan dana,
Birjiñak belauniko jarrita
Jauna serbitzen zuana.

523

Jesusek eta Ama Birjiñak,
konbidatzen zienean,
aurrean jartzen zuen danetik
jaten zuen gutxiñean
kejatu gabe, zergatik gero
jarriko zan esanean,
itzlariari zor zaiela ta
jateko jartzen danean.

524

Jesus Jauna ta Ama Birjiña
bizi ziraden etxean,
Jainko Aitari erregutuaz
gizonen alde batean,
pekatu danak barkatutzeko
eske negar samiñean;
Aitak agindu aingeruari
lagun zeielan lanean.

525

Ama Birjiña pozez zebillen
etxe ta ontzik garbitzen,
aingeruak asten ziran baiñan
Amak etzien utzitzen.
Zekielako lan umillakin
bititza zaigula azitzen,
Seme Jainkoa adoratuaz
Birjiñak zion serbitzen.

526

Ama-Semeak bizitu ziran
bakarrikan lau urtean,
zenbat gauza on egin zituen
ezin neurtu esatean.
Jose santua il zanetikan
itzlari erten artean,
Amak ikasten zituan gauzak
Semeak erakustean.

527

Salbatzaillea eldu zanean
ogei ta sei urtekua,
ikusten zuan urreratutzen
eriotzako ordua.
Nai zuana zan gizon danari
eman betiko zerua,
bere miñakin erosi eta
itxitzea inpernuan.

528

Ama Birjiñak Jesusen lanak
ezagututzen zituan,
eta berari lagundutzeko
zeuzkan biotzan barruan.
Jesusen pena mingarria zan:
“Jaioko dira munduan
ezjakin itxuk. Obligatuko
naue sartzen inpernuan”.

529

Jainko-Semeak neurri gabeko
miñak supritu zituan,
Aitari eske barkatutzeko
izardiz odola zuan.
Ama Birjiña au ikustean
jartzen zan illen moduan,
negar-malkuak odolezkuak
ixurtzen zitun orduan.

530

Jesus goxuak laguntzen zion
Ama penaz ez iltzeko,
aingeruari agintzen zien
soiñuz kanta kantatzeko.
Beste batzutan Ama besotan
artzen zuan poztutzeko,
esanaz pekatuzko legea
etzala Ama galtzeko.

531

Jesusek esan zion Amari
jakiñikan bizitzeko,
Eleiz berria jartzerakuan
lan danetan laguntzeko:
Pedrok ukatu ta Tomas zala
gogortua sinisteko,
Judasek nola salduko zuan,
ondo artzen saiatzeko.

532

Salbatzailleak ogei ta zazpi
urte zeuzkan beterikan,
ezin geiago egon zalako
atera zan etxetikan.
Otoitzak eta barau egiñaz
gu salbatzeagatikan,
gauak pasatzen zitun mendian;
Ama zeukan bakarrikan.

533

Ama Birjiñak Jesus etxetik
ateratzen ikustean,
kutxillo zorrotz bat sartutzen zan
penaz bere biotzean.
Gelditutzen zan errukitsu ta
goimaitasunez betean,
Jesusek aingeruak biraltzen
zizkan Amari juatean.

534

Aingeruari esaten zien
Jesusengana juateko,
bere egitek nola ziraden
berriakin etortzeko.
Aingeru aiek pozikan zeuden
Erregiña serbitzeko,
ekartzen zizken bere berriak
Birjiñari poztutzeko.

535

Otoitzak eta penitentziak
Jesus egiten zijuan,
Ama Birjiñak bere etxetik
laguntzen zion orduan.
Biurtutzen zan ez jan da ez lo
egunak pasa onduan,
Birjiñak auspez adoratuta
umil serbitutzen zuan.

536

Ama Birjiñak eskerrak asko
ematen zizkan Jaunari,
errukiakin zebillelako
irabazten animari,
bere lan auek izan zitezen
eskertuak Jainkoari,
nai zielako onak ziranai,
baita gaiztok ziranari.

537

Jesusek esan zion Amari:
“Nai det etxetik atera,
nere Aitaren naia dalako,
dotriña erakustera.
Nere lan ontan lagun eidazu,
zatoz nerekin batera,
animak argiz piztu ditezen
Aitari zuk eskatzera”.

538

Ama Birjiña au entzutean
preparatu zan juateko,
auxe zan berak nai zuana ta
Semeari laguntzeko.
Andik aurrera askotan juan zan
berekina errezatzeko,
iru urte falta ziranetik
itzlari ateratzeko.

539

Jesus juaten zan Birjiñarekin
Nazaretetik aurrera,
Isaiasek esan bezela,
Neftali alde lurrera,
Salbatzaillea etorri zala
jendeari esatera,
bera zanikan agertu gabe
biotzak argitutzero.

540

Baita Jesusek triste zeudenak
alari ipintzen zijuana,
gaixoak eta naigabetuak
bixitatutzen zituan.
Ezjakiñari erakutsiaz
maitez jarraitutzen zuan,
eta iltzera zijuazten asko
jartzen osasun osuan.

541

Anima asko etsaiak zeuzkan
gaixorik bere mendean,
indar aundiñez galdu nairikan,
eriotzan zeudenean
Inpernura amiltzen zituen.
Jesus ta Ama juatean,
etsaiak ezin ikusi zitun
amorrui aundiz betean.

542

Etsaiak oiuz bildu zituan
etsai danak inpernua,
oroitu zien Jainko-gizona
ta bere Ama munduan
uste zuala bazetorrela
ta ibiltzeko kontuan,
indar ta builla aundiarekin,
ia nork billatzen zuan.

543

Ezin konta al etsaiak erden
ziran onak billatzera,
Jesusek dana ikusten zuan,
eldu zan errukitzera.
Otoitzak bero egin zituen
Jesus ta Amak batean,
Aitak indartu zituan animak,
ez aulduzueko galtzera.

544

Aitak agindu zien animak
indartuko zituala,
"Jesus, Maria" esateakin
etsaiak juango zirala;
fedearekin eskatutzean
etsaiak aultzen dirala,
Jesusen eriotzagatikan
zerua guretzat dala.

545

Joan santua aurra zanetik
bizi izan zan basuan,
Erodesek ilko ziolako
amak eramana zuan.
Ama Isabel il ondorean
Joan bakarrik zeguan,
Ama Birjiñak Ejitotikan
laguntzen zion orduan.

546

Joani zazpi urte artean
Birjiñak biraldu jana,
ta zazpi urte bete ondoren
ogi utsa zuan dana.
Beatzi urte zituanean
berak billatzen zuana:
lixtor-ezti ta matxinsaltuak;
zan milagro z bizi zana.

547

Joan basuan bizi izan zan
aingeruaren antzeko,
otoitzak eta penitentziak
egiñaz gu salbatzeko.
Zenbat lan santu egin zituan
Jaunak daki kontatzeko,
bera zan egiazko *oíua*
Jesus nor zan agertzeko.

548

Aingeru bat biraldutzen zion
Joani bixitatzerá,
oso bakarrik bizi zalako
berekin itz egitera;
bere berriak nola ziraden
Birjiñari esatera,
ta astean bein bere biotza
Jaunagan alaitutzerá.

549

Joanek asko estimatua
zan aingeruak juatea,
Birjiñak zekin bearrezkua
zala lagun egitea.
Galdetzen zien nola ziraden
Jesus ta Ama maitea:
“Nai det nik Jauna adoratuta
berak ni bedeinkatzea”.

550

Joan santuak ogei ta amar
urteak bete zituan,
au zan denbora Joanen itza
entzutekoa munduan.
Zesar printzipe, Anas ta Kaifas
apaizak zeuden orduan,
Jaun Espiritu Santuak “Zuaz!”
esana zion basuan.

551

Joanek urte askoz lenago
gurutze bat egin zuan
aingeruaren laguntzarekin,
egurrarekin basuan.
Gurutze aundi ontan otoitzak
asko egiten zituan,
ta etzuan nai an lagatzea
itzlari juaterakuan.

552

Joanek esan aingeruari:
“Eraman au Birjiñari”.
Birjiñak pozez artua zuan
oroituaz Semeari.
Beste iguala zeukan Jesusek
eskeiñitzeko Aitari;
bi gurutzeok gero Birjiñak
eman apostoluari.

553

Joan atera zan basotikan
Jaunak maitez aginduta,
kamello-larruz jantzita eta
gerria sokaz lotuta,
anka utsetan eta kolorez
aularen antza artuta;
oso umilla ta maitasunez
zeukan biotza sututa.

554

Ta erribera Jordanekoan
zebillen erakusteko,
penitentzi ta bataioakin
pekatuak barkatzeko,
egite onez preparatuta
beren biotzak jartzeko,
agindutako eta zai zeuden
Mesias ezagutzeko.

555

Jesus Jainkoak ogei ta amar
urteak bete zituan,
egun batean Ama Birjiña
otoitz egiten zeguan.
Irtutasunak: “Nere alaba
–deitua zion orduan–,
eskeiñi zazu zure Semea
iltzeko suprimentuan”.

556

Ama Birjiñak erantzun zion:
“Jaun Errege betikoa,
nola eskatzen didazu neri
dala Zuk emandakoa?
Amarentzako eskeintza ori
da miñ aundienekoa.
Ez bedi egin nere gogoia
baizikan Zuk naitakoa.

557

Eskeintzen dizut nere Semea
zure naia betetzeko,
baita gizonen pekatu danen
zorria Berak ordaintzeko,
eta profetak Eskrituretan
idatzia kunplitzeko”.
Ezin esan dan eskeintza au zan
bat Aitak ontzat artzeko.

558

Jainko-Semeak indartu zuan
Ama penaz ez iltzeko,
esana zion: “Ama nerea
–errukia agertzeko–,
zuk emandako gorputza det nik,
azi nazu bizitzeko;
zure izardiz lana eginda
eman didazu jateko.

559

Eman eidazu zure baimena,
nai det Aitak nai duana;
eldua da denbora uzteko
poza zurekin neukana,
eta asteko gizon guztiak
erosteko dedan lana.
Aitu dira nere deskantsuak,
naiz supritzera nuana”.

560

Jaunak besuak jarri zituan
bere Amaren lepuan,
biak negarrez egondu ziran
arritutzeko moduan.
Amak belauniko jarririkan
erantzun zion orduan:
“Aitaren naia egin dezagun,
ni iltzea naigo nuan.

561

Eskeintzen dizut nere biritza
zugandik artu dedana,
betiko Jauna ta egiazko
nere Semea zerana.
Miñ aundiña det gurutz-bidean
zurekin ni ezin juana,
supritutzeko dezun gorputza
dezulako nik emana.

562

Jateko zerbait eraman zazu
o nai dezu biraltzea?”
Salbatzailleak eskeintza auek
etzituan nai artzea.
Nai izan zuan komeni zana
Amari argituztea,
Amak oiñetan musu emanaz
nai zuan bedeinkatzea.

563

Jaunak bedeinkatu zuan Ama
etxetik ertetzekuan;
Jesus juana zan Joanengana,
bataiatzea nai zuan.
Artzai Ona zan ardi galduak
billatu nairik munduan,
bere lepuan eramateko
eta sartzeko zeruan.

564

Ama Birjiña oso bakarrik
gelditua zan orduan,
bere aingeru goardakuak
bakarrik zitun onduan.
Egun eta gau otoitz egiten
gutzaz errezatzen zuan,
negar egiñaz bere malkuak
odolezkuak zituan.

565

Aingeruari eskatzen zien
bera miñez ez iltzeko,
Jesus nola zan ikusteko ta
berriakin etortzeko.
Tela fin batzuk ematen zizken
aingeruari artzeko,
Jesus odolez izarditzean
arpegia garbitzeko.

566

Ta aingeruak egiten zuen
Erregiñaren esana,
zekielako alaxe zala
Jainko Aitak nai zuana.
Ama Birjiña aldi batzutan
juan oi zan gaixoengana,
tristeak poztu, barruz argitu
ta biurtu Jaunagana.

567

Jesus eldu zan Joanengana
Jordan irriyo aldera,
an gelditu zan bataiatzeko
besteak zeuden antzera.
Poza ixuri zion Joani
Jaunak bere biotzera,
ta esan zuan: “Zer misterio
ona dator ni pozttera?”.

568

Joan santuak igerri zuan
Jaun Jesus bazetorrela,
eskatu zion bataiatzeko
beste edozein bezela.
Ezagututa esana zion
belauniko zegoela:
“Zuk bataiatu bear nazu ni,
nola zatoz Zu onela?”.

569

Erantzun zion Salbatzailleak:
“Laga eidazu gaurkuan,
nai dedan eta komeni dana
justu betetzen munduan”.
Joan santuak bataiatua
izan zan Jesus orduan,
Espiritua uso-itxuran
jarri zan bere buruan.

570

Eta entzun zan Aitaren boza:
“Au det nik Seme maitea;
Berak jartzen nau nere pozetan
alaitasunez betea”.

Jaun Espiritu Santuak nairik
ikusi al izatea,
onela Aitak nai izan zuan
Jainko zala esatea.

571

“Zuk bataiatu bear nazu ni”
Joanek zion esana.
eta izan zan Jesusek Joan
an bataiatu zuana.
Baita're bere bendizioa
zion Joani emana,
ondorenean emendik Jesus
basamortura zan juana.

572

Ama Birjiñai esana zien
aingeruak gertatua:
nola izan zan Jordanen Jesus
Joanek bataiatua;
baita're Aitak esana eta
Jaun Espiritu Santua
bere buruan agertu zana,
ta dana ango kontua.

573

Ama Birjiñak danagatikan
Jauna alabatu zuan,
neurri gabeko eskerrak eman
zizkan Jaunari orduan.
Jesusen eskaera berdiñak
Birjiñak egin zituan,
ta aingeruak lagundu zien
Jaunaren aintzan kantuan.

574

Aitaren itza ondo entzun zan
Jesus nor zan jakiteko,
Jaungoiko-Seme gizon egiña,
Mesias ezagutzeko.
Neurririk gabe umillatu zan
Jesus basora juateko,
ta guri etsaiak menderatzen
egitez erakusteko.

575

Salbatzaillea Jainkoa zala
jakinduri betikoa,
gizona zanez santutasuna
kutsurikan gabekoa.
Oso mendean zeuzkan etsaiak,
indarra gordetakoak,
gizon santu bat bazan bezela
Jesus agertutakoa.

576

Nai izan zuan itzez baiño len
egitez erakustea,
bakardadeko kueba-zulon
penitentzi egitea:
“Eskerrak, Aita, nai izan dezu
leku on au ematea”.
Gurutze-forman sarri lurrean
jartzen zan penaz betea.

577

Bere aingeru goardakoak
bakarrik lagun zituan,
Jesus zalako beren Errege,
eta aiñ umil zijuan.
Gizonentzako osasun ona
negarrez eskatzen zuan,
eta izardi odolezkua
ixurtzen zuan orduan.

578

Jesus basora bazijoala
Amak jakin zuanean,
bere antzera atek itxita
jarri zan beren etxean.
Jesusen berri jakiten zuan
aingeruak esatean,
otoitzak eta barauak egin
zitun Jesusen antzean.

579

Berrogei egun pasa zituan
Jesussek basamortuan,
egun eta gau otoitz egiñaz
janik probatu etzuan.
Ama Birjiñak bere antzera
berrogei egun osuan
ez jan da ez lo, otoitz egiñaz,
gu salbatzen parte zuan.

580

Etsai Luzifer taldearekin
juan zan Jesus tentatzera,
Jesus zeguan basamortuan
gizon utsa zan antzera.
Otoitza zan au: "Aita nerea,
nua etsaiak austerak;
supritu nai det eldu ditezen
gizonak au ikastera".

581

Bere aingeru goardakoak
jarri ziran ezkutuan,
Jesussek ogei ta amabost egun
basamortuan zituan;
eta berrogei egun artean
etsaiak tentatu zuan,
Luzifer juan zan gizon-itxuran
Jesus galtzera orduan.

582

Igerri zuan Jesus basuan
janik gabe zeguala,
esana zion Jainko-Semea
bazan agertu zezala;
arri aieri esateko ta
ogi izango zirala.
Galdera au zan Jauna ote zan
ezagutu nai zuala.

583

Salbatzailleak erantzun zion
diabruari orduan:
"Ogia janda bakarrik ez da
gizona bizi munduan;
baita Jainkoan itzak emanda
bitzta biotz barruan".
Jesus etsaiak ezagutzea
merezi izan etzuan.

584

Jaunak utzirik, jarraitu zuan
bera tentatzen aurrera,
eraman zuan Jerusalemgo
eleiz-torrean gaiñera,
esanaz: "Jainko-Seme bazera
tira zaitetz goitik bera,
ta aingeruak ertengo dira
Zu besoetan artzera".

585

Jesussek zeuzkan aingeruentzat
zan gauza arritzekoa:
nola izan zan Jauna etsaiak
torrera jasotakoa.
Baiñan Jesusen erantzun onek
zuan zapalduetakoa:
"Esana dago: zuk ez tentatu
zure Jaun da Jaungoikoa".

586

Au entzutean gelditua zan
arrabi aundiaguan,
Jesus ezin zualako autsi,
baiñan etsitzen etzuan.
Beste mendi-punta altunera
emendik eraman zuan,
gezurran aita beti dalako
esana zion orduan:

587

“Ara zenbat gauz ikusten diran,
danak zureak dituzu,
belauniko jarrita zuk emen
ni adoritzen banazu”,
Erantzun zion: “Alde, Satanas!
Eskribitua daukazu:
bakarrik zure Jaungoiko Jauna
adoratuz serbi zazu”.

588

Salbatzailleak “Alde, Satanas!”
etsaiari aginduta,
inpernuaren ondoenean
jarri ziran pegatuta.
Tentatutzeko zuan baimena
Jaunak berari kenduta,
iru egunez an egon ziran
iñor ezin mugituta.

589

Ta jeikitzeke bere baimena
Jaunak eman zienean,
indarrrik gabe ikusi ziran
zer zan ezin jakiñean.
Jaunak Aitari eskerrak eman
zizkan alaitasunean,
ta aingeruak Jesus eraman
basora ondorenean.

590

Bere aingeruk serbitu zien
Jesusi jana jateko,
eta jan ura izandu zuan
indarrak berrituzeko.
Inguratuak ziran txoriak
Jesusi an kantatzeko,
baita otso ta animaliak
berek kiñuk agertzeko.

591

Nazareteko otoitz-lekuan
Ama Birjiña zeguan,
aingeruakin Jesusen berri
sarri jakiñez zijuan.
Jesussek egin zitun otoitzak
Birjiñak egin zituan,
baita etsaiak agertu gabe
Birjiña tentatu zuan.

592

Jaunak indartu zuan Birjiña
etsaiak menderatzeko,
eta zapaldu zituan danak
Jesusi imitatzeko,
bere antzera eskeintzen zala
gu gizonak salbatzeko,
pekatuaren gaitza zalako
Jauna etsaiak artzeko.

593

Ama Birjiña eldu zanean
gauza au ezagutzera:
Jesus etsaiak nola zeraman
leku batetik bestera,
negar samiñak egin zituan,
etzan eldu ikustera.
Pekatuaren gaitza izan zan
juana au obligatzera.

594

Jaunak, etsaiak bere indarrez
zapaltzen zituanean,
kantu berriak egin zizkion
Jesusi maitasunean.
Ta zoriona aingeruakin
kantatu ziotenean,
erantzun zien: “Berdin Amari,
indartu osasunean”.

595

Ama Birjiña Jesusen lagun
bizitu zan supritzeko,
Jesusek jana aingeruakin
biraldu zion jateko.
Txoriak ere juanak zituan
Birjiñari kantatzeko,
ta Ama jaten ari zanean
kantatu zien pozteko.

596

Zerutar jan au Amak jatean
gelditu zan indartuta,
Jesusek biraldua zalako
jarri zuan alaituta.
Aitari eman zizkan eskerrak
lurreraiño auspeztuta,
Birjiña nor dan jakingo degu
gero zeruan sartuta.

597

Jaunak barauak basamortuan
bukatu zituanean,
lurrari musu emana zion
laister bazijuanean.
Bere Aitari eskerrak eman
zizkion ondorenean,
aingeru-talde aundia zeukan
laguntzeko, zijuanean.

598

Jaunak orduan otoitz bero bat
egiña zion Aitari:
lagun zeuela bere antzera
bizituko ziranari,
betiko edo denboralean
otoitzean zeudenari.
Betiko Aitak erantzun zion:
“Poztuko diet danari”.

599

Maixua juan zan aingeruakin
Joan santuarengana,
auxe bera zan Salbatzaillea
ikustea nai zuana.
Agertutzean nola zetorren
au zan Joanek esana:
“Ara emen Jaunaren Bildotsa,
pekatua kentzen duana”.

600

Jesus basuan zegoanean
Joani jun galdetzeko
Jerusalengo judutar aiek,
Mesias zan esateko.
Erantzun zien: “Ez naiz Mesias;
emen zan zuen arteko.
Ni ez naiz iñor oiñetakuan
lokarriak askatzeko.

601

Esan nizuen gizon ura da,
nik ezagutzen ez nuan;
nere ondoren zetorrena ta
lendikan bizitza zuan.
Jaun Espiritu Santua jetxi
zan bataiatutakuan,
uraxe zala Jainko-Semea
nik benetan esan nuan”.

602

Ama Birjiñak ezaguturik
Joanek esan zuana,
eta eskatu zion Jaunari:
“Joani ordaindu dana”.
Jaun Espiritu Santua zuan
Aitak Joani emana,
nor zan esaten Joan laga ta
Jesus aurrera zan juana.

603

Denbora gutxi pasatu zuan
Jaunak Joanen aurrean,
Jerusalengo aldera juan zan
oiñez pauso ederrean.
Egun askuak pasa zitun an
erri txikien lurrean,
ixilik ona erakutsiaz
gizonari barrunean.

604

Bera zanikan agertu gabe
an esan zien orduan:
“Agindutako Mesias ura
bizi zaizue munduan”.
Joanengana bataiatzera
asko biraldu zituan,
penitentzikin preparatzeko,
gero sartzeko zeruan.

605

Emen iya amar illebeta
Jesus zan pasatakoa,
Nazaretera biurtu gabe
Judean bititakoa.
Jesussek berriz bidea artu
Bautista ikustekoa,
bigarren aldiz ikustean zan
Bautistak esandakoa.

606

Joanek pozez esana zien
bere jarraitzaileari:
“Ara Arkume Jainkoarena,
begira emen berari”.
San Andres eta Joan santuak
jarraitu zien Jaunari,
eta Jesussek: “Zer nai dezue?”
galdetu zien berari.

607

Erantzun zien: “Nai deguna da
zure berri jakitea:
nun bizi zeran eta Zurekin
zure lekura juatea”.
“Atozte” esan eta juan ziran
nai zuela ikustea;
berekin pasa zuen eguna
alaitasunez betea.

608

Jaunak ipiñi zuan Birjiña
berriz oso indartuta,
ta atera zan Nazaretetik
ainguruak lagunduta
erri txiki urrekoetara
jakinduriz argituta.
Naigabetuak eta gaixuak
jartzen zitun sendatuta.

609

Ebanjelista Joan santua
da idatzi etzuana,
baiñan bera zan San Andresekin
Jesusen billa juan zana.
Joan Bautistan ikaslea zan,
Andresekin zeguana,
eta Andresek Simon anaia
eraman Jesusengana.

610

Salbatzailleak begiratuta
berari zion esana:
“Zu zera Simon, Jonan semea,
Pedro deituko zerana”.
Au gertatu zan Judean ta zan
Galilea zijuana;
billatu zuan santu Pelipe,
ta Jaunak: “Atoz Nigana”.

611

Pelipek deitu Natanaeli
ta zion esandakoa:
nola billatu zuen Mesias,
Jesus Nazaretekoa.
“Ortik onikan erden al leike?”
zion erantzundakoa.
Entzun ondoren aitortu zuan;
“Zera Seme Jaungoikoa”.

612

Auetxek ziran bost ikasleak
Jesusen lenbizikoak,
erakutsi bear izan zien
Jesus Maixu zerukoak.
Itzlari eta bataiatuaz
ziran agertutakoak,
Eleiz berria sortzeko ziran
an aukeratutakoak.

613

Ama Birjiñak Jesusen berri
aingeruz jakiten zuan,
bost ikasleak zitualako
eskerrak eman zituan.
Betiko Aitak eskatu zion
Birjiñari au orduan:
“Seme Jesusi lagun eiozu
animak sartzen zeruan”.

614

Erantzun zion: “Danon Errege,
gure bizitza zerana,
ar txiki bat naiz, baiña eskeintzen
dizut nere biotz dana.
Jesusen ordeaz ilko nitzake,
au da deseoa dedana.
Baiñan, Aita, Zuk lagun eidazu
betetzen zure esana”.

615

Misteriozko fedea zeukan
Jaunak erakustekoa,
ikasleari esana zion
zala Seme Jaungoikoa,
Aitagandikan atera eta
munduan jaiotakoa,
beti birjiña zan Amagandik
gorputza artutakoa.

616

Bearrezkoa zan ikasleak
bere berri jakitea,
esana zion komeni zala
Ama au ezagutzea,
birjiña eta ama zalako
errespetoz tratatzea.
Bost ikasleak eskatu zion:
“Nai genduke ikustea”.

617

Salbatzaillea ikasleakin
juana zan Nazaretera,
erakutsiaz fedeko gauzak
ta Ama erakustera.
Ama Birjiña aurreratu zan
etxera preparatzera,
jatekoak ta lotarakoak
lekuak ondo jartzera.

618

Birjiña jarri zan belauniko
Jesus etxean sartuta,
eskatu zion bedeinkatzeko
lurreraiño auspeztuta.
Adoratu zuan Seme Jauna
jakinduriz aitortuta,
ta ikasleak gelditu ziran
arriturikan poztuta.

619

Bost ikasleak belaunikatu
ziran Birjiñan onduan,
eskatu zien bedeinkatzeko
seme artuaz munduan.
Ebanjelista Joan santua
eskeiñi zan lenenguan
serbitzeko ta seme artzeko;
Birjiña ain maite zuan.

620

Ama Birjiñak bost ikasleak
bere etxean artuta,
Joan santua birjiña zanan
eskeintza aukeratuta,
danari jana emana zien
Birjiñak preparatuta,
Jaunari jana serbitzen zion
Amak belaunikatuta.

621

Erretiratu ziran gau artan
danak gaua pasatzera,
Salbatzaillea joan zan Amaren
otoitz-lekua zanera.
Jaunari bere oiñetan Ama
biurtu zan auspeztera,
eskatu zion: "Barka eidazu,
eskastu naiz serbitzera".

622

Jaunak lurretik jasorik Ama
esana zion onela:
bizitza eta osasun ona
betirako ziradela.
Amak eskatu bataiatzeko,
agindu zion bezela;
Jaunak bataiatu zuan Ama,
aingerruak an zeudela.

623

Aitak itz egin zuan esanaz:
"Au det alaba maitea".
Seme Jainkoak: "Au det nik Ama;
nai dit lagun egitea".
Jaun Espiritu Santuan itza:
"Au da nere emaztea".
Birjiñak eman zizkan eskerrak,
zala doaiez betea.

Seigarren liburua

**Nola izan ziran Galileako Kanan eztaietan.
Nola Santa Mariak lagundu zion
bere Seme Jaungoikoari,
predikatzen zebillenean.
Zein umil agertzen zan Erregiña,
bere Semeak milagruak egiten zituanean.
Nola agertu zan transfiguratuta.
Nola sartu zan Jerusalemenean.
Bere Pasio eta Eriotza.
Nola triunfatu zuan gurutzetik,
etsaiak menderatuta.
Salbatzaillaren piztuera gloriosua,
eta bere zeruetara igotze arrigarria.**

624

Egun aietan Galileako
Kanaan zebiltzala,
Ama Birjiña ta Jesus Jaunak
bost apostolu zeuzkala,
beren lengusu laugarrenguk
an esposatzen zirala,
deitu zieten eztaietara
Erregen eguna zala.

625

Salbatzaillea bataiatua
urte bat zan egunean,
danak jua ziran eztaietara
Jaunaren gogo onean.
Esposatuai itz egin zien
otoitz egin zuanean,
sakramentu jarri santutzeko
Eleiza Santan mendean.

626

Birjiñak ere lagundu zion
Jesusi otoitz egiten,
eta aurrean jarri ziena
ixilikan zuen jaten.
Amak Jaunari esana zion:
“Ardoa aitu konbiten”.
Erantzun zion: “Neri ta zuri
zer digu orrek egiten?”.

627

Oraindik ez da eldu neretzat
eskatzen dezun ordua”.
Kristo Jaunaren erantzun au zan
misterio aundikua.
Birjiñak argiz ezaguturik
denbora zala eldua,
agertutzeko Seme Santuan
birtute Jaungoikozkua.

628

Au da Birjiñak serbitzariari
orduan esan ziena:
“Egin zazue nere Semeak
ordenatzen dizuena”.
Lur-ontzi aundi batzuek zeuzken,
zuen oitura berena
eztaietan-da serbitutzeko
aietan bear zuena.

629

Salbatzailleak agindu zien:
“Bete urez oiek danak”.
Serbitzariak bete zituen
egiñaz bere esanak.
“Orain atera ortik ardoa,
probatu lenengo danak”.
Ardo on ura probatu zuan
apaiz buru zeguanak.

630

Probatutzean esana zion
nobiaari pozgarri:
“Gizonak jartzen due lenengo
ardo ona gustagarri,
eta edanda daudenen gustoz
ona ez dana ekarri;
zuk gaur alrebes egin diguzu:
ona azkenean jarri”.

631

Mai-buruan zegon apaizak
etzekian gertatua,
Jesus ta Ama zeuden lekua
zalako bajunekua.
Baiñan ondoren zabaldua zan
ura ardo biurtua;
agertua zan Jaunaren aintza
ta izan zan sinistua.

632

Orduan askok sinistu zuan
egiaz Mesias zala,
lagundu zien Kafarnaum-era
bereakin zijuala.
An agertu zan gizonen Maixu
fedez jartzen zituala,
Birjiñak otoitz egiten zuan
biotzak ondu zitzala.

633

Egun batzuek pasa zituan
Tiberiastar lurrean,
ta martxoaren amalau zala
zeuden bete bearrean
Jerusalena juan bear ura;
Pazkoa zuen urrean.
Amak etxea despedituta
juan zan Jesusen aurrean.

634

Ama Birjiñak jarraitu zion
gurutzeraiño Jaunari,
aldi batzutan gelditu oi zan
erakusten jendeari,
Tabor mendian argitzean ta
baita Samaritanari;
oiñez zebiltzan nekaturikan,
otoitz egiñaz Aitari.

635

Jaunaren itzak Ama Birjiñak
gordetzen zitun barruan,
eta ikasi ezin zuenai
erakutsitzen zijuan.
Jauna itzlari noiz asitzen zan
aingeruz jakiten zuan,
ta belauniko Jesusen itzak
Amak entzuten zituan.

636

Birjiñak miñak supritu zitun:
etzan Jauna ezagutzen,
etzuen Jauna adoratutzen
eta etzuen serbitzen.
Grazia artu nai etzuenak
ikusten zituan galtzen,
ta odolezko malkoak miñez
Birjiñak zitun ixurtzen.

637

Ama Birjiñak kontua zeukan
jarraitzaille guztiena,
ez bakarrikan beren anima,
baita're gorputzarena.
Erregiña zan danak zaitzeko
emanaz bear zuena,
estu zanean aingeru eta
andrek ekarriz jatena.

638

Ama Birjiñak umiltasuna
zuan gauza guztietan,
eta Jainkoak ematen zizkan
grazi ugari benetan.
Milagro asko egin zituan
Jesusen lagun bidetan,
apostolu ta ebanjelistai
gorde azik ixilpetan.

639

Jesus ta Aman milagro asko
ixilkan gelditzea
izan zan Jaunak erabakia
ta Birjiñan eskatzea.
Joan santuak dana zekian
baiña naigo ixiltzea;
azkenik dio: "Gauz danak libruz
ezin leike agertzea".

640

Ama Birjiñak etzuan izan
kulpa ta pasionikan,
baiñan umilla beti izan zan
aingeruak autsirikan,
Aita ta Espiritu Santua
bere alde jarririkan,
etzezala iñork alabatu
bere milagroakgatikan.

641

Jaunaren Ama zalako etzan
iñoiz zerbait arrotua,
baizikan lurra ta autsa zala
zeukan egiz sinistua.
Jesus zanean milagroakin
jendeak alabatua,
Andre Maria Ama zuala
izan zan ezagutua.

642

Etsaiak mende zeukan mutua
Jaunak sano biurtzean,
judutar aiek: "Etsaian artez
bota du" ziotenean,
andretxo batek: "Zorionekoa
Zu sortua sabelean,
eta bularra eman zizuna
zuri, jαιο ziñanean".

643

Amak itz auek entzun ondoren
Jesusi zion esana:
"Jauna, nigandik alabantza au
dibertitu zazu dana".
Erantzun zion: "Zorionekoa
itza entzuten duana,
eta Jaunaren borondatea
kunplitzen dijuana".

644

Beste batean, Lukas santuak
esaten digun bezela,
Salbatzaillean itzak entzuten
jende ugari zeudela,
bere Ama ta anai-lengusuk
itz egin nai ziotela,
Amak Jaunari eskatu zion:
"Txalotu ez nazatela".

645

"Zure Ama ta anai-arrebak
zai dauzkatzu" entzutean,
erantzun zion: "Nere Ama ta
senide ditut batean,
nere Aitaren borondatea
entzun eta egitean".
Ama Birjiña poztu egin zan
Jaunak ori esatean.

646

Ama Birjiñan umiltasuna
obretan zan agertua,
apostolu ta ikasleari
zan erakutsitakua.
Jaunak taldea biraldu zuan
eskubidez indartua,
biurtu zuen beren biotza
milagro askoz poztua.

647

Salbatzailleak erantzun zion:
"Ori ez da poztutzeko;
zuen izenak zeruan daude,
au da poza artutzeko".
Jesusen amabi apostolu
artu zitun laguntzeko,
baita irurogei ta amabi
ikasleak jarraitzeko.

648

Jaun Eroslea Jerusalendik
Judeara jarraituta,
bere apostolu ta ikasleak
grazi goaiz indartuta,
bataiatutzen zuen jendea
pekatuak barkatuta,
Jaunaren itzak barruz pozturik
milagruak agertuta.

649

Joan Bautista bataiatutzen
erribera Jordanean,
bataio au zan ura bakarrik
penitentzi bearrean.
Kristorengana jende geiago
bildutzen zan indarrean,
emen bete zan Bautistan itza:
“Au azi, ni gutxitzean”.

650

Salbatzaillea ikasleakin
bataiatzen zijuala,
Ama Birjiña berekin zuen
ezagutzen zituala
animak, nola pekatu gabe
garbi gelditzen zirala.
Birjiñak Jauna abesten zuan
poza ugaritzen zala.

651

Etsai Luzifer jeiki zedilla
Jaunak esan zionean,
joanda Jesus arrapatzera
jeiki ziran zuzenean.
Anima asko kentzen zizkela,
au ezin eramanean:
“Lagundu neri bi auek iltzen
zuen indar aundiñean”.

652

Etsai-taldea ateria zan,
juan da Jesus galtzera,
bañan etziran iñor iristen
nor ziran ezagutzera.
Joan Bautistan bizitzarekin
eldu ziran arritzera,
amorrazioz biraldu zizkan
Mesias zan galdetzera.

653

Judutar aiek etsaien naian
juan ziran au galdetzera,
Luzifer oso atento zegon:
“Zer dator erantzutera?”.
Joan santuak: “Ez naiz ni Kristo”.
“Edo Elias al zera?”.
“Ni naizena da baso-oiua,
nator bidek zuzentzera”.

654

Etsai arroa gelditua zan
duda aundiagokuan:
itzaren orde z oia zala
arin esan ote zuan.
Joanen kontra arrabi geio
artua zuan orduan,
asmatu zuan gerra sortzea
Erodiasen kontuan.

655

Erodes errege zegoan ta
zeukan anaian andrea,
anai Filipoi kendu ziona,
Erodias emaztea.
Bizi zan pekatu agirian,
au zan Joanen esatea:
“Ori ez dezu libre, errege,
pekatuan bitiztea”.

656

Erregek ezagutuzen zuan
Joan au zala santua,
gogoz entzuten zion esana,
ziola errespetua.
Erodias zan gaiztua eta
alaba zan antzekua.
Joan iltzeko etsaiak auxe
izan zan aukeratua.

657

Erodiasi etsaiak jarri
gogua Joan iltzeko,
erregeari eskatu zion
oni lepua kentzeko.
Eta erregek agindu zuan
Joan kartzelan sartzeko,
eta kartzelan sartua zan au
Erodias poztutzeko.

658

Erodiasiek agindu zien
bere morroi gaiztoari,
iru alditan sei gizaseme
biraldu zizkan berari.
Maldizioka zigortutzer
gogor Joan Bautistari,
llagaz ta ebakiz betetzen zuen
poztutzearren amari.

659

Ama Birjiñak biraltzen zizkan
aingeruak ikustera,
bere partetik itz egin eta
miñ aundietan pozttera.
Baita Birjiñaren partetikan
jatekoa ematera,
Joan miñetan asko pozten zan
aingeruakin batera.

660

Erregearen urtebetetze
eguna eldu zanean,
Galileako aundizki danak
maian jaten zeudenean,
Erodiasiek bere alaba
dantzari preparatzean,
dantzatutzean: “Nai dezun dana”
erregeak eskeintzean.

661

Juramentua egiña zion
emango ziola dana,
alaba juan zan amarengana
esan zezan nai zuana.
Eskatu zion: “Bautista orren
burua da nai dedana:
plater batean artuta nai det
ekartzea neregana”.

662

Ama Birjiñak ezaguturik
Joanen azken ordua,
egia esan zualako au
zala ontara eldua,
Birjiñak auspez eta negarrez
zan Jesusi eskatua:
“Lagun eiozu, eriotzean
izan dedin alaitua”.

663

Salbatzailleak erantzun zion:
“Nai det dana betetzea;
baita zu ere nai det nerekin
beregana etortzea”.
Bautistan pozik aundiena zan
auk argiz agertzea;
katek erori ta sendatu zan,
zan Jesusen ikutzea”.

664

Berekin eramanak zituen
koru asko aingeruak,
Joan auspeztu zan lurreraíño
eta zizken eskatuak
bieri bedeinkazio bana,
ta ziran emandakuak.
Itz auek ziran Salbatzailleak
Joani esandakuak.

665

“Joan, zu, nere serbitzaria,
nola aurreratu zera,
zure Maixua baiño lenago
zigortua izatera?
Preso sartua, aflijitua
eta bazuaz iltzera,
laister elduko zera pozezko
lanen ordaiña artzera”.

666

Jaunaren itzak entzun ondoren
Joan izan zan poztua,
ezin itzikan esan zuala
lenengotik gelditua.
Izan zanean Jesus Jaunaren
graziakin indartua,
esana zion: “Jauna, nik ez det
gozo au merezitua”.

667

Joan santuak malko ugari
pozez ixurtzen zituan,
Ama Birjiña ere Joanek
kartzelan ikusi zuan:
“Ez det merezi nik mesede au
–umil esaten zijuan–.
Iltzera nua, zure errukia
zabaldu dedin munduan”.

668

Arrazoi auek eta geiago
esaten ari zanean,
iru morroiak kartzelan sartu
Erodesen esanean:
bat borrarua eta beste bi
eldutzeko indarrean;
emakume galdu aren itzak
il azi zuan lurrean.

669

Joan santuak bere lepua
jarri zuan moztutzeko,
ta borraruak ebaki zion
berai burua kentzeko.
Jesussek artu zuan gorputza
lurrera ez erortzeko,
Birjiñak artu zuan burua
Aitari an eskeintzeko.

670

Morroi auek an iñor zegonik
etzuen ezer ikusten,
nork eraman zuan burua
zeuden disputak egiten.
Birjiñak bere eskutan zeukan,
etzekien nun zeukaten;
batek artuta danak juan ziran
ematera plater baten.

671

Bautista orren anima Kristok
linbora biraldu zuan,
aingeru santu talde aundi bat
eraman zuan onduan.
An ikustean guraso santu
aiek alaitu zituan;
Jesus ta Ama agertu ziran
len bizi ziran lekuan.

672

Jaunak artutzen zituan dana
ikasle ondorenean,
Ama Birjiñak maitetasuna
jartzen zien barrunean.
Ta Erregiñak beren biotzak
jarririk osasunean,
Jauna serbitzen alaitasunez
jarraitzen zuen lanean.

673

Ziran Birjiñan señalatuak
Pedro ta Joan santua,
Pedro izango zala Eleizan
lenengo Aita Santua.
Eta San Joan izango zana
Jesusen lekun artua,
bera izan zan ain jakintsua
eta *Maitea* deitua.

674

Bi apostolu auen urrena
Birjiñak zuan maitea:
Joanen anai zan Santiago,
zana faborez betea.
Baita urrena Andres santua,
nai zuana iristea
gurutzearen maitetasunez
bertan illa izatea.

675

Ama Birjiñak apostoluak
danak maiteak zituan
Jesusgatikan, eta bakoitza
errespetatzen zijuan.
Baita Maria Madalena're
biotz biguneko zuan;
bakarrik nola bizituko zan
esana zion orduan.

676

Baita Jaunari jarraitzen zien
beste emakume danak,
izandu ziran mesede asko
eta graziak emanak.
Eta ikasle jarraitzaileak
Jaunarekin zebiltzanak,
Amak grazian indartu zitun,
Eleizan bear ziranak.

677

Judas gaiztua bakarrikan da
gutxi aitaturten dana,
bera izan zan onak tira ta
biurtua Jesusgana.
Eskatu zion ametitzeko,
ikaslea nai zuana;
Jaunak maiteaz artua zuan,
apostolu egin zana.

678

Lenengotikan aurreratu zan
Jaunak emanik graziak,
Birjiñak ere agertzen zizkan
maitez bere errukiak.
Ezagaturik nor izango zan
zeuzkan kuidado aundiak;
kariño aundiz ematen zizkan
bear zituan guztiak.

679

Salbatzaileak, ezagaturik
ikaslean etortzea,
esana zion: "Ondo litzake
maiordomo bat jartzea,
artutzen diran ontasanakin
bear dana pagatzea,
zuetako bat karga onekin
lagun izendatutzea".

680

Au entzutean Judas poztu zan
berak kargu au artzeko,
beste guztiak bildurra zeuken
lan onekin kargatzeko.
Orduan Judas umillatu zan
San Joani eskatzeko,
Erregiñakin tratatzeko ta
Jaunagandik iristeko.

681

Joan santuak eskatu zion
Judasen naia Amari,
ezaguturik eskatze txarra
etzion esan Jaunari.
Judasek segi zuan eskatzen
Pedro ta beste danari,
eta etzien ezer iritxi
Judas diruzaleari.

682

Etsaiak Judas benenaturik
juan zan Birjiñarengana:
“Pedro ta Joaneke nere partetik
esana da nai dedana.
Zuri ta zure Seme Jaunari
ondo serbitzeko dana,
eskatzen dizut Maixuagandik
iristeko nik esana”.

683

Ama Birjiñak erantzun zion:
“Pentsatu zazu, maitea,
apostolu ta ikasle iñork
ez du nai lan au artzea.
Jaunak nai dizu zeuk baiño geio,
ezin da engaiñatzea;
biurtu zaitte bere naiera,
artu pobre bideztea.

684

Erori zera ta jeiki zaitte,
emango dizut eskua;
nere Semea izango dezu
zurekin errukitua”.
Etzan bigundu, baizik pentsatu
nola zan ofenditua;
Birjiñak Judas tapatu zuan
ixildurikan kontua.

685

Etsai arroak Jesus galtzeko
Judas au aukeratuta,
maiordomoa izatearren
zeukan fedea galduta.
Eraso txarrez aurreratu zan,
Birjiña despedituta,
Jaunagandik au irixtera
on-itxuran eskatuta.

686

Esana zion: “Jauna, nik nai det
zure naia egitea,
lengoak baiño obetoago
nik danori serbitzea,
danori zaitu eta pobreak
bear dana ematea,
zure dotriña erakutsiaz
lan au ondo betetzea”.

687

Jaunak Judasi erantzun zion
nai ziola salbatzea:
“Bai al dakizu zer deseo ta
zer dan zure eskatzea?
Etzaitetz izan ain borrarua
naiaz zeu benenatzea,
ta zeure kontra armak arturik
zeure bizitza galtzea”.

688

Judasek esan zion Jaunari:
"Maixu, nai dizut serbitu,
zure kongregazioan alde
nai det lanean jarraitu.
Bide danetan auxe ondona
betetzera nai abitu;
agintzen dizut: nik beteko det".
Bereakin zan gelditu.

689

Judasek bere peligro ura
maitez nairik iristea,
Jaunak juzgatu zuan uztea,
kargu ori ematea;
argituztea nai etzuala
bertan galdutzen uztea,
lenengotikan santua zana
orain etsaiez betea.

690

Bi urte ta erdi ziradenean
predikatzen zijuala,
Aitarengana biurtutzeko
denbora urrean zala,
gizaldi dana zeruratzeko
erosi bear zuala,
nai izan zuan, sinistu zezen,
nor zan agertzea ala.

691

Aukeratzen du mendi-tontor bat,
Tabor izena duana,
Jauna iru apostolurekin
zan bertara igo zana:
Pedro, Santiago eta Joan,
indartzeko al zuana;
ta agertu zan Jainkoan aintzan
gizon-bizitza zeukana.

692

Agertu ziran an bi profeta
itz egiten Jaunarekin,
izenez Moises eta Elias
aintza argienarekin.
Iltzen ikusi baiño lenago
oiñaze aundiarekin,
preparatu nai izan zituan
apostoluak berekin.

693

Denbora artan etorria zan
oiu itz bat zerukoa,
Betiko Aitaren izenean
guztiok entzutekoa:
"Au det nik nere Seme maitea,
bera det ain gustokoa;
Berari entzun bear diozue"
zan Aitak esandakoa.

694

Ama Birjiña ere izan zan
aingeruak eramana,
eta mendian Jesus aiñ argi
begiz ikusi zuana.
Bertan Jaunaren sekreto asko
ezagutu zituana,
gero etxera aingeruakin
Nazaretera zan juana.

695

Jesus menditik jetxi zanean
juan zan Ama ikustera,
Jerusalena abitutzeko
erriak despeditzera.
Atera ziran Jesus ta Ama
beste danakin batera,
Aitaren naia zalako pozez
bertan gugatik iltzera.

696

Ama Birjiñak otoitz egiñaz
esaten zuan onela:
“Jaungoiko Aita errukitsua,
zuk jaso nagoela,
eskeintzen naiz ni bere miñetan
lagundu nai diotela,
Adanen semek salba ditezen,
zure naia dan bezela”.

697

Ama Birjiñak lagundu zion
Jesusi bere neketan,
ta batzuetan gertatu oi zan
zeudela bi lekuetan:
Jesus gaixoak sendatzen eta
baita're Ama benetan.
Joan santuak etzuan uzten
Birjiña bere lanetan.

698

Joan santuak artua zeukan
Ama zaitzeko kontua,
ikusten zuan nola sendatzen
zuan miñez llagatua.
Birjiña, Jesus zijualako,
etzan miñetan neurtua;
bere biotza Jaunak bakarrik
izan zan ezagutua.

699

Salbatzailleak animen alde
jarraitzen zuan lanean,
Judean zala Betaniara
deitua izan zanean,
arriba Martak eta Mariak
anai illa zeukenean.
Lazaro illa piztu egin zan
Jaunak esan zionean.

700

Jerusalenen milagro ori
zabaldua zan orduan,
apaizak eta farisaitarrak
amorrus bete zituan.
Agindu zuen Jesus iltzeko,
billatzeko nun zeguan;
Efren errian Pazkoa arte
gelditu zan ezkutuan.

701

Denbora eldu zanean juan zan
Jauna apostoluakin
Jerusalena, ta esan zien:
“Lotuko naue sokakin;
zigortu eta josiko naue
gurutzean iltzeakin”,
Ango apaizak bere zai zeuden
iltzeko arrabiakin.

702

Berriz juana zan Betaniara
sei egun palta zirala,
Pazkoa jaian agertuko zan
taldeak an zai zeuzkala.
Lazaro piztu zuan etxera
arrebak deitua zala,
apari aundi bat eman zien,
Lazaro an zeguala.

703

Ama Birjiña ere emen zan
Pazkoan zijuaztenean,
Salbatzaillea beren oituran
jateko jarri zanean,
an sartu zan Maria Madalen
maitasun beroenean,
oin da burua usaiz beteta
jartzen du bigarrean.

704

Jesusi oiñak garbitu zizkan
bere buruko illekin,
maite ziola busti zizkion
nardos-usai onarekin.
Etxea usai onez bete zan
asko ixurtzearekin;
fariseotar aren etxean
au egiña Jaunarekin.

705

Judas gaiztuak deseo zuan
perfume ori saltzea,
eta pobrian aitzakiakin
beretzako gordetzea.
Judas asi zan gaizki esanka:
“Au da alperrik galtzea”.
Nai izan zuan apostoluak
bere alde ipintzea.

706

Jesus Maixuak esana zien
Madalenai lagatzeko,
etzuala gauza txarra egin
eta ez molestatzeko;
etzala ori pobrientzako
limosnak gutxituzeko,
ori zalako osekio bat
bera sepulturatzeko.

707

Judasek etzuan entenditu
ta jarri zan amorruan,
Luziferrek au Jesusen kontra
gorrotoan jarri zuan.
Fariseotarrari entregatzea
asmatu zuan orduan,
ixilik juan etziran gauzak
Judasek esan zituan.

708

Fariseotarrak sinistu zien
ziralako antzekoak,
ortik atera ziran kontuak
Jesus bentan jartzekoak.
Jaunak ta Amak ezaguturik
Judasen nai barrukoak,
Jesusek gauz au aitatu gabe
esan itz errukizkoak.

709

Ama Birjiñak esana zion,
Judas bakarrik artuta,
kariñoz eta negar egiñaz:
“Zaude peligran sartuta.
Maixuan kontra baldin bazaude
jarri zaite mudatuta”.
Dana alperrik izan zan eta
jarri zan ofendituta.

710

Afaldu zuen arrats ura zan
larunbat egunekoa,
misterioak oroituzteko,
Erramu jai aurrekoa.
Birjiñak eman zion Judasi
gauz balio aundikoa:
Madalenak beretzat emanak;
au zan lotsa gabekoa.

711

Ama Birjiñak eman zizkion
gauz onak artu zituan,
eskatu zion: Maixuan kontra
asmo txarrak bazituan,
“nere kontrara jarri itzazu,
bera Jauna da munduan”.
Etzuan ezer atera eta
laga zioten orduan.

712

Birjiña juan zan Jesusengana
ta auspeztu zan lurrean,
negar samiñez Seme Jainkoa
zeukan lagun bearrean.
Jaunak guztiok salbatu nai ta
utzi bear asarrean,
danokin bizi nai dualako
beti zeru ederrean.

713

Jesus ta Ama apalonduan
otoitz egiten zeudela,
Aita eta Jaun Espiritua
agertu bertan zeuzkela.
Aingeru-talde aundiarekin
an ikusten zituela,
Jesus eskeiñi miñez iltzeko
ta Ama lagun zuela.

714

Jaungoiko Aitak eskeintza auek
ontzat arturik orduan,
lurrean auspez negarrez zeuden
ta Aitak jaso zituan.
Seme Jainkoa ipiñi zuan
tronuan bere onduan.
Ama Birjiña pozez ta argiz
jarririk bere lekuan.

715

Ama Birjiñak Seme Jainkoa
ikustean goratua,
eskerrak eman eta izan zan
Jainkoa alabatua.
Eun da beatzigarren salmoa
zan Birjiñak kantatua.
Aita ta Espiritua juanda
Jesus zan an gelditua.

716

Eldu zanean Erramu-jaia
izeneko igandea,
Jauna erten zan ikasleakin,
baita aingeru-taldea,
Jerusalena juateko eta
Betfaje-n zan esatea,
eskatu eta ekarri zizken
asto ama ta umea.

717

Jaungoiko Aitak egun au zeukan
beretzat aukeratua,
Mesias Jauna nola zetorren
izateko agertua.
Isaias ta Zakariasek
zeukaten eskribitua,
ango jakintsu eta apaizak
ez izateko aztua.

718

Apostoluak beren kapakin
astoak apaindutzean,
Jauna jarri zan triunfatzeko
asto gaztean gaiñean.
Ikasle eta aundi ta txikik
esaten zien bidean:
"Auxe da gure Salbatzaillea,
Mesias gure artean".

719

Esanaz: "Au da Dabiden Seme,
Errege egiazkoa,
pakea emen eta zeruan,
aintza goienetakoa.
Bedeinkatua emen datorren
Errege Israelkoa!".
Erramuz, palmaz ta erropaz zan
lurra apaindutakoa.

720

Gure Jaun Kristo pasatutzen zan
lur apainduan gaiñean,
egun aietan Jesus iltzeko
billatzen zebiltzanean.
Apaizak eta fariseotarrak
iltzea nai zuenean,
Jaunak biotzak argitu zitun
aitortzeko indarrean.

721

Bere grazia ixuri zuan
Jaunak biotz umilletan,
etzan bakarrik an Palestinan,
baita Ejito lurretan.
Jauna onela aurreratu zan
Jerusalengo bidetan,
biraldu zuan Migel santua
Linbora ordu onetan.

722

Guraso santu eta profetak,
Linbo-kabernan zeudela,
jarri ziraden danak ikusten
Jesus argitan zeukela.
Ezagutu ta adoratuta
kantatu zien onela:
"Jaunari aintza ta alabantza,
aiñ arrigarri zaudela".

723

Alguztidunak Jesusen aintza
agindu ugaritzeko:
jai-egun artan mundu osuan
bat bakarrik ez iltzeko.
Asko ziraden ilko ziranak,
grazia zan bizitzeko;
agindu zuan etsai guztiak
inpernun ondoratzeko.

724

Jaunaren lagun aingeru santu
agertzen ziran kantari,
Jerusalena sartu zanean
laga zion astoari.
Jauna sartu zan Eleizan eta
arrituaz jendeari
bota zizkien maiak lurrera
diru-aldatzailleari.

725

Aitaren onran bere etxea
Jesusek zaitu nai zuan,
saltzen, erosten zebiltzatenak
kanpora bota zituan.
Jaunak poztuak izan ziranak
mudatu ziran orduan,
beren etxean ospedatzea
iñork nai izan etzuan.

716

Jarraitu zuan Jaunak Eleizan
erakutsitzen orduan:
nola bear zan errespetua
Aitaren etxe santuan.
Berak augatik basoka bat ur
artu nai izan etzuan,
gero jua ziran Betaniara,
bere Ama an zeguan.

717

Ama Birjiña erretiruan
egon zan egun osuan,
ikuste partikular batekin
danak ikusi zituan:
Jesus Maixua triumfatzen da
espirituak zeruan,
gizonak nola lurrean zeuden
ta etsaiak inpernuan.

728

Ikusi zuan Seme Jainkoak
Eleizan egin zuana,
aditu zuan danen aurrean
Aitak Jesusi esana:
“Ni izango naiz, Seme maitea,
goratuko zaitudana;
baita're zure goratutze au
berrituko dizudana”.

729

Salbatzailleak etsai guztiak
inpernura botatzean,
gelditu ziran ezin jeikirik
bi egun pasa artean.
Jeiki nairikan arrabiz eta
oiu gorrik egitean.
Ien zeuzkan baiño min geiagoak
sortu zitzaizken batean.

730

Luzifer oso konfundituta
juntatu zituan danak,
esana zien: “Ez da posible
dirala gizonen lanak.
Gure etsaiak Moises, Elias
ta Eliseo ziranak,
etzuen izan ainbeste indar,
ez giñan mende giñanak.

731

Gizaseme orren gauza asko
dauzkagu ezkutatuta,
profeta baiño geiago da au,
oso dago indartuta.
Mesias zala deitu zioten
adoraziok artuta.
Asko da ori! Bere izena
nai det ixildu galduta.

732

Orain daukat nik bere ikasle
Judas neri laguntzeko,
ixuri diot biotz barrura
naia Maixua saltzeko.
Fariseotarrak jarrita dauzkat
inbiriz bera iltzeko;
baiñan Mesias izango balitz
izango da gu galtzeko.

733

Danon artean asma dezagun
zer degun lanik onena”.
Jaunaren kontra amorrazioz
zan taldea zegoena,
asmatu zuen: “Ez dedilla il”,
bestela galduak zeudena.
Danak mundura atera ziran
egitera al zuena.

734

Pilatosen andreari esan
zioten au ametsetan,
etsai-taldeak inguratuta
Judasi ere benetan:
“Etzazu saldu zure Maixua”.
Judas bere asmoetan;
gizon-itxuran eskeiñi zizkan
diruak, asmo onetan.

735

Jesus ta Ama Judas gaiztuak
eziñ ikusi zituan,
etsaiak jarri zizkan txarkerik
biraldutzen etzitan.
Orain etsaian alegin danak
alperrik izan onduan,
ezin atera zuen ezer da
laga zioten orduan.

736

Etsaiak juanak ziran orduan
fariseotarrengana,
esanaz au: ez pertsegitzeko
Kristo Maixu ona zana.
Baiñan Judasen antzera zeuden,
alperrik izan zan dana;
eskarmentua izateko da
peligruan dagoana.

737

Etsaiak ezer ezin zuela
ezagutu zuenean,
biurtu ziran Jaunaren kontra
amorru aundienean,
fariseotar da borrreruak
jarririkan berenean,
pazientzitik ateratzeko
iltzeko miñ aundiñean.

738

Jerusalenen sartu zanetik
asteazken urrenguan.
Jauna gelditu zan Betanian,
Eleizara etzajuan.
Eskriba eta fariseotarrak
Kaifasek bildu zituan.
Jerusalengo triunfo arek
inbiriz bete onduan.

739

Apaiz Kaifasek bildu zituan
eskribak fariseoakin,
berritu zuen nola Lazaro
piztu dun esanarekin:
“Erri osoa ondoren dauka
milagrok sortzearekin;
erria salbatu bear degu
gizon bat iltzearekin”.

740

Judas juana zan beren artera,
zeukan grazia galduta;
galdetu zien: “Zenbat da paga
Maixua entregatuta?”.
Eskeiñi zizken ogei ta amar
zillar diruak artuta,
galdetu zien: “Nora zuazte?”.
Nai zuan eman salduta.

741

Salbatzailleak esana zien,
Judas an etzegoala:
“Jakín zazue bi egun barru
au gertatuko zaidala.
Gizonaren semea munduan
iltzera badijuala,
gurutzean josi ta iltzeko
emana izango dala”.

742

Salbatzailleak Judasen lanak
ondo ikusten zituan,
Birjiñak ere aingeruakin
dana jakiñez zijuan.
Egun berean: “Nun da Pazkoa?”
Judasek galdetu zuan.
Ama Birjiñak erantzun zion:
“Jaunak dauka sekretuan”.

743

Atera zedin pekatutikan
esana zion onela,
etzan geiago juan galdetzera
nerbioso zebilela.
Jesus ta Amak azkena arte
maitez tratatu ziela,
Birjiñak negar egiten zuan
aingeruak an zeudela.

744

Martan etxean igaro zuen
Jaunak apostoluakin,
Ama Birjiña ta beren lagun
beste emakumeakin.
Tratatu zitun misterioak
Jaunak Ama Birjiñakin,
biotz barruan gorde zituan
maitetasun aundiakin.

745

Eldu zanean ostegun-goiza,
Jaunak deiturik Amari,
lurrean auspez jarririk zion:
“Emen zure serbitzari”.
Jaunak lurretik jasorik Ama
esana zion berari:
“Ama, eldu da nere ordua
salbatzeko gizonari.

746

Nere Aitaren agindua det
gizonak zeruratzeko,
eman eidazu zure baimena
gizonakgatik iltzeko.
Birjin izanaz zuk emandako
gorputza det supritzeko,
Aitak nai du-ta ardi galduak
etxera biurtutzeko”.

747

Erantzun zion Amak Jaunari
lurreraiño auspeztuta:
“Jaun da Jainkoa, autsa naizena
jarri nazu goratuta.
Aitaren naia eta zurea
daude nerekin batuta;
nere miña da ezin legundu
zure miñak nik artuta.

748

Baita're nere miñ aundiena
zu oiñazez ikustea,
zeruetako aingeru santuk
nai det lagun izatea.
Nere Maiteak eriotzakin
nai du danak erostea;
nai ez duenak galduko dira”
zion negarrez betea.

749

Gero eskatu Amak Jesusi
baimena itz egiteko,
Jaunak baimena emana zion
nai zuana esateko.
“Nere Maitea, ni ez naiz iñor,
Jauna, zuri esateko:
zure gorputza eta odola
kontsagratzean artzeko”.

750

Ama Birjiñak gauza on asko
esan zizkion Jaunari;
eta Jesusek: “Emango dizut”
agindu zion Amari.
Birjiñak umil eskerrak eman
zizkan biotzez Berari,
egin zituan fedeko aktok,
preparazio ugari.

751

Jaunak agindu Ama Birjiñan
aingeruari orduan:
“Agerturikan lagundu beti
Erregiñari munduan,
bere miñetan alaiturikan,
nola bakarrik daguan”.
Aingeruak au betetzen zuen,
beti zeuzkala onduan.

752

Jaunak Amari esana zion
maitasun aundiarekin:
“Ni nuanean Jerusalem
nere ikaslearekin,
zu ere etorri ondorean
emakume santarekin.
Animatu ez ditezen galdu
nere eriotzarekin”.

753

Jaunak Ama despeditu zuan
bedeinkatu zuanean,
gu erostera miñ aundienaz
iltzera zijuanean.
Beren biotzak zenbat miñ zuen
gaude ezin esanean,
ezin dalako iñolaz sartu
pentsamentu onenean.

754

Jesus erten zan Jerusalem
azkeneko zijuala,
aparia zuen ostegunez
egoardi aldia zala.
Berekin zeuzkan apostoluak
bere lagun zituala,
esana zuan: “Aita, eskerrak,
mende iltzera nuala”.

755

Jaunak bidean esaten zien
bere apostolari:
“Fedean sendo igaro danok
indartuaz animari.
Etzaitzeltela auldu neregan
ikustean miñ ugari,
kontuan egon ez sinisteko
Satanasen esanari”.

756

Ama Birjiña ere erten zan
Maria Madalenakin,
baita beste emakume santa
jarraitzen zietenakin.
Esaten zien: “Etzaitzeltela
auldu gauza gogorrakin,
Jauna zigorkatzen eta miñez
begiz ikustearekin”.

757

Salbatzailleak bere Aitari
otoitz egin zionean,
Birjiñak ere otoitz au egin
zuan eskeiñi zanean.
Bere biotza beterik zeukan
maitasun beroenean,
aingeruak an ikusten zitun
laguntzen aldamenean.

758

Ama Birjiñak agintzen zien
aingeru zaindariari:
“Eman zuek aintza eta onra
Aita eta Semeari,
baita auekin bedeinkatuaz
Espiritu Santuari”.
Beti egiten zien esana
aingeruak Birjiñari.

759

Apostoluak galdetu zizken
Jaunari dudak bidean,
Jaunak erantzun zien danari
maitasun aundienean.
Galdetu zien: “Pazko-apari
nun gaude jan bearrean?”.
Pedro ta Joan biraldu zitun:
“Jarri onetxen etxean”.

760

Apari au zan judutarraren
arkumea jatekoa,
ta gizon au zan Salbatzaillean
lagun biurtutakoa.
Apostoluak seiñale zuen
etxe au billatzekoa:
“Morroi bat txankerta bat urekin
sartutzen dan atekoa”.

761

Nagusi ari eskatu zien
Maixua ametitzeko
bere etxean, Pazko-apari
jai ori zelebratzeko.
Jaunak grazia biraldu zion
gizon ari argitzeko,
eskeiñi zien lekua eta
bear zana apaltzeko.

762

Jauna sartu zan berealaxe
bere ikaslearekin,
Ama Birjiña ere sartu zan
emakume santarekin.
Jauna Amak adoratu zuan
auspez maitasunarekin,
eskatu zion bedeinkatzeko
ta agintzeko berekin.

763

Jaunak Amari lekua esan
ara erretiratzeko,
ta emakume an zeuzkanari
argitutzen saiatzeko.
Birjiñak egin zuan esana,
baita otoitz egiteko;
Birjiñak gogoz espero zuan
Santisimoa artzeko.

764

Jesus sartu zan apal-lekura
bere jarraitzailleakin,
bete zituan oitura danak
argi apostoluakin.
Judasek etzuan ezer jakin
ixil eman nai arekin,
Jaunak etzuan au apartatu
zeukan maitetasunakin.

765

Jesusek otoitz egiña zion
bere betiko Aitari,
auspez lurrean adoratuaz
Jaungoiko izateari.
“Aita, eldu da denbora ura
agertzeko gizonari,
zure izena ezagutu ta
salbatutzeko danari”.

766

Salbatzaillean otoitz luzea
Aitak ontzat artu zuan,
ezin konta-al aingeru Aitak
ara biraldu zituan,
Ama Birjiñak Jesusen lana
danak ikusten zituan.
Jaunak jasota otoitz-bizitza
goienekuan zeguan.

767

Jesus jeiki zan apostoluak
aiñ ondo informatuta,
eta lenengo Aitari otoitz
egin zion auspeztuta,
esanaz: “Aita, zure antza naiz,
gogoz naukazu batuta;
gizonakgatik iltzera nua
lurreraiño umilduta.

768

Apostoluai erakusteko
nai det anakak garbitzea,
etsaiak zure Seme naizela
ez det nai ezagutzea.
Judasen aurrean ere nai det
maitez auspez tratatzea;
berak nai badu, barkatutzeko
nai det besok zabaltzea”.

769

Jesus jeiki zan arpegi argiz
otoitz egin zuanean,
agindu zien ikasleari
eseritzeko saillean.
Kapa kendurik zapi luze bat
loturik bere soiñean,
ura artuta anakak garbitzen
asi zan danen mendean.

770

Jesus asi zan anakak garbitzen
morroi bat bazan bezela,
eldu zanean Pedroengana
esana zion onela:
“Jauna, zuk neri anakak garbitzen?”
entenditzen etzuela.
Erantzun: “Orain zuk ez dakizu”,
gero jakingo zuela.

771

Jesukristoren dotriña Pedrok
etzuala entenditzen,
esana zion: “Jauna, ez dizut
utziko anakak garbitzen”.
Erantzun zion serio samar:
“Ez badirazu utzitzen,
ez dezu parterikan izango
nerekin lagun bizitzen”.

772

Au entzutean Pedro izan zan
bere alde biurtua,
esana zion: “Emate'izkizut
anakak, eskuk ta burua”.
Pedroren esate au izan zan
Jesusek ontzat artua,
erantzun zion: “Asko da anakak,
gelditzen da garbitua.

773

Zuek garbiak zaudete baiño
etzaudete garbi danak”.
Au esan zuan etziralako
garbiak Judasen lanak.
Pedrori anakak garbitu zizkan
egini bere esanak,
besteai ere garbitutzean
ziran argiak emanak.

774

Jauna pasa zan Judasengana
auspez anakak garbitzera,
eta besteai baiño geiago
graziak ixuritzera,
kariñoz eta maitetasunez
alegiñak egitera.
Etzan bigundu, etzan mugitu
Jaunari begiratzera.

775

Judasek galdu zuanetikan
fedea eta grazia,
etzituan ikusi nai izan
Jesus ta Ama Maria.
Ordutik zeukan bi auen kontra
gorroto izugarria,
Luzifer zeukan bere barruan
biotzean eseria.

776

Salbatzailleak oiñ garbitzea
akabatu zuanean,
kapa artuta eseria zan
ikasle danen aurrean.
Esana zien: “Al dakizue
zer nion au egitean?
Maixu ta Jauna deitzen nazue,
alaxe naiz esatean.

777

Orrelaxe ba, Maixua banaiz
ta garbitu zuen oiñak,
zuek ere alkarri garbitu,
izan serbitzari danak.
Eman dizuet nik ejenploa
egiteko zuen lanak,
ez du izan bear jauna baiño
geiago morroi diranak”.

778

Jaunak graziak ixuri zizken
ikasleari orduan,
Pedro ta Joan gelditu ziran
argirik goienekuan.
Pedrok jakin naia izan zuan
Jauna nork salduko zuan,
Joan Jaunaren petxuan zala
jakin da esan etzuan.

779

Jaunak agindu zion Joani:
“Zure kontu artu Ama”.
Ama Birjiñak Jaunaren naia
ezagutzen zuan dana.
Danagatikan Aitaren aintzan
zan abestutzen zuana,
andre santari erakutsiaz
zan Birjiña zijuana.

780

Ezin da esan gure itzakin
egite Jaungoikozkoa,
apaldu zuen mai ura zuen
zazpi beatz altukoa.
Agindu zuan jartzeko maia
orainguan antzekoa,
Jesukristoren gorputz-odola
bertan kontsagratzekoa.

781

Mai berria zan jantzi zuena
toail aberatsarekin,
jarri zituen bertan plater bat
kopa arrizko batekin,
arri edo esmeraldazkoa
balio aundiñarekin;
nagusi arek eskeiñi zion
serbitutzeko berekin.

782

Jauna eseri zan mai onetan,
baita're bere taldea;
eskatu zuan: “Emaidazue
ogi legami gabea”.
Ekarri zien ta jarri zuan
platera ori betea:
“Emaidazue ardo purua”,
jarri zuan edatea.

783

Ordu onetan gertatua zan
au Zenakulo batean,
Betiko Aita agertua zan
argitasunez betean.
Jaun Espiritu Santua're bai
aingeruakin batean,
Jordanen ta Taborren bezela
maitasun aundienean.

784

Zeru osoa aldatua zan
Zenakulo dan etxera,
an Eleiza berria sortzeko
graziakin argitzera.
Jesus eldu zan otoitz egiñaz
“Nere Aita –esatera–;
Zu ta Espiritu Santuakin
beti nazue batera.

785

Zuk erregutu zidazun lana
gizonak erostekoa;
nai det bukatu, dedan gorputza
Birjiñak emandakoa.
Zuk emandako danak zugana
naia det jasotzekoa,
poza dek gizonen semeakin
bizi ta barkatzekoa”.

786

Ama Birjiñak Jesusen otoitz
ixilla entendituta,
berritu zuan Amak otoitz au
lurreraiño auspeztuta.
Ikusi zitun Jaunaren kontra
an etsaiak arrotuta,
danak bota ziran inpernura
Erregiñak aginduta.

787

Ama Birjiña izan zan Jaunak
espirituz goratua,
etsaiak bota zitualako
aingeruak abestua.
Une berean gure Jaun Kristok
Aitari zan kantatua:
“Eskerrak, Aita, eman didazu
gizonentzat eskatua”.

788

Jaunak artu zuan ogi ura
bere esku santuetan,
Aitari ixil eskatu zion
baimena une onetan
Eleiza santan geldituzeko
egiaz eta benetan
ostian mende, esango zitun
ta esateko itzetan.

789

Jaunak begiak jasorik gora
arrituzeko moduan,
Ama Birjiña ta ikasleak
jarririk bildur santuan,
ogia kontsagratzeko itzak
Jesussek esan zituan,
eta Kristoren gorputz biurtu
zan egiaz segituan.

790

Ardoa kontsagratzeko itzak
esan zituan unean,
Kristoren odol biurtua zan
egirik aundienean.
Ta Aitak esan: “Au det Semea
izate goxuenean,
eta gizonakin izango det
beren erbeste danean”.

791

Jaun Espiritu Santuak auxe
konfirmaturik orduan,
eta Jesusen gorputz santuak
auspez adonatu zuan,
kontsagratuta gorputz-odolak
zeudela sakramentuan,
egi-egiaz dauzkagulako
Jainkotasunez batuan.

792

Ama Birjiñak adoratzan du
lurreraño auspeztuta:
bere Semean gorputz-odola
Jainkotasunez batuta.
Berdin egin zuen aingeruak,
ziran danak juntatuta;
baita Enok eta Eliasek
justuen naia artuta.

793

Apostolu eta ikasleak
arturikan sinismena,
eta Jesusek kontsagratua
zan adoratu zuena,
umildade aundienarekin
beren aurrean zeukena.
Judas gaiztua bakarrikan zan
adoratu etzuen.

794

Ondorenean Kristo apaizak,
asko maite gaituanak,
jaso zituan gorputz-odolak
kontsagratu zituanak,
adoratzeko berriro ere;
ala egin zuen danak.
Jasotze ortan argi geiena
artu zuan bere Amak.

795

Ama Birjiñak jakin zituan
misterio milagrosuak,
apaizak itzak esateakin
zirala kontsagratuak.
Oroitu zuan nola gizonak
izango ziran aztuak,
Birjiñak penaz ixuri zitun
malkuak odolezkuak.

796

Jesus apaiza bera izan zan
lenengo komulgatua,
ezaguturik bere gorputza
zala gutxiagokua.
Dardar ikara sortu zitzaion
izatean ikutua,
umillatu zan bear dalako
errebentziz guk artua.

797

Ostia kontsagratuan daude
Jesusen gorputz-odola,
baita Jaungoiko Irutasuna
bertan baturik dagola.
Miñez oroitu zuan ditxa au
askok naiko etziola,
ta agertu zan Jainkotasuna
aintzaz argitzen ziola.

798

Jauna etzuen danak ikusi
graziz argiz edertua,
Ama Birjiñak ikusi zuan
Jesusekin gertatua.
Ezagutuak Enok, Elias,
baita're Joan santua;
onekin Jaunak il arteraño
zan, poza, despeditua.

799

Jesusek ogi kontsagratua
artzean maitasunakin,
bere Amari biraldu zion
Gabriel aingeruakin.
Aingeruak pozez bete ziran
Jauna eramateakin,
esaten zuen: "Ai zer ditxa dan
bititzea apaizakin!".

800

Ama Birjiñak espero zuan
Jauna beregan artzea,
eldu zitzaion santu Gabriel
aingeru-taldez betea.
Bere eskutik, adoratuaz,
artzen du Seme santua;
nai izan zuan piztu artean
biotzean bizitzea.

801

Aitak agindu zigun Jainkoa
biziko zala gurekin,
mundu onen azkena artean
gizonen semearekin.
Kontsagratua izan zan arte
San Pedoren mezarekin,
Jesus gendukan sagraioan
Maria Birjiñarekin.

802

Ama Birjiña komulgatua
izan zan ondorenean,
Salbatzailleak apostoluai
agindu maitasunean:
“Artu ogi kontsagratua ta
partitu zuen artean”.
Apaiz biurtuak izan ziran
Jauna artu zuenean.

803

Gero Jaun Kristok agindu zion
Pedro apostoluari:
“Eman Enok eta Eliasi
gorputzakin daudenari”.
Jauna artzean eskerrak eman
zizken Irutasunari,
aingeruak eraman zituen
beren lekura kantari.

804

Guraso Enok ta Eliasek
biotza pozez zeukela,
neurrik gabe alaitu ziran:
laister zerua zuela.
Judas gaiztuak, apostoluak
Jauna artutzen zeudela,
nai izan zuan Jauna autikan
eraman jo zeiotela.

805

Asmoa zuan fariseotarrari
ogi au eramateko:
“Maixuak dio gorputza dala”
eta joka apurtzeko.
Ama Birjiñak aingeruari
agindu autik kentzeko,
garbitu eta besten artean
ixilikan ipintzeko.

806

Aingeruak au egiña zuen
Birjiñak esan bezela,
ogi ta ardo kontsagratuak
autikan kendu zizkela,
“Au ezin bazan beste kalten bat
egitea nai zuela”.
Salbatzailleak aparti ura
bukatu zuan onela.

807

Salbatzailleak betea zuan
Aitak agindutakoa,
ta laga zuan Zenakuloa
mirariz betetakoa.
Ordu berean Ama Birjiña
izan zan ertendakoa
Seme Jaunari jarraituzera,
zan miñ neurrigabekoa.

808

Birjiñak miñez auspezturikan
Jauna adoratu zuan,
eta Jesusek: “Ama nerea
—esana zion orduan—,
zure miñetan izango nazu
zurekin zure onduan,
egin dezagun Aitaren naia
gizonen alde munduan”.

809

Ama Birjiñak eskeiñi zion
biotz dana supritzeko,
eta eskatu zion Jaunari
Amari bedeinkatzeko.
Bedeinkatzean baimena zuan
berriz erretiratzeko,
eta Berari al zuan eran
samiñetan laguntzeko.

810

Ama-Semeak an despeditzen
nagusiak ikustean,
eskeiñi zizkan Erregiñari
zeuzkanak bere etxean.
Serbitutzeko nai zuan eran
Amak ontzat artutzean,
milla aingeru ikusten zeuzkan
andre batzuen artean.

811

Apaldu zuen ostegun aren
gaua aurrera zijuan,
eta iltzeko bide samiña
artzea nai izan zuan.
Bere amabi apostoluak
bere ondoren zituan,
ikasle asko an zituanak
juanak zituan orduan.

812

Salbatzaillea abiatu zan
Olibeteko mendira,
Judas gaiztua nora zijuan
larri zeguan begira.
Apostoluak aurreratzean
igesi zuan errira,
gizon-itxuran Luzifer erten
zitzaion bide erdira.

813

Esana zion: “Gizaseme oi
etzazu eman iltzeko;
ez da alako gaiztua eta
utzi zerbait ikusteko”.
Bildurra zeukan, Mesias bazan,
zala dana barkatzeko;
kasorik egin gabe juana zan
fariseoai emateko.

814

Esaten zeuden fariseotarrak
beren apaiz gaiztoakin:
“Noiz etorriko ote da Judas
agindua duanakin?”.
Une onetan eldu zan Judas
entregatzera seiñakin,
oso pozturik entzun zioten:
“Zuazte gogor armakin”.

815

Jesukristoren maitetasuna
da neurririk ez duana,
ikusten zuan argi ta garbi
Judas gaiztuaren lana.
Eta Jesus zan Judas au ere
salbatzea nai zuana,
beragatikan bakarrik ere
iltzeko eskeiñi zana.

816

Jesus iltzeko zebiltzan aiek ikustean esan zuan:
“Aita, barkatu aueri ere bizi ditezen zeruan”.
Ama Birjiñak Judasen lanak ondo ikusten zituan, errukiz eta negarrez Jauna adoratuaz zijuan.

817

Jetsemaniko Baratzen Jesus sartu zanean esana:
“Eseri eta zai egon emen, naiz otoitzera nuana. Ta zuek ere otoitza egin ez galtzeko aultzen dana”.
Zortzi apostolu an lagata irukin aurrera juana.

818

Pedro, Joan ta Santiagokin zerbait aurreragotuta, Jaunak otoitza egiña zuan iltzea ontzat artuta, justiziarri gendukan zorra gelditzeko ordainduta. Salbatzaillean borondatea zan Aitak aprobatuta.

819

Jesus jarri zan neurri gabeko naigabe miñez betean, esana zien: “Triste daukat Nik anima, bai, il artean”.
Iru apostolu auek ziran Tabor argiz ikustean, orain irurak artu zituan grazi berrik ematean.

820

Jaunak iru apostolu auek bere lagun zeuzkanean, esana zien: “Zai egon emen, ernai egon otoitzean”.
Jesus bakarrik aurreratu zan utzirik auek urrean, agonia zan: salbatzeko il; galduak azi miñean.

821

Jesusek otoitz au egin zuan odolez izardituta:
“Aita nerea, posible bada jarri ni miñ au kenduta”.
Jaunak otoitz au iru alditan Aitari erregututa, Aitak San Migel biraldu zion ipintzera indartuta.

822

Migel santuak esana zion Aitaren borondatea: eziña zala nai etzuenak zerura eramatea. Bearra zala zeruratzea
Ama Birjiña maitea, baita martiri eta birjiñak fundadorekin batea.

823

Iru alditan biurtua zan Jauna apostoluen: “Otoitza egin ta ernai egon” au da esaten ziena.
Jaunak utzirik etsaiak berriz bildu ziran Judasena, etzuen ezer iritxi eta au zan jakin nai zuena.

824

Apostoluak Zenakuloan
artu zuela grazia,
eta apostolu danen kontra
arro zeuken arrabia.
Jakín nai zuen zer izan zuen
alako grazi aundia,
ezagututa apurtutzeko
egiñaz al zan guztia.

825

Jaunak ikusi krueldade au
aita bat bazan bezela,
errukituta berena juan zan
loak artuta zeudela.
Esnaratuta esana zien
otoitz egin zezatela,
tenta-aldian ez erortzeko;
etsaiak an zeuzkatela.

826

Ama Birjiñak etsaian lanak
ikusten zitun munduan,
eta iru Maria aiekin
otoitz egiten zijuan,
esanaz: "Aita, Jesusen miñak
artu nai ditut barruan".
Irutasunak ontzat arturik
miñak sentitu zituan.

827

Etsaiak iru Maria auek
galdu nairikan berekin,
baiña Birjiñak indartu zitun
grazi aundienarekin.
Eskatu zien Kalbarioan
jarraitutzeko berekin;
Jesus bezela otoitz egiten
asi zan iru auekin.

828

Ama Birjiña gelditua zan
naigabe miñez tristea,
nai izan zuan: "Nere anima
triste daukat –esatea–.
Zergatik miñez ilko dalako
nere Seme Jaun maitea,
eta Berekin tormentu aundiz
ni illa ez izatea!"

829

"Nere maiteak, otoitza egin
ez galtzeko tentatuta",
au esatean Birjiña zerbait
jarri zan aurreratuta.
Seme santuak egiten zuan
otoitzarekin batuta,
jarraitu zuan otoitz egiten,
andre aiek indartuta.

830

Birjiñak jakin misterioaz
etsaia nola zeguan:
emakume on aiek tentatzen
gorroto aundiz orduan.
Baita're galduko ziran danak
ezagutuak zituan,
eta Jesusen antzera Ama
agonia izan zuan.

831

Ama Birjiñak galduko ziran
animak ezagutzean,
negar egiñaz izarditu zan
odolez bere antzean.
Irutasunak santu Gabriel
Birjiñari biraltzean,
Jaunaren naia agertu zion
indartzeko supritzean.

832

Birjiñak zeuzkan zapi batzuek
Nekaldian laguntzeko,
zekialako larritzen zala
odola izarditzeko.

Aingeruari toailla eman
arpegia garbitzeko,
garbitu zien eta eldu zan
ordua arrapatzeko.

833

Salbatzaillea otoitz egiten
ari zanean Aitari,
abitua zan Judas esaten
etortzeko jendeari.
Etzielako kasorik egin
etsaiaren esanari,
kanbiatu zan Luzifer eta
esan zien gaiztoari.

834

Biotzez esan zien aueri
gizaseme oi jotzeko,
neurririk gabe tormentuz eta
itz txarrez menderatzeko.
Jeremiasek esan bezela
juan ziran arrapatzeko,
sorgiña zala ta jende asko
juan ziran sokaz lotzeko.

835

Nola zetorren Beraren billa
Jaunak ezagutu zuan,
apostoluak irugarrenez
lotan arkitu zituan.
“Lo egizue. Jeiki ta goazen
—esana zien orduan—;
ordu onetan jarriko naue
pekatarien eskuan”.

836

Jesusek iru apostolui
onela zien esana:
“Emen dator ni entregatzera
berak salduta naukana”.
Apostoluak, au entzutean,
pasatuak ziran dana;
beste zortzirak artuta Jesus
erten zan gaiztoengana.

837

Jaunak berriro esana zien:
“Banua entregatzera,
nere gogotik miñak supritu
ta gurutzean iltzera”.
Ixilik zion: “Atozte, penak
ta miñak, ni zatitzera.
Balio due gizonak eta
nua danak salbatzera”.

838

Entzuna zuen soldadu-builla,
zetozen Jesus lotzeko;
lenengo Judas aurreratu zan
tranpaz musu emateko,
“Jainkoak salba zaitzala, Maixu,”
esanaz, ezagutzeko.
Emen izan zan Judas galdua
graziak ez irixteko.

839

Jaunak erantzun zion Judasi:
“Zertara zatoz, laguna?”.
Birjiñan erreguangatikan
berriz saiatu zan Jauna.
Argi klaro bat biraldu zion
Judasi biotz barruna:
“Damutu zaite ta barkatua
dana izango dezuna”.

840

Jaunak esana biotz barruan
dana ezagutu zuan:
nola pekatu orren ordaiñak
penak izango zituan.
Birjiñak nola laguntzen zion
penatu bear etzuan,
Judasi dana barkatutzeko
sarri eskatzen zijuan.

841

“Egiaz dizut: maite zaitugu
esperantzan zaudelako,
zuk nai badezu gurekin bizi
iritxiko dezulako.
Nai ez badezu, gure asarrez
betiko pena dalako”.
Etzion entzun biotz gogor ark
desesperatu zalako.

842

Judasek musu eman ondoren
beste amaikak artuta,
Jesus jarri zan soldaduakin
arpegiz aurreratuta.
Beste aldetik Judas zetorren
judutarrakin batuta,
beren artean Luzifer zuen
etsaiak inguratuta.

843

Gaizto-taldea Jesus austera
indarrez eldu zanean,
soldaduari: “Nor nai dezue?”
galdetu zien onean.
“Nazareteko Jesus nai degu”
erantzun ziotenean,
danak kokotez erori ziran
“Ni naiz” esan zienean.

844

Egillearen itz bakar au zan
eskubidea zuana,
eta gizonak bakarrikan ez:
erori zan an zan dana.
Txakurrak eta zaldi-indarra
laguntzeko eramana,
Luzifer ere bere danakin
zapaldua izan zana.

845

Egondu ziran zazpi miñutu
ilda bezela lurrean,
ta Jesus bere amaikarekin
begira beren aurrean.
Ama Birjiñak: “Jeikitzen utzi”
erregutu zionean,
Aitari otoitz egiña zion
bitzara biurtzean:

846

“Aita nerea, jarri dituzu
danak nere eskuetan,
justiziak eskatzen duana
ordaindu nai det benetan.
Nik nai det nere gogoarekin
entregatzea miñetan,
irabazita nere anaiak
bitzitzeko zeruetan”.

847

Alguztidunak baimena eman
lurretikan jeikitzeke,
galdetu zien: “Nor nai dezue?”
berriz berai entzuteko.
“Nazareteko Jesus nai degu”.
Jauna zan erantzuteko:
“Esan dizuet ni naizela ta
diot auei lagatzeko”.

848

Jesusi eskuk lotzera juan zan
Malko izena zuana,
Pedro Jesusi defenditzeko
zan ezpataz jarri zana.
Oni jo zion buruan eta
belarria kendu dana,
Jaunak sendatu belarria ta
zion Pedrori esana:

849

“Sartu ezazu ezpata ori
atera dezun tokira,
ezpatarekin iltzen duanak
berak ala ilko dira.
Ez al dezu nai nik supritzea
nere Aitari begira?
Jakin ezazu deitu ezker
aingeruk datoz erdira.

850

Uste al dezu ez daukatala
nik eskatzerik Aitari?
Berak biralduko lizkidake
neri aingeru ugari.
Baiñan orduan nola erantzun
Eskrituran esanari,
Aitaren naia igarlearen
bidez esandakoari?”

851

Orduan esan zien Jesusek
judutarrari onela:
“Nola zatozte ni lotutzera
lapurra banintz bezela?
Au ez dezue egin Eleizan
zuekin an nebillela,
baiñan auxe da zuen ordua
illun, indar dezuela”.

852

Orduan eldu ta lotu zuen
sokaz eta kateakin,
eraman zuen apaiz-etxera
otsuen arrabiakin.
Ama Birjiñak ikusten zuen
dana bere argiakin,
egingo zizken burlak ordaindu
nai zituan otoitzakin.

853

Eskatu zien aingeruari
Jesus adoratutzeko,
gaiztok egingo zizken kalteak
al zan eran ordaintzeko.
Andre santari ere au bera
esanaz, erreztzeko:
“Jaunak baimena eman die ta
bera gaizki tratatzeko”.

854

Amak bazekin esana zana
miñez bete bear zala,
Jesus lotzean Birjiñak ere
miñ ori artu zuala.
Aitak baimena emana zion
miñetan lagun zirala,
supritze onek Amari penak
zerbait arintzen zizkala.

855

Emen eldu zan apostolui
Jaunak apaltzen esana:
“Gaur arratsean suprimentua
elduko da zuengana;
eta Satanas zapaldu nairik
da aleginduko dana”.
Apostoluak igesi zuen,
bete zan esan zuana.

856

Luzifer arro ibilia zan
apostoluak galtzeko,
beren Maixuak zeukan pakea
ikusi gabe juateko.
Alegin danak egin zituan
beren fedea kentzeko,
batzuek dudan jarri zituan
ta bildurrez igesteko.

857

Pedro ta Joan juntatu ziran
urrutitik jarraitzeko,
zertan gelditzen ote zan Jesus
urreratuz ikusteko.
Amaikak zeuden triste ta miñez
Jauna falta poztutzeko;
asmatu zuen: "Guaz Amarena",
ta etsaiak: ez juateko.

858

Joan santuak Anas apaiza
bere ezaguna zuan,
orreatikan Pedro artuta
Jesusen billa zijuan.
Birjiña nola penatuko zan
zeuken biotzan barruan:
nola ikusiko ote zuen;
poztu nai zien orduan.

859

Birjiña zegoan Zenakuloan
dana ikusten zuala:
Seme santua preso artuta
tormentuz betea zala.
Ikusten zitun apostoluak
bakarrikan zebiltzala,
asi zan beren alde eskatzen
Jaunari, gorde zitzala.

860

Amak Jesusi eskatu zion:
"Apostoluai barkatu";
eta amaikak alkarrengana
pixkana ziran juntatu.
Judas gaiztuak ikusitzean
joka zuela llagatu,
maldizioka eta ixilik
au ezin zuan tragatu.

861

Oroitu zuan merezi gabe
zala ala tratatua,
berak gaiztoen eskuetara
zuala entregatua.
Baita Maria maite ziona
nola zuan penatua,
pekatu danak bururatuta
au zan desesperatua.

862

Gezurran aita dan Luziferrek,
gezurak ugarituta,
Judasi esan zizkan egiak
gezur aundiaz nastuta.
Ez berari damua sortzeko
jarri zuan illunduta;
asi zan bere burua joka
besok ortzakin elduta.

863

Luziferrek au esana zion:
"Zuaz apaizarengana;
konfesatu zure pekatua
ta ordaindu diru dana".
Dirua bota ta esan zien
"Saldu det justua zana".
Erantzun zien: "Begiratzea
zan lenengo zenduana".

864

Judasi jarri zion etsaiak
tristeza menderatzeko,
esanaz: "Obe dezu iltzea,
ez geiago supritzeko".
Gezur aundi au sinistu zuan,
esana engaiñatzeko.
Arbol legor bat sokaz lotuta
bota zan urkatutzeko.

865

Bere gorputza gelditua zan
il da entraiñak lertuta,
bere anima eraman zuen
etsai-taldeak artuta.
Bertan zeukaten kaberna utsa,
an ezin iñor sartuta;
penak, miñak ta su aundiagoz
Judas an da amilduta.

866

Kristauak izan ta gaiztotuak,
Jainkoa nai ez duenak,
Jauna zai dago barkatzeko ta
entzun nai ez diotenak.
Guretzako da kaberna ori
kotsagratuak gaudenak,
apaiz ta moja gaiztok bagera
guretzat miñ aundienak.

867

Judas gorputzez gelditua zan
arbolari pegatuta,
apaizak kendu nai zuen andik
gelditu zedin aztuta.
Egin zituen alegiñakin
iñork etzuen kendu ta
irugarren egunez etsaiak
eraman zuen artuta.

868

Etsaiak Judas zapaldu zuen
zegoala inpernuan,
amorratioz joka ta joka
eziñ esan dan moduan:
"Esan Maixua ez saltzeko ta
zergatikan saldu uan?
Bere Pasio ta iltzeakin
autsiko gaitu munduan".

869

Jesus ta Aman kontra jarriarik
amorr uundiaguan,
Judasen antza duen danari
laguntzen daude onduan.
Despreziatuz Berri Ona ta
sakramentuak munduan,
eleizatarrak, kontsideratu
nola gauden peligruan.

870

Ama Birijiñak Judasen berri
ezagutu zuanean,
negarrez zion: "Jauna, ipiñi
gizonak osasunean.
Ez ditezela itxuturik il
peligro aundienean,
baiñan Jaunaren borondatea
bete dedilla danean".

871

Salbatzaillean pena samiñak
ziran neurri gabekoak,
ez Beragatik, baizik gugatik,
miñez gu erostekoak.
Fede santuak suplitu beitza
guk ezin esandakoak,
eskerrak eman ta maite zagun,
gera seme ordekoak.

872

Jesus loturik eramateko
apaiz Anasen etxera,
kate astunez gerria, lepo
ta eldu eskuk lotzera;
ta ez petxura jarri zizkaten,
baizik gora bizkarrera;
Satanas barruz sakrilejioak
egiten erakustera.

873

Beste bi soka lotu zizkaten
katearen gaiñetikan,
soka luze bat bota zioten
Kristori eztarritikan.
Bere gorputza bildu zioten
petxuan kruzaturikan,
bi mutur luze laga zituen
tiratzeko puntatikan.

874

Bigarren sokak serbitu zien
bere bi besok lotzeko,
gerria ere lotu zioten
“sorgintzan ez igesteko”.
Beste bi punta laga zituen
eskuk espaldan jartzeko,
ta bi soka-mutur aietatik
tiraka arrastatzeko.

875

Onela lotzen laga zioten
Alguztidun Jaungoikoak,
Jetsemaniko baratza artan
len Berak botatakoak.
Eskuak miñez jarri zizkaten
esanaz maldizioak,
aundiak eta benenosuak,
iñork entzun gabekoak.

876

Onela erten ziran buillaka,
batzuk tiraka aurrera,
eta etsaiak erakutsiak
bestek tiraka atzera.
Asko alditan botatzen zuen
Salbaitzallea lurrera,
eskuak nola lotuak zeuzkan
arpegia puskatzera.

877

Ostikoz eman eta zapaldu
arpegia ta burua,
autsez beterik eta pakean
furian etsai arrua.
Nai izan zuen sokatik tira
ta azi suprimetua,
gizon indartsu gaizto antzeko bat
izan zan an agertua.

878

Ama Birjiñak erretirotik
ezagutu zuanean,
agindu zion Luziferreri
zeukan indar aundiñean:
“Etzaitetz eldu ofenditzera
Kristo zure indarrean”;
ta gelditu zan indarrrik gabe
ezer ezin egiñean.

879

Jaunak emana zuan baimena
gizonak tentatutzeko,
judutar danak jarri zituan
eskatzen Jesus iltzeko.
Etsaiak zion: “Zer gizon da au
umildadez gu galtzeko?
Lagundu neri, goi-ministroak,
gizon au pertsegitzeko”.

880

Judutar aiek Jesusen kontra
zeuden arro amorruan:
“Jaunak berezko indar aundia
gure alde gorde zuan”.
Maltratatuta Anasengana
eldu esanaz orduan:
“Gaizkillea da, il bear dana”,
lotua gaizton moduan.

881

Juezak eman baiño lenago
iltzeko bere baimena,
erten zan apaiz sakrilego au,
Anas zan bere izena.
Jarri zan sala aundi batean,
zan arro asko zeudena,
etsai Luzifer bere onduan
erakusten zebillena.

882

Esaten die: “Jauna, ekarri
dizugu gizon gaiztua;
erria dauka sorginkeriz ta
gaiztakeriz bildurtua.
Oraingo ontan ezin da izan
igesteko indartua”.
Salbatzaillea bere aingeruz
zeguan inguratua.

883

Salbatzaillea aua itxita
ixilikan zeguala,
galdetu zion ikasleak ta
bere dotriña zer zala.
Galdera au zan arrapatzeko
kaluniak izan zitzala,
Salbatzaillea bere Aitari
umil eskeiñi zan ala.

884

Erantzun zion umiltasunez
arpegi alaiarekin:
“Nik beti esan det agirian
Eleizan jendearekin,
ta ez det ezer esan ixilik.
Neri galdera orrekin?
Nai badezu, esango dizue
zer esan dedan berekin”.

885

Au entzutean serbitzari bat
juan zan arrabiz betean,
ta eman zion ukabilka bat
gogor bete kopetean.
Erritan eman zion gaiñera
ukabilka ematean:
“Au al da erantzuteko era,
apaiz jaunak galdetzean?”.

886

Salbatzailleak gu erosteko
ofentsa au arturikan,
Jainko Aitari eskatu zion
jo zion arengatikan.
Erantzun: “Gaizki itz egin badet
esaidazu zergatikan;
ta esan badet bear dana, ni
jo nazu eriturikan”.

887

Ordu onetan eldu ziraden
Joan da Pedro onera,
zertan gelditzen ote zan Jesus
beren begiz ikustera.
Joan osoan ezaguna zan,
baiñan Pedrori atzera;
Joanek esan porterari ta
Pedro eldu zan sartzera.

888

Portera jarri begira eta
Pedrori zion esana:
“Akaso ez al zera zu ere
orren ikasle ziñana?”.
Pedro lotsatu ta bildurturik,
au da erantzun zuana:
“Ni ez naiz orren diszipuloa,
ez naiz ikasle nitzana”.

889

Salbatzaillea miñez jarri zan
Pedron itzak entzutean,
orrenbeste min etzuan artu
ukabilka ematean.
Jaunak Aitari eskatu zion,
Pedro ala ikustean,
Birjiñan bidez barkatuzeko
beste bitan ukatzean.

890

Ama Birjiñak eskatu zion
au Pedrori barkatzeko,
odol bizia ixuri zuan
negarrez au irixteko.
Aingeruari eskatu zien
Jauna adoratzeko,
artzen zituan pena ta miñak
al zan eran ordaintzeko.

891

Salbatzaillea eraman zuen
apaiz Kaifasen etxera
lotuta, preso zeukan bezela,
onen itza entzutera.
Eskribak eta erriko jaunak
zeuden berekin batera,
ze amorrua zeuken etsaiak
ezin eldu esatera.

892

Eraman zuen Jesus kalean
joka ta buillan tiraka,
etxe onetan sartzean danak
algaraz eta burlaka.
Otsoak ziran bezela zeuden
maltratatzeko ortzaka,
testitu faltsok jarri zituen
Jaunari gaizki esanka.

893

Jesusek eta Ama Birjiñak
eskutzen zien Aitari:
bien artean miñak artuaz
barkatzeko gizonari.
Testigu faltsok esaten zeuden
etziran gauza ugari,
Jaunak etzien ezer erantzun
egiak etziranari.

894

Kaifas jeiki zan sillatik eta
galdetu zion onela:
“Nola ez dezu ezer esaten,
kontra entzuten zaudela?”.
Jaunak etzion ezer erantzun,
kaluniatzeko zuela,
beren artean etsai Luzifer
buruak nasten zeukela.

895

Apaiz Kaifasek galdetu zion:
“Jainko biziagatikan
esan eiguzu: Zu zera Kristo,
Jainko gizon egiñikan?”.
Erantzun zion: “Bai, alaxe naiz;
ta dizuet oraindikan:
ikusiko nazue etortzen
Jainkoaren eskuitikan”.

896

Erantzun onek zuan indarrak
danak bildurtu zituan,
etsai guztiak gelditu ziran
inpernuaren onduan.
Kaifasek zeuzkan bere erropak
gaiztoz urratu zituan:
“Blasfematu du! Entzun dezue?”
Ernegatuta zeguan.

897

Kaifasek esan: “Ofenditu du
onek itzez Jaungoikoa.
Ez degu testigu bearrikan,
da geurok entzundakoa.
Zer deiozue?”. Danak zioten:
“Kastigua iltzekoa!”.
Jauna izan zan ostikopean
txistuak botatakoa.

898

Blasfemiarik aundiena zan
Kaifas apaizak esana:
Kristo Jainkoan Semea zala
ukatu egin zuana.
“Bat il bear danok ez galtzeko”
bera zan esan zuana;
baiñan pekatuz bizi zala zan
ezagutu etzuana.

899

Munduan etzan iñor izandu
ain itxusi tratatua,
eta Jesusen arpegia zan
argi-brilloz agertua.
Sorginkeria zala ura ta
lotu zioten trapua,
joka galdetzen zien: “Esan zak:
nor dek eritutakua?”.

900

Ama Birjiñak supritu zitun
Jesusen miñ ugariak,
ta batzuetan ia illean
jartzen zuen auldariak.
Eta orduan indartzen zuan
Jaunaren indar berriak,
jarraitutzeko Jesusen lagun
supritzen izugarriak.

901

Jesus zeukaten trapu zikiñez
bere begiak lotuta,
barruan zion: “Zorionekoa
borondatez probretuta”.
Salbatzaillean misterioak
guk ezin entendituta,
Ama Birjiñak bakar-bakarrik
zituan ezagutu ta.

902

Pedrok bildurrez jarraitu zion
apaiz Kaifasen etxera,
ango portera, soldaduenan,
juan zitzaion esatera:
“Gizon au ere Nazareteko
Jesusekin zan batera”.
Pedro eldu zan “Ez naiz” esanda
juramentu egitera.

903

An zebilela ezagun batek
Pedrori zion esana:
“Zu zera berekin an baratzan
nik ikusi ziñutana”.
Ezagutua zalako Pedro
zan bildurrez bete zana,
ukatu zuan maldizioka
Jesus ezagun zuana.

904

Oillar batek bigarren aldiz an kantatu zuan orduan,
Jaunak esana emen bete zan,
Pedro jakiñik zeguan.
Oillarrak bitan baiño lenago irutan ukatu zuan,
etsai arroak Pedro galtzeko burrukak egin zituan.

905

Pedrok oroitu zuan esana,
oillarra entzun zanean;
ta errukia sortu zitzaion
Birjiñak erregutzean.
Jaunak biotza berritu zion
begiratu zionean,
eta grazia iritxi zuan
iru ordu ziranean.

906

Ama Birjiñak biraldu zion
aingeru bat esateko:
Jainkoa zala maitasuna ta
esperantza ez galtzeko.
Etzuan ikusi aingerua,
entzun zion indartzeko;
Ama Birjiñan erregua zan
barkatu ta poztutzeko.

907

Ezin da esan Jaunak zenbat min artu zun gu erosteko,
azken juizioko egunean
dago dana agertzeko.
Kaifasek zeukan lur-zulo txar bat lapur aundiñak sartzeko,
au zan illuna, ain zan zikiña,
usaiz bititza galtzeko.

908

Agindu zien emen sartzeko lotuta zegon bezela,
an sartu ta lotu soka-puntaz ezin zutitu zeikela.
Ateak itxi giltzakin eta an laga zuen onela
zeru ta lurren Egille Jauna,
gu poztu nai giñuela.

909

Kartzelan giltzak eman zizkaten mutil biurri bateri;
Jesus alako posturan zeuken:
ezin jeiki ta eseri.
Etsaiak jarri zion buruan mutil biurri oneri:
“Lagunak artu ta tenta zazu,
zapaldu sorgin orreri”.

910

Bildu ziraden soldadu-pilla ta juan ziran tentatzera,
baita Jesusen aingeru-talde ura juan zan ikustera.
Auspezturikan adoratua zuen guztiek batera,
beren Jaun eta Jainko zalako abestiak kantatzera.

911

Aingeru danak eskatu zien Birjiñaren izenean:
“Laga eiguzu sokak askatzen, zaude miñik aundiñean,
eta koadrilla ori biraltzen;
datoz berriz jo naiean;
etsaiak ispiratuta daude gaiztoz bere esanean”.

912

Jaunak etzuan au ametitu
esanaz aingeruari:
“Nere Aitaren serbitzariak,
laga nere goguari,
Nai ditut artu tormentu eta
desprezioak ugari;
oroituzeko geroko poza
erantzun nere Amari”.

913

Gaizto-taldea bertan sartzea
zan Jaunak ametitua,
burlazko pesta asitzeko zan
txistuak botatakua.
Galdera asko maldizioka
izan zan egindakua,
Amasekin baiño gaizkiago
Kaifasekin tratatua.

924

Kartzelan zeuken arkaitz-punta bat
ezin kenduz geldituta,
oni loturik zeukaten Jauna
miñez eta makurtuta.
Baiñan geiago supritu zezan
artu zuen askatuta,
beren erdian joka zeukaten
Jauna, begiak lotuta.

915

Jaunak keja bat etzualako
etsaia amorratuta,
gaizto aieri jarri zizkien
beren barruan sartuta:
Jesus jartzeko danen erdian
erropa danak kenduta,
itz txarrez eta egite txarrak
egiteko juntatuta.

916

Ama Birjiñak ezagututa
eskatu zion Aitari:
olako gauzik ez egiteko
Jaungoikoan Semeari,
bere naia ta indarrarekin
mututu etsai danari.
Gizonak auldu eta artuta
lotu zien arkaitzari.

917

Eldu zitzaien egunsentia
ta erten ziran andikan,
gizonak eta etsai guztiak
laga zuen bakarrikan.
Sakrilejorik etzuen egin
Ama Birjiñagatikan,
bere aingeru-taldea zeukan
Jesusek arriturikan.

918

Aingeru auek auspez jarrita
zan Jauna adoratua,
Salbatzailleak otoitz luzean
zan Aitari eskatua:
izango ziran kristauen alde
izan zedin sinistua,
negarrez zegon Pedroren alde:
barkatzeko pekatua.

919

Beraren kontra zebiltzan aien
alde erregutu zuan,
Ama Birjiña gorde zezala
bere bizitza osuan,
bere antzera naigabetuak
gorde zitzala munduan;
asmo auetan eskeiñi eta
miñez iltzera zijuan.

920

Ordu berean eskatu zuan
Ama Doloretakoak:
“Gorde Eleizan seme diranak,
baita beren kontrakoak,
asarre gabe ondo artuaz
guri gaitz egindakoak”.
Amak negarrez Seme Jaunari
ziran eskatutakoak.

921

Urrengo egun ostiralean,
apaiz Kaifasen etxean,
juntatu ziran zarrak, apaizak
eta eskribak batean.
Egiña zuen kontzilio bat
Jauna il azi naiean,
agindu zuen ekartzeko ta
jartzeko salan aurrean.

922

Jetxi ziraden Jesusen billa,
zeukaten preso lotuta,
eramatera parrezka burlaz
arkaitzetik askatuta
“Nun dira zure milagro aiek?”
—esan zien arrotuta—.
Ezin igesi izandu dezu
zure arteak galduta?”.

923

Jaunak etzuan aua iriki
aueri erantzuteko,
danen aurrera eraman zuen
an galderak egiteko.
Joka ta txistuz ain zikindua,
eskuk lotuk garbitzeko,
ikusi zuen arrituzeko
baiñan ez errukitzeko.

924

Danen erdian galdetu zien:
“Zera Kristo unjitu?”.
Jaunak bazekin galdera ori
zala malizi gaiztua,
Erantzun zien: “Egia dana
ez dezue sinistua;
galdetzen badet ez naiz izango
zuengandik askatua.

925

Baiñan bai, Gizonaren Semea,
miñak pasa ondorean,
eseriko da Aita Jainkoan
eskubia dan aldean”.
“Zu al zera Jainkoan Semea?”
galdetu ziotenean,
erantzun zien: “Bai, alaxe naiz,
Eskrituran esanean”.

926

Ikusi zuen bere itzean
Jaunak jarraitzen zuala,
danak zioten: “Il bear da au,
geurok testigu gerala”.
Pilatos beren enperadore
kanpoko gauzetan zala
iltzeko eskubidearekin,
berak il azi zezala.

927

Eraman zuen Pilatosena
katez ta sokaz lotuta,
Jerusalengo aldeak zeuden
jende-taldez tapatuta.
Batzuk zioten: “Il dedilla, il!
Ginduzkan enagaiñatuta”.
Bestek zioten: “Milagruakin
jarri gaitu sendatuta”.

928

Ala, sinistu zuenak zeuden
negarrez naigabetuta,
Jerusalen osua zeguan
kontra ta alde nastuta.
Etsai Luzifer zaitzen zeguan
amorrazioz sututa:
"Nundik alako pazientzia?"
jakin nai zun probatuta.

929

Eguzkia ertenda zeguan
au zanean gertatua,
baita erden zan jarraituzeko
Ama Doloretakua.
Jesusen berri esan nairikan
eldu zan Joan santua,
Birjiñak dana bazekiala
etzuan ezagutua.

930

Joan santuak eskatu zion
Birjiñari barkatzeko,
izan zalako aula Jaunari
laga ta igesitzeko.
"Orain daukate itxura gabe,
Ama, zu ez arritzeko;
joka ta txistuz itxusitua,
ez dago ezagutzeko".

931

Ama Birjiñak aditu zion
ezer etzekin bezela,
zeguan miñez eta negarrez
geiago ezin zuela.
Birjiñak zeuzkan andre santak e
ikasi zuen onela.
Amak Joani: "Lagun eiguzu":
juan, ikusi nai zuela.

932

Birjiñak esan zien auri:
"Azkartu zagon pausua,
nere begiak ikusi dezen
Aitaren Seme santua.
Nere maiteak, ikusi nola
ordaintzen dan pekatua,
eriotzatik gu atera ta
irikitzeke zerua".

933

Birjiña jua zan lagun auekin
Jerusalengo kalean,
bere aingeru goardakoak
zituan aldamenean.
Eskatu zien lagun zeuela
Jesus billatzen bidean;
batzuk zioten: "Ama gaixua!"
ezagutu zuenean.

934

"Nola etzenduan edukatu
zure semea lanetan?
Orain egongo zera biotzez
penaz eta samiñetan.
Nola lagatzen ziozun orri
sartzen alako gauzetan?
Orain eskarmentatuko dira
semien amak benetan".

935

Ama Birjiña zuzendu zuen
aingeruk kale batera,
ikusi zuen nola zijuan
kale-buelta artzera.
Amak auspez adoratu zuan
erruki aundiz batera;
ez da iñoz izan, da izango,
adoratzen berdintzera.

936

Jeiki zanean ikusi zuan
Jesus begira Amari,
biotzez eta miñ aundienez
itz egin zion Jaunari:
“Nere Jainkoa, ainbesteraíño
nai diezu gizonari,
Jainkotasuna gordetzeraiño
eman nizun gorputzari”.

937

Ezin ditugu mingaiñez esan
Birjiñak esandakuak,
ezta Jesusek bere Amari
barruz erantzundakuak.
Adoratu ditzagun guk ere
beren itzketa goikuak,
Aitari erregutzen zioten
guri jartzeko lekuak.

938

Jesus zijuan lotuta, joka
ta txistuz itxusitua,
Ama Birjiñan barruan sartu
zan bere erretratua.
Amak negarrez bere bizitzan
izan zuan oroitua,
gelditua zan atzeraxego,
andik zion jarraitua.

939

Eldu zan Jauna Pilatosena
onek kausa juzgatzerá,
judutar asko etorri ziran
gertaera ikustera.
Jesus biraldu zuen barrura,
berak ez jentil-etxera,
Pilatos atera zan kanpora
bere kausa galdetzerá.

940

Judutar aiek erantzun zien
Pilatos oni orduan:
“Gaizkille aundi izan ez bazan,
ekarriko ez genduan”.
“Zer delitu egin ditu onek?”
onek galdetutzen zuan.
“Gure errege izan nairikan
Zesar pagatzen etzuan.

941

Jainko-Semea dala ta jarri
emen dotriña berria,
Galileatik asi zan eta
oneraiño etorria”.
Pilatossek: “Artu zuen kontu;
bete legean jarria.
Nik ez det gizon ontan billatzen
kausa justu galgarria”.

942

Erantzun zien judutar aiek:
“Ez degu eskubiderik.
Ezin degu eman sententzia,
guk ez daukagu iltzerik”.
Birjiña, Joan eta andreak
entzun naigabez beterik;
Amak negarrez odola malkoz,
etzeukan miña besterik.

943

Ama Birjiñak eskatu zion
Aitari fedez betean:
“Nere Semea ikusi nai det
Pasioan il artean.
Ezagutu dezala juezak,
Zuk argia ematean,
nola juzgatzen duen gezurrez
eta inbiriz betean”.

944

Ama Birjiñan otoitzagatik
zan Pilatos argitua,
Jesus nola zan kulpa gabea
zuala ezagutua.

Baiñan judutar aiek arrabiz
iltzeko zan eskatua.
“Zer erantzuten dezu aueri?”
Pilatosek galdetua.

945

Jaunak etzion ezer erantzun
Pilatosen galderari;
Jesus ixilik, pazientzia
erakutsitzen danari.
Bakarrik sartu barrura eta
galdetu zion berari:
“Zu judutarren errege zera?
Esan zure juezari”.

946

Erantzun zion: “Zuk al diozu
edo da bestek esana?”.
Ta Pilatosek: “Judutar al naiz
nik jakiteko au dana?
Zure apaizak entregatuta
etorri zera nigana;
esan eidazu zer egin dezun,
zer dan emen dagoana”.

947

Jaunak orduan: “Nere erreinua
ez da mundu ontakua.
Ala balitz, izango nitzake
nereak defenditua,
eta ez nitzan judutarrari
izango entregatua.
Onela, orain ez daukat emen
nerea dan erreinua”.

948

Sinistu zuan zerbait juezak
ta zan galdetu zuana:
“Orduan Zu erregea zera,
erreinua dezuana”.
Jarraitu zuan: “Bai; errege naiz,
dan bezela zuk esana;
eta egia agertutzeko
munduan jaiio nitzana”.

949

Pilatos, Jaunari entzutean,
gelditu zan arrituta:
eta: “Zer gauza da ba egia?”
Jaunari au galdetuta,
erantzuna entzun gabe juan zan
esatera agertuta:
“Ez diot nik kausarik billatzen
jartzeko kondenatuta.

950

Badakizue zuen oitura
au: preso bat libratzea;
nai dezuen Jesus o Barrabas
nai det zuei entzutea”.
Esan: “Barrabas nai degu eta
Jesus gurutzen jostea”.
Pilatos oso bildurtu zuen,
nai zuala askatzea.

951

Pilatosek ikusirik Jesus
ain pobre ta supritua,
eta kulparik gabea zala
zedukan ezagutua.
Baiñan etzuan erriarekin
izan gaizki gelditua,
agindu zuan izan zedilla
Erodesek juzgatua.

952

Erodes au zan aurrak ildako
Erodes aren semea,
denbora artan Jerusalemen
arturik bizibidea.

Pilatosek len, il zizkalako,
oni zeukan asarrea,
nai izan zuan aixkiretzeko
Jesus oni biraltzea.

953

Erten zan Pilatosen etxetik
Erodesena juateko,
lotuta preso zegon bezela
asko sokaz tiratzeko,
kalerik ezagunenetikan
jende danak ikusteko,
korrika eta itxura gabe
geiago suprituzeko.

954

Ama Birjiña ere erden zan
Pilatosen etxetikan
Seme Jesusi jarraituzera,
andre santak arturikan,
gurutzera arteko pausuak
Amak jarraitu nairikan,
miñetan zerbait alaitu zedin
Ama an ikusirikan.

955

Ama Birjiña jua al izan zan
aingeruak lagunduta,
ikusten zitun Jauna joka ta
marmarrean asmatuta.
Ta "Pilatosék biraltzen dizu"
Erodes enteratuta,
Jesus Joanen lagun zalako
jarri zan oso poztuta.

956

Eldu zan Jesus Erodesena,
au zan Joan ildakua,
gizon-loikeriz bizi zan onek
zan parrez artutakua.
Ta asi zan Jaunari galdezka,
ikusi nai agertua,
Jaunak etzion ezer erantzun
zalako gizon gaiztua.

957

An zeuzkan apaiz eta eskribak
juzgatzen gezurrarekin.
Erodesék ikusi nai zuan
milagrok sortzen aiekin.
Jaunak etzien aua iriki,
etsai ziran Jaunarekin,
parrez ta burlaz ibilli zuen
juezak morroiarekin.

958

Jantzi zioten jantzi zuri bat
erotzat ezagutzeko,
eta ero orren ondotikan
danak iges egiteko.
Baiñan Jesusen jantzi zuria
zan danok ezagutzeko
Jesus au zala kulpa gabea,
supritzen gu salbatzeko.

959

Erodesék estimatu zuan
Pilatosék biraltzea
Jesusen kausa juzgatu zezan,
ta au zan erantzutea:
"Ez diot nik kausarik billatzen,
on da ez estimatzea".
Bi juez auek egun onetan
eldu lagun biurtzea.

960

Erodesez biralduta jun zan
berriz Pilatosengana,
len baiño tratu txarragoakin
bere kontra jende dana.
Jaunak barruan esaten zuan
Dabidek lendik esana:
“Ez naiz gizona, naizena arra,
erriak nai ez nauana”.

961

Etzan bakarrik Jesus gizona
baizik egiaz Jainkoa,
etzan tratatu gizona, baizik
arra zapal dutakoa.
Danak begira kiñuka zien:
“Gu engaiñatutakoa”.
Ama Birjiñak, erten zanean,
zuan ikusitakoa.

962

Amak adoratu zuan Jauna
eroa zala zeukela,
soiñeko zuriz jantzia eta
joka tratatzen zuela.
Amak jarraitu zien bidean
Pilatona zijuaztela,
soka luzekin eskuk lotuta
tiraka zeramatemala.

963

Jesus tiraka zeramatemala
botatzen zuen lurrera,
ezin jeiki ta gogor tiraka
eldu zaiñak lertutzerera,
beren oinpean zapaldu eta
ostikoka ibiltzera.
Birjiñak miñez aingeruari:
“Jun odol au jasotzera”.

964

Aingeru auek jasotzen zuen
odol santua kaletan,
agindu zien: “Esan Jesusi
ez uzteko zapalketan”.
Ametiturik ta lagundurik
etzuen bota bidetan,
Ama Birjiñak esandakoa
egiten zuen benetan.

965

Soldadu auek Jaunaren kontra
zeuden etsaiak artuta,
gizonak duan arrazoia ta
erruki dana kenduta.
Birjiñarekin andre santak ta
Joan zeuden arrituta,
neurri gabeko negar samiñez
auek zien jarraituta.

966

Eldu zan Jesus bigarren aldiz
Pilatosetik juzgatzeko,
judutar aiek eskatu zien
gurutzetuta iltzeko.
Pilatok apaizen morroiari
esan ixil gordetzeko,
Jesus libratu eta Barrabas
ez geiago eskatzeko.

967

Pilatos agintzeko lekuan
zala au zan gertatua:
bere emazte Prokulak zion
onela abixatua:
“Etzaitz sartu gizon orrekin
dalako gizon justua,
bera dala-ta gaur arratsean
izan det alborotua”.

968

Etsaiak Jesus ikusten zuan
miñez kejatzen etzala,
gizona baiño zerbait geiago
beregana bazeguala;
Jainkoa bazan, gaizto guztiak
uxatuko zituala.
Bildurra zeukan onek animak
eramango dituala.

969

Luzifer onek esana zion
Pilatosen andreari
ametsetan, ona zan bezela:
“Esan zure senarrari
gizaseme oi justua dala,
uzteko libre berari;
bestela agintzea kenduta
dezu desgrazi ugari”.

970

Andre Prokula bildurdu zuan
eta, jakin zuanean,
bere gizona judutarrakin
ikusitako lanean.
Olako asko Pilatoseri
onek esan zizkanean,
“Kastigatuta libratuko det”
esan zuan azkenean.

971

Ezagaturik Pilatos onek
judutarrak nai zuena,
asmatu zuan “gogor zigortu”,
bazan faltak zituena.
Arritzen zeuken judutar aiek
erruki bat etzuena,
etsaiak artuak zeudelako
zan “Il zazu!” ziotena.

972

Nola Luzifer etzan atera
nai izan zuanarekin,
arrabiz kontra jartzen zituan
judutarrak Jesusekin.
Pilatos ere okertua zan
bere agintze onekin,
bazekin zala kulpa gabe ta:
“Jo, ba, zigor gogorrekin”.

973

Sei gizaseme izan ziraden
aukeratu zituenak,
indar geiena zuenak eta
errukirik etzuenak.
Ametitua zuen gustora
borrerruak ziradena,
eraman zuen gaizto-lekura
jotzea nai ziotenak.

974

Leku au zuen etxe-estalpe
patio bat tapatua,
oso altua etzana eta
abeakin indartua.
Beste abeak bajuagoak,
bat marmolez gogortua;
abe auxe zan Jesus jotzeko
gaiztoak aukeratua.

975

Kendu zioten jantzi zuria
gogortasunez elduta,
azpian zeuzkan kate ta sokak
lendik baratzan lotuta.
Eskumatur ta besotan zeuzkan
llagak gogor berrituta,
agindu zien maldizioka:
“Jarri erropak kenduta”.

976

Jesusek zeukan tunika on bat
Amak Ejiton jantzia,
beti garbia eta berekin
gorputz-tamañan azia.
Bere kapa zan lotu zuenen
kendu ta bertan utzia.
Asi zan kentzen al zuan eran,
zan elduta erantzia.

977

Azpian zeuzkan gantzontzilloak
Amak txikitan jantzita,
auek ere tunika bezela
zeuzkan berekin azita.
Ezin kendu izan zizkioten
seirak batean asita,
sorgiña zala ta lotu zuen
ez juateko igesita.

978

Asi ziraden Jauna zigortzen
lenengo bi borrreruak,
larruzko zigor loriak eta
gogorrek biurrituak.
Ezin esan dan gogortasunez,
nekatu arte besuak,
ipiñi zuen golpez beztuta,
pilletan odol bilduak.

979

Ondorenean aldatu ziran
beste bi Jauna jotzeko,
korrea larruzko zigorrakin
alegiñak emateko.
Auen golpeak izan zituan
gorputz dana odoltzeko,
baita izan zan bere erropak
eta lurra bustitzeko.

980

Aldatu ziran irugarrenak
soka larru gogorrakin,
Jesus jotzera erruki gabe
amorru aundienakin.
Auen golpeak saltatu ziran
bere aragi-puskakin,
ezurrak zabal agertzeraiño
aragia kenduakin.

981

Edertasuna itxusitzeko
jo zioten arpegian,
bere eskuak ta oiñak ere
jo zizkaten indarrian.
Auekin Jauna ipiñi zuen
oiñaze izugarrian,
odola txorroz juan zan lurrera
ala jo ziotenian.

982

Jauna llagatu zuen odolez
begiak itxutzerañiño,
txistu zikiñak bota zizkaten
Jaunari arpegiraiño.
Zigorkak ziran bost milla eta
eun da amabosterañiño,
olako gizon miñez beterik
ez da izandu eundaiño.

983

Erri osoa kanpotarrakin
begira zeukan kaletan,
Ama Birjiña neurri gabeko
miñez eta samiñetan,
Aitaren eta bere Semea
ikustean oiñazetan,
ezin litezke mingaiñez esan
nola zegoan miñetan.

984

Jaunari eman zizken golpeak
bere Amak sentituta,
gelditua zan gorputz-animan
oso desfiguratuta,
bere aingeru goardakoak
zeuzkala errukituta,
Joan santuak eta Mariak
kostata ezagututa.

985

Beren sententzi zigortzekoa
gogor bete zuenean,
askatu zuen maldizioka
gogortasun aundiñean.
Bere jantzia gorde zioten
Luziferren esanean,
lotsa ta otza pasatu zitza
burlak egiñaz danean.

986

Ama Birjiñak ezaguturik
Luzifer biraldu zuan,
aingeruari agindu zien:
"Jarri tunika onduan".
Aingeru onak Amak esana
bete zuen segituan;
Jauna jantzi zan eta eridak
miñez berritu zituan.

987

Erruki gabe eraman zuen
berri Pilatosengana,
esanaz: "Au da gure errege
izatea nai duana.
Agindu zazu, umildu dedin,
jaztea erregen dana".
Pilatosek e sententzi ori
zan kontsentitu zuana.

988

Eraman zuen juez-lekura
burlaz errege jazteko,
erantzi zuen gogor arrabiz
min geiago supritzeko.
Espaldan zeuzkan ezurak bistan,
etzeuden errukitzeko,
purpura zikin bat jantzi zien
danak burla egiteko.

989

Bere buruan jarri zioten
arantza-pilla bilduta,
seto de juncos deitzen zioten
latzenak aukeratuta.
Punta zorrotzak eta gogorrak
sartu zizken estututa,
askok, kaskua zulatuz, jarri
belarriak zulatuta.

990

Beste arantza batzuek ziran
begitaraiño sartuak,
onela ziran arantza auek
tormentu aundiñekuak.
Eskuan jarri kaiñabera bat
emateko aginduak,
kapa bat jarri aren espaldan,
ziran jantzi burlazkuak.

991

Jauna onela jantzi ondoren
ziran danak juntatuak,
apaizak eta fariseotarrak
judutarrakin batuak.
Erdian artu ta egin zizken
burlarik aundiñekuak,
bere aurrean maldizioka
zituan esandakuak.

992

“Agur, errege judutarrena”
egiñez errebentzia;
bestiak jotzen zuen ukailka
Jainkoaren arpegia.
Bestiak kaiñabera artuta
golpeka buru guztia,
eta bestiak ipintzen zuen
txistu zikiñez bustia.

993

Egite auek ziran arrabiz
etsaiak ispiratuak,
karidade ta pazientzia
zeuzkan neurri gabekuak.
Etzuan bere aua iriki
Jaungoiko egiazkuak,
eta etziran jotzen aspertzen
etsaiak artutakuak.

994

Pilatosek uste izan zuan,
Jauna ala ikustean,
errukituko zirala danak;
jartzen du leio batean.
Esana zien: “Ara gizona,
oiñaze miñez betean;
nik ez diot kausarik billatzen”.
“Josi zazu gurutzean!”.

995

Pilatosek Jauna leiotikan
agertu ziotenean,
Birjiña belauniko jarri zan
an ikusi zuanean.
Adoratuta aitortu zuan
aingeruakin batean,
Joanek eta andreak e bai
adoratu ikustean.

996

Ama Birjiñak Jainkoarekin
barruz itz egiten zuan,
baita Pilatosen alde ere
eskatu zuan orduan
jarraitu zezan garbi esaten
nola kulparik etzuan;
etzuala merezi iltzea
jakin zedilla munduan.

997

Ama Birjiñan otoitz beroa
Pilatosek sentituta,
ta damutu zan jarri zalako
ala berak aginduta
Bere biotza jentilla baiñan
jarri zan errukituta,
libratu naia sortu zitzaion
Erregiñak argituta.

998

Judutar aiek: “Gurutzean ill!”
eskaten ziotenean,
erantzun zien: “Egin eurok oi”,
bizirik laga naiean.
“Onek iltzea merezia du
daukagun eran legean:
Jainkoan Seme dala dio ta
il bear da gurutzean”.

999

Au entzutean juez Pilatos
gelditu zan bildurtuta,
galdetu zion: “Nungoa zera?”
onek barrura sartuta.
Jaunak etzion ezer erantzun
etzuan merezitu ta.
“Ez dirazu nei ezer esaten?
Agintzen det indartuta”.

1000

Erantzun zion: “Zuk etzenduan indar au zeurea zana, baizik nerekin agindutzeko dezu goitikan emana. Pekatu aundiago izan da entregatzea zugana”.
“Au det goikon bat” eta iltzea zan berak nai etzuana.

1001

Pilatosek etzuala il nai apaizak ezagututa, erantzun zien: “Galduko zera au il gabe libratuta. Zesarren kontra lege berrikin errege jarri nai du ta, ez dezu Zesar lagun izango au bizirik lagatuta”.

1002

Asko bildurtu zuen Pilatos, eseri zan juzgatzeko, esana zien: “Zuen errege ara emen ikusteko”.
Erantzun zien “Kendu ortikan, gurutzeratu iltzeko”.
“Zuen errege il bear al det?”.
“Zesar degu agintzeko”.

1003

Pilatos laga zan bentzitutzen beren alde biurtzeko, eta bizitzaren Egillea agindu zuan iltzeko.
Judutarrak pozez eta buillan erten ziran zabaltzeko, Ama Birjiñan biotzarentzat zan kutxillua sartzeko.

1004

Eraman zuen beste lekura ipintzeko aldatuta, arpegiz ezin ezagutu zan, dana desfiguratuta.
Joka ta odol, arantzaz, txistuz zikindu eta auldu; tunika jantzi zien juan zedin jendeak ezagututa.

1005

Bere tunika tirata zeuken burlaz jantzi zuenean, aingeru santuk ekarri zuen Birjiñaren esanean.
Jende guztia inguratu zan “Il bear da” jakitean; agertu zan leproso bezela Isaiasen idaztean.

1006

Jesus iltzera eramateko gaiztoak pozez zeudela, Berak milagro z sendatu aiek negar egiten zuela.
Au ikustean Joan santua gelditu ilda bezela, iru Mariak gelditu ziran desmaiuak zituela.

1007

Ama Birjiña ezin esan dan miñak arturik zeguan, baiñan Jaunari jarraitutzeko Aitak indartutzen zuan.
Joanen eta Marian alde eskatu zuan orduan, eta Birjiñan otoitzakgatik Aitak indartu zituan.

1008

Ama Birjiñak Jesusen miñak
eskeintzen zizkan Aitari,
konbidatuaz lagundu zeien
aingeru zaindariari.
Erregutuaz lagundutzeko
lagunai ta gaiztoari,
negarrez urtzen jarraitzen zion
Amak Jainko-Semeari.

1009

Ara nola zan Jesus iltzeko
sententziatu zuana:
"Ni Pontzio Pilato naizenak,
presidente nagoana,
Galilea ta Jerusalemen
agintea daukatana,
ematen det sententzi iltzeko
Jesus Nazaretar dana.

1010

Gizon au da legean kontrako
ta Zesarren kontrakoa,
erabaki det izan dedilla
gurutzean ildakoa,
gaiztoak iltzen diran bezela
iltzekin jositakoa.
Nai zuan izan Jainko-Semea,
errege Israelkoa.

1011

Amenazatu zitalako
Jerusalen Elizakin,
etzuan uzten Zesar pagatzen
ta atrebimentuakin;
sartu zalako Jerusalemen
triumfon erramuakin,
agintzen diot Kornelio orri
eramateko lotsakin.

1012

Dagon bezela zigorrez joa
nik agindu nuanean,
ezagutzeko bere jantzia
jantzi dezala soiñean;
Bera iltzeko dan gurutzea
artu dezala gaiñean,
juan dedilla kale agiritan
ta bi lapurren erdian.

1013

Nai det gaizkille au erritikan
kanpora ateratzea,
eta sententzian diotana
dana an irakurtzea.
Nai det mendira, Kalbariora,
erritik eramatea,
bere gorputza iltzez josita
gurutzean ipintzea.

1014

Bere gurutzean goiengan
jarri iru izkuntzetan,
ebreoz eta griegoz eta
baita latiñezkoetan:
'Auxe da Jesus Nazaretarra'
jarri izkuntza danetan,
"Au da errege judutarrena",
ta alaxe zan benetan.

1015

Agintzen det ondasunak eta
bizitza ez galdutzeko,
ez dedilla iñor atrebitu
agindu au aldatzeko.
Au da urtea mundua sortu
zanetikan kontatzeko:
bost milla eta berreun urte ta
ogei ta amairu jartzeko.

1016

Martxuan ogeitabostgarrena
eguna degu gaurkuan,
Pontzio Pilato juez danak
agintzen duan lekuan”.
Erromatarra zan da latiñez
eskuz eskribitu zuan,
egun au zala kriatua zan
lenengo Adan munduan.

1017

Sententzia au oiu aundian
irakurri zuenean,
gurutze astuna jarri zien
espaldan zauri gaiñean.
Gurutzea artzeko eskuak
askatu zizkatenean,
sokaz bi buelta lepuan eman
zizken gogortasunean.

1018

Gorputza zeukan sokaz lotuta
nai zan eran tiratzeko,
gurutzearen luzerua zan
amabost oiñ, kontatzeko;
oso loria, egurrezkua,
astuna eramateko.
Asi ziraden buillaz nastuta
Kalbariora juateko.

1019

Jesusek gurutzea artzeko
biotzez zuan esana:
“Atoz, maitea, aspalditikan
deseatu zaitudana.
Zure besotan artuko nazu
jasotzeko Aitagana,
zuregan ilda, zu zera giltza
salbatzeko nai duana

1020

Adanen seme kulpa duenak
izan dezen errukia,
beren pobreza aberasteko
izan dezatela gaia.
Nere lagunak besarkatzeko
zu izango zaitut gia,
Aita, artzen det egur-karga au,
egin nai det zure naia.

1021

Aita nerea, artu nazazu
justizia aldatzeko,
ez ditezen izan serbitzari,
baizikan seme-ordeko”.
Ama Birjiñak argia zeukan
otoitz au ezagutzeko,
aingeru danak lagundu zien
Jauna adoratzeko.

1022

Birjiñak otoitz egiña zuan
Salbatzaillean antzean,
gurutzeari ere esanaz
Jaunak espaldan artzean.
Nola iltzeko sententzia zan
kalez kale zabaltzean,
aingeruakin abesten zuan
jendeak blasfematzean.

1023

Jesusek gurutzea espaldan
artua zuan unean,
etsai guztiak gelditu ziran
ezer ezin egiñean.
Amak agindu: “Jarraitu emen
–igesin nai zuenean–;
lkusi pekatua ordaintzen
Jauna iltzen gurutzean”.

1024

Judutar aiek etzuen libre
gurutzea ikutzea,
soketatikan tiratzen zien
aurrera eta atzea.
Bere gorputza auldua zeukan
ta astuna gurutzea,
ametitua zuan eskeintza
ta Simonek laguntzea.

1025

Ama Birjiñak eskatu zion
Aitari maitasunean,
zutikan jarraitzeko indarra
gurutzearen oiñean
Jesus ikusi nai zualako,
ta aingeruak bidean
eraman eta ikusi Jesus,
itz bat ezin egiñean.

1026

Ama Birjiña ez jan da ez lo
miñez indarrak galduta,
itza ezin esan izan zuen
alkarri begiratuta.
Ama-Semeak ikuste arek
beren miñak berrituta,
Jauna adoratu zuan Amak
ondona ezagututa.

1027

Birjiñak egin zuan otoitza
da ezin esan dedana,
Jesusen orde z gu salbatzeko
zan iltzea nai zuana;
Jesus zalako gaizkilleakin
errukitzen zeguana,
Ama Birjiña gure biotzak
zuzendu nai zituana.

1028

Lukas santuak dion bezela,
jende-taldean artean,
emakume asko ziran juan
negar samiñez betean.
Jesus maiteak esana zien
negarrez an ikustean:
“Jerusalengo alabak, neri
ez negar egin batean.

1029

Negar egin zeurongatikan da
zuen semeakgatikan,
elduko diralako egunak
jarriak aspalditikan.
Esango due: Zorionekoak
ez duenak semerikan”.
Jesussek miñak artu zitun gu
kentzeko pekatutikan.

1030

Jaunak argia emana zien
ezagutzeko esana,
errukitasuna zuelako
zuen ordaiña emana.
Jesusen Ama oso urrean
zan jarraitzen zijuana,
Aitagandikan zuan grazia
Amak iritxi zuana.

1031

Eldu ziraden Kalbariora,
zan Urkamendi deitua,
lapur aundiñak eta gaiztonak
iltzeko aukeratua.
Jauna zeguan itxura gabe
miñez lllagatan lertua,
berekin zeukan Jainkotasunak
bizitzeko indartua.

1032

Baita eldu zan bere urrera
Ama Doloretakua,
Aitagandikan zuan grazi au
Amak iritxitakua
Joan eta iru Mariakin
Birjiña an juntatua,
ikustearren Jainko-Semea
nola zan gurutzetua.

1033

Ezagaturik nola zijuazten
erantzitzera iltzeko,
Ama Birjiña biurtua zan
Aitari erregutzeko:
“Betiko Aita, eskeintzen dizut
iltze au ontzat artzeko,
Jainko dalako eta gizona
gizon danak salbatzeko”.

1034

Erregiñaren eskeintza au zan
Aitak pozikan artua,
Jesusek zeuzkan oiñazietan
Ama zeguan batua.
Baita Aitaren borondatea
nola zan ezagutua,
Jaun Espiritu Santuak zeukan
graziakin indartua.

1035

Ondorenean ezagutzen du
Birjiñak goi-argiakin
nola Jaunari eman nai zien
beazuna arduakin.
Judutar aiek oitura zuen
lagundu ardo onakin;
Jesusi eman zien arrabiz
nastua beazunakin.

1036

Gurutzearen iltze-zukuak
nola egin neurtutzeko,
agindu zien, arro, gurutze
aren gaiñean jartzeko.
Maixu umilla laister jarri zan
aueri obeditzeko,
ta luzeago zulatu zuen
geiago supritutzeko.

1037

Borrero aien gogortasuna
Amak ezagutu zuan,
ta Pasioko miñ aundien bat
supritu zuan orduan.
Gurutze ura zulatu arte
Jesus zutikan zeguan,
Amak elduta adoratuta
mun eman zion eskuan.

1038

Gizon gaiztoak bigarren aldiz
“Jarri bertan” aginduta,
jarri zan gurutzean gaiñean
Jauna besok zabaldua.
Amari utzi zien gaiztoak
ikusten urreratuta
penatzearren, ta bere Amnak
jarri zerbait alaituta.

1039

Jaunak eskua luzatu zuan
iltzearekin josteko,
batek eldu ta besteak josi,
zan esku dana lertzeko.
Borrero aiek biotz txiki bat
etzeuken errukitzeko,
etzuan galdu pazientzia
Jesusek gu salbatzeko.

1040

Beste besua etzan irixten
iltze-zulo markatura,
bere nerbiok enkojituta
ta urruti zulo ura.
Kate bereakin lotu zien
tiraka gogor lekura,
beste eskua jostean etzan
au gizonaren itxura.

1041

Bere bi oiñak artu zituen
kate onekin lotuta,
bata bestean gaiñean zala
oso gogor tiratuta.
Biak batean josi zizkien
iltze aundi bat artuta,
bere ezurrak agertu ziran
zeuzken lekuak lertuta.

1042

Gure itzetan ez da kabitzen
zenbat zan suprimetua,
baita Birjiñan biotz garbia
izan zan miñez artua.
Iltze-muturrak okertutzeko
lurrera bueltatua,
Amak aingeruak biralduta
etzan lurra ikutua.

1043

Gurutzea zutikan jartzeko
gaizto asko juntatuta,
jasoa zuen lantza zorrotzak
beso azpian sartuta.
Judutarrak zeuden blasfematzen,
zintzoak errukituta,
ta kanpotarrak ikusten zeuden
gertatua arrituta.

1044

Ango juizio ta esateak
Ama zeuken samindua,
eta Jaunaren gorputz santua
zan llagatan berritua.
Isaiasek esan bezela,
iturria biurtua;
nai duen danak edateko da
barkatzeko pekatua.

1045

Beste bi lapur jarri zituen
gurutzetuta iltzeko;
Jesus, gaiztona bazan bezela,
erdian ezagutzeko.
Apaizak eta fariseotarrak
Jauna burlaz betetzeko,
arriak eta autsa tiraka
jardun ziran supritzeko.

1046

Esaten zien: "Ara Eleiza
apurtu ta osatua.
Bestiak salbatu ditu baiñan
ezin du bere burua".
Besteak zien: "Au baldin bada
Jainkoan Seme santua,
jetxi dedilla gurutzetikan,
izango da sinistua".

1047

Lapurrak iltzen zeudenak ere
zioten lenbizitikan:
"Jainko bazera, salbatu Zeu ta
salbatu gu emendikan".
Birjiñak otoitz egiña zuan
Jauna adoraturikan,
ta biotz asko gelditu ziran
bere alde jarririkan.

1048

Ama Birjiñak eskatu zion
laguntza Jainko Aitari,
ta biurtu zan agindutzero
eguzki ta izarriari.
Gelditu zuen argitze ori
illunduaz gizonari,
agertu zuen sentimentua
iltzen dagoan Jaunari.

1049

“Arkaitzak eta arri gogorrek,
agertu sentimentua,
zuek geldikan egote ori
izan bedi puskatua.
Ildako asko enterratuak
agertu ezkutatua,
belo mistiko Elizakoa
izan bedi partitua”.

1050

Ama Birjiñak agindu dana
laister bete zan benetan,
eguzkia illundu egin zan
eguardin amabietan.
Eta etzuan argirik eman
il zan arte iruretan,
mobimentuak izandu ziran
illargi ta izarretan.

1051

Izandu ziran lur-ikarak ta
puskatu ziran mendiak,
arriak ere puskatu ziran
batzuek joaz bestiak.
Iriki ziran sepulturak ta
atera ziran biziak,
zeru ta lurak sentitu zuen,
ta judutar biurriak.

1052

Salbatzaillea gurutzen josten
jardun ziran soldaduak,
bere erropak lauren artean
izan ziran partituak.
Kapa partitu eta tunika
egiña Aman eskuak,
suertean bota zuen eta
artu tokatutakuak.

1053

Salbatzailleak esana zuan,
gurutzean zeukatela:
“Aita, barkatu; au egin due
nor naizen ez dakitela”.
Ama Birjiña animan alde
erregutzen zegoela,
damuturikan lapur Dimasek
itz egin zuan onela:

1054

“Ez daukak ik e Jainko-bildurra
blasfematzen jarraitzeko?
Ik eta nik merezia digu
gurutzetzea iltzeko.
Baiñan onek ez dik ezer egin
onela kastigatzeko.
Eskatzen dizut zure erreinuan
nerekin akordatzeko”.

1055

Asi ziraden graziarekin
biotzak ontzen orduan,
erantzun zion: “Egitan dizut:
gaur zu nerekin zeruan”.
Ondorenean Jaunak ikusi
Ama gurutze onduan:
“Emakumea, au dezu seme;
ta zuk au ama munduan”.

1056

Ama Birjiñak ontzat arturik
Seme Jainkoan esana,
ordu artatik Joan santua
zan bere seme zeukana.
Berriz zan Joan Jaun Espirituz
oso argitua zana,
argi onekin ezagututa
umil serbitu zuana.

1057

Au da Jaunaren laugarren itza
esana gurutzetikan:
“Nere Jainkoa, zergatik emen
utzi nazu bakarrikan?”.
Itz egin zuan ebreetarrez
“Eli, Eli” asirikan.
Burlaz zioten: “Elias deika,
kentzen digun eskutikan”.

1058

Jesusek bere azken ordua
irixten ari zalako,
neurri gabeko miñak gugatik
supritu zitualako,
gure animak zeruratzeko
maitasuna zigulako,
nere pena zan kastigatzera
obligatuko zielako.

1059

Bostgarren itza: “Egarriz nago”
Jaunak esan zuanean,
esana zigun: “Adanen semek,
jarri bide zuzenean”.
Fedeakin da maitasunakin
bizi bere esanean,
zerua iriki digulako
eskerrak maitasunean.

1060

Ama Birjiñak bakar-bakarrik
itz au ezagutu zuan,
ta binagrea beazunakin
emana zien orduan.
Esponja busti ta kaiñaberaz
jarri zioten auan,
probatu zuan, ta Amagatik
geiago edan etzuan.

1061

Au da Jesusek gurutzetikan
seigarren itza esana:
“Bete det dana. Aita nerean
borondatea zan lana.
Pekatu-zorra justiziari
ordaindua dago dana,
gizonen billa miñez iltzera
naiz Ni etorri nitzana.

1062

Betea dago Eskrituretan
profetak esan zuena,
Eleiza jartzen diet munduan
mudatu ezin leikena,
dotriña eta sakramentuak,
pekatuen barkamena,
Adanen ondorengo danentzat
zerura bide zuzena”.

1063

Aitagandikan atera eta
zan mundura biurtua,
il da piztuta artu bearra
Aitagana zeukan lekua.
Jaunak begiak gora jaso ta
entzun zan oiua altua:
“Aita, zure eskuetan jartzen
det nere espiritua”.

1064

Ondorenean espiritua
emana zion Aitari,
zerbait jiratzen eta makurtzen
laga zion buruari.
Itzen indarrak uxatu zien
andik diabru danari,
Luzifer ta danak jartzeraifio
pegatuak kabernari.

1065

Ama Birjiñak misterioak
geiena entendituta,
baita Jesusen eriotzako
miñ gogorak sentituta.
Ama etzan il Jaunak milagro
bizitzea berrituta,
martiri danak baiño geiago
bakarrikan suprituta.

1066

Au da Jaunaren Testamentua
egiña gurutzetikan,
zazpi itz esan baiño lenago
jakin Amak bakarrikan:
"Aita nerea, goratzen zaitut
gurutze arbolatikan,
nere gorputza Jainkotasunez
jarri zendun baturikan.

1067

Une onetan eman zidazun
gauza danen agintea,
zeru ta lurren dauden gauzakin
deritzana egitea.
Jarri zidazun aingeruaren
Errege Jaun izatea,
eta gizonai, onai saria
ta gaiztok kondenatzea.

1068

Eman dizkidazu zeru-lurren
giltzak nerekin artzeko,
egin niñuzun Redentorea
gizon danak salbatzeko.
Eriotza ta bizitza ere
nere mendean artzeko,
Aita nerea, orrengatikan
naukazu alabatzeko.

1069

Orain nai det, ba, Betiko Aita,
gure bion izenean,
gauza guztiak izendatzea
nere Amaren mendean.
Kriatura dan bezela jarri
grazirikan aundiñean,
nerea dana berea izan
bedi bizitza danean.

1070

Bere denboran eman nai diot
aintza beretzako dana,
aingeru eta gizonak ere
serbitzeko dituana.
Etsaiak bildur izan deiela
egiñaz bere esana,
zeru ta lurak bete dezela
berak agintzen duana.

1071

Berak Eleizan ordenatua
nere seme gizonakin,
au izango da konfirmatua
zeruan gure naiakin.
Borondate santua egiña
duen aingeru danakin,
nai det ordaindu zeru goienen
jarririk leku banakin.

1072

Agintzen diet beren Erregin
Ama ezagutuzeko,
bera serbituz mende izanaz
bere naia betetzeko.
Gure gogua egin etzuen
etsai aiek botatzeko,
agintzen diet gure bistara
ez geiago agertzeko.

1073

Deklaratzen det izan dedilla
au etsaien tormentua,
auxe zalako arrotasunez
berentzat aukeratua.
Gogo oneko gizon guztia
daukat Nigana deitua,
neri jarraitzen baldin badie
beteaz lege santua.

1074

Nere Amaren urrena auek
ditut aberastekoak,
artu ditzaten Eskrituretan
lendik agindutakoak,
bendizioak sakramentuan
gorderik emandakoak.
Erentzia au izan dezela
Neri jarraitutakoak.

1075

Baita're nai det Eleiza Santan
sakramentuak artzea,
bear dan eran preparatuak
grazian ugaritzea;
galtzen badue, biurtu nere
odolakin garbitzea.
Nere Ama ta aingeru santuk
nai det auei laguntzea.

1076

Nere justu ta aukeratuak
nai det izatez goratu,
etsaiak eta kondenatuak
ditzatela menderatu.
Arrazoi duen ta ez duenak
beren laguntza prestatu,
zeru-planetak ta gauza danak
gizon-bizitza luzatu.

1077

Nai det gaiñera berekin poztu
kontu ixillak esanaz,
berekin bizi Eleiza Santan
sakramentuak emanaz.
Ogi ta ardo kontsagratuan
Nerekin bizi izanaz,
agintzen diet betiko poza
Neregana eramanaz.

1078

Nere gogua nai etzuenai
auxe det utzitakoa,
permititzen det izan dezela
lur-ondarra jatekoa.
Gorrotatu zuen nere itza
Eleizan esandakoa,
baita burlaka galdu grazia
berai Nik emandakoa.

1079

Entzun zioten nere etsai ta
beren etsai ziranari,
maitatu zuen arrokeria,
zapaldu beartsuari.
Nai izan zuen gora igo ta
menderatzea danari,
kendutzen diet berentzako zan
grazizko poza ugari.

1080

Ez ditut artuko gure lagun
Ama ta aingeruakin,
kondenatzen ditut inpernura
bizitzera etsaiakin.
Betiko surtan biziko dira
aukeratu zuenakin.
Aita, egin det Testamentua
aingeru ta gizonakin”.

1081

Salbatzailleak onera arte
auxe izan zan esana,
ta gelditu zan Ama Birjiñan
biotzan barruan dana.
Bere denboran agertu eta
Eleizan esango zana,
pasatua ta etortzekoa
Birjiña zan zekiana.

1082

Jaunak permititu zienean
etsaiari jeikitzea,
nai izan zuan Jaunaren kontra
beste etsaiak jartzea.
Esana zien: “Itz egiteko
nai det danok juntatzea.
Gizon-Jainkoa nola eldu da
ni ixil engaiñatzea?

1083

Gizontasuna artu baiño len
nik ez nion nai serbitu,
orreatikan bota niñuan
eta itxusi gelditu.
Baiñan tormentu aundiago det
auek nauela bentzitu,
auen billa beti ibili naiz,
ezin nituan arkitu.

1084

Asmo auetxek ziran nereak,
izan dira alperrikan;
umildade ta pobrezarekin
jarri nau zapaldirikan.
Aitak ekarriko balituke
onera danak goitikan,
alaxe're ni ezin lasaitu
daukatan arrabitikan.

1085

O, zenbateko indarra dauka
gizon onek ni austeko!
Ta nere etsai dan Ama orrek
zer indar du ni jotzeko!
Betiko gerra egingo diet
Bera ta Ama galtzeko,
atozte, nere etsai lagunak,
nola galdu asmatzeko”.

1086

Luzifer oni lagun etsaiak
erantzun zien onela:
“Egia da au: Kristo ta Ama
ezin autsi ditezkeela,
eta gizonai zeruratzeko
bidea jarri diela.
Baiñan dakigu guk autsitzeko
pasioak dituela.

1087

Autsiko dira aragiaren
grifia txarrak berrituta,
guganatuko dira animak
oso gogor tentatuta.
Sekta berriak asmatu-
jarri Kristokin aztuta”.
Gizon gaiztonan billa jun ziran,
Luzifer asko poztuta.

1088

Salbatzaillea gurutzetuta
illa zeguan orduan,
Ama Birjiña gurutzearen
kontra zutikan zeguan.
“Nola jetxi ta nork obiratu?
beregana pentsatzen zuan,
aingeruari eskatu zien
zer zan Jaunaren goguan.

1089

Aingeru santuk erantzun zien:
“Andre Erregin gurea,
Jainkoak nai du kunplitutzea
gizonak dauken legea.
Iltzen diranak permiso gabe
ez dago libre jeixtea,
ta maitasunez daukan odola
nai du dana ixurtzea”.

1090

Au entzutean miñez jarri zan
Ama Doloretakua,
etzekilako izango zala
lantzarekin zulatua.
Ikusi zuan nola zetorren
jende armatutakua,
Amak Joani ta Mariari
zan miñez esandakua:

1091

“Nere biotza partitzen daukat
nere petxuan barruan,
akaso ez dira lasaituzten
Seme Jauna il onduan”.
Jai-bezpera zan ta Pilatosi
eskatu zien orduan:
ankak lertuta il azitzeko
ta jeixteko segituan.

1092

Eldu ziraden Kalbariora
jende armatutakuak,
auek ziraden Ama Birjiñak
miñez ikusitakuak:
nola bi lapur bizirik zeuden,
jarririk ankak lertuak,
Jesusi lantza sartua zion
Lonjinos izenekuak.

1093

Odola eta ura ixuri
zuan bere zauritikan.
Joan santuak, dion bezela,
zekian ikusirikan.
Gorputz santua illa zalako
etzuan artu miñikan,
Birjiñak asko sentitu zuan
oni auxe esanikan.

1094

Seme illari lantza sartzea
Amak, oso sentitua,
esana zion Lonjinos oni
au zan armadun gaiztua—:
“Jauna zurekin izan dedilla
begira errukitua,
jarri didazulako anima
neurri gabe penatua”.

1095

Gertatua zan, Lonjinos onek
lantza sartu zionean,
odol santuak saltatu zion
arpegira zuzenean.
Erdi itxua zegoan eta
jarri zan bista onean,
negarrez nor zan ezagututa
zabaldu zuan danean.

1096

Ama Birjiñak misterio au
izan zan ezagutua:
izango zala lantza-zulotik
Eleiz berria sortua.
Beste bost lllagan bost iturriaz
Eleiza au indartua,
otoitz egiñaz gu salbatzeko
zuan Jauna abestua.

1097

Arratsaldea aurreratuta
Ama jarri zan penetan,
bi gizoneri Jaunak gogua
jarri zien biotzetan
Jesus jetxi ta obiratzeko;
maite zioten benetan,
Arimateako Jose eta
Nikodemus izenetan.

1098

Ama Birjiñak eskatu zion
otoitz egiñaz Aitari:
Seme Jainkoa obiratzeko
lagun deiela Amari.
Ikusi zuan gizon-kuadrilla
urreratutzen berari;
bildurturikan galdetu zion:
“Nor dira?” Joan onari.

1099

Erantzun zion Joan santuak:
“Etzaitezela bildurtu;
Jose ta Nikodemus dira ta
morroia ditue artu.
Zure Seme ta nere Jaunari
nai diote obiratu”.
Josek eskatu Pilatoseri
ta baimena eskuratu.

1100

Josek deiturik Nikodemusi
juana zuan laguntzeko,
Josek zituan maindirea ta
sudarioa biltzeko.
Nikodemusek erosi zitun
eun libra untatzeko,
beren nobleak bezela Jesus
usai gozotan jartzeko.

1101

Salbatzailleak gu erosteko
eman zuan odol dana,
Bera izan zan gizon-taldea
errukiz jarri zuana.
Eldu ziraden saldatzera
Ama Birjiñarengana,
au zan gurutzearen oiñean
miñ gogorrez zeguana.

1102

Jose ta Nikodemus jarririk
auspez Birjiñan oiñetan,
itzikan ezin esan zuela
danak negarrez benetan,
Birjiñak jeiki zitun lurretik
eta indartu neketan.
Saludatuaz zerbait alaitu
zien Amari penetan.

1103

Ama Birjiñak esana zien
gizon aueri orduan:
“Osekio au egitearren
zuen Jaunari munduan,
nik eskeintzen dizuet saria”.
Ta Josek erantzun zuan:
“Alako poza degu barruan,
guk merezi ez genduan”.

1104

Eskailerakin igo ziraden
Jesusi iltzek kentzeko,
Josek Joani eskatu zion
Ama erretiratzezeko,
gorputz il ura ikututzean
samiñak ez berritzeko.
Erantzun zion: “Asieratik
al izan du jarraitzeko”.

1105

Berriro esan zion Amari:
“Zuaz guk jetxi artean”.
Erantzun zien: “Nere maiteak,
ementxe nitzan jostean.
Ontzat artu au: nik ikustea”.
Konformatu entzutean.
Koroia kendu ta agertu zan
burua zuloz betean.

1106

Koroia jetxi ta jarri zuen
Birjiñaren eskuetan,
adoratu zuan belauniko
berriturikan miñetan.
Joanek eta Mariak ere
adoratuaz benetan,
danen artean jetxi ta jarri
zan Amaren besoetan.

1107

Salbatzaillean gorputz il ura
Amak besotan artuta,
ikusi zuan ederrena zan
Jauna ain itxusituta.
Bere biotzak izan zituan
poz eta miñak batuta,
malko odolezkuak ixuri
zituan adoratuta.

1108

Bere ondoren aingeru danak
Jauna zan adoratua,
baiñan aingeru auek egiña
zan ezkutun gelditua.
Jauna adoratu zuen danak
asirik Joan santua,
Birjiñak lurrean eserita
zeukan besotan artua.

1109

Arratsaldea zijuanean
bere martxan illuntzeko,
Joanek eta Josek eskatu
baimena enterratzeko.
Untatu zuen usai gozoz ta
maindirea zan biltzeko,
Amak eskatu aingeruari
zerutikan etortzeko.

1110

Birjiñak eman zien baimena
Semea enterratzeko,
anda batean ipiñi zuen
eskutan eramateko.
Zerutik jetxi ziran taldeak
Amarekin jarraitzeko,
Joan ta Jose, Nikodemus ta
Mariari laguntzeko.

1111

Eraman zuen prozesioan
gizonak aingeruakin
gorputz santua obiratzeraz,
ixilikan malkuakin.
Urrean zeuken baratza bat zan
obi-leku berriakin,
Josek beretzat preparatua
arkaitzean egiñakin.

1112

Emen ipiñi zuen orduan
Jesusen gorputz santua,
eta tapatu baiño lenago
zan Amak adoratua.
Aingeru eta gizonentzat zan
gauza ain arritzekua,
eta Amaren adoratze au
zan danak imitatua.

1113

Kristo jarri zan obi-lekua
losaz itxi zuenean,
illen obiak itxi ziraden
au itxi zuen unean.
Iriki ziran, illak ertenik,
Jesus Jauna il zanean,
illak eskeiñi zien lekua
jartzeko nai zuanean.

1114

Aingeru asko gelditu ziran
Erregiñak aginduta,
gorputz santua ondo zaitzeko,
maitasunez eskatuta.
Biurtu ziran ixilik ondo
ta gurutzer a elduta,
Birjiñak au adoratu zuan,
beste danak jarraituta.

1115

Illundu zan da Birjiña jun zan
Zenakulora etxera,
entiarruan ziran guztiak
lagundu zien onera,
Joan santua eta Mariak
berekin an gelditzera,
ta beste danak pozez beterik
eldu zan despeditzera.

1116

Judutarrak bildurrez jun ziran
Pilatosi eskatzera:
“Biraldu zazu jende-taldea
leku ori gordetzera”.
Eun militar baimenarekin
etorri ziran zaitzera,
seillatu zuen, iñor etzedin
etorri arrapatzera.

1117

Ama Birjiña etxeratuta
zeguala bereakin,
Joan santua ta andre santak
penetako lagunakin,
eskerrak eman zizken danari
umil eta malkuakin:
Mariak eta Galileatik
lagun ziranak Amakin.

1118

Agindu zien penan ordaiña
Jaun Jesusen izenean,
eskeintzen zala berentzat lagun
ta serbitzeko mendean.
Ezagutu zuen fabore au
bedeinkatu zienean,
jateko eta deskantsatzeko
esan zien azkenean.

1119

Erantzun zien: “Jauna det jana
pizturikan ikustea.
Nere maiteak, komeni dana
nai nuke zuek jatea.
Nai dedana da Semearekin
bakarrikan egotea”.
Nai izan zuan Joan santuai
belauniko esatea.

1120

“Etzaitez aztu nere Semeak gurutzetikan esana: Zu nere seme, ni zure Ama izendatu giñuana. Baiñan zu zera bere apaiza eskubideak emana, nai det oraindik zuk agintzea nik egin bear dedana”.

1121

Ama Birjiñak malko askokin zan Joani eskatua. Erantzun zion: “Nere samiñez emen ni naiz mendekua. Semeak ez du eskubiderik, ama da agintzekua, ni apaiz egin niñuana zan zuri serbitutakua”.

1122

Erantzute au ontzat arturik etzan asko lasaitzeko: “Nere seme Joan, eskatzen dizut poz au neri emateko. Zu zera buru, ta nik zer egin zu izan erakusteko”. “Ama nerea, egin bedi, ba, zuk naia nik asmatzeko”.

1123

Eskatu zion bere baimena Amak erretiratzeko, baita andreami bear zuena kanpotikan ekartzeko. Piztu artean barau egin nai zuenari lagatzeko. Joan izan zan Amaren itzak esanaz danak pozteko.

1124

Birjiñak pasa zuan gau ura otoitz egiten Aitari, negarrez eta alabatuaz aingeruakin Jaunari. Larunbatean San Joan jun zan alaitutzera Amari, Amak eskatu bedeinkatzeko, Joaneke bai berari.

1125

Alkar bedeinkatu ondorean Amak zion eskatuta: “Atera zaitte, or dator Pedro, ekarri zazu artuta. Baita beste apostoluak e esperantzakin poztuta; ekarri eitzazu nigana alaitzera, barkatuta”.

1126

Atera zan Joan zeuden etxetik, San Pedro billatu zuan, negarrez eta oso bildurrez Erregiñana zijuan. Joaneke Amak esan ziona Pedrori esan onduan, biak bestien billa jun ziran ta danak bildu zituan.

1127

Lenengo sartu Pedro bakarrik Ama Birjiñan aurrera, damuturikan bere oiñetan auspeztua zan lurrera: “Nik ofenditu zaitut, Andrea, Maixuarekin batera”. Ezin itz egin zuan geiago lerturikan negarrera.

1128

Au Aita Santu izango zala
Birjiñak ezagututa,
belaunikatu zan Birjiña're
tapaturik pekatua:
"Eska deiogun Seme Jaunari
izateko barkatua".
Jesusen errukiak esanaz
jarri zuan indartua.

1129

Urrena beste apostoluak
sartu ziran Amagana,
negarrez eta auspezturikan
eske barkatzeko dana.
Amak jasorik, ixuri zien
Jaunak grazi berri bana,
danak banaka esan zizkien
bakoitzak pasa zuana.

1130

Ama Birjiñak erregututa
Jaunak indartu zituan,
barkatu eta fede santuan
jarraitutzeko munduan.
Bere aurretik atera ziran
pozez beterik orduan,
Birjiñak lan au egiña zuan
parte larunbat santuan.

1131

Birjiña bere erretirora
juan zan illundu zanean;
ikusi zuan anima jeixten
bere Jainkotasunean
justuak zeuden linbo artara,
kartzelan zeuden lurpean,
ateratzera zeruratzeko
erosi zituanean.

1132

Agertutzeko misterio au
da erakutsi zaidana:
lurrin globoak diametroz ditu,
neurturik erditik dana,
bi milla eta bosteun eta bi
legua neurria daukana,
milla berreun da berroetamaika
diametro zabal duana.

1133

Erdi-erdian inpernua da
kondenatuak daudena,
kaberna au da asmo modutan
miñ biziak dituen.
Bere sarrera edo aua
beti zabal dagoena,
iñor ikusi eziñik eta
azkenikan ez duena.

1134

Inpernuaren alde batean
dago purgatorioa,
beren kulparen mantxa guztiak
ondo garbitutzekoa.
Supritzen due eldu ditezen
ikustera Jaungoikoa,
inpernua bezin aundi ez da
baiñan da supritzekoa.

1135

Inpernuaren beste aldean
dago linbo partitua:
bat da aurrentzat, iltzen diranak
kendu gabe pekatua;
eta bestea justuak zeuden
kaberna itxitakua.
Salbatzaillea linbo ontara
izan zan jetxitakua.

1136

Azken juizioa pasa ondoren,
munduaren azkenean,
ez da izango purgatoriorik
juzgatutzen geranean.
Linboan dauden aurren animak
daude erden bearrean,
Jaunak jarrita dauka lekua
grazian maitasunean.

1137

Gero izango dira bakarrik
zerua ta inpernua,
zeruan beti betiko poza,
zintzoak bizitzekua.
Purgatorio ta linbo-lekua
geldituko da ustua,
auen leku dana izango da
inpernua biurtua.

1138

Salbatzaillean anima santa
linbora jetxi zanean,
ezin konta-al aingeru zeuzkan
kantatzen aldamenean.
“Erregeari atek iriki”
auek esan zuenean,
arkaitzak lertu ziran bidean
bidea egin naiean.

1139

Linbo illuna argitu zuan
anima santak orduan,
justuak Jauna ikusten zuen,
au zero biurtu zuan.
Ezagutu zuen Jaunak nola
miñez erosi zituan,
eskerrak eta kantatzen zuen:
“Danak zureak ziñuan”.

1140

Agindu zien aingeruari
animak ateratzeko
purgatorio ta aurren linbotik,
ta aurrera ekartzeko.
Anima auek jarri zituan
graziz Jauna ikusteko,
etsaia dana ikusi zuen
neurri gabe supritzeko.

1141

Nola ziraden azkena juanak
Judas ta lapur gaiztua,
etsaiak asi zitzaizken joka,
miña zan ezin neurtua.
Kristau guztiak pertsegitzeko
zuen asmoa artua,
ta inpernura eramatean
kastigu aundiñekua.

1142

Salbatzaillean anima santa
zan linboan egon zana,
ostiraleko iruretatik
eta larunbata dana.
Igande-goizeko iruretan
zan obi-lekura juana,
aingeru ta justu-koadrillakin
gaiztok bota zituana.

1143

Beste aingeru asko zeuden an
zaitutzen gorputz santua,
gorputz santu au zegoalako
Jainkotasunez batua.
Auetako batzuek egiñik
Erregiñak agindua,
Jaunak ixuri zuan odola
zeuken reliz artua.

1144

Baita zituen aragi-puskak
zigorka kendutakoak,
bestiak bizar eta illeak
arpegi ta burukoak.
Baita beste gauza danak ere
Jaunaren gorputzekoak,
aingeruak pozikan zeuzkaten
bakoitzak artutakoak.

1145

Ta beste ezer egin baiño len
izan zan erakutsia
guraso santu justu aieri
gertatua zan guztia:
nola judutar aiek gorrotoz
nai izan zuen iltzia.
Adoratuta esana zuen:
“Au da zorra ordaintzia”.

1146

Ikusi zuen Adan da Ebak
gorputz santu zatitua,
zenbat miñekin erremediatu
zuan beren pekatua,
bere odolez gelditzen zala
pekatua barkatua.
Ain errukitsu izan zalako
izan zan alabatua.

1147

Ondorenean danen aurrean,
aingeruak lagunduta,
osatu zuen gorputz santua,
jarri zuen edertuta.
Istante artan bere anima
gorputzarekin batuta,
eman zion betiko bizitza
aintzaz ta doaik sortuta.

1148

Gorputz santua doai aundiaz
bat Jaungoikotasunean,
milla eguzkik baiño argigo,
gaude ezin esanean.
Arri-los aiek ikutu gabe
erten zan nai zuanean,
Ama Birjiñan sabeletikan
bezela jaio zanean.

1149

Bere bost llagak zeukatelako
gorputza itxusitua,
orain jarri zan argi brillantez
edertu ta indartua.
Danen aurrean jeiki zanean
ain gorputzez edertua,
agindu zuan bere antzera
piztuko dala justua.

1150

Eta agindu zigun promesa
misterioz betetzeko,
asko animai agindu zien
beren gorputzak artzeko.
Auen artean Santa Ana ta
Santu Jose piztutzeko,
Santu Joakin ta justu asko
piztu ziran ez iltzeko.

1151

Gorputz il aiek, justu zarrenak,
auts biurtuak zeudenak,
gelditu ziran istante batez
gorputz ederra zuenak.
Doaiez eta aintzaz bizitza
eman animan zeukenak,
Jaunaren lagun danak batean
zeuzken argi aundienak.

1152

Gelditu ziran gorputzan begiz
Jauna ikusten zuela,
esperantza eman zigun Jobek
ikusiko genduela.

Ama Birjiña misterioak
ezagutzen zegoela,
gelditua zan bere biotza
poz aundiñak zituela.

1156

Ama Birjiñak jarraitu zuan
Jainko-bizitza onean,
ordu batzuek pasa zituan
alaitasun aundiñean.
Jesusen lagun izan zalako
bide gogor samiñean,
gero jetxi zan ta Jaunak zeukan
beso ezkeran gaiñean.

1153

Joan santua bere ustetan
juana zan Ama poztera,
billatu zuan argiz betea
aintzan seiñalez batera.
Begiratu zion errespetoz
arriturikan batera,
juzgatu zuan: "Jauna piztua
elduko zan ikustera".

1157

Jaunak an zeuzkan guraso santu
berak glorifikatuak,
Ama Birjiñak gero auekin
esan zituan kontuak:
bere guraso San Joakin da
Santa Ana ta justuak,
kontu geiago Joan Bautistak
ta senar Jose santuak.

1154

Birjiñak pozez espero zuan
Jauna laister ikustea,
Jaunak nai zuan miñen ordaiñez
poz aundiak ematea.
Kristo piztua sartu zitzaion
aintza ta santuz betea,
auspez adoratu eta Jaunak
jaiki ta poztu batea.

1158

Itz egin zuan profetarekin
ta Adan da Ebarekin,
danak alabatu zuen Jauna
beren aingeruarekin.
Justuak auspez jarri ziraden
adoratu naiarekin,
Amak auspez berak adoratu
zeudenak zorionarekin.

1155

Jesusek bere Ama Birjiña
besarkatu egin zuan,
Amak Jaunaren misterioak
argi ikusten zituan.
Aditu zuan: "Nere laguna,
jarri zaite goraguan".
Au entzutean, Jainkotasunak
transformaturik zeguan.

1159

Salbatzailleak, piztu zanean,
Ama bixitatu zuan,
eta Jaunaren aintza ederrez
betea zuan orduan.
Nai izan zuan aita ta artzai
izan gurekin munduan,
bere ardiak bildu nai zitun
bildurrez junak orduan.

1160

Beti berekin lagun zebiltzan
lengo guraso santuak,
baita linboko animak eta
purgatoriotik artuak.
Ama Birjiñak bakarrik auek
ziran ikusitakuak,
berrogei egun Zenakuloan
ziran Amak pasatuak.

1161

Jauna, agertzen etzan guztian,
juaten zan Amarengana,
Zerura igo zan bitartean
eramanaz jende dana.
Ama Birjiña santu danakin
zan itzegiten zuana,
alaitutzen zan Erregerekin
bera Erregiña zana.

1162

Nai izan zuan lenen agertu
Jaunak emakumeari,
ondorenean agertutzeko
bere apostoluari.
Santu Markosek dion bezela,
begira gorputz illari
egon ziraden nun jartzen zuen
untatutzeko berari.

1163

Bat zan Maria Madalena ta
Maria Jose bestea,
atera ziran untatutzeko
ukenduak erostea.
Igande-goizez, illun zegola,
nai izan zuen juatea;
oroitu zuen: "Nork irikiko
digu arrizko atea?"

1164

Etzuen jakin nola zeukaten
sepultura seillatuta,
eun gizon an zaitzen zeudela
Pilatosek aginduta.
Ostiral santuz gelditua zan
eguzkia illunduta,
igande-goizez agertua zan
lenagotik argituta.

1165

Santu Markos ta Santu Joanek
diote biek egia.
Batek dio: "Mariak juan ziran
zala eguzki argia".
Besteak dio: "Mariak juanak,
zala illunpe aundia".
Atera ziran oso illunez,
ta bidean eguzkia.

1166

Mariak emakume santakin
gorputz illa nai zuela,
sentitu zuen bildurgarrizko
lur-ikara, zijuaztela.
Ikusi zuen aingeru batek
arria bota ziela,
zaitzen zeudenak gelditu ziran
lurrean illak bezela.

1167

lñork etzuan ikusi Jauna,
ordu an etzeguan;
lenagotikan piztua zan da
aterik bear etzuan.
Mariak zerbait bildurrez baiñan
billa juan ziran orduan,
arria bota zun aingerua
an eserita zeguan.

1168

Aingeru au zan argiz betea,
esana zien onela:
“Ez bildur izan, badakit zuek
bere billa zatoztela.
Ez dago emen, piztu egin da;
ikusi dezazutela”.
Sartu ziraden, ikusi zuen
Jauna an etzeukatela.

1169

Beste bi aingeru bi aldetan
zeudenak zien esana:
“Nola zabilzate illan billa?
Da piztuta bizi dana.
Oroitu nola Galilean au
zenduen Berak esana:
il da irugarren egunean
piztua izango zana.

1170

Zuazte bada Galileara
berri au zabaldutzera,
esan ikasle eta Pedrori
juateko an ikustera”.
Au entzutean, Mariak eldu
ziran dana oroitzera,
pozez amaika apostoluai
eldu ziran esatera.

1171

Ilda bezela zeuden guardiak
eldu ziran bizitzera,
ikusi zuen atea zabal
ta jua ziran ikustera.
Gorputza illa an etzegoan
ta jun parte ematera,
printzipe eta apaiz aieri
gertatua esatera.

1172

Gelditu ziran konfundituta,
bildu ziran asmatzea;
asmatu zuen diru askokin
guardiai agintzea:
“Gu lo geundela bereak sartu
gorputza arrapatzea”.
Gezur au askok sinistu zuen:
lotan ikusi artzea.

1173

Ikasle eta apostoluak
Mariak esan ziena
dudatu zuen, ta Pedro ta Joan
juanak ziraden lenena.
Ondorenean Mariak ere
jarraitu zuen berena;
lenengo Pedro, urrena Joan
sartuak ziran barrena.

1174

Joan santuak sinistu zuan
leku utsa ikusita,
igerri zuan Ama pozteko
izan zuala bixita.
Pedrokin ikusi zituan an
erropak doblen utzita,
auek jua ziran baiñan Mariak
an zeuden ezin etsita.

1175

Mariak zeuden atez kanpotik
danak oso arrituta,
ta Madalena billa negarrez
sarri barrura sartuta.
Apostoluai aingerurikan
etzitzaien agertuta,
Madalenak bai itz egin ere,
zala negarrez lertuta.

1176

Galdetu zien: “Emakumea, zu negarrez zergatikan?”,
Erantzun zien: “Eraman die nere Jauna emendikan, eta ez dakit nun jarri duen”.
Erten zan au esanikan;
ikus zuan gizaseme bat, etzekila nor zanikan.

1177

Pentsatu zuan: “Au izango da baratza zaitzen duana”.
Galdetu zion: “Zergatik negar? Nor dezu nai zenduana?”.
Erantzun zion: “Jauna, zuk artu, zu bazera eramana esan eidazu nun jarri dezun da ekarriko dedana”.

1178

Jaunak “Maria” esan ondoren bera ezagutu zuan.
Esana zion: “Maixu nerea” ta auspeztu zan onduan.
Jaunaren oiñak artu nairikan pozez musuka orduan;
etzion utzi: “Ez naiz oraindik jarri Aitaren lekuan.

1179

Juan zaitez eta esan eiezu anai apostoluari”.
Bazijuala, beste Mariak esana zien berari, ta segituan Jauna agertu zitzaien andre danari.
Esana zien: “Jainkoak salba” ta adoratu Jaunari.

1180

Jaunak berriro agindu zien anaiari esateko:
juan ditezela Galileara piztuta an ikusteko.
Orduan Jauna ezkutatu zan, Mariak jun kontatzeko;
apostoluak fede aundirik etzeukaten sinisteko.

1181

Ama Birjiñangana jun ziran Mariak au kontatzera, eta Birjiña aurreratu zan fedea erakustera:
misterio ta sakramentuak Eskriturakin batera, etzien esan nola eldu zan bera Jauna ikustera.

1182

Egun berean agertua zan Pedro apostoluari,
Mariak esan ondorenean buru izango zanari.
Pedro bakarrik ixil zegola Jauna agertu berari, ta geroago agertua zan apostolu guztiari.

1183

Mariak esan zuen egunez beste bi ikasleari, Jerusalendik Emausera tristuran zijuatenari.
Bat zan Kleofas, bestea Lukas ebanjelista danari, kanpotar baten antza zuala agertua zan berari.

1184

Jaunak galdetu zien auri,
saludatu ondorean,
zer itzegite zekarkizuen
ain triste zatoztenean.
Erantzun zion Kleofasek au:
“Zu zaude ezjakiñean?
Zera kanpotar danen artean
bakar Jerusalemenean?”.

1185

Jaunak galdetu: “Zer gertatu da?”
Erantzun zien onela:
“Ez al dakizu printzipek eta
apaizak egin duela?
Nazareteko Jesus santua
il due gaizto bezela;
uste genduan piztuko zala,
salbatuko giñuela.

1186

Gaur degu irugarren eguna
eta ez da agertzerik,
guretako emakume batzuk
juan ziran oso goizetik.
Ikusi zuen obi-lekua
utsa, ta dala bizirik;
gu baguazte Emausera
bere berri jakin nairik”.

1187

Erantzun zien: “Egiaz motzak
zerate entenditzeko;
ala komeni zan supritzea
bere aintzetan sartzeko”.
Jarraitu zuan erakutsitzen
il zala gu salbatzeko;
esana zien: “Aurrera nua”,
eskatu an gelditzeko.

1188

Ametiturik, Jauna sartu zan
berekian an apaltzera,
Jaunak ogia artu zuan da
eldu zan kontsagratzera.
Emana zien Jaunak jateko,
eldu ziran argitzera;
Jauna ezagutu zuenean
biurtu ezkutatzera.

1189

Bi auek gaubez Jerusalem
biurtu ziran orduan,
etxean sartu ta jarri ziran
apostoluan onduan.
Esaten zeuden piztuta nola
San Pedrok ikusi zuan.
Bi ikasleak: “Ikusi degu”
esan zien segituan.

1190

Antxe zegoan Tomas santua
bestearekin batean,
eta etzuan ezer sinistu
piztu zala entzutean.
Atez kanpora ateria zan
berekian despeditzean,
bildurrez atek itxi zituen
Tomas kanpora juatean.

1191

Andikan laister agertua zan
Jauna, barrura sartuta.
Esana zien: “Pakea zuei;
Ni naiz; jakin ikututa”.
Apostoluak gelditu ziran
pentsaketan bildurtuta.
“Begira nere oin da eskuak
dauzkatala zaurituta.

1192

Ezagutu; zuen Maixua naiz eta ez espirituak; espirituak ez du gorputzik”, ta zioten ikutua.

Apostoluak biotza zeuken neurri gabe bildurtua; ikusi eta entzuteakin etzan izan sinistua.

1193

Esana zien: “Badaukazue, emaidazue jateko”.

Arrai errea eta eztia zuen pozez emateko.

Parte jan zuan eta bestea zuan danai partitzeko.

“Ez dakizue? Pasa dan dana esana zan betetzeko”.

1194

Erakutsirik, ezagutzean, esana zien onela:

“Pakea izan bedi zuekin.

Aitak ni naukan bezela, ala biraltzen zaituet zuek, egia jakin dezela;

nere izenean pekatuak barkatutzen diradela”.

1195

Bere arnasa ixuri zien:

“Artu Jaun Espiritua, zuek barkatzen dezuen ura izan dedin barkatua.

Eta barkatzen ez dezuena barka gabe gelditua.

Predikatu jende guztiari”.

Zan Jauna ezkutatua.

1196

Au dana ala gertatua zan Tomas etzegoanean, baiñan Tomasi esan zioten dana, etorri zanean: nola gelditu ziran apaizak, berak ta bestek, danean, barkatzeko ta ez barkatzeko eskubide aundiñean.

1197

Baiñan Tomasek auek esana ezer sinistu etzuan:

“Ikusi arte ez det sinisten

–Tomasek esaten zuan– saietsa eskuz ikutu eta ikutu arte eskuan”.

Tomas biurtu zan auetara egun zortzigarrenguan.

1198

Atek itxita zeudela berriz zuen Jauna agertua;

esana zien: “Pakea zuei”, ta Tomasi zan deitua.

Esana zion: “Atoz nigana izan nadin ikutua.

Ementxe daukat saiets-zauria, eskutan iltze-zulua.

1199

Etzaitez izan sinisgogorra, baizikan izan zintzoa”.

Ikutu zitun bere zauriak ta zan sinistutakoa.

Lurrean auspez esana zion:

“Nere Jaun da Jaungoikoa”.

“Ikusteakin sinisten dezu?

–Tomasi esandakoa–.

1200

Zorionekoak izango dira
ikusiko ez nautenak,
nere esanak entzuteakin
sinistuko didatenak”.
Jauna orduan ezkutatu zan
ta ziran pozez zeudenak;
juan ziran Amari esatera
gertatu zitzaizkienak.

1201

Jauna lenengo agertutzean
juan ziran Amarengana,
esana zien nola zan Tomas
sinistu nai etzuana.
Erantzun zien: “Ez ikaratu;
au da argituko dana”.
Ama Birjiña Tomasen alde
zan otoitz egin zuana.

1202

Agertua zan Jesus berriro
Tiberias itxasuan,
Pedro ta Tomas, Natanael ta
bi Zebedeok zituan.
Pedrok arrantzara ertetzeko
asmoa agertu zuan,
danak lagundu zien gaubez ta
bat arrapatu etzuan.

1203

Salbatzaillea agertua zan
berai urrengo goizean:
“Ezer jateko bai al dezue?”.
“Batez” esan zuenean,
“Sareak bota eskui aldera”
Jaunak esan zienean,
ala botata, txalopa bete
karga jaso eziñean.

1204

Joan santuak Maixua zala
laister ezagutu zuan;
“Jauna dek” esan zion Pedrori.
Onek au entzun onduan,
jantzi ta salta uran gaiñera,
beregana jun orduan.
Besteak laister etorri ziran,
oso urrean zeguan.

1205

Eldu ziraden lurrera eta
urreratu beregana,
maitasuna dan Maixuak zeukan
jarria berentzat jana.
Brasetan arrai erre bat zeukan
ta ogia bear zana.
“Ekarri ortik arrai geiago”
ta Pedro zan eramana.

1206

Eun da berroe ta amairu arrai
aundi arturik sarean,
Jaunak agindu zien jateko;
ta bazkaldu zuenean,
Jaunak Pedrori esana zion,
begiratu zionean:
“Simon, Joanen seme zerana,
maite nazu geienean?”.

1207

Erantzun zion: “Bai, Jauna; Zuri
dakizu nai dizutala”.
Jaunak esana: “Zaitu itzazu
arkume nerek dirala”.
Jaunak: “Zu, Simon, Joanen seme,
maite nazu egi dala?”.
Erantzun: “Bai, Jauna. Zuk dakizu
nik maitatzen zaitudala”.

1208

Jaunak galdetu: "Maite al nazu?"
irugarrengo aldian.
Galdera onek Pedro jartzen du
oso tristura aundian.
Erantzun: "Jauna, dana dakizu:
nai dizutala egian".
Zaitu itzazu nere ardiak",
jarri zuan goienian.

1209

Pedrori Jaunak esana zion
kargakin gelditzen zala:
"Egiaz dizut: zartzen zeranen
ezin jantziko zerala;
ta zuk jun naiko dezun lekura
iritxiko etzerala,
zuk nai ez dezun lekura bestek
eramango zaituala".

1210

Gurutzetuta ilko zuela
Pedrok entenditu zuan,
ta Joan nola ilko ote zan
Pedro galdetzen zeguan.
"Zuri zer inporta dizu orrek?
—Jaunak erantzun orduan—.
Bizirik utzi nai badet ere,
zuk segi nere onduan.

1211

Ama Birjiña gertatze danak
zan jakiten zijuana,
misterioak entenditzeko
zan argiak zituana.
Joan jun oi zan gertatzen zana
esatera Amagana,
Ama Birjiña zan gauza danak
ixil gorde zituana.

1212

Ama bizi zan erretiruan
Jauna piztu zanetikan,
Zenakuloa zan etxe artan,
Jauna an ikusirikan.
Pozez bizi zan aingeruakin
Jaunari kantaturikan,
berrogei egun pasa artean
erten gabe bertatikan.

1213

Zorionekoak koru bat ziran
aingeru ta santuakin,
bakoitzak bertso bat kantatuaz
doiñurik politenakin.
Birjiñak erantzuten zieten
bakoitzari bertsoakin,
sortzen zituan bertso berriak
sarri jakinduriakin.

1214

Ama Birjiñak egun auetan
egin zuan gauza dana,
guk ezagutu ta esateko
degu ezin leikeana.
Seme Jainkoa Ama poztutzen
zan an aintzaz zeguana,
Amak agindu: "Kantatu beti",
zan zeru biurtu zana.

1215

Ama Birjiña asko pozten zan
alabatzen Jainkoari,
baita're bertsoak erantzuten
bere aita ta amari:
Santu Joakin ta Santa Ana
gorputzakin zeudenari,
San Jose eta Joan Bautista
ain maite zitanari.

1216

Gertatua zan: iltzen ziranak
berrogei egun aietan,
grazian illak gelditzen ziran,
Zenakuloan pozetan.
Zorra zuenak Jauna ikusi
ezin egun batzuetan,
Ama Birjiñak erregututa
jartzen ziran zorionetan.

1217

Ama Birjiña pozen artean
etzan aztutzen gurekin,
errukitzen zan gure lurreko
mixeri guztiarekin.
Aitari auxe eskatzen zion:
“Lagundu graziarekin,
lege berria jakin dezaten
danak maitasunarekin”.

1218

Jauna zerura igotzeko zan
egun batzuk aurretikan,
Aita ta Espiritu Santua
Birjiñak ikusirikan,
an zan Jaungoiko Irutasuna
Seme Jauna pizturikan;
pozikan adoratu zituan
lurrean auspezturikan.

1219

Aitak agindu bi aingeruri
Mariari deituzeko,
eraman eta beren aurrean
auspeztu adoratzeko.
Betiko Aitak esana zion
goragora igotzeko,
iru Pertsona zeuden tronuan,
laugarrena an jartzeko.

1220

Asko arritu ziran santuak
Birjiña an ikusita,
Erregena zan tronu artantxe
jarri zuen eserita.
Danak arritzen zeuden begira
kriatura an jarrita,
eta abestu esanaz danak:
“Egin dezu ederki ta”.

1221

Aitak esana: “Nere alaba,
lege berri grazizkoa,
nere Semeak Eliza santa
munduan jarritakoa.
Zurekin fiatzen naizelako
zu zera zaituzekoa”.
Jaun Espiritu Santuak esan:
“Emazte biotzekoa”.

1222

Seme Jainkoak esana zion:
“Ama, nua Aitagana.
Nere lekuan nere Eleiza
dezu zaitu bear dana.
Bere seme ta nere anaian
artzai gelditzen zerana,
au da zeru-lurren Erregiña”,
Irutasunak esana.

1223

Jesus zerura igo bear zan
eguna eldu zanean,
eun da ogei pertsona ziran
Zenakulon zeudenean.
Bertan amaika apostoluak
jatera zijuaztenean,
Jauna sartu zan eta berekin
jan zuan maitasunean.

1224

Jesus zeguan aintzaz brillante
edertasun aundiakin,
bazkalonduan esana zien
alaitasun goxuakin:
“Aitak eman dit eskubidea
zeru ta lurrekoakin,
zueri ematen dizuet nik
Eleiza ta lur danakin.

1225

Biotz gogorak izan zerate
Ni piztuta sinisteko,
baiñan eldu da denbora ura:
zuek maixu izateko,
fedearekin gizon danari
Berri ona zabaltzeko,
neri entzun didazuen eran
zuek erakutsitzeko.

1226

Bataiatu itzazue danak
sinismena duenean,
Aita, Semea ta Espiritu
Santuaren izenean.
Sinistu eta bataiatua
salbatuko da iltzean,
eta sinistu nai ez duana
leizera kondenatzean.

1227

Sinisten duenai erakutsi
gordetzeko lege dana,
ordaiñez egingo dituzue
marabilla aundi bana:
etsaiak bota eta itz egin
izketa ez dakiana,
eskuk jarrita sendatuko da
gaixorikan dagoana”.

1228

Eun da ogei jende aieri
esana agerturikan:
“Seme maiteak, Aitarengana
gora nua lurretikan.
Bere barrutik atera nitzan
danok erostegatikan;
nere Ama lagatzen dizuet,
zuen Ama da gaurtikan”.

1229

Ama Birjiñak barruan zeukan
Jainkoa kontsagratuta,
beti gurekin biziko zala
zeukalako aginduta.
Birjiñak seme artu giñuan
danok, besok zabaldua;
Jaungoiko berak danok zaitzeko
jarri zuan indartuta.

1230

Jaunak esana: “Izan zazue
Pedro Eleizan burua,
ta zuek bizi mendetasunez
egñaz bere gogua.
Joan eduki nere Amaren
seme, nik seiñalatua;
ez jun emendik, nik biralduko
det Espiritu Santua”.

1231

Jesus zerura igotzeko zan
ordua eldu zanean,
erten zan Jesus Zenakulotik,
Ama zan aldamenean.
Apostolu ta ikasleakin,
eun da ogei batean,
Maria Madalena, Marta ta
Lazaro beren artean.

1232

Lagun zituan aingeru eta
anima santak kantari,
Olibet mendira igo ziran
agerturik bereari.
Ezkutatua gelditzen zala
erriko jende danari,
igo ziranen Ama auspeztu
adoratzeko Jaunari.

1233

Adoratuta eskatu zion
azkenik bedeinkatzeko.
ikasle danak negarrez zeuden
eta eldu galdetzeko:
“Jauna, au al da zure ordua
Israel berrituzeko?”.
Erantzun: “Aitak ixilik dauka,
ori ez da zabaltzeko.

1234

Jaun Espiritu Santua artzen
dezuela jun izlari,
Jerusalen da Samaria ta
esan munduko danari”.
Anka-markak lurrean lagata
gora igo zan Jaunari,
danak begira gelditu ziran
beren Maixu maiteari.

1235

Jaunak zerura eraman zuan
Ama berekin batean,
iru egun an pasa zituan
Jaun Espirituz betean.
Baita milagroztotoizlari zan
apostoluen artean,
zeru-lurrean batean bizi
zan Jaunak nai izatean.

1236

Jesus bakarrik ikusten zuen
igotzen apostoluak,
“Atek iriki Erregeari”
abestuz aingeruak.
Jauna tapatu egiña zien
brillua zuan laiñuak,
Amak eskatu, semek pozteko
ziran Jaunak biralduak.

1237

Bi aingeruak gizon-itxuran
esan zien gizonari:
“Galileatar gizasemeak,
ez begiratu goiari.
Ikusia dezuen bezela
igotzen Jesus Jaunari,
ikusiko dezue etortzen”.
Ta poztu zien danari.



Orduñako Santa Klarako mojak.

Zazpigarren liburua

**Nola indartu zuan Jaunak
Zeruko Erregiña doai aundiakin,
Eleiza Santaren alde jarraitzeko lanean.
Nola etorri zan Espiritu Santua.
Nola frutu asko ematen zuen
apostoluen predikatzeak.
Lenengo pertsekuzioa Elizaren kontra.
San Pauloren konbertsioa.
Santiago Espaiñiara etortzea.
Jaungoikoaren Ama agertzea Zaragozan.
Ama Birjiñaren eleiza Pillarekoa
nola egin zuen.**

1238

Ama Birjiña otoitz egiten
Zenakuloan zegoan,
amaika apostoluak eta
ikasle danak onduan.
Danak batean senide ziran
alkar-maitasun osuan.
“Jaun Espiritu Santua dator”
Birjiñak esan orduan.

1239

Salbatzailleak eskatu zion
bere Aitari zeruan”
“Jaun Espiritu Santua eman,
agindua dan moduan”.
Ama Birjiñak ordua zala
argiz ezagutu zuan;
lurrean auspez, “Biraldu, Aita”
eskatu zuan orduan.

1240

Birjiñak esan errezatzeko,
jarraitzeko otoitzean,
Zenakuloan zeuden danari:
eun da ogei batean.
Ala zeudela sentitu zuen
trumoi, tximistaz batean,
etxe barruan gelditu zala
bakoitzan buru gaiñean.

1241

Jaun Espiritu Santuak danak
doaez bete zituan,
ta auek danak baiño geiago
Birjiñak bakarrik zuan.
Baita're danak baiño geiago
Jauna abesten zijuan,
bere emazte zuan Birjiña
Jaunak bixitatu zuan.

1242

Apostoluak bete zituan
Jaun Espiritu Santuak,
eta grazi au ez galdutzeko
ziraden konfirmatuak.
Ikasle eta an zeuden danak
artu bakoitzak naikuak.
Suzko trumoi oi ikusitzera
eldu ziran auzokuak.

1243

San Pedrok lenengo sermoiakin
konbertituak ziranak
asko ziraden, Jesus iltzean
pena samiñak izanak.
Eta Jesusen kontra arrabi
aundiakin zebiltzanak,
lurrera auspez erori eta
iru orduz egon danak.

1244

Jesus ain gogor zigortu zuen
gizon biotz gabekuak,
erori ta beren odoletan
gelditu ziran ituak.
“Bere odola betor gugana”
eskatu zuen gaiztuak;
gelditu ziran oso gaixorik
berak ta ondorengiak.

1245

Jaunari arpegian jo zion
gizon atrebitu ura,
derrepente ilda gelditu zan
eta jun zan inpernura.
Bere anima gorputzarekin
etsai-kabernan barrura,
beti-betiko surtan goseak
biziko diran lekura.

1246

Apostoluak, Jaun Espiritu
Santua artu onduan,
izketa asko zekizkiela
gelditu ziran munduan.
Ama Birjiñan baimenarekin
atera ziran orduan,
Jaunaren naia erakustera
beren bizitza osuan.

1247

Iru milla konbertitu ziran
San Pedroren itzaldian,
Eliza jarri bear zalako
munduko leku guztian.
Ama Birjiñai kontatutzero
juan oi ziran poz aundian,
Birjiñak otoitz egiten zuan
guztien alde etxian.

1248

Pedro santuak konbertituak
ekarririk Amagana,
esana zien: “Auxe da gure
Maixuaren Ama dana,
birjiña zala kontzebitua
birjin zala jaio zana;
fedea izan dezazuela
sinistutzeko esana”.

1249

Eskatu zien auek Pedrori
Ama oni eskatzeko:
“Beraren itza entzun nai degu,
ixilik ez biraltzeko”.
Pedrok bazekin dana zekilla,
eskatu zion pozteko:
“Andrea, entzun seme aueri.
eske daude entzuteko”.

1250

Ama Birjiñak esana zien:
“Nere senide maiteak,
Jaunari eman eskerrak kantuz
goratuaz egiteak.
Izan zerate aukeratuak,
jarraitu egibideak,
bataiatuta izan zaitezten
Jaungoikoaren semeak.

1251

Ni eskeintzen naiz zuen mendeko
bearrean laguntzeko,
nere Semea dan Jainkoari
zuen alde eskatzeko,
Aita bezela begiratuaz
zuen biotzak pozteko,
graziaren bitartez zueri
arpegia agertzeko”.

1252

Argiz beterik gelditu ziran
Birjiñari entzutean,
eskatu zien bedeinkatzeko
bere ondotik juatean.
Apostoluak ta ikasleak
Jaun Espirituz betean,
milagro asko egin zituen
gizon-taldean artean.

1253

Andreask asko juaten ziraden
Madalenai entzutera,
au bere lagunakin juaten zan
dotriña erakustera,
buru gaiñean eskuk jarrita
gaixo asko sendatzera,
itxuai bista, mutuai itza,
baita illak piztutzera.

1254

Apostoluak Jaunaren itza
zabaldutzen zebiltzala,
zazpi egunez ikusi ziran
bost milla bildu zirala.
Ama Birjiña erretiruan
otoitzean zeguala,
bere otoitzak doblatu zitun
Jaunak argitu ditzala.

1255

Bataiatutzen zituen danak
sinismena zuenean,
Aita, Semea ta Espiritu
Santuaren izenean.
Ama Birjiñak eskatu zien
Jaunaren borondatean:
kotsagratuta eskeiñi zanak
bizi nai gure artean.

1256

Pedro santuak emana zuan
lenengo meza santua,
bataiatuai emana zien
Jaungoiko kotsagratua.
Ama Birjiña izan zalako
Aitari au eskatua,
bere baimenez Eleiz berria
degu munduan sortua.

1257

Pedro santuak lenengo aldiz
kotsagratu zuanean,
argi aundi bat aingeruakin
sartu etxe barrunean.
Juana zan Ama Birjiñangana
an ikusten zeudenean,
San Pedrok Jauna emana zion
debozio aundiñean.

1258

Nai izan zuen *mayordomo* bat
diruak zaitzen jartzea,
San Pedrok esan: “Judasi ortik
sortu zitzaion galtzea”.
Asmatu zuen au nola egin
Birjiñari galdetzea:
bere naia zan pobre bizi ta
lan oi seiri partitzea.

1259

Amak eskatu zion Jaunari
jende auek gordetzeko,
“Jauna, ni jantzi indarrarekin
etsaiak menderatzeko”.
Luzifer oso bildurtu zuan
beren kontra jeikitzeo,
baiñan juana zan judutarrari
inbiritan ipintzeko.

1260

Jarri zituan fariseotarrak
auen kontra gorrotuan:
“Apostoluak diruak artzen
daude eskriban lekuan”.
Fede gabeko erri gaiztuak
danak sinistu zituan,
danak nola il asmatutzeko
juntatu ziran orduan.

1261

Lenengo kausa Pedro ta Joanek
elbarria sendatzean,
berrogei urte zituana zan,
zegona eleiz-atean.
San Pedrok esan: “Au sendatu da
Jesus Jauna sinistean”.
Apaizak umil gelditu ziran
danak kontra jeikitzean.

1262

Bernabe Jose Txipreko batek soruak saldu zituan, ta diru dana ipiñi zuan apostoluan eskuan. Ananias ta Safirak berriz gezurra esan onduan, andre-gizonak ilda gelditu etsaiaren engaiñuan.

1263

Ananias ta Safira ziran berentar bataiatuak, diru-partea gorde zuen ta “Dana da” esandakuak. Ama Birjiñan otoitzak ziran beren alde eskatuak, Jaunak erantzun: “Ezingo due Eleiza kendu gaiztuak”.

1264

Andre-gizonak il ziralako arroturik errikuak, Pedro ta Joan izan ziraden beren kartzelan sartuak, Ama Birjiñak etsaiak zitun inpernura amilduak, eta Jaunari eskatu zion: “Libratu apostoluak”.

1265

Jaunak esan: “Biraldu eitzazu aingeruak libratzera”. Aingeru bat jun ta esan zien: “Zuazte predikatzer”. Aterik gabe atera ziran Pedro ta Joan batera, Gamalielen esanagatik eldu ziran lagatzera.

1266

Apostoluak atera ziran Berri Ona zabaltzera, Ama Birjiña guztien alde Jaunari errezatzera. Pedro erten zan Lidia Jopen zan Tabita piztutzera, gero biurtzen ziran Amari gertatuak kontatzera.

1267

Jerusalenen neska pobre bat zuena bataiatua, bost milla konbertitu ziranen au zan beren artekua. Bere lanetan gelditua zan miñez ezin sendatua, oztutzen asi eta izan zan grazi-bizitza galdua.

1268

Oni etsaia agertua zan andre-itxura artuta, esana zion: “Etzaitez bizi gezur oiek sinistuta. Beren Maixua il egin die gurutzean iltzatua; nai ez badezu, ilko zaitue apaizak kastigatuta”.

1269

Sinistu zion eta geiago gelditu zan gaixotua, auzoko batek esana zion: “Gaixo da zuetakua”. Au zan irurogei ta amabi ikasle aietakua, sartu zan baiñan etzion entzun, zeukan etsaiak lotua.

1270

Onek Joani esana zion
gaixua nola zeguan,
Joan santua etorria zan
beregana segituan.
Etzion entzun, baiñan etsaiak
bertan ikusi zituan,
au Birjiñari kontatutzero
Joan juana zan orduan.

1271

Amak samiñez eskatu zion
anima ori Jaunari,
ta aingeru bat biraldu zion
laguntzera gaixoari.
“Ez entzun eta ez ametitu
–au esan zion Amari–,
galtzeko peligruan dagola
emana da etsaiari”.

1272

Ama Birjiña otoitz egin da
abitua zan juateko,
Jaunak agindu aingeruari
artuta eramateko.
Billatu zuen bakarrik eta
etsaiak zai artutzeko,
Ama Birjiña an ikustean
larri ziran igesteko.

1273

Amak agindu: “Zuazte danok
inpernuan barrenera!”.
Ta gaixo arek esana zion:
“Andre bat sartu etxera”.
Birjiñak esan: “Etsaia zan oi”.
Biurtu konbertitzera,
damutu eta Jauna artuta
eldu zan ondo iltzera.

1274

San Esteban zan Ama Birjiñak
oso maitea zuana,
zekialako izango zala
Jesusgatik ilko zana.
Jaun Espiritu Santuz betea,
Jaunak berekin zeukana,
eskriba eta fariseotarra
bildurrikan etzeukana.

1275

Auxe izan zan Ama Birjiñak
San Estebani esana:
“Nere Semeangatik martiri
zera zu ilko zerana.
Indartu zaite zure fedean,
au dezu Jaunak emana,
jarraitu zure kapitanari,
da poztuko zaituana”.

1276

Birjiñan itzak santu Esteban
neurri gabe poztu zuan,
Kristogatikan martiri illa
izan nairik segituan.
Judutarrakin disputa aundik,
errex autsitzen zituan;
etsaiak esan: “Esteban ori
il zazue ezkutuan”.

1277

Iru alditan nai izan zuen
au il da ezkutatzera,
Ama Birjiñak nai izan zuan
danetatik libratzea.
Etxe barruan sartutzen zuen
nairik ixil itotzea,
aingeru batek egiten zien
berengana ekartzea.

1278

Oraindik etzan denbora eldu
Esteban arriz iltzeko,
egun argitan izan bear zan
jakinduriz agertzeko.
Ama Birjiña berekin zeukan
bearretan laguntzeko,
Jesukristoren ikaslea zan,
bat beren diruk zaitzeko.

1279

San Esteban zan garbia eta
santutasun aundikua,
apostoluak “Diakono zera”
Eleizan izendatua.
Alargun eta pobre zeudenai
laguntzeko lenengua,
fede gabeko judutarrari
egiak esandakua.

1280

Judutar aiek arrabiakin
artu testigu faltsuak,
ta Estebanen kontra ziraden
gezurrak esandakuak:
“Jainkoa eta Moisesen kontra
esana maldiziuak”,
eta elduta eraman zuen
juezengana gaiztuak.

1281

Apaizak zeuden sala batera
sartu zuen juzgatzeko,
agintaria jeiki egin zan
Esteban kastigatzeko.
Esana zien: “Fede gabeak,
esana ez sinisteko,
Kristo Mesias egiazkua
gurutzetuta iltzeko”.

1282

Sermoi gogorra egiña zien
federik etzuelako,
apaizak belarriak tapatu
erantzunik etzalako.
Birjiñak aingeru bat biraldu
Esteban preso zalako:
“Amari esan pozez nagola
martiria naizelako.

1283

Pena bat daukat: bedeinkatzeko
Amari ez eskatua”.
Ama Birjiñai au esatera
juan zan aingeru santua.
Au entzutean juan nai ta ezin,
errian alborotua;
auspezturikan “Lagundu, Jauna”
zan Birjiñak eskatua.

1284

Jaunak zerutik aingeru asko
biraldu zizkan Amari,
laiño gaiñean eraman zien
Esteban preso zanari.
Berak bakarrik ikusten zien
aingeruz Ama santari,
Birjiñak argik ixuri zizkan
santuan arpegiari.

1285

Ama Birjiñak itz egin zion
bendizioak emanaz,
neurririk gabe alaitu zuan
itz mamitsuak esanaz.
Bere aintzazko argizko txispak
onen arpegira juanaz,
judutarrak e ikusi zuen
fedegabeak izanaz.

1286

Eldu zioten otsok bezela
erritik ateratzeko,
Ama Birjiñak bendizioa
eman zion lagatzeko.
Bere aingeru goardakoak
laga zizkan laguntzeko,
onen anima gelditu arte
zeruetan bizitzeko.

1287

Ama Birjiña an zegoala
bere otoitzakgatikan,
ikusi zuan Salbatzaillea
zeru goietan zutikan,
berari iltzen lagundutzeko
Aitaren eskubitikan.
Esana zien: "Ikusten nago
zerua irikirikan".

1288

Agindu zuen: "Il bearra da
blasfematu dualako".
Arrika illa zuen Esteban
beren legea zalako.
Azken orduan esana zuan:
"Ar nazazu Zuretzako.
Jauna, pekatu au ez oroitu
ezjakiñak diralako".

1289

Santu Esteban illa izan zan
arrizko euriarekin,
bere anima eraman zuen
aingeruak pozarekin.
Jaunan urrean ipiñi zuen
aintzazko koroiarekin,
zerutar danak abestu zuen
Esteban sartzearekin.

1290

Esteban il zan Jesus il eta
beatzi illak zirala,
abenduaeren ogei ta seian,
ogei ta amalau zeuzkala.
Bere gorputza lagunak miñez
eramana izan zala;
beren otoitzak Saulori eldu,
erropa-zai zeguala.

1291

Esteban il zan egun berean
jeiki ziraden gaiztuak,
eleiztar danak ezkutatzeko
ordenak Saulok artuak.
Batzuek preso, bestiak joka,
baita ziran ildakuak,
gorroto aundi au sortu zuen
inpernuko diabruak.

1292

Ama Birjiña ikusi zuen
San Estebani laguntzen,
eta iñori ez laguntzeko
zeuden arrabitan jartzen;
judutar pekatuan zeudenak
beren aldera ekartzen,
Kristo ta Aman alde ziranak
danen artean zapaltzen.

1293

Ama Birjiñak ezagaturik
etsai arro aien lana,
bota zituan inpernuetara
etsaien koadrilla dana.
Karraxika jun, lotuta jarri
zortzi egun oso dana,
orduan Amak apostolui
onela zien esana.

1294

Ama izan zan apostoluan
biotz aiek indartzeko,
“Jaunagan jarri esperantzetan,
jun berriak zabaltzeko.
Nere partetik jungo dirade
aingeruak laguntzeko”.
Atera ziran erregututa
Amari bedeinkatzeko.

1295

Zer egin Jaunak erakusteko
argiz apostoluari,
berrogei egun pasa zituen
auxe eskatzen Aitari.
Biral dutzen zizken aingeruak
Amak apostoluari,
baita Felipek bataiatzeko
erregiñan morroiari.

1296

Agertua zan Jesus Amari
bere biotza pozteko,
esana zion: “Emen naukazu
eskatua emateko,
Dezakedana naizela nago
Eleizari laguntzeko”.
Ama Birjiña auspeztua zan
Jauna adoratzeko.

1297

Jaunak ixuri zion argia
Pedro apostoluari,
juntatu ziran apostoluak
itz egitera Amari.
Danak gauza bat erakusteko
indartzeko Eleizari,
kredua jarri nai izan zuen
otoitz egiñaz Aitari.

1298

Amak eskatu: “Esan zazue
bakoitzak esate bana,
misterio bat Jaun Espiritu
Santuak argi emana”.
San Pedrok: “Sinisten det Jainkoa,
Aita, dezakena dana,
zeruan eta lurrean dauden
gauzak egin dituana”.

1299

Santu Andresek: “Ta Jesukristo,
Seme bakar, gure Jauna”.
Zarren Santiagok: “Jaun Espiritu
Santuak sortu zuana,
eta Maria Birjiñagandik
jaioa izandu zana”.
Santu Joanek: “Supritu zuan
Pilatok mende zeukana.

1300

Izan zan gurutzean josia,
illa ta obiratu”.
Santu Tomasek: “Inpernuetara
izandu zan bajatua.
Illen artetik irugarrengo
egunean zan piztua”.
Gazte Santiagok: “Igo zan eta
zan zeruetan sartua.

1301

Aita dezakenan eskubian
eserita dagoana”.
Santu Felipek: “Eta andikan
berriz etorriko dana
juzgatzeraz biziak eta
baita illa izan zana”.
Santu Bartolomek: “Sinisten det
Espiritu Santu Jauna”.

1302

Santu Mateok: “Eleiza Santa katoliko santuena”.

Santu Simonek esana degu: “Pekatuen barkamena”.

Santu Tadeok: “Piztuera da gorputz aragiarena”.

Santu Matiasek: “Bizitza da azkenikan ez duena”.

1303

Ondoren “Amen” esana zuen, esan nai du “Ala dala”; zeruratzeko au sinistra obligatuak gerala.

Espiritu Santuak itz egin au ontzat artzen zuala;

Ama Birjiñak eskerrak eman, danok maite giñuala.

1304

Birjiñak eskuz egin zituan kredo-kopia ugari, aingeruakin biraltzen zizken apostolu guztiari, erregutuaz erakusteko federa zetoztenari; ikutzeakin ematen zien osasuna gaixoari.

1305

Egun batean gaizto bat jun zan paper ori kendutzera arrabi aundiz, eta eldu zan bere oiñetan iltzera.

Otoitz eginda Pedro asi zan nora juan izendatzera:

“Zarren Santiago, zu Espaiñira fedea erakustera”.

1306

Paulo santua berez ona zan, oso biotz aundikua, baiñan etsaiak bere aldera jarri zuan indartua.

Ipiñi zion apostoluak danak iltzeko gogua, baita Maria ere iltzeko, zan onek errukitua.

1307

Baiñan Eleiza ezkutatzeko asi zan egiten lana, eman zeila beren baimena juana zan apaizengana. Birjiñak otoitz egiñaz zuan Seme Jaunari esana: “Etzazu laga Saulo galdutzen, naiz supritzen nagoana”.

1308

Seme Jainkoak erantzun zion: “Egingo det eskatua, nere izena predikatzeko jarriko det biurtua”. Saulo zijuan Damaskora ta zuan Jesus agertua; zion: “Saulo, Saulo, zuk zergatik nazu ni pertsegitua?”.

1309

Jaunak Saulori argitasun bat biotzera biralduta, zaldi gaiñetik lurrera bota, gelditu zan itxututa. Etsai-partreak kenduta jarri zan aingeru biurtuta. ikusi zuan Jainkotasuna, gelditua zan onduta.

1310

Paulo lurrean zegoanean
pekatuak damututa,
irugarrengo zerura jaso
zuan Jesusek artuta.
Ikusi zitun ezin esanak
an doaiez argituta,
San Esteban ta Ama Birjiñak
bere alde eskatuta.

1311

Jainkoa nola gizon egin zan
Paulok ezagutu zuan,
baita bere eriotzarekin
nola erosi giñuan;
nola lurrean apostoluen
lanak beretzat zituan,
baitare nola Sortzez Garbia
Ama zan birgin munduan.

1312

Ordutik Paulok Ama Birjiña
zuan biotzez maitea,
esana zuan: "Jaunaren naia
agintzen det egitea,
suprimentuan Jaunaren mende
il arte lan egitea".
Irutasunak ontzat artua
zuan bere esatea.

1313

Len Saulo zana Paulo santua
izandu zan biurtua,
Jaunak zeruan zeuden danari
berri au zan agertua.
Danak pozikan kanta berrikin
zan Jauna alabatua,
Paulo eldu zan bere onera,
agertu zan itxutua.

1314

Eraman zuen Damaskon zeuden
bere lagunak etxera;
iru egunez ez jan da ez lo,
emana zan otoitzera.
Ananiasek itz egitean
biurtu zan ikustera,
baita eldu zan bere eskutik
Paulo Jauna artutzera.

1315

Paulok Damaskon barkatutzeko
eskatu ikasleari,
eta asi zan predikatutzen
egia jende danari.
Ama Birjiñak dana jakinda
eskerrak eman Jaunari,
Amak aingeru asko bilduta
abestu zien Berari.

1316

Amak aingeruk biraltzen ditu
Jaunagatik guregana,
aurra osatzen dan unetikan
ama ta aurrarengana.
Etsai Luzifer aspaldikua
da galdu nai gaituana,
sortutzetikan il arteraiño
gu tentatzen dagoana.

1317

Saulo Damaskora zijuala
etsaiak lagun zituan,
Jesus agertu zitzaionean
sartu zitun inpernuan.
Eta etsaiak an au zioten:
"Saulo guria genduan.
Emakume au zapaldu arte
ni ez nago soseguan".

1318

Zarren Santiago Espaiñiara
etorria zan orduan;
Jaunaren urte ogei ta amabost
zala, zan il agoztuan.
Barkuz eldu zan Kartajenara,
an egun batzuk zituan;
Jaunak deituta Granadara jun,
an lan geiago zeguan.

1319

Ama Birjiñan lengusutarra
zan Santiago zarrena;
Joan berdin zan, baiñan au zuan
emana *seme* izena.
Zarrenak emen supritu zuan
sinistu ezin leikena,
etzuelako ontzat artu nai
Jesukristoren izena.

1320

Amabi ikasle bazituan
fedea erakusteko,
fedegabeak jarri zituan
etsaiak an agintzeko.
Santiago ta bere lagunak
agindu zuen iltzeko,
bat il zuen ta besteak lotu
katekin, ez igesteko.

1321

Santiago au firme zeguan
ordua bazan iltzeko,
baiñan Amari eskatu zion
Jesusekin laguntzeko.
Jaunak agindu aingeruari
Erregiña ekartzeko,
ekarri zuen laiño gaiñean,
gizon auek askatzeko.

1322

Birjiñak esan "Serbitzaria,
jeiki zaite libratuta".
Ta gizon onak gelditu ziran
kate danak askatuta.
Gizon gaiztoak erori ziran
an zeudenak armatuta;
Amak pakea sortu, etsaiak
inpernura biralduta.

1323

Auspezturikan eskerrak eman
zizkan santuak Amari,
eun aingeru eman zizkion
laguntzeko santuari,
indartutzeko peligroetan
bera ta ikasleari.
Granadatikan atera zuen
aintza emanaz Jaunari.

1324

Juan ziteztela Espaiñiako
lurretan erakustera,
eldu ziraden Andaluzian
ta Toledon izatera;
Portugal eta Galiziatik
Astorgan pasatutzera,
Riojan, Logroñon, Tudelan ta
Zaragozan gelditzera

1325

Paulo ontzean Jaunak etsaiak
bota inpernu beltzera,
baiñan gure pekatuakgatik
eldutzen da libratzera.
Etsai-taldea biraldu zuan
apostoluk billatzera,
Luzifer bera gelditua zan
Jerusalengok zaitzera.

1326

Agindu zien beste etsaiari
inperuan gelditzeko,
kondenatuak ziran animak
beren bistak nazkatzeko.
Ezin da esan zer amorrua
digun anima galtzeko,
bere mendean beti-betiko
jo ta jo tratatutzeko.

1327

Ama Birjiñak ikusi zuan
Jaunaren argiarekin
nola eriten zan etsai Luzifer
ezin konta-alarekin,
apostoluak billatu eta
iltzeko asmoarekin.
Birjiñak zion: “Zer gertatuko
ote da Eleizarekin?”

1328

Amak zerbaiten pena zeukala
Joanek ezagutututa,
ta bere pena Amak Joani
nola zuan agertuta,
Jaunari otoitz egin zioten,
jarri ziran argituta;
esana zien: “Juan Efesora,
jarri animak onduta”.

1329

Amak bazekin apostolutan
lenengo au ilko zala:
Jakobo deitzen zien Santiago,
Zaragozan zeguala.
Efesora juateko lau egun
bakarrik falta zirala,
Amak eskatu Jesus Jaunari
Ark bedeinkatu zitzala.

1330

Jaunak itz egin zion esanaz:
“Begira, Ama maitea:
gordeko ditut apostoluak,
nai det Aita izatea.
Eleiza ez du iñork galduko,
nai det kaso egitea;
bearrezko da supriturikan
beren lanak egitea”.

1331

Jaunak: “Zuaz, Ama, Zaragozara
—esana zion orduan—.
Jakoboi esan Jerusalem
etortzeko orainguan.
Erten baiño len Eleiza bat an
jartzeko dagon lekuan;
zuri laguntza an eskatzeko
lutasunan goguan”.

1332

Amak pozikan entzuna zuan
Seme Jaunaren esana;
erantzun zion: “Jaun da Jainko,
nai det zure naia dana.
Danon partetik eskerrak, Jauna,
baimena da nai dedana,
an eskeintzeko nere laguntza,
juatean Jakobengana”.

1333

Kristok erantzun: “Agintzen dizut
itza beteko dedala,
zure bitartez an eskatua
iritxiko dietala.
Eskubideak eman nizkitzun,
aberats jarri ziñala”.
Ama Birjiña berriz poztu zan
promesa beteko zala.

1334

Jaunak esanda milla aingeru
laiño brillante batean,
bertan Birjiña ipiñi zuen
alaitasunez betean.
Bedeinkatuta Bera zerura
juan zan aingeru artean:
Ama agertu, gorputz ta anima,
Zaragozako partean.

1335

Gauerdia zan Ama Birjiña
Zaragozara sartzean,
ta Santiago otoitz egiten
Ebro ibaian ertzean.
Entzun zituen kantu politik
aingeruak ekartzean,
ikasleak e alaitu ziran
dana argi ikustean.

1336

Aingeruak jarri Erregiña
Santiagoren onduan,
ekarria zuen pillare bat,
marmol, jaspe antza zuan.
Beste materi-klase batekin
egiña zuen orduan
Ama Birjiñan imajiña bat
aingeru auek eskuan.

1337

Santiago au auspeztua zan
Ama Birjiñan oñetan,
pillarea eta imajiña
zeuzken auek eskuetan.
Amak bedeinkatu zion eta
esana zion benetan:
“Seme Jakobo, Jainkoak nai du
eleiza leku onetan.

1338

Izan dedilla au otoitz-leku,
nere izena duana:
nere bitartez bere izena
da goratu bear dana.
Fede duenak eskatu dana,
naiz emango dietana;
munduan azkena arte emen
fedea izango dana.

1339

Emen jarriko da pillarea
nere imajiñarekin,
asiko zera eleiza egiten
eta bukatzearekin
biurtu zaite Jerusalem
bizitzan eskeintzarekin”.
Aingeruak pillarea jarri
zuen imajiñarekin.

1340

Santuak eman zizkan eskerrak
Ama Birjiña onari,
eskatu zion anparatzeko
Españiko jendeari.
Jaunak agindu aingeru bati
zaitzeko eleiza ari,
Ama biurtu aingeruakin
alaituta santuari.

1341

Etsai arroak egiten ditu
alegiñak au galtzeko,
eta ezer ezin duanean
dio au ez sinisteko.
Birjiñak asko nai digu guri
grazi aundik irixteko,
eta indarra emango digu
etsaiak menderatzeko.

1342

Ondorenean ikasleari
santuak esan deituta,
musikaz eta argitasunez
zeuden oso arrituta:
nola Ama pillare gaiñean
zeukaten an geldituta.
Bertan eleiza egin zioten
aingeruak lagunduta.

1344

Geroagoan katolikuak
zan eleiza aunditua,
orain daukagun eran eleiza
izandu zan edertua.
Amak etzion Joani esan
Zaragozan gertatua,
gero anaiak esan: “Bi aldiz
izan nau bixitatua”.

1343

Ama Birjiña Zaragozara
milagroz juana zanean,
Jaunaren urte berrogei zala,
ilbeltzan bi zan, gaubean.
Eta etxera Zenakulora
aingeruak ekartzean,
“Jauna, eskerrak” esaten zuan
auspezturikan lurrean.

Zortzigarren liburua

**Nola Santa Maria juan zan
San Joanekin Efesora.**

Nola martiri il zan Santiago.

Nola kastiguz il zan Erodes.

Nola Diana zeuken eleiza erori zan.

**Nola Santa Maria San Joanekin
buelatu zan Jerusalenera Efesotikan.**

**Nola ebanjelista santuari erakutsi zien
Jaunak beraren anima nola goratu zuan.**

**Nola il zan,
zerura igo eta
koroiaz jantzi zuen.**

1345

Berrogeigarren urtea zala
ilbeltzak bost zituala,
Joanek esan zion Amari
denbora etorri zala:
Efesora juateko txalopa
egun artan zijoala.
Kejarik gabe, penatuai esan
bueltatuko zirala.

1346

Askok eskeiñi zien dirua
bearrean gastatzeko,
itxasoraiño karrozarekin
era onean juateko.
Estimatu zien artu gabe,
len bezela agertzeko;
astotxo baten gaiñean jun zan,
Joan zuan laguntzeko.

1347

Eldu ziraden ta sartu ziran
txalopan besten antzera,
Ama Birjiña lenengo aldiz
itxasoan ibiltzera.
Ezagaturik an peligruak
asi zan erregutzera;
Jaunak erantzun: “Zuri, deitua,
elduko naiz libratzera”.

1348

Ama ta Joan bazijuaztela
Efesora itxasuan,
arrai aundiak eta txikiak
jarri ziran inguruan
txalopari estorbatzeraiño,
arritutzeko moduan.
Joanek esan, bedeinkatu ta
juanak ziran segituan.

1349

Egun gutxi barru jetxi ziran
Efesoko lur batean;
gaixo zeudenak sendatzen ziran
Aman aurrera juatean.
Aukeratu zuen bizileku
andre pobrien etxean,
Amarik eman leku bat eta
Joan jarri zan bestean.

1350

Amak eskerrak eman zizkion
etxe-jabe andreari,
bere lekura juana zanean,
adoratuaz Jaunari.
Otoitz egiñaz eskatu zion
laguntzeko Eleizari,
aingeruak biraltzen zizkien
peligruan zeudenari.

1351

Egun aietan igesi juan zan
San Pablo Damaskotikan,
korintiotarrai dien bezela,
jetxita paretetikan.
Aingeruak biraldu zizkion
Amak bere partetikan,
inpernu dana kontra zeukala
errukiz ikusirikan.

1352

Berak dionez, Jerusalem
jun zan Pedro ikustera
Arabiatik Damaskora ta
andikan iru urtera.
Ama Birjiña etzegoan an,
Pedro Santiagoz batera;
eskatu zien barkatutzeko,
eskeiñi zan serbitzera.

1353

Pedrok ikusi zuan Paulo au
Jaunak zeukala onduta,
eskerrak eman eta itzlari
juan zedilla aginduta.
Jerusalenen entzule danak
jarri zitun arrituta,
etsaiak kontra jeiki zitzaizkan
amorrazioz sututa.

1354

Ama Birjiñak Efesotikan
bere berri jakin zuan,
“Paulon bizitza gorde Zuk, Jauna”
eskatu zuan orduan”.
Aingeruak biraldu zizkion
laguntzera peligruan.
Jaunak erantzun: “Paulon bizitza
nik zaituko det munduan”.

1355

Judutar eta Erodes berak
San Paulo an ez iltzeko,
Pedro santuak esana zion
jentilletara juateko,
Zesarean ta Tarson egia
erakusten jarraitzeko.
Ama Birjiñak mesede asko
egin zizkan bizitzeko.

1356

Ama urrena oroitutzen zan
Jakobo illobarekin,
Zaragozako eleiza laga
zuan ikaslearekin.
Eldu zanean Kataluñara
Italiara nai arekin,
itxasoz jun zan Asiaraiño
Aman billa pozarekin.

1357

Billatu zuan Ama Birjiña,
auspeztua zan oiñetan,
eskerrak eman zizkan Amari
negarrez eta benetan.
“Seme Jakobo, izango zera
martiri egun auetan”.
“Ama, zu ikusi zaitzadala
laguntzen ordu orretan”.

1358

Azken orduan Ama Birjiñan
otoitzakin indartuta,
martiri illa izango zala
maitasunez sinistuta.
Ta bere anai Joan santua
negarrez despedituta,
Jerusalena jun zan Jakobo
Birjiñak barruz poztuta.

1359

Judutar gaiztok Eleizan kontra
zeuden arrabiz sututa,
San Paulo ezin arrapatu ta
Jakobo an agertuta.
Kristo gogoz predikatzen zuan
nola bizi dan piztuta.
Bi sorgin jarri zizken austeko
eziñik urreratuta.

1360

Hermojenes ta Fileto ziran,
zeuden etsaiak artuak,
ta Santiagok Kristorengana
izan ziran biurtuak.
Etsaietatik libratutzeko
zerbait zien eskatuak,
zapi bat eta makilla eman,
biak ziran libratuak.

1361

Baiñan denbora asko baiño len
ziran fedia galduak,
Asiatikan Timoteori
esana Paulo santuak:
Hermojenes ta Fileto nola
zituan apartatuak,
eta Jakobon kontra apaizak
erromatarrak artuak.

1362

Ama Efeson Jakobon alde
errezatzen zeguala,
Demokrito ta Lisias auek
diruz erosi zirala;
Santiago au arrapatzeko;
illa izan bear zala;
Josiassek au soka lepotik
lotuta artu zuala.

1363

Eraman zuen Erodesena
soldadu-tropak artuta;
onek agindu zuan iltzeko
laister lepua kenduta.
Danen aurrean Jakobok gogoz
Jesukristo aitortuta:
“Ama Birjiña, lagun eidazu,
nago sententziatuta”.

1364

Ama Birjiñak dana entzun da
bere alde eskatuta,
Jaunak aingeruk biraldu zizkan,
Ama eraman artuta.
Santiago lepua kentzeko
zeuken belaunikatuta,
begiratzean Ama ikusi,
jarri zuan alaituta.

1365

Gaixo ugari inguratuta
danak sendatu zituan,
Ama Jakobok an ikustean
altu itz egin nai zuan.
Aingeru batek: “Ixilik esan”
esana zion orduan.
Bedeinkatu ta dana poztuta,
iñork ikusi etzuan.

1366

Birjiña begira zeguala
kendu zioten lepua,
Ama Birjiñak bere anima
zuan tronuan artua.
Aingeru-talde aundiarekin
zeruan zuan sartua,
Jaunak ipiñi zuan aintzetan
oso asko goratua.

1367

Bere gorputza gaubez ixilik
ikasleak zan artua,
eraman zuen Jopera eta
Galiziara sartua.
Birjiñan bidez aingeru batek
zan bidea zuzendua,
eta beste bat Birjiñan lanak
egiten zan gelditua.

1368

Poz emateko judutarrari
Erodesek aginduta,
Pedro santua preso zeukaten
katez seguru lotuta.
Jerusalenen zegon Eleizak
Jaunari erregututa,
Pedro atera Ama Birjiñak
aingeru bat biraldua.

1369

Juana zan Pedro Zenakulora,
zeuden bildurrez betean;
ezagutu ta iriki gabe
zeukaten Pedro atean.
Nola milagroz ateria zan
angoari esatean,
gau artan bertan igesi zuan
peligruan ikustean.

1370

Kartzelan Pedro etzeguala
Erodesek jakin zuan,
bera zaitutzen zeuden gizonak
kastigatuak zituan.
Eleizan kontra arrotua zan
arrabi aundiaguan,
aingeru batek Erodes jo ta
eritu zuan barruan.

1371

Asi zan bere gorputza galtzen,
illa zan arrak jatean;
bizitza au ta beste bizitza
galdu zituan batean.
Joan Bautista onek il zuan
goiñatakin bizitzean,
Birjiñak negar egiña zuan
galdu zala jakitean.

1372

Baiñan Jainkoa abestu zuan
justua izan zalako;
Eleiza asko ugaritu zan
kontrakorik etzalako,
ez bakarrikan Galilean ta
judutarrak zirialako,
baita Joanek Efeson ere
erakusten zualako.

1373

Joan asi zan Eleiza jartzen
Amaren laguntzarekin,
milagro aundik egin zituan
Jaunaren graziarekin.
Bataiatutzen zituan asko
Kristo sinistearekin,
iñoiz ikusi etziran gauzak
ikusten zeuden berekin.

1374

Griegotarrak beren eskolan
oso zeuden jakintsuak,
asko zirala Joanek danak
ziran kristau biurtuak.
Biraltzen zitun Birjiñangana,
Amak ziran sendatuak,
lagundurikan beren lanetan
nekaturikan eskuak.

1375

Jaunak emanik bere baimena
etsaiari jeikitzeke,
Jerusalenen agindu zien
Amak inpernuratzeke.
Alegin danak egin zituen
emakume au galtzeke,
Jaunak Birjiña indartzen zuan
danak errex zapaltzeke.

1376

Efesok zeukan mesedea zan
Birjiña an bizitzea,
eta etsaiak nai zuana zan
emakume au galtzea.
Ezin zuala, penatutzeke
nai zun animak kentzea;
asmatu zuen moja-itxuran
andre gaiztuak jartzea.

1377

Bildu zituen emakumeak
birjiñak ziran bezela,
eta barruan ezin esan dan
etsaikeriak zeuzkela.
Eder goxo bat ipiñi zuen
beren jaungoiko zuela,
bere izena Diana zuan,
eleizak egin zizkela.

1378

Etsaiak jartzen zuan Diana
argitasun batzuekin,
jende askuak adoratua
zuen ezjakiñarekin.
Pekatu aundi itxusienak
egiten ziran berekin,
Luzifer bere jabea zala
ark erakustearekin.

1379

Au dana eta geiago ere
Birjiñak ikusi zuan,
gizaldietan nola zeukaten
Diana eleiz-buruan.
Bere biotza ilko ezpazan
Jaunak indartu orduan,
eskatu zion: "Jauna, animak
salbatu bitez munduan".

1380

Ama Birjiñak esan Joani
errezatzen laguntzeko,
etzuan asko falta Birjiñak
negar samiñez iltzeko.
Jaunak erantzun: "Indarra dezu
orretan zeuk agintzeko".
Agindu zien etsai guztiak
inpernun ondoratzeko.

1381

Laister jun ziran etsai-taldeak
Birjiñak agindutzean,
onduko ziran beatzi zeuden
andre gaiztoen artean.
Aingeruak auek atera ta
apurtuak izatean,
Diana eta bere lagunak
bertan il ziran batean.

1382

Etsai Luzifer Birjiñan kontra
arro jeiki zan orduan.
aingeru-antza arturik danak
jarri ziran inguruan.
Arrokerizko pentsamentuak
sartu nai zizken barruan.
Ama ain umil, ez ikusteko
sartu ziran inpernuan.

1383

Pedro santuak igesi zuan
Erodesen mendetikan,
Asian bizi zan ta eskatu:
"Etorri, Pedro, ortikan".
San Paulo eta Santu Bernabe
zeuden dudan jarririkan,
baita Maria, Jesusen Ama,
ekarri Efesotikan.

1384

Pedrok augatik karta bat egin
zion Ama Birjiñari:
"Zure mendeko serbitzariak
dio Jaunaren Amari:
Andrea, emen dudak dauzkate
jarritzeko legeari.
Jakin nai due gure bitartez
entzuna Jaun Maixuari.

1385

Banijua ni Jerusalem
anaiai itz egitera.
Eskatzen dizugu etortzeko
Eleiza emen poztera,
Kristoren jarraitzaille ugari
nola dauden ikustera.
Zuk diozuna elduko gera
besteari esatera”.

1386

Eskura eman zion karta au
propio batek Amari;
esana zion: “Pedrorena da”,
mun eman zion kartari.
Joan etxera eldu zanean
emana zion berari:
“Zuk, jauna, letu ta neri esan”
eskatu zan apaizari.

1387

Joanek karta letzean esan:
“Nola nai dezu, Andrea?”.
Erantzun zion: “Zuk diozuna
egingo det nik, semea”.
Joanek esan: “Pedron esana
beteaz obe juatea”.
“Justua eta bearra degu
bere naia egitea”.

1388

Joan juana zan txalopa billa
Palestinara juateko.
Birjiñak zeuzkan emakumeak
an berekin bizitzeko;
irurogei ta amairu ziran
ta deitu despeditzeko.
Birjiñak ziran, baita beatzi
ertenak an ez iltzeko.

1389

Auek zituan, eta geiago,
fedea erakutsiak;
Ama asi zan ala ordaintzen
ango pekatu aundiak.
Esan zizkien Amak auri
oso itz gustagarriak;
paper bat eman eskuz egiña,
auek zizkien jarriak:

1390

“Nere alabak, Jaunak deitzen dit
Jerusalem juateko;
ni faltatzean, ikasitako
dotriña da jarraitzeko.
Beti ezagutu ezazue
Jauna Senar, maitatzeko;
oroitu bere mandamentuak
apaizakin betetzeko.

1391

Beti zaituko zaituet ontan
apaizak lagun deizuen;
nere lekuan Maria Antigua
begira nola dezu.
Egin zazue bere esana,
jakin nola nai dizuen;
eten gabeko erretiruan
jarraitutzen didazuen.

1392

Ez bedi sartu gizasemerik
iñolaz etxe onetan,
itz egitea preziso bada
izan dedilla atetan.
Lagatzen dizkitzuetan kantak
kantatu gogoz benetan,
adoratu ta aitortu Jauna,
poztu zuen biotzetan”.

1393

Abiso auek eta geiago
erakutsi zituanak,
ondo artuak izan ziraden
Amak auri esanak.
Maria Antigua izena zuan
etxea eman zuanak;
kredoa, aitagurea eta
geiago zizken emanak.

1394

Bere aurrean danak negarrez
jarri ziran auspeztuta,
gelditzen ziran beren biotzen
poz atsegiña kenduta.
Danak jarraitu zuen fedean
Birjiñak errezatuta,
gero askotan pozten zituan
ikasleak biralduta.

1395

Eldu zan partitzeko eguna
Jerusalena juateko,
Birjiñak umil eskatu zion
Joani bedeinkatzeko,
biek batean juanak ziran
txalopa baten sartzeko,
bi urte ta erdi zitubenak
Efeson pasatutzeko.

1396

Ama Birjiñak milla aingeru
laguntzaille zituanak,
etxe artatik ateratzean
armaturik zeuden danak.
Abixua zan au Amarentzat
kontuan artzeko lanak:
Luzifer arro bazetorrela
bertan itotzera danak.

1397

Amak ikusi zitun etsaiak
taldeak bildur jartzeko,
ain aundi eta bildurgarriak,
Birjiña menderatzeko.
Eskatu zien aingeruari
beren artez laguntzeko,
Jaunak birtutez indartu zuan
etsaiak ez bildurtzeko.

1398

Joanek etzuan ezagutu
batalla bildurgarria,
Amak esanda entenditua
zuan arrabi gorria.
Biek txalopan abitzeakin
agertu zan asarria,
olatuari entzuten zien
oiu ikaragarria.

1399

Iñoiz etzuen iñork ikusi
era artan itxasua,
ura izan zan aire gaiñetik
lañotaraiño jasua.
Beren txalopa milagroez etzan
golpeakin puskatua,
aingeruak txalopa aidean
zan batzuetan artua.

1400

An zijuaztenak goratze ori
zeukaten ezagututa,
etzekiela zer pasatzen zan
zeuden oso pasatuta.
Etsaiak oiu egiten zien
gizon-itxura artuta:
“Txalopa orri utzi galdutzen
al duenak salbatuta”.

1401

Marineruak pentsatu zuen
salba-lagunak zirala,
oiuka deitzen zien gizonak
salbatuko zituala.
Bakarrik utzi zuen txalopa
nai zuna egin zezala,
baiñan aingeruak zuzenduta
txalopa eraman zala.

1402

Birjiñak zeukan pake aundi bat
bere animan barruan,
zeturten dana ondo artuaz
otoitzak egin zituan:
“Itxaso-lanez bizi diranak,
Jauna, artu Zuk kontuan;
Eleiza santa zabaldu bedi
fedean mundu osuan”.

1403

Amak gorputzez supritzen zuan
ez lan aiek pasatzeko,
baizik etsaiak txalopan danak
jarri Ama tentatzeko:
“Pertsegitu emakume oni
izan dezan supritzeko”.
Joanek asko supritu zuan
Ama zeukala zaitzeko.

1404

Sei egunetan etortzen ziran
Efesotikan onera,
amabost egun pasa zituen,
amalau trumoiz batera.
Joanek: “Ama –esana zion–,
emen al guaz iltzera?
Eskatu zure Seme Jaunari
etortzeko laguntzera”.

1405

Erantzun zion: “Seme nerea,
ez dezazula supritu,
pazientzian artu dana ta
zure burua lasaitu.
Nik eskatzen det guretan iñor
ez dedin ilda gelditu”.
Birjiñan esan onakin Joan
neurri gabe zan alaitu.

1406

Amalagarren egunez Jauna
agertu zan itxasuan,
esana zion: “Ama maitea,
naukazu zure onduan”.
Jaunaren itzak Ama Birjiñan
biotza alaitu zuan,
adoratuta agertu zion
zer apurotan zeguan.

1407

“Nere Jainkoa, dezakezuna,
kalma zazu itxasua,
zuk egindako iñor ez dedin
izan emen ildakua”.
“Ama nerea, gizontasuna
daukat zuk emandakua;
augatik nai det egin dezela
danak zuk esandakua.

1408

Agindu, Ama, kriaturari,
danak dauzkatzu mendean”.
Amak nai zuan Jaunaren itzak
esan oi zuan antzean:
“Andre zerala, agindu zazu,
daude zure esanean”,
Agindu zien: “Alde, etsaiak,
Jainkoaren izenean!”.

1409

Izena zuan Mediterraneo
itxaso artan zeudela,
Luzifer bere talde danakin
Amak biraldu ziela.
Agindu zien olatuari
kalman jarri zitezela;
oso kalmatu, danak arritu,
Jesus onduan zeukela.

1410

Salbatzailleak despeditua
zan Ama bedeinkatuta,
esana zion: "Biyar atera",
alaxe erten poztuta.
Amak eskerrak eman zizkion
kantu berrik prestatuta,
Jerusalena biurtua zan
Joan santua artuta.

1411

Birjiñak zeuzkan milla aingeru,
bazijuazten laguntzeko;
armatuk zeuden, zai zeudelako
etsaiak an tentatzeko.
Eldu ziranen Pedrorengana
auspez oiñetan jartzeko,
eskatu zion bedeinkatu ta
tardatua barkatzeko.

1412

Etzion esan Amak Pedrori
zergatik zan atrasua;
gero Joanek esana zion
nola zuen itxasua.
"Ama etorri zaigu etxera"
Pedrok zuan zabaldua,
ezin izan dan alaitasunez
izan zan ondo artua.

1413

Nai izan zuan Leku Santuak
Birjiñak bixitatzea,
bere aingeru goardakoak
gogoz nairik laguntzea.
Luzifer ere taldearekin
jun zitzaion tentatzera,
autsi nai zuan Leku Santutan,
eldu inpernuratzer.

1414

Pedro santuak buru bezela
aniaiak bildu zituan,
apostolu eta ikasleak,
Ama Birjiñan onduan.
Esana zion: "Nere anaiak,
juntatu gera gaurkuan,
anai Paulo ta Bernaben dudak
jartzera fede santuan.

1415

Onetarako lagun deigula
Jaun Espiritu Santuak".
Otoitz egiten pasa zituen
amar egunak osuan.
Meza santua bitan emanda
ziraden Jauna artuak,
Ama Birjiñak ez jan da ez lo
amar egun pasatuak.

1416

Adoratuta eskatu zion
Birjiñak Jaungoikoari:
"Lagun eiozu Eleizari ta
zure apostoluari,
entendituta erabakitzen
jarraitzeko legeari,
Moisesen legek azkendu eta
indartzeko berriari".

1417

Entzun zan boz bat Irutasunak,
irurak esan zuena,
agindu zien apostoluai
lagun egingo ziena.
Bigarren meza Pedrok emana,
zan egun amargarrena,
bera zalako Aita Santua,
auxe da esan ziena:

1418

“Begira nola anai Paulok ta
Bernabek duen esana”.
Danak entzun da auxe izan zan
lenengo baimendu zana:
lege astunik ez ipintzeko
zirkuntzizioak zuana,
zergatik osasun betikoa
da bataioan emana.

1419

Egin zituen karta batzuek
agertzeko Eleizari:
Antiokia, Siria eta
Zilizian zeudenari.
Eskura eman zizkien kartak
erakusteko berari:
San Paulo eta Santu Bernabe
ta beren ikasleari.

1420

Jaunak agertu egiteakin
au ontzat artzen zuala,
Zenakulon da Antiokian
irakurtzen ai zirala.
Jaun Espiritu Santua jetxi
pozez jartzen zituala,
Jaunari eman zizkan eskerrak
Birjiñak, alaitzen zala.

1421

Santu Paulo ta Santu Bernabek
Birjiña despedituta,
eman zizkien zazpi reliki,
juan zitezen alaituta.
Agindu zien bere laguntza
otoitzarekin batuta.
Etsaiak zeuden Birjiñan kontra
eziñik urreratuta.

1422

Au zan lenengo Kontzilioa
apostoluak egiña,
berenkin ziran apostoluak,
ikasleak ta Birjiña.
Eleizan alde lana egiten
egin zuen alegiña,
Jaunaren berrik eskribitzea
zan Amaren atsegiña.

1423

Askotan Jaunak esana zien
Berri Ona zabaltzeko,
denbora etorria zala ta
Amak erabakitzeko.
Lurrean auspez eskatzen zuan
bere nai au betetzeko,
baiñan buru zan Pedroren eskuz
lege berria jartzeko.

1424

Pedro Santuak Birjiñarekin
onetan itz egin zuan,
Jaun Espiritu Santuari dei
egin zioten orduan.
Jetxi zan boz bat Pedrorengana,
itz auek esan zituan:
“Pedrok izendatu ditzala lau
eskribitzeko munduan”.

1425

Au entzutean Pedro santua
auspeztua zan lurrean
danak eskerrak eman zizkien
auspez Pedroren antzean.
Esaten die: “Anai Mateo
asiko da aurrenean,
Aita, Semea ta Espiritu
Santuaren izenean.

1426

Salbatzaillean erakutsiak
Eleizari agertzeko,
Anai Markos da bigarrenkoa
berriak eskribitzeko.
Lukas anaia irugarrena
Jaunaren berrik jartzeko,
Aita, Semea ta Espiritu
Santua izendatzeko.

1427

Gure anai Joan izan dedilla
laugarren azkenekoa,
Salbatzaillean misterioak
maitez eskribitzekoa,
Aita, Semea ta Espiritu
Santuaren gogokoa,
Irtasunan izen berean
berriak agertzekoa”.

1428

Egun aietan Santu Mateok
idazten asi nai zuan,
Jaunak argia ixuri zeion
otoitz egiten zeguan.
Zenakuloan atek itxita
zeguala koartuan,
Ama Birjiña sartu zitzaion
argizkoa zan tronuan.

1429

Mateok Ama ikusitzean
auspeztua zan lurrera,
jeiki azi ta bedeinkatuta
eldu zan itz egitera:
“Mateo, nere serbitzaria,
nator zuri eskatzera
asi zaitezten eskribituzten
Jaunak nai duan antzera.

1430

Onetarako jetxiko zaizu
Jaun Espiritu Santua,
au izango da maitetasunez
nik berari eskatua.
Ez da komeni eskribitzea
oraindik nere kontua;
bakarrik misterio bearrak:
nola zan enkarnatua.

1431

Jainkoa gizon egitea ta
argitu misterioak;
fedea sendo jartzen danean
gizaldi etortzekoak,
Jaunak esango du nere berri
fabore artutakoak,
denbora ura eltzen danean
dirade agertzekoak”.

1432

Santu Mateok erantzun zion:
“Egingo det agindua”.
Biek erabakitzen zeudela
jetxi Jaun Espiritua.
Beren aurrean idazten asi,
Ama zan ezkutatua;
berrogei ta bigarren urtean
ebroz eskribitua.

1433

Markos santuak idatzi zuan
andik lau urte zirala,
onek ere izketa ebreoz,
Palestinan zeguala.
Asterakuan argitasuna
izatea nai zuala,
aingeru zaindaria biraldu
Amak, argitu zezala.

1434

Ama Birjiñak Markosen alde
eskatu zion Jaunari,
eta Jaun Onak: "Eraman Ama"
agindu aingeruari.
Otoitz egiten zegoan Markos,
Ama agertu berari;
auspezturikan "Ez det merezi"
esana zion Amari.

1435

Erantzun zion Amak Markosi:
"Nator Jaunak biralduta.
Eskribitu zazu Berri ona,
berak dizu agindu ta,
Jaun Espiritu Santuak argiz
maitasunez lagunduta.
Misterio neri gertatuak
ez jarri eskribituta".

1436

Une onetan agertua zan
Jaun Espiritu Santua,
gorputz ta animan Markos izan zan
argi berriak sortua.
Birjiñaren aurrean zan Markos
parte eskribitua.
Ama Birjiña zala orduan
irue ta bat urtekua.

1437

Lukas santuak idatzi zuan
bi urte pasa onduan,
Akaiian bizi zanean eta
izketa griegozkuan.
Ama Birjiña ikusi zuan
eskribitzera zijuan,
bestiak baiño gauza geiago
onek ipiñi zituan.

1438

Amak oneri esan zizkion
nola izan zan sortua
Jaun Espiritu Santuan lanez,
izan zedin sinistua.
"Baiñan fabore artutakoak
ez esan" zan agindua;
orduan jetxi Lukasengana
Jaun Espiritu Santua.

1439

Lukas asi zan eskribitutzen
Ama Birjiñan aurrean,
berak esan zizkion bezela,
alaitasun ederrean.
Ikuste ura oroitu zuan
beti biotz barrunean:
nola agertu zitzaion Ama
argizko tronu gaiñean.

1440

Joan santuak idatzi zuan
bera azkeneko zala,
Jaunaren urte berrogei eta
emezortzi zijuala,
griegoz, eta Asia Menor
leku ortan zeguala,
Ama Birjiña gorputz ta anima
zerura juana zuala.

1441

Nola asi zan etsai Luzifer
erejiak zabaldutzen,
Jaun Espirituz sortua zala
biotzetatik kendutzen,
orreatatik Joan asi zan
gauzak goitikan artutzen.
Ikusi zuan Ama zerutik
jetxi ta urreratutzen.

1442

Aingeruak millaka zeuzkala
Birjiñak aldamenean,
esana zion: "Nere seme Joan,
zaude denbora onean
eskribitzeko misterioak:
Jainko ta gizon batean,
egiazko gizona zalarik
bizi Jainkotasunean.

1443

Baiñan ez artu nik artutako
fabore dakizkitzunak,
baizik Jaun Espirituak zuri
agertuko dizkitzunak.
Nere aurrean asiko zera
eskribitzen ontasunak".
Ama adoratua Joanez,
zeuken aingeru lagunak.

1444

Jaun Espiritu Santuz betea
izan zan Joan orduan,
ta Birjiñari bedeinkatzeko
eskatu bere onduan.
Bedeinkatuta bere laguntza
agindu zion munduan,
beriz Jesusen eskui aldean
jarri zan Ama zeruan.

1445

Jarraitu zagan Ama Birjiña
lurrean bizitzen zala,
eldu zanean irurogei ta
zazpi urte zituala.
Lurrean auspez otoitz egiten
Zenakulon zeguala.
Gabriel santuk aingeruakin
onela esan zuala:

1446

"Agur, Maria, gure Andrea,
nator Jaunak biralduta;
laister eguna elduko zaizu
zaudena deseatuta.
Gaur iru urte biziko zera
zeruko aintzaz batuta,
zure Seme ta gure Jainkoak
eskui aldean artuta.

1447

Amak entzunda auspez lurrean
erantzun zion onela:
"Egin bedi, ba, neregan ori
esan didazun bezela".
Eskatu zien aingeruari
eskertzen lagun zeuela,
bi ordu pasa bertok kantatzen
Amak austen zituela.

1448

Esana zien aingeruari
Jainkoari eskatzeko
mundu ontatik beste mundura
juateko preparatzeko.
Beste aingeru ta santuekin
danak au erregutzeko.
"Egingo degu" esanda juanak
ziran zeruan sartzeko.

1449

Gabriel onak esan ziona
izango zan agoztuan,
Birjiña berriro betea zan
maitasun Jaungoikozkuan.
Apostolu ta ikasleari
idatzi zien orduan,
animatzeko jarraitu zeien
beren lanetan munduan.

1450

Joan santua berekin zeukan
seme zala serbitzeko,
eskatu zion bere baimena
itz batzuek esateko:
“Nere seme Joan, eskatzen dizut
nere alde eskatzeko,
iru urte falta ditut eta
lur erbeste au uzteko”.

1451

Arrazoi auek partitu zuen
Joan biotz barrunean,
erantzun zion: “Nago Jaunaren
ta, Ama, zure mendean.
Ama maitea, lagun eidazu
ni umezurtz gelditzean”.
Ezin itz egin zuan geiago
negar samiñez betean.

1452

Ama Birjiñan azken eguna
zala urreraturikan,
Pedro santuak aingeru batek
ekarri Erromatikan.
Eskatu zion bedeinkatzeko
belauniko jaririkan,
Ama zeguan Zenakuloan
indarrak gutxiturikan.

1453

Paulo santua zan urrengua
Ama ikustera juana,
saludatuta bedeinkatzeko
Amak eskatzen zuana.
Apostolu eta ikasleak
ziran juanak Amagana,
iru egun aurrez betea zan
Zenakulo etxe dana.

1454

Birjiñak esan zion Joani
danak etxean artzeko,
iru egun palta ziradenak
an berekin bizitzeko.
Joanek gazte Santiagori
eskatu lagundutzeko,
gaua pasatzeko leku bana
bakoitzari ipintzeko.

1455

Apostoluak batzuek ziran
aingeruak ekarriak,
bazekiela Amaren berri
izan ziran etorriak.
Ta beste asko etorri ziran
ikasi gabe berriak,
Pedro santuak esateakin
danak negarrez jarriak.

1456

Aita Santua zan Pedro baiñan
negar gogor egin zuan;
zerbait indartu izan zanean
danak eraman zituan.
Ama Birjiña ikusi zuen
erretiroko lekuan,
tarima gaiñean belauniko,
ederra argiz zeguan.

1457

Ematen zuan ogei ta amairu
urte bakarrik zeuzkala,
esana zien Pedro ta Joan
bere onduan zirala:
“Seme maiteok, itz egiteko
baimenan naia dedala”.
Pedrok erantzun bere esana
entzun da egingo zala.

1458

Pedrok eskatu: “Eseri zaite
tariman itz egiteko”.
Bere baimenaz jeiki egin zan,
eskatu bedeinkatzeko;
Aita Santua zalako bere
pekatuak barkatzeko,
bere oiñari mun eman zion
zala negarra sortzeko.

1459

Ondorenean berdin jarri zan
Joan santuan oiñetan:
“Barkatu, nere seme ta jauna,
ez nitzan ama benetan.
Nik eskerrak ematen dizkitzut,
semea ziñan lanetan;
bedeinkatu nazazu jartzeko
Egillean eskuetan”.

1460

Ama Birjiñak despedida au
banaka egin onduan,
zutik jarrita danak batean
entzule izan zituan.
Esana: “Nere seme ta jaunak,
beti zaituet goguan,
maite izanaz eskribituta
nere biotzan barruan.

1461

Zuek jarraitu erakutsitzen
Seme Santuan esanak,
bere bizitza ta eriotza,
egiñaz Eleizan lanak.
Zerura nua, baiñan zerate
aztuko etzaituetanak,
zuk, Pedro, Aita santuak, zaitu
nere seme Joan ta danak”.

1462

Itz auek eta geiago ere
Birjiñak esan zituan,
entzuteakin danak negarrez
auspeztu ziran orduan.
Birjiñak ala ikusitzean
berak negar egin zuan,
une onetan Jainko-gizona
agertu zeuden lekuan.

1463

Aintzaz betea zeruko santu
eta aingeruz batera,
Ama eldu zan adoratuta
oiñetan mun ematera.
Seme Jainkoa danen aurrean
eldu zan bedeinkatzera,
esana zion: “Ama maitea,
nator zu eramatera.

1464

Aitaren aintzan nere onduan
lekua dezu betiko,
sortu ziñutan kulparik gabe
nere Ama izateko.
Orain ez daukazu deretxorik
mundu onetan iltzeko;
nai ez badezu, ator nerekin
beti pozez bizitzeko”.

1465

Birjiñak auspez erantzun zion:
“Nere Seme Jaun maitea,
eskaten dizut: bestek bezela
nai det illa izatea.
Zuk Jaungoikoak nai izan zendun
supritu eta iltzea,
justua da Zuri jarraituaz
iltzen ere laguntzea”.

1466

Ontzat arturik erantzun zion:
“Egin bedi nai duana”.
Orduan bertsolari izan zan
aingeru-taldea dana.
Abestu zuen soiñu ura zan
danak poztu zituana,
etxea bete zan usai gozoz
ta kaleraño zan juana.

1467

Aingeruak kantatzen astean
zan etzan da ildakua,
bere tariman eskuk batuta
ta tunika pegatua.
“Jeiki zaitez, ba, nere ederra”
aingeruak kantatua.
“Zure eskutan jartzen naiz, Jauna,
ta zan ilda gelditua.

1468

Bera il zuan gaixotasuna
zan bakarrik maitasuna,
bere anima onduan jarri
zuana zan Seme Jauna.
Bere gorputza gelditua zan
guztia argitasuna,
bere urteak irurogei ta
amar urrean zituna.

1469

Ama Birjiñan milla aingeru
gelditu ziran zaitutzen,
apostolu ta ikasle aiek
zeuden negarrez urtutzen.
Agertu ziran marabillakin
asi ziraden poztutzen,
beren Amari salmo linguak
jardun ziran kantatutzen.

1470

Gertatu ziran milagro aundik
Erregiña il zanean:
eguzkia illundu egin zan
Jesus ildako antzean;
txoriak kantu tristearekin
sartu etxe barrunean,
etorri ziran gaixo ugari
gelditu osasunean.

1471

Apostolu ta ikasle batzuk
samiñetan ez iltzeko,
bearrezkua izandu zuen
indartzea bizitzeko.
Alguztidunak graziak eman
lanetan jarraitutzeko,
komeni zana egin zezaten
gorputza enterratzeko.

1472

Obi-leku bat arkitu zuen
gorputza an ipintzeko,
gogua zeuken Jesus bezela
ukenduz igurtzitzeko.
Bi emakume gazte zituan
enkarguak ekartzeko,
aueri esan zien igurtzi
ta maindirean biltzeko.

1473

Amak aueri laga zizkien
berentzat tunika bana;
apostoluak eskatu zien:
“Errespetoz egin lana”.
Bi neska auek igurtzitzera
juanak ziran Amagana,
argitasunak itxutu zitun
ta zan ezin zeikeana.

1474

Apostoluak au entzutean,
Jainkoak ispiratuta,
esana zuen: “Gorputz au ezta
artu bear ikututa”.
Pedro ta Joan argi artera
sarturik urreratuta,
entzuna zuen: “Agur, Maria”
aingeruak kantatuta.

1475

Pedro ta Joan soiñuk entzuten
egon ziran arrituta,
Jaunari otoitz egin zioten
biek belaunikatuta.
Nola lan ori egingo zuen
agertzeko eskatuta,
erantzun zien: “Erantzi gabe,
ikutu gabe artuta”.

1476

Pedro ta Joanek gorputz santua
eldurik tunikatikan,
ipiñi zuen kamilla kajan
arturik tarimatikan.
Etzan mugitu ezertan ere
zedukan posturatikan,
eraman zuen enterratzer
espaldetan arturikan.

1477

Josafateko baillean zeuken
berentzat obi-lekua,
gorputz santua agirian zan,
agertzen zan argitua.
Jerusalengo jende-taldea
zan berari jarraitua,
danak argikin eta bat ere
etzan izan gastatua.

1478

Berenkin ziran milla aingeru
soiñua joaz bidean,
apostolu ta ikasle askok
entzuna zijuaztenean.
Soiñu alaiak jarraitu zuen
jotzen iru egunean,
baita millaka talde aingeru
jetxiak une berean.

1479

Zeruko santuk jetxi ziraden
aingeruakin batean,
Santu Joakin, Santa Ana ta
San Jose beren artean.
Santa Isabel, seme Bautista,
Jesus Jaunak biraltzean,
agertu gabe ibili ziran
entiarrora juatean.

1480

Gorputz santua eraman zuen
zeru-lurrak lagunduta,
ingurun ziran gaixo guztiak
jarri ziran sendatuta.
Etsaiak artuta zeuden asko
geldituak libratuta,
igesi zuen Ama Birjiñan
gorputza inguratuta.

1481

Ta marabilla aundiagoak
izan ziran gertatuak,
judutar eta jentil ugari
bataioa eskatuak.
Ama Birjiñan erruki arek
zeuzkan biotzak artuak,
apostoluak eramatean
ziran biotzez poztuak.

1482

Eldu ziraden gorputz santua
enterratzeko lekura,
Pedro ta Joanez artua zuen
gorputza lengo modura.
Ipiñi zuen obi-lekuan
Amaren gorputz il ura,
tapatu zuen toallarekin
zalako beren oitura.

1483

Arri-losakin itxi zioten
obi-lekuan atea,
aingeru-talde eta santuak
nai izan zuen juatea,
ta bere milla aingeru aiek
beren lana egitea.
Jarraitu zuen soiñuak jotzen,
pozgarri zan entzutea.

1484

Jende-taldea despeditu zan
beren etxera juateko,
apostoluak jua da etorri
musika ori zaitzeko.
Zeru-txoriak etorri ziran
bertan triste kantatzeko,
baita basoko animaliak
beren pena agertzeko.

1485

Usai gozoa Zenakuloan
Birjiñak laga zuana,
urtebete osuan izan zan
usai au kendu etzana,
erretiroko bere lekuan
uste askuan izana.
Etxe au zuen bear guztiak
erremeitzen zituana.

1486

Jerusalengo pekatu eta
an bizi ziran gaiztuak,
sendatuzeko zeuzken graziak
etziran merezituak.
Urte batzuek pasa onduan
izandu ziran kenduak,
fede gabeko judutar batzuk
zeuden arri biurtuak.

1487

Zerutar soiñuk ixildu ziran
irugarren egunean;
anima santa zerutik jetxi
ta gorputza ikutzean,
Ama Birjiñan gorputz santua
piztua zan istantean,
orretarako bere baimena
Seme Jaunak ematean.

1488

Ama Birjiña gorputz ta anima
aingeruz inguratuta,
eraman zuan zeruetara
Jaunak onduan artuta.
Irutasunak ipiñi zuan
neurri gabe edertuta,
Erregiña ta Ama degula
betiko izendatuta.

1489

Bere tunika eta toalla
gelditu obi-lekuan,
arri-los ura ikutu gabe
Ama sartu zan zeruan.
Zein ederra zan aintzaz betea
ezin da esan munduan,
Jesussek bere Ama zalako
grazi-doaiz bete zuan.

1490

Zeruan danak gelditu ziran
Erregiñari begira,
arriturikan kantatzen zuen,
misteriogarriak dira:
“Erten, Siongo alabak, eta
begiratu arpegira;
nor da ain gora erbestetikan
etorri dana erdira?”.

1491

Irutasunak daukan tronura
Birjiña zan eramana,
Betiko Aitak esana zion:
“Igo, maitea zerana”.
Seme Jainkoak: “Ama nerea,
neri gorputza emana,
lanetan lagun izandu zera,
artu orain ordain dana”.

1492

Jaun Espiritu Santuak esan:
“Poztu, Emazte maitea.
Pasa zan egun supritzekua,
bizi gurekin batea”.
Ama Birjiña gelditua zan
Jainkotasunez betea,
auxe izan zan santu guztiak
poz geiago izatea.

1493

Salbatzailleak apostoluak
laga zituan orduan,
esana zien ez bildurtzeko
beren biotzak munduan.
Leku on asko sariarekin
Aitak zeuzkala zeruan,
bakoitza pozez biziko zana
beretzako zan lekuan.

1494

Jaungoikoa da espiritua,
ez du tronuan bearrik,
baiñan gorputzan begiarekin
ez daukagu ikasterik.
Animan begiz ikusitzen da,
ez dago konprenditzerik;
eskeintzen digu betiko poza
grazi-doaiez beterik.

1495

Esaten degu entenditzeko
Jauna dagola tronuan,
Jaunak aintzazko bizitza dauka
betikotasun osuan.
Berak santuai ematen die
aintza berea zeruan,
Jesus ta Ama gorputzarekin
bizitza Jaungoikozkuan.

1496

Deitzen diogu *Jainko-tronua*
bere betiko aintzari,
iñorengandik ez datorrenari,
laguntzen sortu danari.
bera da Jauna eta Jabea,
Errege ta Agintari,
danon Jueza; eta emana
zan dana Kristo Jaunari.

1497

Ezin da neurtu santuen aintza
gure pentsamentuetan,
baña serbitzen bezela daude
Jesukristoren oiñetan.
Bere urrena Ama Birjiña
dago zeru goienetan;
bere onduan du Erregiña,
lagun bere esanetan.

1498

Ama Birjiña leku onetan
Jaunak jarri zuanean,
Betiko Aitak zerutarrari
esana ondorenean:
“Maria au da aukeratua
guk sortu genduanean,
Andre Erregiñ izan bear du
koroia jazten danean”.

1499

Seme Jainkoak esana: “Nere
Ama egiazkoari,
Nigatik sortu ta erosiak
danak zor zaizka berari.
Errege nauen guztia eman
bear zaio Erregiñari”.
Urrengo itza entzun deiogun
Espiritu Santuari.

1500

“Nere Emazte bakarra eta
aukeratu genduana,
egin bearrak zituan danak
ondo egin zituana,
zor zaio Erregiñan koroia
betiko izango dana”.
Irtutasunak ipiñi zion
koroia ederrena zana.

1501

Koroia eder au aintzazkua zan
brillante baliokua,
zeru guztiak ain ederrikan
zan ikusi gabekua,
ta iñoiz ikusiko ez dana,
Amari jantzitakoa,
eta entzun zan Irtutasunak
onela esandakua:

1502

“Gure laguna, danen artean
zerana aukeratu,
gure erreinua zurea dezu,
dana dezu mendekua.
Zu zera, Andrea, Erregiña,
entzun ta agintzekua,
graziz betea zeundela ziñan
umillena agertua.

1503

Zure tronutik zuk agindua
beteko da lur barruan,
ematen dizugun indarrakin
aulak dira inperuan.
Etsaiak eta kondenatuak
Zu ezagutu onduan,
bildurrez mende biziko dira
betikotasun osuan.

1504

Erregiñ izan lurrean dauden
kristura guztiakin,
zure eskutan jartzen ditugu
egoaldiak euriakin.
Baita lurrean dauden frutuak
zaitu zure goguakin,
gure gogua prest egongo da
jarraitzeko zureakin.

1505

Izango zera Andre Erregin
gizonari agintzeko,
eriotza gelditu azi ta
bizitza kontserbatzeko.
Izango zera Ama Maistra
Eleizari laguntzeko,
izango zera katolikuen
Zaindaria zaitutzeko.

1506

Baita Adanen seme edozein
zuri deitzen dizuana,
maiteaz eta zu serbituaz
obligatzen zaituana.
Anpara zazu bere lanetan
emanaz bear duana,
izango zera justu danentzat
laguna ta kapitana.

1507

Danak alaitu bear dituzu
maite zaituen bezela,
indarturikan ta beterikan
gauza onak dituela.
Onetarako jartzen zaitugu
zu ekonomia zaudela,
gure graziak zure eskutik
gizonak artu ditzela.

1508

Zure ezpaiñetan ixuri da
grazia zuk zabaltzeko,
zeru-lurrean eta danean
zure naia betetzeko.
Aingeruak ta baita gizonak
gurek dira, zuk artzeko;
zu beti izan ziñan gurea,
zera beti agintzeko”.

1509

Alguztidunak agindu zien
zeruan zeuden danari
mendetasuna agertutzeko
Andre ta Erregiñari.
Ta beste misterio bat zuen
ordaintzea Birjiñari,
berak ain umil adoratuzten
zielako santuari.

1510

Ama Birjiña, graziz betea,
santa zan bizi zanean,
egiazko Jainkoaren Ama
umiltasun aundiñean.
Santuak adoratzen zituan
agertzen zitzaizkanean,
Ama danak adoratu zuen
jarririk bere mendean.

1511

Baita santuak bizi ziranak
gorputzarekin zeruan,
adoratu zuen auspezturik
Ama Birjiña orduan.
Koroi jartze ta adoratzeak
arritzeko aintza zuan,
beretzako ta santuentzako
pozak berritu zituan.

1512

Baita're Irutasun Santuak
zan dana ontzat artua,
egun ura zan danean pesta
ta aintza ugaritua.
Geiena poztu ziranak ziran
bat senar Jose santua,
Santu Joakin, Santa Ana ta
zuenak ezagutua.

1513

Erregiñaren petxu barruan
izan zuen agertua,
globo-itxuran eder dizdiraz
Jesus Sakramentatua.
Santuak zeuden pozez ikusten
arrigarriz gertatua,
izan zalako sagrarioa
Ama Birjiñan petxua.

1514

Laga dezagun Ama Birjiña
Seme Jaunaren zeruan,
bere Erregiña izango da
betikotasun osuan.
Begira zagun apostoluak
nola dabilzan munduan,
negarrak ezin ixildurikan
obi-lekuan onduan.

1515

Soiñuak jotzen jarraitu zuen
bere milla aingeruak,
geienak zaitu zuenak ziran
Pedro ta Joan santuak.
Irugarren egunean ziran
soiñu aiek ixilduak,
Jaun Espiritu Santuak ziran
gizon aiek argituak.

1516

Esana zuen gorputz il ura
piztua izango zala,
soiñuak jotzen zituen aien
arrastorikan etzala.
Pedro Eleizan buru zalako
jakitea nai zuala,
bildu, ikusi zuen guztiak
au jakin bearra zala.

1517

Pedro santuak esana zien:
“Komeni da ikustea:
illa ikusi zenduen danak
gertatua jakitea,
nola pasa dan marabilla au
Eleizari agertzea;
gizaldietan izan leikela
aintza ugaritutzea”.

1518

Entzule danak ontzat arturik
Aita Santuan esana,
jasoa zuen arri-los ura,
zala berak nai zuana.
Eldu ziraden ikusitzera
ta zan utsik zeguana,
bere tunika utsa zeguan,
gorputza zan piztu zana.

1519

Tunika utsa billatu zuen
ilda laga zan bezela,
ezagutu zan arri erropak
mugitu etzituela.
San Pedrok artu zuan eskuan
danak ikusi zeuela,
toailla berdin, berekin danak
adoratu zituela.

1520

Ezagutua izan zan danak
gorputz ura piztu zala,
Seme Jainkoak Ama Birjiña
zerura jaso zuala.
Pozez ta miñez zelebratu zan
malkuak juaten zirala,
kantatu zuen Jaunak Amakin
gloria izan zezala.

1521

Baiñan jarraitzen zuen begira
danak oso arrituta,
gorputza egon zan lekutikan
eziñik apartatuta.

Aingeru bat jetxi zan zerutik
Amak auei biralduta,
esana zien: "Gizonak, emen
zer dezue geldituta?"

1522

Zuen Erregiña ta gurea
bizi zaizue zeruan,
gorputz ta anima Erregiñ dago
betikotasun osuan.

Kristorekin dago ta esan dit
au jakiteko munduan:
zuen alde eskatzen duala,
bizi Eleiza Santuan.

1523

Animak konbertitu ditezen
Berri ona zabaldua,
lan orretara juatea nai du
emendikan jiratuta;
biziko zeratela lanetan
Amak andik lagunduta".
Apostoluak berri onekin
jarri ziran indartuta.

1524

Apostolui lagundu zien
lanean zebiltzanean,
askoz geiago lagundu zien
martiri il ziranean.
Banaka danari agertu zan
iltzera zijuaztenean,
beren animak zerura jaso
zituan il ondorean.

1525

Amak zituan irabaziak
bere birtute lanakin,
gelditzen dira ezagutzeko
zeruan ikusteakin.
Bakoitzak ikusiko du Ama
dituan merituakin,
mundu onetan irabazita
emango zaizkionakin.

1526

Gauza geiago esaten dira
Ama piztu zanequak,
baiñan ez dira auek izandu
neri agertutakuak.
Bere bizitzan ez ditut jarri
ezer asmatutakuak,
baizikan erakutsi zaidana
idazteko aginduak.

1527

Eskerrik asko guztiagatik
Jaungoiko gure Jaunari,
merezi gabe Ama Birjiña
guri eman zigunari;
bere Semean odolarekin
erosi ginduanari,
bere bizitza eskribitzea
erakutsi didanari.

1528

Jakin dezagun: Ama Birjiña
bertsolaria genduan,
aingeruakin bertsok kantatzen
autsi egiten zituan.
Nik paperikan gabe ezin det,
ori ikasi ez nuan;
zorianak bertsolari danari,
segi kantatzen munduan.

1529

Gipuzkoako Aiakoa naiz,
etxe Zialtzetakua,
Esteban Santuaren eleizan
niñuen bataiatua.
Eleiza ontan asko alditan
sakramentuak artua,
oso maitea genduan danok
Ama Doloretakua.

1530

Basarritikan atera nitzan
moja-etxean sartzeko,
barruan neukan deia beteaz
beti moja bizitzeko.
Iloba batek eskatu zigun
libru bat eskribitzeko,
Jaunak eman dit argitasuna
bertso berritan jartzeko.

1531

Orbegozotar Joxe Mari da
aizparen seme maitea;
Aian bizi da, Aurizenea
Jemma dauka emaztea.
Gozategi Enparantzan daude,
zortzigarrego atea,
onek egingo digu librua
maitetasunez betea.

1532

Aueri biraltzen dizkiet nik
bertsok libruan jartzeko,
Ama Birjiñan debozioa
biotzetan indartzeko.
“Eman eiguzu zure eskua
fedeakin bizitzeko,
eta azkena degun orduan
artu zeruan sartzeko.

*Orduñako Santa Klaran,
1998-ko martxuan, 25 egunean.*

Aurkibidea

Itzaurrea	7
Doiñuak	19
Lenengo liburua: Santa Maria izan zan Jaunak aukeratua. Izan zan Sortzez Garbia. Bere jaiotza. Bere egitekoak eta nola izan zan Eleizan eskeiñia.....	21
Bigarren liburua: Zeruko Printzesa eskeiñi zan Eleizan Jaunari. Artu zituan faboreak. Ain zuzen egin zituan bere lanak. Bere birtute aundiak. Nola esposatu zan Joserekin Eleizan.....	33
Iruugarren liburua: Nola enkarnatu zan eta egin zan gizon Jaungoikoaren Itza. Nola bixitatu zuan bere lengusu Santa Isabel. Nola grazian jarri zan jaiio baiño len Bautista. Nola biurtu zan Nazaretera, eta nola uxatzen zituan etsaiak.....	47
Laugarren liburua: Nola San Josek ezagutu zuan aurdun zegoala bere emaztea. Izan zituan errezelak. Jesukristoren jaiotza. Nola jarri zien Jesus izena. Nola adoratu zuen Erregeak. Nola izan zan Jesus Aurra eskeiñia Eleizan. Nola igesi juan ziran Ejitora. Nola Erodese il zituan aurrak eta bueltatu ziran Nazaretera.....	61
Bostgarren liburua: Nola ziran Santa Mariak imitatuak Jesus Jaunaren erakutsiak eta fedeko gauzak. Jose Santuaren eriotza. Joan Bautistaren predikatzeak. Jesusen barauak eta bataiatzea. Lenengo ikasleak biltzea eta nola izan zan bataiatua Ama Birjiña.....	87

Seigarren liburua: Nola izan ziran Galileako Kanan eztaietan. Nola Santa Mariak lagundu zion bere Seme Jaungoikoari, predikatzen zebillenean. Zein umil agertzen zan Erregiña, bere Semeak milagruak egiten zituanean. Nola agertu zan transfiguraturata. Nola sartu zan Jerusalemenean. Bere Pasio eta Eriotza. Nola triumfatu zuan gurutzetik, etsaiak menderaturata. Salbatzaillearen piztuerara gloriosua, eta bere zeruetara igotze arrigarria..... 113

Zazpigarren liburua: Nola indartu zuan Jaunak Zeruko Erregiña doai aundiakin, Eleiza Santaren alde jarraitzeko lanean. Nola etorri zan Espiritu Santua. Nola frutu asko ematen zuen apostoluen predikatzeko. Lenengo pertsekuzioa Elizaren kontra San Pauloren konbertsioa. Santiago Espaiñiara etortzea. Jaungoikoaren Ama agertzea Zaragozan. Ama Birjiñaren eleiza Pillarekoa nola egin zuen..... 193

Zortzigarren liburua: Nola Santa Maria jua zan San Joanekin Efesora. Nola martiri il zan Santiago. Nola kastiguz il zan Erodes. Nola Diana zeuken eleiza erori zan. Nola Santa Maria San Joanekin bueltatu zan Jerusalemenera Efesotikan. Nola ebanjelistak santuari erakutsi zien Jaunak beraren anima nola goratu zuan. Nola il zan, zerura igo eta koroiaz jantzi zuen. 209

**Auspoa-ren azken
liburuak:**

261 Manuel Lasarte: *Uztapide
gogoan*

262 Antonio Zavala: *Auspoaren
auspoa, III*

263 Antonio Zavala: *Oiñez eta
jakin miñez, II*

264 Joxe Mari Aranaide: *Bertso
kontuak*

265 Bizente Barandiaran:
Tratabideak

266 Sor Justina Aldalur: *Ama
Birjiñaren bizitza*



1051104
G-129/15



Sor Maria de Jesús de Agreda Soriako eta XVII mendeko moja bat izan zan. Berak idatzia da *Mística Ciudad de Dios* izeneko liburua, prosaz eta Ama Birjiñaren bizitza kontatuz.

Sor Justina Aldalur, berriz, beste moja bat degu, Aiako alaba eta gaur Orduñako Santa Klara Komentuan bizi dana. Onek, bertsotan jarri ditu Soriako mojarren liburuan esaten diranak, ez itzez itz, baiña bai "gauza aundiñak", berak dionez esateko.

Aren jaiotetxea dan Zialtzeta baserrira ere garai bateko kanta-paperak sartzen ziran, eta berak, gazte-denboran, moja joan aurretik, bertso-sail oiek etxeko sukaldean kantatzen zituan jai-arratsaldeetan, gurasoak entzule zirala.

Ala, orduan bertsozaletu eta gero komentuan bertsogintzan asi. Sail asko moldatu ditu, eta batzuk plazaratu ere bai. Baiña onako au du danetan nagusia; bearbada, iñoiz argitara atera dan saillik luzeena, 1.532 bertso dituan ezkeru.

Ordu onean betor gugana, beraz, euskal bertso-baratza oparoaren emaitz berri au.



Aiako Udala

ISBN 84-95378-04-3



9 788495 378040



Auspoa

G-